



Soziolinguistika

aldizkaria



XI. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA
SARIAK





bat Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

**XI.
HAUSNARTU
EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKA
SARIAK**



● **HELBURUA**

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hauentzat bere jardura esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● **EDUKIA**

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaión disziplinartekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren lanek hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● **ARGITARATZAILEA**

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● **ZUZENDARIA**

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● **ARGITALPEN BATZORDEA**

Bartzordekideak

Estibaliz Amorrtutu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
eamorrtu@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkarte)
inmunoa@ehi.ikastola.net

Beñat Garaio
benyat@garaio.es

Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
paula.kasares@unavarra.es

Eneko Gorri (Biarritzko Herriko Etxeko euskara teknikaria)
euskara@biarritz.fr

Koordinatzailea
Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
b.uranga@soziolinguistika.eus

● **HARPIDETZA ETA SALMENTA ARDURADUNA**

Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.eus
943 592 556

● **ALDIZKARIAREN DISEINATZAILEA**

Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● **HARPIDETZAK**

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitez harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● **WEBGUNEAK**

Aldizkariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.eus** helbidean. Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.

● **HARREMANETARAKO**

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

943 592 556

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA: SS120/90
INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Miren Artetxe Sarasola, Paula Elosua, Zigor Etxeburua Urbizu, Izaskun Kuartango Atxa, Onintza Legorburu Larrea, Irati Lizeaga Elizalde, Antton Peñalba

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikuluak bi artikulu-ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

idatzi bat aldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

uztaro

giza eta inguratu-zientzien aldizkaria

2018 - 104

Uztaro aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2018. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoa markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

109

XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

> **HITZAURRE GISA**
Belen Uranga **007**

Lehen SARIA)

01. Bezero misterioaren teknika herri-administrazioetako
zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan.
Izaskun Kuartango Atxa **011**

Bigarren SARIA)

02. Hiztun berriak eta bertso-mundua.
Miren Artetxe Sarasola **045**

Hirugarren SARIA)

03. Lintzirin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan oinarritutako
Euskara Sustapen Ekintza Plana (ESEP).
Irati Lizeaga Elizalde **073**

04. Genero roler hitanoaren erabilera izan duten eragina:
Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak.
Onintza Legorburu Larrea **111**

05. EAEko Administrazioa euskalduntzeko sistema.
Balantze bat eta aurrera begirako proposamen batzuk
Zigor Etxeburua Urbizu **139**

GUREAN ATALA

Komunikazio-kompetentziaren ebaluazioa eremu urriko hizkuntzak
biziberritzeko lurraldeetan. EGAREN proba idatzia.
Paula Elosua eta Antton Peñalba **161**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikuluko akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikuluen hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharra. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikuluen bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikuluen amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epea. Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



Azken aspaldian ohikoa den bezala, 2018ko BAT Aldizkariko urteko laugarren zenbakiak HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak emandako lanik hoberenak bildu ditu, kasu honetan, 109 zenbakian. Hona-koa, lehiaketaren XI. edizioa izan da, eta, zalantzarik gabe esan daiteke, euskararen biziberritze-prozesuaren ikerketa-esparruan bere erreferentzialtasuna lortzen ari dela.

Horrela, bertara aurkezten dira gero eta jakintza-esparru desberdinagoetan landutako lanak. Alde batetik, hizkuntza-plangintzari dagozkionak, eta, bestetik, soziologia edota antropologia diziplinetan landutakoak. Metodologikoki ere, desberdinak dira lanak, batzuk ikerketa zientifikotan oinarritutakoak direlako eta besteak haus-

narketa eta proposamenetan ekarpen sendoak egin nahi dituztelako. Horrela, gero eta egoera historiko, sozial eta linguistiko konplexuagoan eragin behar den honetan, ezagutza areagotzen laguntzeko tresna garrantzizkoa bilakatu da HAUSNARTU lehiaketa.

Aurtengo edizioan irabazleak izan diren hiru lanak biltzen dira, beraz, BAT 109 zenbaki honetan, eta, baita, saria jaso ez arren, HAUSNARTU epai-mahaiari eta BAT Argitalpen Batzordeari interesgarria iruditu zaion beste artikulua bat ere.

Hasteko, aipatu behar da lehiaketan lehen saria jaso duen **Izaskun Kuartango Atxaren** "Bezero misterioitsuaren teknika herri-administrazioetako zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan" lana. Bertan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zerbitzu-hizkuntzaren ebaluaziorako gaur egun erabiltzen dituen bitartekoak deskribatzeaz gain, EAEko administrazio desberdinetan, zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko

proposamen zehatzak eskaintzen dira. Epai-mahaiaren ikuspegitik, berritasun nabarmena da marketinaren esparruan hain ezaguna den metodologia hau zerbitzu publikoaren ardurak ebaluatzeko proposamena egitea.

Lehiaketaren bigarren saria jaso du **Miren Artetxe Sarasola** EHUKo irakasleak “Hiztun berriak eta bertso-mundua” lanarengatik. Estilo oso dotorean idatzitako testua, saiakera-esparruko hausnarketa-maila oso altuko lana da berau. Izan ere, maila pertsonaletik egindako hausnarketa psikologikotik abiatuta, komunitate-mailako soziologiara egiteko moduan da egilea, eta hain zuzen, hori izan da epai-mahaiak hobekien baloraturako aldea, alegia, bertso-mundutik gizartearen beste esparruetarako ideia iradokitzaileak ere eskaintzea.

Izan ere, oso egunean dagoen gaia da hiztun berrien bizipen askotarikoak, bai auto pertzepzioaren ikuspegitik zein komunitatearen bertatik ere ematen den erantzunengatik. Kasu honetan, hiztun berrien hizkuntza-identitatea eta hizkuntza-erabilera analizatu da, bertsolaritzaren bidetik euskaldundu diren hainbat kasu hurbiletik begiraturaz; gainera, testuinguru soziolinguistiko bereziki zaila duen Ipar Euskal Herriko testuinguruan. Azken finean, egi-leak berak aipatzen duen eran, interesa

du ikusteak, zein eragin duen bertsotan trebatzeak eta bertso-munduan sozializatzek hitzun berrien legitimazio-prozesuan. Hori guztia, aldi berean, beste esparru batzuetako prozesuak hobeto ulertzeko lagungarri izango diren zantzuak biltzen direlarik.

Irati Lizeaga Elizalde teknikariak jaso du lehiaketaren hirugarren saria “Lintzirin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan oinarritutako Euskara Sustapen Ekintza Plana (ESEP)” lanarengatik. Lan horretan, egileak datu-bilketa handia egin du ezagutzeko zein den gunekomertzial horretara biltzen den populazioaren perfila eta egiten duten hizkuntza-erabilera; horrez gain, batez ere *arnasguneak* deituriko udalerri euskaldunetan aplikagarriak den Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELE) metodologiaren aplikagarritasuna ere agerian jartzen du. Ondorioz, eremu geografiko eta funtzional desberdinetan modu sistematikoagoan erabil dadin lagungarri izan daiteke.

Lanak, beraz, Lintzirin merkataritza-gunea du aztergai. Gunea udalerri oso euskalduna den Oiartzun herriko lurretan egon dagoen arren, bertaraten diren kontsumitzaileak

gune ez hain euskalduneko Irun eta Donostiatik ere etortzen direla baieztatu da. Ikerketa honek kontsumitzaile horien hizkuntza-hautuak agerian jarri ditu eta horiek zer nolako eragin linguistikoa duten, Oiarzungo *arnasgune* deitu daitekeen udalerrian. Jakina, eragin hori mugatzeko ekin-tza-plana ere proposatu du egileak.

Proposamenok ez dute izaera betearazlea, eta horrek hainbatetan eman dezake proposamenaren ahuleziaren itxura, *desideratum* batean geratzen itxura emanez. Baina lanaren berezko balioa ere bada agerian jartzea errealitatearengan eragiteko dauden egiturazko zailtasunak.

Lehiaketan saririk jaso ez arren, BAT aldizkariko zenbaki honetan argitara eman nahi izan du batzordeak **Onintza Legorburu Larrea** euskara teknikariaren honako lana: “Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak”. Lan horretan, gaur egun azterketa ugari eskatzen ari den generoaren arabera hizkuntza-hautuak nola eta zergatik gertatzen diren aztertzen da, baina, espezifiko are eta modu sakonagoan galtze-prozesuan dagoen hitanoaren erabilera. Ikerketak erakusten du gizarteko beste desoreka batzuen isla bezala, kasu honetan ere, alde nabarmena dagoela gizonezkoen eta emakumezkoen hitanoaren erabileran. Erabilera horretan identitate-gaiak ere tartean direlarik, *hizkuntza-muda* hitanoaren alde gertatzea ahalduztze-prozesuaren ispilu ere izan daitekeela adierazte da lanean, eta

hori desberdin gauzatzen dela emakumezkoen eta gizonezkoen kasuetan.

BAT Aldizkariko **Gurean atalak** bi artikulua bildu ditu. Lehenengoa da **Zigor Etxaburu Urbizuk** idatzitako “EAEko Administrazioa euskalduntzeko sistema. Balantze bat eta aurrera begirako proposamen batzuk” lana. Bertan, EAEko 86/1997 dekretua aztertuta da IV eta V. Plangintzaldien ebaluazioak erabilita. Azterketa egin eta ebaluazioa kontuan hartuta, dekretu berria izan beharko lukeenaren inguruan proposamen zehatza egin du egileak, gutxienik honako lau ezaugarri hauek ziurtatu beharko liratekeela aldarria eginez: hizkuntza-eskubideak bermatzea, erabilera errazteko neurriak ziurtatzea, prebentzioa arretaz zaintzea eta eraginkortasun irizpidea barneratzea.

Azkenik, BAT 109 zenbakia ixten duelarik, **Paula Elosuak** eta **Antton Peñalbak** idatzitako “Komunikazio-kompetentziaren ebaluazioa eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan. EGAREN proba idatzia” artikulua irakur daiteke. Bertan aztertuta da Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) proba, batez ere, proba idatziaren inbariantza, ebaluatuak diren hiztun-profil desberdinak bereiziz: etxean H1 bezala, etxean gaztelaniarekin batera eta H2 bezala ikasi dutenak. Azpimarratu nahi da zein garrantzitsua den komunikazio-kompetentzia ebaluatzen proben bidez lortutako emaitzen baliagarritasun-analisiak egitea, probatan oinarrituta hartzen diren erabakiak zuzenak eta bidezkoak izan daitezen. Hori guztia, jakina, oso kontuan hartu behar baita, euskara eremu urriko hizkuntza izanik, hizkuntza horretako kompetentzia egiaztatzearen ondorioak larriak izan dai-

bat **dossierak**



1

Bezere Misteriotsuaren Teknika herri-administrazioetako zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien XI. Edizioko
LEHEN SARIA (2018)

Izaskun Kuartango Atxa

Hizkuntza normalizaziorako teknikaria. Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritzak
izaskunkuartango@hotmail.com

Sarrera-data: 2018-10-05 / Onartze-data: 2018-11-05

Laburpena. Lan honek Bezere Misteriotsuaren Teknika du aztergai, eta horrek herri-administrazioetan zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko ematen dituen aukerak. Azterlanaren abiapuntua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza zerbitzu-hizkuntzaren ebaluaziorako egun erabiltzen dituen tresnen deskribapena da, horien indarguneak eta mugak identifikatuz. Ondoren, bezere misteriotsuaren teknikaren ezaugarriak azaldu, eta horren erabileraren esperientzia ezberdinak jaso dira: zerbitzu publikoen ebaluaziorako egindakoak, eta zehazki zerbitzu-hizkuntzaren bermearen ebaluaziorako egindakoak ere. Azkenik, EAEko herri-administrazioetan Bezere Misteriotsuaren Teknikaren bitartez zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko jarraibideak eta galdetegi eredu orokor bat proposatu dira. • **Hitz gakoak:** *Administrazioa, zerbitzu-hizkuntza, ebaluazioa, ikerketa-teknikak, Bezere Misteriotsuaren Teknika.*

Abstract. The purpose of this study is to analyze the Mystery Shopping Technique and its potential for the evaluation of the language of service in public administration. As a starting point, a description has been made of the tools currently used by the Basque Government's Regional Vice-Ministry of Language Policy in the evaluation of the language of service, identifying their strengths and limitations. Next, the main characteristics of the Mystery Shopping Technique and different examples of its use have been described: both in the evaluation of public services in general, and in the evaluation of the guarantee of the language of service in particular. Finally, some methodological guidelines and a general questionnaire model have been proposed to apply the Mystery Shopping Technique in the evaluation of the language of service in Basque public institutions. • **Key words:** *Public administration, language of service, evaluation, research techniques, Mystery Shopping Technique.*

SARRERA

I

EAEn kokatuta dauden herri-administrazioek lege-betebeharra dute herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan (bi hizkuntza ofizialen artean) emateko zerbitzua, hau da, herritarrak hautatutako zerbitzu-hizkuntza bermatzeko betebeharra. Hala ere, 1982. urtean euskararen legeak eskubide hori berariaz aitortu zuenetik, Administrazioak zailtasun handiak izan ditu hori bermatzeko, batez ere, langileen hizkuntza-gaitasun falta dela eta. Urteak joan ahala, Administrazioan langileen euskara-gaitasuna gora egin du, baina hala ere, zerbitzu-hizkuntzaren bermeari buruz egin izan diren neurketek sarritan erakutsi dute eskubide hori ez dela %100 bermatzen Administrazioan oraindik ere.

VI. Plangintzaldian (2018-2022) Eusko Jaurlaritzan Euskararen erabilera normalizatzeko planak ondoko helburua jarri die Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunei: 2022. urte amaierarako herritarrei zerbitzu-hizkuntza %100ean bermatzea. Hain zuzen ere, planean ez da zehaztu helburu jakin horren lorpena ebaluatzeko inongo berritasunik, eta pentsa daiteke, beraz, orain arte erabili izan diren metodo eta tekniken bitartez egingo dela ebaluazio hori.

Azterlan honetan zerbitzu-hizkuntzaren bermearen betetze-maila ebaluatzeko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza gaur egun erabiltzen dituen metodologia eta tresna ezberdinak aztertuko dira, bakoitzak dituen abantaila eta mugekin. Eta hain justu muga horiek direla eta, neurketa horiek osatzeko aukera ematen duen teknika bat ere aztertuko da: Bezero Misteriotsuaren Teknika.

Horrela, egitasmo honen helburu nagusia Bezero Misteriotsuaren Teknika aztertzea da, herri-administrazioetan zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko ematen dituen aukeren ikuspegitik. Aintzat hartu behar da teknika honek sektore pribatuan duela bere jatorria, eta Administrazioan erabili ahal izateko horren ezaugarriak kontuan hartu behar direla; era berean, herritarrak ez dira bezero soilak Administrazioarekin jarduten dutenean. Horregatik, Bezero Misteriotsuaren Teknikaren deskribapena egiteaz gain, proposamen bat landu da teknika hori Administrazioaren zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan erabiltzeko.

***Eusko Jaurlaritza
eta bere
erakunde
autonomiadunek
2022. urte
amaierarako
herritarrei
zerbitzu-
hizkuntza
%100ean
bermatzeko
konpromisoa
hartu dute.***

**Ebaluazioaren
bitartez jakin
daiteke
Administrazioak
abian jarritako
plan eta
zerbitzuek
zenbateraino
lortu dituzten
aurreikusitako
helburuak.**

1. HERRI-ADMINISTRAZIOEN JARDUNAREN EBALUAZIOA

I

1.1 Kudeaketa publikoaren ebaluazioa

Herri-administrazioen jarduna ebaluatzea ezinbestekoa da esku-hartze publikoaren emaitza eta ondorioak ezagutzeko, eta herritarrei horien berri eman ahal izateko. Horrela, ebaluazioaren bitartez jakin daiteke Administrazioak abian jarritako plan eta zerbitzuek zenbateraino lortu dituzten aurreikusitako helburuak.

Behaketa, neurketa, analisi eta interpretazio prozesu sistematikoa da ebaluazioa, eta ebidentzietan oinarrituz, interbentzio publiko bat eza-gutzea du helburu, horren diseinu, inplementazio, ondorio, emaitza eta inpaktuei dagokienez. Ebaluatu daitezkeen interbentzioen artean arau, programa, plan edota politikak daude (AEVAL, 2010).

Kontutan izanda ebaluazioa egiteko planteamendu eta korrante ezberdinak egon daitezkeela, ondoko elementuak izan ohi dira aintzat ebaluazio-prozesuetan:

- Administrazioaren gobernantzaren hobekuntza, modernizazio eta berrikuntza prozesu baten parte da ebaluazioa.
- Ebaluazioak gizarte zientzietako tresnak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) eta gerentzia publikoko teknikak erabiltzen ditu. Modu sistematikoan aplikatzen du informazioaren tratamendu zorrotza, aztertutako errealitatea hobeto ezagutzeko asmoz.
- Eskuhartze publikoa bere osotasunean aztertzen da: diseinua, aplikazioa, garapena edota emaitzak.
- Ebaluazioa tresna estrategikoa eta prospektiboa da, etorkizunera begira ondorioak dituen, eta ez bakarrik atzera begira egiten dena.

Ebaluazioaren funtziorik garrantzitsuena politika publikoen egikaritzeari buruzko informazioa lortzea da. Edo beste era batera esanda, ebaluazioak aukera ematen du alderatzeko politika publikoengandik espero zen emaitza eta benetan eman dena.

Administrazioaren jarduna multzo ezberdinetan mailakatu daiteke (AEVAL, 2009): politika publikoak ekintzarako ildo nagusiak dira, eta horien helburua gobernuaren lehentasunen lorpena bideratzea da. Bertan finkatzen dira erabakiek izango duten norabidea eta beharrezko baliabideak. Plan eta ekintza ezberdinetan gauzatzen dira politika publiko horiek, eta horien baitan kokatzen dira zerbitzu publikoak: kudeaketa-prozesu oi-

narrizkoenak dira eta euren helburu nagusia da herritarrari modu egituratuan zerbitzua ematea.

Tradizionalki, hiru maila bereiztu izan dira kudeaketa publikoaren esparruan kalitatea, eraginkortasuna edota efizientzia aztertzerakoan (Bouckaert, 1995):

- Makro-kalitatea: Estatu eta gizarte zibilaren arteko harremanak barne-hartzen ditu, hain zuzen ere, zerbitzu publikoa eta herritarren artekoak. Maila honetan egindako ebaluazioaren helburua demokrazia beraren kalitatea bermatzea da (akzio publikoaren efikazia eta legitimazio soziala). Maila honetan politika publikoak dira aztergaia.
- Meso-kalitatea: zerbitzuen kudeatzaile eta hartzaileen arteko harremanei dagokie maila hau. Zerbitzu publikoekiko herritarrek duten asebetetasun maila ezagutzea izango litzateke ebaluazioaren helburua, horiek hobetzeko asmoz.
- Mikro-kalitatea: erakundearen barneko harremanei dagokie. Maila honetan kudeaketaren diagnostikoa egiten da (egiturak, pertsonak, prozesuak, eta abar) zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko asmoz.

Zerbitzu publikoen kalitateari dagokionez, garrantzitsua da ondokoan artean bereiztea: programatutako kalitatea, espero den kalitatea eta pertzibitutako kalitatea. Lehenengoa zerbitzua ematen duen erakundeak aurreikusita duen kalitate maila da; bigarrena herritarrak zerbitzu horrengandik espero duen kalitate maila, eta hirugarrena herritarrak zerbitzua jaso eta gero egiten duen balorazioa, behin alderatu duenean espero zuena eta gero benetan jaso duena. Horregatik, zerbitzuen ebaluazioak arreta jarri behar du zerbitzua ematen eta jasotzen dutenen arteko harremanean.

1.2 Ebaluaziorako metodologia eta teknikak

Ebaluazioa ikerketa moduan uler daiteke, eta horren baitan bi dira errealitatea ezagutzeko paradigma nagusiak: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

- Paradigma kuantitatiboa positibismo logikoan oinarrituta dago eta emaitzetara orientatzen da.
- Paradigma kualitatiboak ez dio emaitzei bakarrik erreparatzen, prozesu osoari baizik.

Debate sakona egon izan da gizarte zientzietan bi paradigma hauetariko bakoitzaren egokitasun eta muga inguruan. Hala ere, gero eta gehiago

Zerbitzuen ebaluazioak arreta jarri behar du zerbitzua ematen eta jasotzen dutenen arteko harremanean.

Gero eta gehiago erabiltzen da paradigma metodologiko ezberdinei dagozkien tekniken konbinazioa ikerketa bakarrean (triangulazioa).

erabiltzen dira paradigma ezberdinei dagozkien tekniken konbinazioa ikerketa bakarrean (triangulazioa), eta dena den, paradigma baten ala bestearen alde egitea baino, komenigarriena izaten da ikerketaren helbururako (deskribapena, azalpena edo ulermena) egokiena izango den teknika aukeratzea.

1. koadroa. Ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboaren ezaugarri nagusien laburpen-koadroa

Ikerketa kuantitatiboa	Ikerketa kualitatiboa
- Aldagaien buruzko datu kuantitatiboak jaso eta aztertzen dira.	- Zenbaketa edo neurketarik gabeko ikerketa. Aldagaiak neurtu beharrean, ikerlariak ikertutako fenomenoei buruzko erregistro narratiboak sortu eta aztertzen ditu.
Paradigma kuantitatiboa	Paradigma kualitatiboa
- Ikuspegi global positibista - Hipotetiko-deduktiboa - Partikularista - Objektiboa - Emaizak ditu hizpide - Natura-zientzien berezko paradigma	- Ikuspegi global fenomenologikoa - Induktiboa - Estrukturalista - Subjektiboa - Prozesua bera du hizpide - Gizarte-antropologiaren berezko paradigma
Metodo eta teknika kuantitatiboak	Metodo eta teknika kualitatiboak
- Inkesta bidezko ikerketa - Adierazleen azterketa - Artxiboetako erregistroen azterketa - Behaketa-erregistro egituratuak - ...	- Analisi dokumentala - Elkarriketa kualitatiboa - Eztabaida-taldeak - Behaketa parte-hartzailea - Delphi metodoa - Bizitzaren historia - ...

Iturria: Egileak moldatutakoa, ondoko gida oinarri hartuta: AEVAL, 2010. 67 or; 102 or.

2. ZERBITZU-HIZKUNTZAREN EBALUAZIOA ADMINISTRAZIOAN

I

2.1 Zerbitzu-hizkuntza bermatzeko betebeharrak Administrazioan

EAEko herri-administrazioak behartuta daude herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzera haiek artatzerakoan. 1982. urtean onartu zen Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarritzko legea, eta bere lehenengo tituluari, herritarren hizkuntza-eskubideez eta botere publikoek horiekiko dituzten betebeharrak hitz egiten di. Ondoren, bosgarren artikulua bigarren ataleko lehenengo azpitalean, Administrazioarekin, zein Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako edozein erakunderekin,

euskaraz zein gaztelaniaz harremanetan jartzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, eta hirugarren atalean jasotzen da botere publikoek eskubide horiek erabiltzea bermatuko dutela.

“Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Arduralaritzarekin [...] harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.”

Seigarren artikuluan xedatzen da herritarrak eskubidea duela, ez bakarrik Administrazioarengana nahi duen hizkuntzan zuzentzeko, baizik eta Administrazioarengandik jasotzen duen arreta ere herritarrak aukeratutako hizkuntzan izateko. Alabaina, ondoren gaineratzen da eskubide hori erabiltzeko beharrezko bitartekoak modu progresiboan ezarriko direla:

“Horretarako, behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebatziko.”

Eskubide horren erabilera bermatzeko epemugarik gabeko progresibotasunaren kontzeptua sartzean, nolabait eskubide hori gauzatzeko legezko bermea deuseztatzen da (Kuartango, 2017). Hala ere, adibidez, Eusko Jaurlaritzak epemuga zehatza jarri dio zerbitzu-hizkuntza bermatzeko betebeharrari; horrela, VI. Plangintzaldirako *Eusko Jaurlaritzan Euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia* (2018-2022) dokumentuan, honakoa zehazten du Jarraibide nagusien atalean (53. orrialdean):

“Zerbitzu-hizkuntza:

Plangintzaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunek bermatu egin behar dituzte herritarren hizkuntza eskubideak. Horretarako, zerbitzu-hizkuntzari dagozkion adierazle guztiak %100ean egon behar dira plangintzaldiaren amaieran.”

Hau da, Eusko Jaurlaritzak eta bere erakunde autonomiadunek zerbitzu-hizkuntza bermatu beharko dute 2022. urterako. Bestalde, halako konpromisorik hartu ez duten beste Administrazioen kasuan ere beharrezkoa da progresiboki lortu beharko duten helburu horren garapen maila neurtu ahal izatea.

Kontutan hartu behar da gainera zerbitzu-hizkuntzaren bermea ez dela mugatzen jendaurreko lanpostuetan ematen den zerbitzura (hasierako arreta-zerbitzua), baizik eta erakunde osoak herritarrei ematen dizkien zerbitzu guztietan bermatu beharko zaiola herritarrari hautatuko hizkuntzan jasotzea zerbitzua.

**Zerbitzu-
hizkuntzaren
bermea ez da
mugatzen
jendaurreko
lanpostuetan
ematen den
zerbitzura.**

**Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak
zerbitzu-
hizkuntza
ebaluatzeko
dituen
bitartekoak
aztertu dira.**

Bestalde, Udal-Administrazioari dagokionez, aipatu beharrekoa da 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Esan daiteke lege hau 1982ko legeak ezartzen duen progresibitateaz pausu bat haratago doala, herritarren hizkuntza-eskubideen defentsan:

6. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala.

1.– Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lanhizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu beharko da herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea eta, hortaz toki-erakundeek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik.

[...]

3.– Toki-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, –erakunde barruko, beste edozein administrazio publikorekiko edo, are, partikularrekiko harremanetan– bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera gorabehera, behar diren mekanismoak sortu beharko dituzte, herritarrek karga edo betebeharrak eragingo dieten inolako formaltasun eta baldintzarik gabe baliatu ahal izan dezaten komunikazioak beste hizkuntzan jasotzeko daukaten eskubidea.

Lege honek xedatzen du, beraz, toki-erakundeek zerbitzu-hizkuntza bermatu beharko dutela, eta era berean herritarrak ez duela inongo kargarik edo betebeharrak jasan behar izango egindako hizkuntza-hautuaren ondorioz.

2.2 Egun zerbitzu-hizkuntzaren betetze-maila neurtzeko moduak

Atal honetan aztertuko dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dituen bitartekoak EAEn dauden Administrazioetan zerbitzu-hizkuntzaren bermearen betetzeari buruzko informazioa jasotzeko, hain zuzen ere: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Plangintzaldi bakoitzean egiten dituen tarteko eta amaierako ebaluazioak, BIKAIN-Euskararen kalitate ziurtagiria, eta ELEBIDE-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua.


2.2.1 Plangintzaldietako tarteko eta amaierako ebaluazioak (HPS)

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluek ezarritakoaren arabera, erakunde ba-

koitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar du, eta bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira. Egun indarrean dagoena VI. Plangintzaldia (2018-2022) da. Euskararen erabilera normalizatzeko planak abian jartzearekin batera, euskal herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planei buruzko ebaluazio-txostena egin beharko dute plana onartu denetik bigarren urtea betetzen denean, eta baita bost urteko plangintzaldi bakoitzaren amaierako ere.

Datuak galdetegi bidez jasotzen dira eta, laginketari dagokionez, kon-tuan hartzen dira Eusko Jaurlaritzaren eta haren erakunde autonomiadu-nak, foru aldundiak eta 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udalak. 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, berriz, lagin bati galdetzen zaio. Bestalde, aztertutako erakunde horietan guztietan, planaren arduradunak ez ezik, langileak ere inkestatzen dira.

1. irudia: Plangintzaldiko ebaluazioak egiteko erakunde bakoitzean inkestatu diren solaskideak.



Iturria: Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioak: Erakundeetan autodiagnostikoa egiteko jarraibideak (Siadeco, 2017).

Bi galdetegi eredu dago, iturri bakoitzerako bat. Batetik, erabilera planaren arduradun edo ordezkariak erantzun beharrekoa; bertan, erakundearen egoerari buruzko galdera orokorrak daude: erakundearen hizkuntza-irizpideak, normalizaziorako tresnak... Bestetik, langileei zuzenduriko galdetegian, laginketa bidez aukeratutako langileei beren eguneroko jardunari buruzko galderak egiten zaizkie; hain zuzen ere, euren ahozko nahiz idatzizko hizkuntza erabilera aitortua jasotzen da, eta euskarak erakundearen duen egoerari buruzko iritzia ere eman dezatela eskatzen zaie.


V. Plangintzaldian (2013-2017) Eusko Jaurlaritzak bere sail eta erakunde autonomiadunetan¹ egindako amaierako ebaluazioaren emaitzek era-

Galdetegi bidez jasotzen dira HPSko Plangintzal-dietako tarteko eta amaierako datuak.

Datuek erakusten dute zerbitzu-hizkuntza bermatzeko helburua oraindik ez dela guztiz lortu.


kusten dute zerbitzu-hizkuntza bermatzeko helburua oraindik ez dela guztiz lortu. Horrela, adibidez, ondoko grafikoetan ikus daiteke, sailka eta erakundeka, herritarrek euskaraz egindako eskaerei erakundeak zenbatetan erantzuten dien euskaraz edo elebietan:

2. irudia. Herritarrek ahoz egindako euskarazko eskaerei EJ-ko sail eta erakundeek euskaraz edo elebietan emandako erantzunak (%). 2017.



Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

3. irudia. Herritarrek idatziz egindako euskarazko eskaerei EJ-ko sail eta erakundeek euskaraz edo elebietan emandako erantzunak (%). 2017.




Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

Grafikoetan ikus daitekeenez, sail edota erakunde askotan zerbitzu-hizkuntza bermatzeko gaitasuna handiagoa da idatzizko harremanetan, ahozkoetan baino, seguruena idatzizko zerbitzu-hizkuntza itzulpenen bitartez bermatzen delako. Aldiz, ahozko harremanak duen berehalakotasunean, zerbitzu-hizkuntza bermatzeko aukera bakarra da langile euskaldun batek artatzea edo herritarra lankide euskaldun batengana bideratzea (hori posible den kasuetan eta horretarako herritarrak luzeegi itxaron behar ez badu). Bestalde, gogoan izan behar da itzulpenetara jo behar izateak prozeduraren izapidetzea luzatu egiten duela, herritarrari kalte bat eraginaz.

Zerbitzu-hizkuntza bermatzeko gaitasuna handiagoa da idatzizko harremanetan, ahozkoetan baino.

4. irudia. Herritarrek egindako euskarazko eskaerei EJ-ko sail eta erakundeek euskaraz edo elebrietan emandako erantzunak (%), ahoz eta idatziz. 2017.




Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

Bestalde, zerbitzu-hizkuntzaren bermea betetzeko garrantzitsua da langile publikoak herritarrari lehen hitza euskaraz egitea, horrela gonbitea eginez, nahi izanez gero, herritarrak elkarrizketa euskaraz jarrai dezan.


**Itzulpenetara jo
behar izateak
prozeduraren
izapidetzea
luzatu egiten du.**

5. Irudia. Telefonozko arretan lehen hitza euskaraz (%) EJ-ko sail eta erakundeetan. 2017.



Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.


6. Irudia. Aurrez aurreko arretan lehen hitza euskaraz (%) EJ-ko sail eta erakundeetan. 2017.



Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

Datuek erakusten dute langile publikoek lehen hitza euskaraz egiten duten erakundeetan herritarrek ere gehiagotan egiten dutela beraien lehen hitza euskaraz.

7. Irudia. Langile publiko eta herritarren lehen hitza, hurrenez hurren, euskaraz (%)




Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

Adibidez, HABEn aurrez aurreko harremanean herritarrek lehen hitza euskaraz egiten dute kasuen %76,8an, eta aldiz EUSTATen kasuen %20,6an; hain justu, langile publikoaren euskarazko lehen hitzari dagokionez, mailarik altuena eta baxuena duten bi erakundeak dira, hurrenez hurren. Dena den, Administrazioako langilearen lehen hitzaren garrantzia aitortuta ere, horrek ez du esan nahi hori denik herritarraren hizkuntza-hautua baldintzatuko duen elementu bakarra (adibidez, aipatu berri diren bi kasuetan oso ezberdinak dira erakunde bakoitzaren lan-esparruak, eta horrek ere eragina izan dezake herritarraren hizkuntza-hautuan).

Erakundearen beraren jokaerak eragina du herritarraren hizkuntza-hautuan.

**Inkestaren
teknikak
langileek
aitortutako
datuak jasotzen
ditu soilik.**

8. Irudia. Langile publiko eta herritarren lehen hitza, hurrenez hurren, euskaraz (%) EJ-ko sail eta erakundeetan telefono bidezko harremanean. 2017.



Iturria: HPSko V. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren emaitzak, egileak moldatuta.

Administrazioako langilearen lehen hitza eta herritarraren hizkuntza-hautuaren arteko harremana aurrez aurreko zein telefono bidezko hartu-emanetan ikus daiteke. Datuek erakusten dute, beraz, herritarraren hizkuntza-hautuan eragina duela erakundearen beraren jokaera hizkuntzarekiko. Dena den, bestelako faktore asko egon daitezke herritarren hizkuntza-hautuan eragingo dutenak: batetik, herritarrari berari dagozkionak, hala nola, herritarrak duen euskara maila, euskara erabiltzeko ohitura, euskararekiko jarrera, zerbitzu horretan aurretik izandako esperientziak, egin beharreko izapideari ematen dion garrantzia, izapidea euskaraz egin nahi izateagatik penalizazioaren bat jasotzeko beldurra...; baina bestetik ere erakundearen jardunari dagozkionak, hala nola, langilegoaren euskara maila, edo erakundearen irudia bera: erakundearen kanpo-komunikazioan hizkuntzari ematen zaion trataera, langilegoaren adina (zenbat eta gazteagoak izan, euskaldunak izateko probabilitate handiagoa dago), “Euskaraz badakigu” moduko kartelak, eta abar.

Horregatik guztiagatik, inkestaren teknika ez da guztiz egokia zerbitzu-hizkuntzaren bermea ebaluatzeko. Alde batetik, erakundearen parte diren langileek aitortutako datuak jasotzen dira, hain justu, euren jardun profesionalari buruzko informazioa. Eta bestetik, erakunde batek esan dezake euskaraz jaso dituen eskaera guztiei euskaraz erantzun diela, baina erakundeak euskarazko oso eskaera gutxi jasotzen badu, norma-

lean egiten dituen izapideei soilik erreparatuta ez dago jakiterik erakundea benetan gai ote den edozein eskaerari euskaraz erantzuteko.

2.2.2 BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria

Euskararen erabileraren, presentziaren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzeko xedea du Bikain ziurtagiriak. Honako erakundeek parte har dezakete ziurtagiria lortzeko ebaluazioan:

- Alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuek, osorik edo partzialki, eta sozietate publikoek baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute.
- Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten honako erakunde publiko hauek: Estatuko Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Institutuzionalak (erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak). Horrez gain, Toki eta Foru Administrazioek eta beren erakunde autonomoek.

Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemaren oinarrian Erreferentzia Marko Estandarra (EME) dago, honako ardatz eta elementuak dituen:

- **Zerbitzu-hizkuntza:**
 - Irudi korporatiboa
 - Herritarrekiko harremanak
- **Lan-hizkuntza:**
 - Barne komunikazioa eta lan-tresnak
 - Pertsonen kudeaketa
 - Kanpo harremanak
 - Kudeaketa

Ardatz eta elementu horien ebaluazioaren ondorioz, erakundeak 0 - 1.000 arteko puntuazioa lortuko du. BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiriak hiru egiaztapen maila ditu, eta dagokion ziurtagiria lortzeko, ebaluazio-prozesuan gutxieneko puntu kopurua pilatu beharko da, honela:

2. koadroa. Bikain ziurtagiriko maila ezberdinak lortzeko gutxieneko puntuazioa.

Ziurtagiriaren maila	Gutxienez eskatutako puntu-kopurua
Oinarrizko maila	200 puntu
Erdi-maila	500 puntu
Goi-maila	800 puntu

Iturria: BIKAIN. Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa. Erreferentzia-gida 2018 (Eusko Jaurlaritza, 2018).

Hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzeko xedea du Bikain ziurtagiria

Erakunde publikoek zerbitzu-hizkuntza bermatu behar dute Bikain ziurtagiriaren mailetako bat egiaztatu ahal izateko.

Horrez gain, 2017. urtean argitaratu zen Bikain arautzeko dekretu berria, eta bertan xedatzen da ebaluaketara aurkeztutako entitateek ezingo dutela Bikain ziurtagiri-maila bat eskuratu euskararen alorrean legediak ezartzen dizkien betekizunak bermatu ezean. Herri-administrazio eta ente publikoen kasuan, horrek esan nahi du zerbitzu-hizkuntza bermatu beharko dutela Bikain ziurtagirian mailaren bat egiaztatu ahal izateko. Hala ere, 2017. urtearen aurretik emandako ziurtagiriak ez dira balio-gabetu, eta beraz, erakunde batek Bikain ziurtagiria izateak ez du esan nahi ebaluazio-prozesuan zerbitzu-hizkuntzaren langa hori gainditu duenik, 2017. urtetik aurrera ebaluatutakoei bakarrik eskatu baitzaie.

Bikaineko ebaluazioan zerbitzu-hizkuntza bermatuta dagoela joko da erakundeak gehieneko puntuazioaren %90 edo gehiago lortzen badu EME-ko 1. ardatzeko elementuetan, hain zuzen ere, ondokoetan:

3. koadroa. Euskararen Erreferentzia Marko Estandarreko 1. Ardatza (Zerbitzu-hizkuntza). 2017.

1. ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		
1. Erakundearen irudia	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak
	1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak
	1.3. Ingurune digitala	1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia
2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak	2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	2.1.1. Idatzizko harremanak
		2.1.2. Euskarazko eskaerari Euskaraz emandako erantzunak
	2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	2.2.1. Harrera
		2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak
		2.2.3. Euskarazko eskaerari Euskaraz emandako erantzunak

Iturria: BIKAIN. Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa. Erreferentzia-gida 2018 (Eusko Jaurlaritza, 2018).

Ebaluazio-bisitaren aurretik, ebaluatua izango den erakundeak auto-diaagnostiko bat egingo du (aurretixostena), eta bertan adieraziko du ebaluatuko diren alderdi ezberdinetan bere ustez daukan egoera, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokionez. Aurretixoste-

narekin batera, erakundeak beste dokumentu batzuk bidali ahal izango ditu informazio osagarria emateko.

Ebaluazio-bisitetan talde ebaluatzaileak elkarrizketatu egiten ditu ebaluatutako erakundeko zuzendari eta langileen lagin bat, ebaluatzaileek erabakitako agendaren arabera. Pertsona elkarrizketatuek euren jarduerarekin zerikusia duten galderei erantzuten diete, eta erakundearen tamaina, konplexutasuna edo bestelako aldagaien arabera, ebaluazio-egunak bat edo bi izango dira, eta hiru egun salbuespenezko kasuetan.

Alabaina, kontuan hartu behar da Bikaineko ebaluazioetan zerbitzu-hizkuntzaren bermeari buruz jasotzen den informazioa langileek aitortutakoan oinarritzen dela batez ere, eta ez dela behaketa sistematiko edo neurketarako beste metodologiarik erabiltzen. Ebaluatzaileek zerbitzu-hizkuntzan eragingo duten hainbat faktore aztertuko dituzte ebaluaziorako, hala nola, langileen euskararen ezagutza-maila edota hizkuntzaren kudeaketarako erakundeak dituen protokoloak, baina era horretan egindako ebaluazioak ezin du ziurtatu erakundea gai izango dela zerbitzu-hizkuntza %100ean bermatzeko.

Kontutan hartu behar da gainera, erakundeak badakiela alde zuzenetik Bikaineko ebaluatzaileak noiz agertuko diren bisitan, eta horrek ere eragina izan dezakeela egun horietan langileek duten jokabidean.

Azkenik, aipatu behar da Bikain ziurtagiria eskatzea hautazkoa dela, eta beraz, bere horretan ez duela balio egiaztatzeko herri-administrazio eta ente publiko guztiek zerbitzu-hizkuntza zenbateraino bermatzen duten.

2.2.3 ELEBIDE-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua

ELEBIDE Hizkuntza Eskubideak bermatzeko zerbitzua da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutakoa. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean hizkuntza-eskubideen urraketen inguruko salaketak jaso eta kudeatzea dago. Horrek ahalbidetzen du hizkuntza-eskubideen urraketa batzuen berri izatea, eta horien oinarrian egon diren arazoak zuzentzen saiatzea, baina zerbitzuak ez du urraketa guztien berri izango, bakarrik salatzen direnak ezagutuko baititu.

ELEBIDEren 2017ko jarduera-txostenaren arabera, urte horretan herri-administrazioetan emandako urraketei buruzko 241 kexa jaso ditu ELEBIDEk. Horietatik, %52,7 EAEko sektore publikoari zuzendutako kexak izan dira.

Bikaineko ebaluazioetan zerbitzu-hizkuntzaren bermeari buruz jasotzen den informazioa langileek aitortutakoan oinarritzen da batez ere.

4. koadroa: 2016 eta 2017. urteetan herri-administrazioen aurka ELEBIDEn aurkeztutako kexak.


	2016	2017
<i>EAEko Adm. Orokorra</i>	275	127
Eusko Jauriaritza	34	39
EJren erakunde eta sozietate publikoak	241	88
<i>Foru aldundiak</i>	26	22
Arabakoa	2	4
Bizkaikoa	23	11
Gipuzkoakoa	1	7
<i>Toki-administrazioak</i>	64	51
Arabakoak	4	1
Bizkaikoak	53	32
Gipuzkoakoak	7	18
<i>Estatuko Administrazioa</i>	31	25
<i>Bestelakoak</i>	6	16

Iturria: Elebide - Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2017. urteko Memoria (Eusko Jauriaritza, 2018).

EAEko Administrazio Orokorren aurka aurkeztutako kexen arrazoi nagusien artean honakoak daude: ahoz zein idatziz, aukeratutako hizkuntzan harremanak gauzatu ezin izatea; web guneetako eduki batzuetan elebitasuna bermatu ez izana; eta errotulazioan eta seinaleetan antzemandako hutsuneak.

Azpimarratzekoa da ELEBIDEk, kexak jasotzeaz gain, horien konponbiderako izapideak egiten dituela; nagusiki, ustezko urraketari buruzko informazioa erakundeari eskatu, eta etorkizunean horrelakorik errepika ez dadin neurriak hartzeko iradoki. Hala ere, kontuan hartu behar da ziurrenik benetan ematen diren hizkuntza-eskubideen urraketak baino askoz ere kexa gutxiago dagoela. Izan ere, askotan herritarrek ez dituzte kexak aurkeztu, ez dutelako horretarako astirik, ez dakitelako kexa non edo nola aurkeztu, ez dutelako uste ezertarako balioko duenik, ez daudelako ziur euskaraz artatuak izateko eskubidea duten, beldur di-relako kexa bat aurkezteak kalte egingo ote dion euren espedientearen emaitzari, eta abar.

9. irudia. ELEBIDEn kexen kudeaketarako prozedura.



Iturria: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/elebide_lan_egitasmoa/eu_prozed/images/elebide_kudeaketa.jpg (azken bisita: 2018/10/05).

3. BEZERO MISTERIOTSUAREN TEKNIKA

I

3.1 Teknikaren deskribapen orokorra

Behaketa partehartzaile mota bat da Bezero Misteriotsuaren Teknika, baina behaketa modu sekretuan egiten duena (Calvert, 2005). Erresuma Batuko Merkatu Ikerketarako Elkarteak (Market Research Society, MRS) bere aldetik, Bezero Misteriotsuaren Teknika honela definitzen du: “Bezeraoetik arreta prozesuak probatu eta neurtzeko trebatuak izan diren norbanakoez baliatzea, bezero potentzial gisa aritu daitezten eta euren esperientziaren berri eman dezaten modu objektibo eta zehatzean”².

Bezerao Misteriotsuaren Teknika sarritan erabili izan da bezeraoetik arreta ebaluatzeko metodo gisa, izan ere, horren bitartez zerbitzuaren kalitatea, araudiaren betetze-maila edota produktu eta zerbitzuen ezaugarri zehatzak neur daitezke. Teknika honek erabiltzailearen esperientzia jartzen du ebaluatzailearen arretaren erdigunean, eta horretarako, aurrez definitutako galde-sorta eta protokoloak jarraituta, ebaluatzaileak be-

**Bezero
Misteriotsuaren
Teknikaren
bitartez
zerbitzuaren
kalitatea,
araudiaren
betetze-maila
edota produktu
eta zerbitzuen
ezaugarri
zehatzak
ebaluatu
daitezke.**

netako bezero modura jokatzeko duen aldi berean, bezeroarekiko zerbitzuko hainbat alderdi ebaluatzen ditu. Ebaluazioa eraginkorra izan dadin, zerbitzua ematen ari den langileak ez du jakingo momentu horretan zerbitzua ebaluatua izaten ari dela. Horrela, teknika hau aplikatuko duten bezero misteriotsuek aldeztu aurretik prestakuntza bat jasotzen dute zerbitzuaren erabiltzaile potentzial gisa aritzeko, eta aldi berean, behaketa eta neurketa bat egin ahal izateko. Teknika hau aurrez aurreko, telefono bidezko edota Internet bidezko zerbitzuak ebaluatzeko erabili daitezke.

Hala ere, Bezero Misteriotsuaren Teknika erabiltzearen ondorioz langileei ezin egotz dakizkieke ebaluazioan aurkitutako akats edo okerrak. Erakundea da ebaluatua izaten ari dena, eta ez langileak, eta horregatik Bezero Misteriotsuaren Teknika aplikatzerakoan aurkitutako okerrak ez dira langileengan pertsonalizatuko eta ez da inongo zigor edo ondorio negatiborik izango langileentzat.

3.2 Bezero Misteriotsuaren Teknikaren jatorria

Bezero Misteriotsuaren Teknikaren jatorria antropologia kulturallean egongo litzateke (Wilson, 2001). Diziplina horretan behaketa parte-hartzailearen teknika erabiltzen da behatutako subjektuekin interakzioan aritzeko. Ikerlariak talde baten egunerokoan parte hartzen du, euren arau, jokabide edota jarrerak ulertzeko; hain justu, hizkuntzaren bitartez komunikatzeko zailak diren elementuak.

Enpresaren munduan Bezero Misteriotsuaren Teknika 80. hamarkadaren hasieran sortu zen (Calvert, 2005), eta oso erabilia izan da Amerikako Estatu Batuetako banketxe, txikizkako merkataritza eta ostalaritzan. Teknika honek abantaila ugari ditu bezeroarekiko arretaren kalitatea ebaluatzeko, inkesta edo elkarrizketa moduko tekniken aldean: aitoritutako jokabidea eta benetakoaren artean egon daitezkeen ezberdintasunak gainditzen ditu; argitara ekar ditzake lantokian bertan bakarrik atzeman daitezkeen elementuak eta gertaerak; eta elkarrizketatutako pertsonak komunikatzeko izan ditzakeen mugak gainditzen ditu, informazioaren kalitate eta kopuruari dagokionez (Wilson, 2001).

Bezero Misteriotsuaren Teknika helburu ezberdinekin erabili izan da enpresa pribatuetan, hala nola, bezeroarekiko arretaren kalitatea neurtzeko, lehiakortasuna neurtzeko “benchmarking”-tresna modura (merkatu-alderaketa), prestakuntza-programen eraginkortasuna neurtzeko (langileen motibazioan eragiteko asmoz), diskriminazioaren aurkako neurri gisa (bezero guztiak berdintzen tratatuak direla ziurtatzeko), edota diagnostikorako tresna modura, enpresaren prozesuetan ahuleziak iden-

tifikatzeko (Hesselink, van Iwaarden and van der Wiele, 2005). Gehienetan behaketa-erregistro egituratu modura aplikatzen da, *check-list* bati jarraituta, eta horregatik normalean Bezero Misteriotsuaren Teknika kuantitatiboa dela jotzen da.

3.3 Teknikaren abantailak eta desabantailak

Bezero Misteriotsuaren Teknikari buruzko literaturan hainbat abantaila identifikatu izan dira, tartean:

- Aukera ematen du prozesua bera ebaluatzeko, ez bakarrik emaitza. Eta ebaluazioa zerbitzua ematen ari den momentuan bertan gertatzen da (Wilson, 1998). Horrek saihestu egiten du zerbitzuaren emanketaren ondoren bezeroei egindako galdetegiekin duten muga bat: inkestatuak hainbat elementu gogoratzeko izaten dituen arazoak; handiagoak izango direnak zerbitzua jaso eta galdetegia erantzun arteko denbora zenbat eta luzeagoa izan.
- Gertakariak jasotzen ditu, ez pertzepzioak. Bezero Misteriotsuaren galdetegia edo *checklist*-a galdera objektiboetan zentratu beharko litzateke. Horrek galdetegiaren beste muga bat gainditzeko aukera ematen du, hain zuzen ere, bezeroak duen joera inpresio orokor eta subjektibo bat gogoratzeko (Wilson, 1998);
- Aukera ematen du datu objektiboez gain, informazio subjektiboa ere jasotzeko (Hesselink and van der Wiele, (2003);
- Prestakuntzarako tresna integrala da, prestakuntza-beharrak identifikatzeko erabili daitekeena. (Bromage, 2000);
- Langileentzako tresna positiboa izan daiteke motibazioari dago-kionez (Erstad, 1998).

Desabantailen artean, ondokoak:

- Langileek mehatxu gisa ikus dezakete teknika honen aplikazioa, uste badute ebaluazioan identifikatutako okerrekin bide emango diotela nolabaiteko zigorrari, langileentzako prestakuntza edota laguntzari baino (Erstad, 1998);
- Ebaluatzaileei eskatzen zaien memoria-ahaleginak ebaluazioen zehaztasunean eragina izan dezake (Morrison et al, 1997);
- Laginekin egiten den ikerketa oro bezala, momentuaren “argazki” bat baino ez du ematen teknika honek, multzo osoaren adierazgarri izan daitekeena ala ez, hartutako laginaren tamainaren arabera.

Teknika honek aitortutako jokabidea eta benetakoaren artean egon daitezkeen ezberdintasunak gainditzeko ditu.

**Bezero
misteriotsuaren
teknika
enpresaren
munduan sortu
bazen ere, gero
eta gehiago
erabiltzen da
herri-adminis-
trazioetan.**

4. BEZERO MISTERIOTSUAREN TEKNIKAREN APLIKAZIOA HERRI- ADMINISTRAZIOETAN

4.1 Bezero Misteriotsuaren Teknika sektore publikoan

Bezero Misteriotsuaren Teknika enpresaren munduan sortu bazen ere, gero eta gehiago erabiltzen da herri-administrazioetan. Hain zuzen ere, Administrazioaren modernizazioak aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira administrazio-jardunari egiten zaizkion kontrolak eta ebaluazioak, zerbitzua etengabe hobetzeko xedearekin.

Sektore pribatuan, Bezero Misteriotsuaren Teknika zerbitzuaren kalitatea hobetzeko erabiltzen da, horrekin batera enpresaren errentagarritasuna eta diru-sarrerak handitzeko. Administrazioaren kasuan, aldiz, Bezero Misteriotsuaren Teknikaren bitartez politika publiko baten inplementazioari buruzko informazioa edo lege baten betetze-mailari buruzkoa jasotzea dago. Horrela, teknika hau baliagarria izan daiteke zerbitzu publikoen kalitatea neurtzeko eta interbentzio publikoen inplementazioa eta eraginkortasuna neurtzeko.

Nazioartean, Bezero Misteriotsuaren Teknika hainbat gobernuak erabili izan dute Administrazioaren zerbitzu ezberdinak ebaluatzeko, hala nola, osasun-zerbitzuak, liburutegiak, posta-zerbitzuak, tren-bidezko garraio-zerbitzua, eta abar (Jacob et al., 2018).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetan ere badago Bezero Misteriotsuaren Teknikaren aplikazioaren adibiderik. Adibidez, UNE-EN 13816 ziurtagiria (errepide bidezko garraioaren kalitate-ziurtagiria) lortu duten udal autobus-zerbitzuek Bezero Misteriotsuaren ebaluazioa gainditu behar izan dute ziurtagiria lortzeko; tartean daude, esaterako, Barakaldoko hiri autobusak, EtxebarriBus eta Donostiako dBus.

Izan ere, kalitate-ziurtagiri hori eta beste asko ematen dituen erakundea, AENOR³, gero eta gehiago erabiltzen ari da Bezero Misteriotsuaren Teknika egiten dituen ebaluazioen parte bezala. Adibidez, aipatu UNE-EN 13816 ziurtagiriaz gain, Bezero Misteriotsuaren Teknika erabiltzen da UNE 175001-1 ziurtagirian (txikizkako merkataritzaren kalitatea), eta UNE 93200 ziurtagirian, erakundearen Zerbitzuen Kartak ziurtatzeko balio duena. Hain justu, Zerbitzuen Kartak gero eta erabiliagoak dira Administrazioetan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen berri emateko eta horiek ematean erakundeek bere gain hartzen dituzten konpromisoak jakinarazteko. AENOR-en webgunean jasotzen den bezala,

UNE 93200 ziurtagiriaren bitartez “bermatzen da Zerbitzuen Karta hauek asmoak deklaratzeko agiri soilak ez direla izango eta, are gehiago, haien xedeari jarraiki erabiltzaileak asebeteko dituzten kalitatearen inguruko konpromisoak norbere gain hartzeko sortu direla”. Eusko Jaurlaritzan, KZGunea izan zen UNE 93200 ziurtagiria lortu zuen lehen zerbitzua (2009. urtean).

4.2 Zerbitzu-hizkuntza Bezero Misteriotsuaren Teknikaren bitartez ebaluatzea: Kanada, Gales eta Osakidetzako adibideak

Bezero Misteriotsuaren Teknika Administrazioan erabili izan da zerbitzu-hizkuntzaren bermea ebaluatzeko; nazioartean, adibidez, Kanadan eta Gales-en.

Kanadako gobernuaren kasuan, Hizkuntza Ofizialen Bulegoak 2009an eta 2014an *Service Canada* zerbitzua ebaluatu du. Hain zuzen ere, Kanadako gobernuaren hainbat zerbitzuetarako sarbidea ematen duen zerbitzua da (lehiatila bakarra), eta ebaluazioaren helburua izan da bi hizkuntza ofizialetan ematen diren zerbitzuak ebaluatzea.

Horren emaitzen ondorioz, gobernuak erabaki du *Service Canada*-ren jarduerari jarraipena egiteko estrategia bat abian jartzea, zerbitzu elebidunen kalitatea kontrolatzeko mekanismo ezberdinak aurreikusten dituen, hala nola, Bezero Misteriotsuaren Teknika eta gobernuko zerbitzuen erabiltzaileei inkestak egitea.

Gales-eko gobernuaren kasuan, ebaluazio bat egin da 2014. urtean erakunde publikoen harrera-guneetan eta telefonoz galesa erabiltzeko herritarrek daukaten aukera neurtzeko. Informazioa jasotzeko tekniken artean Bezero Misteriotsuarena erabili da. Horretarako:

- Aurrez aurrekoan, bezero misteriotsuak kontsulta bat egiten du galesez harrera gunean eta erantzuna grabatu. Horrekin batera ere, harrera-guneko errotuluen hizkuntza idatziz jasotzen du.
- Antzeko kontsulta bat egiten da Bezero Misteriotsuaren Teknika telefonoz aplikatzeko.
- Bestalde, online zerbitzuak ebaluatzeko, gobernuaren webguneak bisitatu eta zerbitzu telematikoak galesez testean ondoren, puntuazio bat ematen zaie kontuan hartuz, besteak beste, hizkuntzaren zuzentasuna, erabilerraztasuna, aurkitutako akatsak, eta abar.
- Azkenik, inprimakiak galesez ba ote dauden egiaztatzeko ere erabiltzen dira Bezero Misteriotsuaren bisitak eta telefono-deiak.

**Bezero
Misteriotsuaren
Teknika
Administrazioan
erabili izan da
zerbitzu-
hizkuntzaren
bermea
ebaluatzeko.**

**Jokaera etikoa
funtsezko
irizpidea da
teknikaren
aplikazioan.**

EAera etorrita, Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren tarteko ebaluazio-txostenean ere aipatzen da Bezero Misteriotsuaren Teknikaren erabilera zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan. Txosten horren arabera, 2017. urtean guztira Osakidetzako 465 unitate ebaluatu dira Bezero Misteriotsuaren telefono-deiak eginda. Zehazkiago, 21 zerbitzu-erakundera egin dira deiak, eta erakunde bakoitzean ebaluatutako unitateak hiru motatakoak izan dira, erabiltzaileekiko harreman-esparruen arabera, zoriz aukeratutakoak:

- a) Harrera-, informazio- eta onartze-unitateak: 8 dei erakunde bakoitzean.
- b) Asistentzia-zerbitzuak (lehen mailako arretakoak eta espezialitateetakoak): 12 dei erakunde bakoitzean.
- c) Langile-kopuru handiarekin harremanetan egon ohi diren zerbitzu orokorrak (Pertsonala, Lan Osasuna, Prestakuntza, Komunikazioa, Zuzendaritza, Informatika...): 5 dei erakunde bakoitzean.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideen betetze maila ezagutzea izan da telefono-deien helburua. Bestalde, bisita presentzialak ere egin dira errotulazioa eta hizkuntza-paisaiako elementuak aztertzeko.

5. BEZERO MISTERIOTSUAREN TEKNIKA APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

I

5.1 Irizpide orokorrak

Gomendagarria da ondoko irizpide orokorrak jarraitzea Bezero Misteriotsuaren Teknika aplikatzerakoan:

- Ez dira gai gehiegi ebaluatuko: ebaluazio sinpleenak izaten dira eraginkorrenak.
- Jokaera etikoa ziurtatu behar da: garrantzitsua da erakundeko langile eta sindikatuei teknikaren erabilerari buruzko informazioa ematea, eta horren helburuak zeintzuk diren azaltzea. Hala ere, ez zaie zehazki adieraziko ebaluazioak noiz eta non egingo diren, prozesua bera arriskuan ez jartzeko.
- Emaitzen irakurketan hobekuntzarako aukerak azpimarratu behar dira, eta ez gaizki egindakoen errua inori bota. Nork egin duen zer, ez da garrantzitsuen.
- Langileei feedback-a emango zaie teknikaren aplikazioaren emaitzen inguruan, eta horren ondoren emango diren pausuei buruz, prozesuaren onurak ikus ditzaten.

5.2 Ebaluatzaileak aukeratzea

Bezero Misteriotsuak aukeratzeko planteamendu ezberdinak egon daitezke. Batetik, espezializatutako agentzia bat kontratatzeke aukera dago, modu horretan erakundearen ebaluazioa guztiz kanpotik egingo delarik. Bigarren aukera bat da kualifikaturiko boluntarioekin osatutako ebaluatzaile-klub bat osatzea.

Agentzia bat kontratatzearen desabantaila nagusia horren kostu ekonomikoa da. Gainera, kasu batzuetan Administrazio-atala langileek gaizki ikus dezakete Administrazio-atala kanpoko erakunde batek ebaluatzea euren jarduna.

Bezero Misteriotsuaren bisitan egin beharreko izapidetaren arabera, aurreikusi beharko da ebaluatzaileak identifikazio-moduren bat beharko duen:

- Pertsonaren identifikazio orokorra
- Identifikazio elektronikoa

Horren arabera, talde kudeatzaileak ziurtatuko du halako identifikazioak lortzen direla. Horiez gain, ondoko betekizunak eskatuko zaizkie ebaluatzaileei:

- Euskaraz eta gaztelaniaz ondo jakitea.
- Administrazioaren funtzionamendu eta egiturari buruzko oinarrizko ezagutzak izatea.
- Herritarren hizkuntza-eskubideei buruzko ezagutzak izatea.

Aurrekoek gain, zerbitzu telematikoak ebaluatu behar direnean:

- Ordenagailu pertsonala eta Internet-erako sarbidea.
- Interneteko ohiko erabiltzailea izatea.

5.3 Laginketa

Administrazioan Bezero Misteriotsuaren Teknika aplikatzeko laginketa-unitate ohikoena Administrazio-atala izango da; horrela, erakunde bat ebaluatzerakoan horren baitako Administrazio-atala ezberdinetan egingo dira Bezero Misteriotsuaren bisitak edo ebaluazioak, erakundearen egoeraren ikuspegi orokorra izateko.

Bestalde, aipatzekoa da ere bizitza-gertakizunen⁴ ikuspegia (European Union, 2012). Horren arabera, erakunde publiko eta zerbitzu ezberdinez osatutako prozesu bat bezala ikusten dute herritarrek gobernua, eta askotan ez dira horien funtzionatzeko moduaz erabat konziente edota

**Administrazioan
laginketa-unitate
ohikoena
Administrazio-
atala da.**

**Teknika
aplikatzeko
egoera teoriko
bat definitu
behar da,
Administrazio-
prozedura baten
baitakoa.**

horri buruzko abstrakzio bat egiten dute. Izan ere, askotan euren bizitzan egoera zehatz bat edo gertakizun jakinen bat jazotzen denean bakarrik jartzen dira gobernuarekin harremanetan herritarrek.

Are gehiago, bizitza-gertakizunak, hala nola, adibidez “jubilatuta naiz” edo “goi mailako ikasketak egiteko matrikula egin nahi dut”, errazago eta modu unibertsalago batean identifikatzen ditu erabiltzaileak eta horregatik erabilgarriago dira, adibidez, erabiltzaileari egindako galdetegi batean erabiltzeko. Aldiz, zerbitzu espezifikoek buruz galdetzen badiogu erabiltzaileari, askotan modu abstraktuan izendatzen direnak, zailago egiten zaio horien jarduera zehazki zein den ulertzea. Era berean, Bezero Misteriotsuaren Teknikarekin erreproduzitu nahi badugu herritarrek Administrazioarekin duen harremana, zentzuzkoa izan daiteke bizitza-gertakizun oso bat ebaluatu nahi izatea, tartean hartzen dituen izaipide guztiak eginda eta Administrazio-atal ezberdinak bisitatuz.

Beraz, posible izango litzateke baita bizitza-gertakizunak hartzea laginketa-unitate modura, baina askoz konplexuagoa da horrela egitea, bizitza-gertaerak duten izaera transbertsala dela eta (hainbat erakunde ikutu ditzaketelako). Hala ere, azterlan honetan aukera hau ere aipatu da, bizitza-gertakizunetan oinarritutako laginketa hori izan delako Europar Komisioak 2012. urtean erabili zuena Europako gobernu ezberdinetako online zerbitzuak ebaluatzeko, Bezero Misteriotsuaren Teknika eta erabiltzaileei egindako galdetegiaren bitartez (Europar Batasuna, 2012).

Laginaren tamaina erabakitzeko ausazko laginketa bakuna erabili daiteke Administrazio-atal guztiei ebaluazioan parte hartzeko aukera bera emanaz, erabakitzen den konfiantza maila eta errore-tartearekin. Hala ere, Bezero Misteriotsuaren Teknika erakunde bakarra ebaluatzeko aplikatzen denean laginketaren helburua ez da izaten estatistikoki esanguratsuak diren datuak lortu ahal izatea, baizik eta erakundeko Administrazio-atal ezberdinetako momentuko informazioa jasotzea.

5.4 Teknika aplikatzeko pausoak

Bezero Misteriotsuaren Teknika Administrazioan aplikatzeko, lehenbizi egoera teoriko bat definitu behar da, Administrazio-prozedura baten baitan kokatutakoa. Gero, Bezero Misteriotsuak egoera hori antzetzuko du bisitan eta ebaluatu beharreko elementuak behatuko ditu; azkenik, ebaluazioa bera bisita bukatu eta berehala egingo da. Hala ere, bisitaren aurretik eta ondoren ere badago eman beharreko hainbat pauso:

Metodologiaren prestakuntzarako eman beharreko pausoak:

1. Erabiltzaileek egingo dituzten bideen diseinua eta Pertsonen deskribapena.
2. Laginaren tamaina zehaztea.
3. Galdetegia prestatzea.
4. Adierazleak definitzea.

Landa-lanaren parte diren pausoak:

5. Bezero Misteriotsuek aztertuko dituzten zerbitzuak aukeratzea, eta betekizun zehatzak definitzea (identifikazioa, ...).
6. Ebaluatu beharreko zerbitzuen mapa egitea, arreta emateko modu guztiak kontuan hartuta: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, telematikoa.
7. Galdetegiaren programa, testea eta itxiera diseinatzea.
8. Bezero Misteriotsuak prestatzea
9. Galdetegia ebaluatzaileei zabaltzea.
10. Datuak prozesatzea eta kalitate-kontrola (hutsik dauden gela-kak...) egitea.
11. Ebaluatutak izan diren erakundeekin emaitzak erkatzea.
12. Amaierako datuak editatzea eta adierazleak kalkulatzea.
13. Datuak aurkeztea eta argitaratzea.

**Galdetegia
galdera
objektiboz osatu
beharko litzateke
batez ere,
gertaeretan
oinarritutako
informazioa
jasotzeko bertan.**

5.5 Ebaluazio-galdetegia

Bezero Misteriotsuak beteko duen galdetegia galdera objektiboz osatu beharko litzateke batez ere, gertaeretan oinarritutako informazioa jasotzeko bertan. Ebaluazioaren helburu nagusia bisitan gertatutakoa jasotzea izango da, eta ez Bezero Misteriotsua nola sentitu den jasotzea. Gainera, galdetegia zenbat eta objektiboagoa izan, orduan eta handiagoa izango da baita ebaluazio ezberdinen arteko sendotasuna. Dena den, galdetegiak galdera subjektiboren bat ere izan dezake, hala nola, Bezero Misteriotsuaren asebetetze globala, informazio hori lagungarri izan baitaiteke datuen interpretazioa egiterakoan.

Galdetegiko elementu bakoitza erregistratzeko modu ezberdinak egon daitezke: *Bai/Ez* moduko erantzun-aukerak erabili daitezke gertaera bat jazo den ala ez erregistratzeko; 0-10 arteko eskala erabili daiteke galdetegiko elementu bakoitza zenbateraino bete den jasotzeko (baieztapen modura formulatutako elementu bakoitzeko: 0=*Batere ados*, 10=*Guztiz ados*); edo balorazio subjektiboagoak jasotzeko erantzun-aukerak erabili daitezke, hala nola, bezeroak jaso duen zerbitzua deskribatzeko (*Dese-gokia / Egokia / Desiragarria*).

**Herritarrari
zuzenduriko
hitzak baino ez
dira kontuan
hartuko
ebaluazioan.**

Behaketa-unitatea bisitaren xedea izango den Administrazio-izapidea (edo izapide-multzoa) da, eta beraz galdetegian ere horri buruzko informazioa jasoko da. Gainera herritarrari zuzenduriko hitzak baino ez dira kontuan hartuko ebaluazioan. Adibidez, funtzionarioak lankide bati esandakoa ez da ebaluazioan kontuan hartuko.

Ebaluazio bakoitzean erabiliko den galdetegi edo *check-list* delakoa berriaz diseinatu beharko da ebaluatu nahi den zerbitzura egokituta, eta batez ere, kontuan hartuta aurrez aurreko, telefono bidezko edo zerbitzu telematiko ebaluatuko den. Adibide modura, ondoren proposatzen da Bezero Misteriotsuaren Teknikaren bitartez aurrez aurreko zerbitzua ebaluatzeko erabili litekeen galdetegi-eredu orokorra:

10. irudia. Bezero Misteriotsuaren Teknikaren bitartez, aurrez aurreko zerbitzu-hizkuntza ebaluatzeko galdetegi-proposamena.

EBALUATUTAKO ZERBITZUA:	
HELBIDEA	
EBALUATZAILEAREN IZENA:	
EGINDAKO IZAPIDEA:	
DATA ETA EBALUAZIOAREN IRAUPENA:	
1.G. Herritarrak ikusten dituen errotulu guztiak euskaraz edo ele bietan daude.	
☐ Bai	
☐ Ez	→ Eusk. / Elebi. %:
2.G. Herritarra Administrazioko langilearekin euskaraz aritu daitekeela nolabait adierazita dago (kartel, pegatina, edo antzekoen bidez).	
☐ Bai	
☐ Ez	
3.G. Administrazioko langileak esan duen lehen hitzaren hizkuntza:	
☐ Euskaraz	
☐ Gaztelaniaz	
☐ Ez du ezer esan / Ez da ulertu	
4.G. Herritarrak euskaraz egindako eskaerari euskaraz erantzun dio Administrazioko langileak.	
☐ Bai	
☐ Ez	→ 7.G

**Zerbitzu-
hizkuntzaren
bermearen
ebaluazioan
herriarren
ikuspuntua
jasoko duten
teknikak ere
erabili behar
dira.**

Langileak euskarazko hizkuntza-hautuari eutsi badio:

5.G. Administrazioiko langilea euskaraz aritu da elkarriketa osoan.

0 = Batere 10 = Guztiz
☐ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

6.G. Administrazioiko langileak egoki hitz egin du euskaraz.

0 = Batere 10 = Guztiz
☐ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

—————▶ 13.G

Langileak ez badio euskarazko hizkuntza-hautuari eutsi:

7.G. Langileak berak zuzenean jarri du martxan langile euskaldun batek herritarra artatzeko protokoloa.

☐ Bai —————▶ 10.G
☐ Ez

8.G. Herritarrak eskatuta jarri da martxan langile euskaldun batek herritarra artatzeko protokoloa.

☐ Bai —————▶ 10.G
☐ Ez

9.G. Langile euskaldun batek herritarra artatzeko protokoloa martxan ez jartzeko emandako arrazoia:

.....
 —————▶ 13.G

Protokoloa aplikatuz, bigarren langile batek artatzen badu herritarra:

10.G. Arrazoizko epe batean jaso du herritarrak euskarazko arreta bigarren langile batengandik.

0 = Batere 10 = Guztiz
☐ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

11.G. Bigarren langilea euskaraz aritu da elkarriketa osoan.

0 = Batere 10 = Guztiz
☒ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

12.G. Euskararen erabilera zuzena egin du bigarren langileak.

0 = Batere 10 = Guztiz
☐ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

13.G. Herritarrari eskaera- edota informazio-orriren bat eman bazaio, hori zein hizkuntzatan dagoen:

☐ Ez da onirik eman

☐ Euskaraz

☐ Ele bietan

☐ Gaztelaniaz

14.G. Bisitarri herritarrak jaso duen arretaren balorazio globala (hizkuntzaren erabileraren aldetik).

0 = Oso txarra 10 = Oso ona

☐ 0 ☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐ 6 ☐ 7 ☐ 8 ☐ 9 ☐ 10

15.G. Bisitari buruzko oharrak:

.....

.....

Iturria: Egileak prestatutakoa.

6. ONDORIOAK

I

Azterlan honetan Bezero Misteriotsuaren Teknika aztertu da, Administrazioan zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko tresna gisa.

Gaur egun Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zerbitzu-hizkuntzaren ebaluaziorako erabiltzen dituen tresnak aztertuta, ondorengo ahuleziak identifikatu dira: alde batetik, erakundeen barneko iturriek aitortutakoa oinarri hartzen duten tresnek (Bikain ziurtagiria eta Plan-gintzaldietako ebaluazioak) ez dute zerbitzu-hizkuntzaren bermea modu objektiboan ziurtatzen. Izan ere, Administrazioak berak deklaritzen duena zuzenean ontzat ematen dute, erabiltzailearen benetako esperientziaren egiaztatze enpiriko sistematikorik gabe. Bestalde, ELEBIDEko zerbitzuak erabiltzaileen ikuspuntua kontutan hartzen du, baina euskal-hiztun proaktiboak ditu infomazio-iturri bakarra (hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean kexa bat aurkezteko prest daudenak). Gainera, kexen sistema honek karga bat ezartzen dio euskal-hiztunari (hizkuntza-eskubideen bermearen betetze mailari buruzko informazioa eman behar izatearena). Hain zuzen ere, Bezero Misteriotsuaren Teknikak aukera ematen dio Administrazioari hizkuntza-eskubideen bermea bere bitartekoekin eta modu objektiboan egiaztatzeko.

Teknika aplikatzeko moduari dagokionez, nazioarteko zein EAE mailako kasuak aztertu ondoren (Europar Komisioa; Kanada eta Galeseko gober-

nuak; Osakidetza), lan honetan Bezero Misteriotsuaren Teknika aplikatzeko jarraibideak definitu eta galdetegi orokor bat proposatu da, kasuan kasuko zerbitzuaren ezaugarri eta betekizunetara moldatu beharko dena.

Azken gogoeta gisa, aurrera begira, komenigarri izan daiteke herritarren ikuspuntua jasotzen duten bestelako tekniken lanketa metodologikoa ere egitea (hala nola, erabiltzaileei zuzenduriko inkestak), herri-administrazioetan zerbitzu-hizkuntzaren bermearen ebaluazioa osatzeko bidean. Azken batean, Administrazioak zerbitzu-hizkuntza bermatzen duela ziurtatzeak ezin du izan aldebakarreko adierazpen hutsa, nahitaez erabiltzailearen bizipenarekin bat etorri beharreko errealitatea baizik. ●

OHARRAK

1. V. Plangintzaldiaren amaieran ebaluatu diren sail eta erakunde autonomiadunetarik ondorengoak ez dira txosten honetan aztertu, herri-administrazio edota pertsona juridikoekin bakarrik dutelako harremana (ez herritarrekin): Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, eta Lehiaren Euskal Agintaritza.
2. 'The use of individuals trained to experience and measure any customer service process, by acting as potential customers and in some way reporting back on their experiences in a detailed and objective way.'
3. AENOR: Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarteak.
4. "Life Events", jatorrizko hizkuntzan.

BIBLIOGRAFIA

- AEVAL (2009). *Guía para la evaluación de la calidad de los Servicios Públicos*. Agencia Estatal de Evaluación de las Políticas Públicas y la Calidad de los Servicios. Ministerio de la Presidencia. Madril.
http://www.aeval.es/export/sites/aeval/comun/pdf/calidad/guias/Guia_evaluacion_calidad.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- AEVAL (2010). *Fundamentos de evaluación de políticas públicas*. Agencia Estatal de Evaluación de las Políticas Públicas y la Calidad de los Servicios. Ministerio de Política Territorial y Administración Pública. Madril: Catálogo General de Publicaciones Oficiales.
http://www.aeval.es/export/sites/aeval/comun/pdf/evaluaciones/Fundamentos_de_evaluacion.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- BANEK ZORICA, M., IVANJKO, T. eta SPIRANEC, S. (2014). Mystery shopping in libraries - are we ready? In: *Qualitative and Quantitative Methods in Libraries (QQML)*. 2 zkia. ISAST: 433-442 or.
http://www.qqml.net/papers/June_2014_Issue/327QQML_Journal_2014_Zoricaetal_June_433-442.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- BOUCKAERT, B. (1995). Measuring Quality. In: *Quality Improvement in European Public Services. Concepts, Cases and Commentary*. Londres: Sage Publications, 22-32 or.

- BROMAGE, N. (2000). Mystery Shopping - It's research, but not as we know it. In: *Managing Accounting*, 78. zkia. 30-35 or.
- CALVERT, P. (2005). It's a mystery: mystery shopping in New Zealand's public libraries. In: *Library Review*, 54. zkia. Emerald Group Publishing Limited, 24-35 or.
- COMISIYNYDD Y GYMRAEG / WELSH LANGUAGE COMMISSIONER (2015). *A new measure; a new mindset. The Welsh Language Commissioner's Assurance Report for 2014-15*. llywodraeth Cymru / Welsh Government. <http://www.comisiynyddygyymraeg.cymru/English/Publications%20List/20151022%20DG%20S%20Adroddiad%20Sicrwydd%20Comisiynydd%20y%20Gymraeg%202014-15.pdf> (azken bisita: 2018/10/05)
- COMMISSARIAT AUX LANGUES OFFICIELLES, CANADA / OFFICE OF THE COMMISSIONER OF OFFICIAL LANGUAGES, CANADA (2014). *Audit of the delivery of bilingual services to the public by Service Canada. Follow-up April 2014*. Travaux publics et Services gouvernementaux Canada / Public Works and Government Services Canada. Gouvernement du Canada / Government of Canada. https://www.clo-ocol.gc.ca/sites/default/files/audit_serviccanada_en.pdf (azken bisita: 2018/12/07)
- ERSTAD, M. (1998). Mystery shopping programmes and human resource management. In: *International Journal of Contemporary Hospitality Management*, 10. zkia. Emerald Group Publishing Limited, 34-38 or.
- EUROPAR BATASUNA (2012). *eGovernment Benchmark Framework 2012-2015. Method paper*. Communications Networks, Content & Technology Directorate General. Commission of the European Union, 29-47 or. https://ec.europa.eu/digital-single-market/sites/digital-agenda/files/eGovernment%20Benchmarking%20method%20paper%20published%20version_0.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- EUSKO JAURLARITZA. 150/2008 DEKRETUA, *uztailaren 29koa, Elebide - Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua- sortu eta kontsulten, iradokizunen eta kexen araubidea ezartzen dituen*.
- EUSKO JAURLARITZA. 162/2017 DEKRETUA, *maiatzaren 30ekoa, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duena*.
- EUSKO JAURLARITZA (2018). *Elebide - Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2017. urteko Memoria*. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/elebide_jarduera_txostena_17/eu_def/adjuntos/ELEBIDE_EUSK_WEB.pdf (azken bisita: 2018/10/05)

- EUSKO JAURLARITZA (2018). BIKAIN. *Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa. Erreferentzia-gida 2018*. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. <https://www.euskalit.net/bikain/bikainberri/Erreferentzia%20Gida%202018.pdf> (azken bisita: 2018/12/07)
- EUSKO JAURLARITZA (2018). *Eusko Jaurlaritzan Euskararen erabilera Normalizatzeko irizpide orokorrak eta Plan nagusia. VI. Plangintzaldia (2018-2022)*. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/v_plangintza/eu_def/adjuntos/EJPLANA_WEB_EUS.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- EUSKO LEGEBILTZARRA. *Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa*.
- EUSKO LEGEBILTZARRA. 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- HESELINK, M. eta VAN DER WIELE, T. (2003). Mystery Shopping: In-depth Measurement of Customer Satisfaction. In: ERIM Report Series Research in Management. Rotterdam.
- HESELINK, M., VAN IWAARDEN, J. eta VAN DER WIELE, T. (2005). Mystery shopping: a tool to develop insight into customer service provision. In: Total Quality Management & Business Excellence, 16. zkia. Routledge, 529-541 or.
- JACOB, S., SCHIFFINO, N. eta BIARD, B. (2018). The mystery shopper: a tool to measure public service delivery? In: International Review of Administrative Sciences 84. zkia. Sage Publications, 164-184 or.
- KUARTANGO, J. A. (2017). Euskararen Ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean. In: BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 105. zk. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 47-81 or.
- MORRISON, L.J., COLMAN, A.M. eta PRESTON, C.C. (1997). Mystery Customer Research: Cognitive Processes Affecting Accuracy. In: Journal of the Market Research Society. 39. zkia. Londres, 349-361 or.
- MSPA, Mystery Shopping Providers Association (2011). *Guidelines for Mystery Shopping*. https://www.mspa-ea.org/files/documents/ethics&standards/MSPA%20Guidelines%20Full%20Global_Updated%20August%202011.pdf (azken bisita: 2018/10/05)
- OSAKIDETZA (2017). *Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Plana (2013-2019). Tarteko ebaluazio-txostena (2013-2017)*. https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskarak_plana/eu_def/adjuntos/Eusk_Planaren_tarteko_ebaluazio_txostena.pdf (azken bisita: 2018/10/05)

SIADeco (2017). *Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa: Erakundeetan autodiagnostikoa egiteko jarraibideak.*

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri_admin_normalizazioa/eu_def/adjuntos/Erakunde%20autodiagnostikorako%20jarraibideak.pdf (azken bisita: 2018/10/05)

WILSON, A.M. (1998). The role of mystery shopping in the measurement of service performance. In: *Managing Service Quality*. 8. zkia. Emerald Group Publishing Limited, 414-420 or.

WILSON, A. M. (2001). Mystery shopping: using deception to measure service performance. In: *Psychology and Marketing*, 18. zkia. Wiley Online Library, 721-734 or.

Harpidetu
edo
oparitu

elhuyar

aldizkaria

Eskerrik asko!

Zuei esker,

Elhuyar aldizkaria euskal kazetaritzaren 10 mugarrietako bat izan da XXX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan.



Hiru hilez behin, etxean bertan.
Egunero, webgunean.

20 €
URTEAN

Gozatu zuk ere!

Zientzia eta teknologian gertatzen den guztia, eskura:
gaurkotasuna, iritzia, istorioak, hemengo ikerketa...

<https://aldizkaria.elhuyar.eus>

Harpidetzak: 943 36 30 40



Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatu a(ha)la auzitan jarri?

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien XI. Edizioko
BIGARREN SARIA (2018)¹

Miren Artetxe Sarasola

NOR Ikerketa Taldea

Euskal Herriko Unibertsitatea

miren.artetxe@ehu.es

Sarrera-data: 2018-10-05 / Onartze-data: 2018-11-05

Laburpena. Hiztun berrien hizkuntza identitatea eta hizkuntza erabilera ikerlerro emankorra bilakatu da azken urteotan, hizkuntza gutxituen esparruan. Bestelako hizkuntzen kasuan bezala gurean ere, ikerketek erakutsi dute hiztun berrien hizkuntza erabilera loturik dagoela nolabait, hiztun gisa nork bere burua legitimo sentitzearekin edo eta besteengandik hiztun legitimo gisa hartua izatearekin. Ikerlan honetan, Ipar Euskal Herriko testuinguruan, bertsotan trebatzeak eta bertso-munduan sozializatzeak hiztun berrien legitimazio prozesuan izan dezakeen eragina aztertuko dut, alde batetik. Eta bestetik, bertsolariaren irudi kanonikoa legitimazio prozesu horretan muga ere izan daitekeela argudiatuko dut. • *Hitz gakoak:* *Hiztun berriak, bertsolaritza, hizkuntza ideologia, legitimitatea.*

Abstract. The language identity of new Basque speakers (i.e. people who learn Basque as adults, as a second language) and their language use has become a fertile avenue of research over recent years in the field of minoritized languages. As in other cases, in the Basque Country too, research has shown that new speakers' language use is somehow linked to both their own self-perceived legitimacy and other people's perceptions of them as legitimate speakers. This research project focuses on the Northern Basque Country and analyses how becoming involved in the world of extempore verse and developing competences in this art form may influence new speakers' legitimisation process. It also discusses how the canonical image of an extempore verse singer may hinder this legitimisation process. • *Key words:* *New Basque speakers, extempore verse, language ideology, legitimacy.*

SARRERA

I Azken hamarkadetan, hizkuntza berreskuratzeko ahaleginaren ondorioz, euskara etxean jaso ez duten euskaldun kopuruak izugarri egin du gora. Ez da datu anekdotikoa: gaur egun, Euskal Herriko gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok ikasi du euskara etxetik kanpo, eta gero eta handiagoa da, modu absolutuan zein erlatiboan, hitzun berrien kopurua².

Badakigu, jakin, euskara etxean ez ikasi izanak –hitzun ibilbidea definitzen duen elementuetako bat besterik ez izanik ere– garrantzia izan dezakeela hitzunen hizkuntza portaeran. Eta zentzu horretan, hitzun berrien hizkuntza identitatea eta erabilera ikerlerro interesgarri bezain emankorra ari da bilakatzen azken urteotan, nola Europan (O'Rourke eta Ramallo, 2011, 2013, 2015; O'Rourke, Pujolar eta Ramallo, 2015; Pujolar eta Puidgevall, 2015; Boix-Fuster eta Paradís, 2015; Costa, 2015; Hornsby, 2015; Smith-Christmas, Murchadha, Hornsby eta Moriarty, 2017), hala gurean (Amorrortu, Ortega eta Goirigolzarri, 2017; Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla eta Uranga, 2013, 2014; Ortega, Urla, Amorrortu, Goirigolzarri eta Uranga, 2015; Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urla, 2016; Goirigolzarri, Manterola eta Salces 2015; Urla, Amorrortu, Ortega, Goirigolzarri eta Uranga, 2016; Urla, Amorrortu, Ortega eta Goirigolzarri, 2018; Ortega, Amorrortu eta Urla, 2017).

Ikerketek erakutsi dutenez, hitzun *legitimo* izateko zenbait ezaugarri betetzera iristea eskatzen die hitzun berriei gaur egungo euskal gizarteak. Legitimazioa nork eta zeren arabera merezi duen definitzen duen hizkuntza ideologia nagusiak jatorrizko hitzuna izan du hitzun legitimoaren eredutzat (Woolard, 1998, 2008), eta profil bati berez emana zaiona, besteak irabazi beharra dauka. Alabaina, legitimo sentitzea bera gako izanik hitzun berrien aktibaziorako, legitimazio prozesua bera ulertzea estrategikoa da hizkuntza-biziberritze prozesuan eragiteko.

Zer da, ordea, hitzun legitimo izatea? Hizkuntzalaritza klasikoan bezala gizarte-ikuspegian, hizkuntza bateko hitzun legitimoa *berezko* hitzuna izan da, tradizioz; hizkuntza jakin bat “ama hizkuntza” duena. Hizkuntza gutxituen berreskurapena ardatz izan duen soziolinguistikak ere hizkuntzen biziberritzeari buruzko narratibak *berezko hitzunak* erdigunean jarri iraikei izan ditu nagusiki, haiek harturik hitzun legitimoatzat (Ramallo eta O'Rourke, 2014)³. Legitimitatea, ordea, ez da kontzeptu estatiko bat. Denboran zehar, eremu baten baitan⁴ negoziatu egiten dira inori legitimitatea egotz diezaioketen ezaugarriak. Gaurko

**Legitimazioa
nork eta zeren
arabera merezi
duen definitzen
duen hizkuntza
ideologia
nagusiak
jatorrizko
hitzuna izan du
hitzun
legitimoaren
eredutzat.**

**Atal honetan,
lehenik, bertso-
munduaren
baitan
sozializatzearen
bidezko hiztun
berrien
legitimazio
prozesua izango
dut aztergai, Ipar
Euskal Herriko
testuinguruan.**


egoera soziolinguistikoa ez denez orain dela berrogeita hamar urtekoa, interesgarria da aztertzea egungo euskal hiztun berriak hiztun legitimo-tzat hartuak diren edo ez (edo legitimo-tzat ote duten beraien burua), eta zeren arabera gertatzen den bata ala bestea (Ortega et al, 2014).

Atal honetan, lehenik, bertso-munduaren baitan sozializatzearen bidezko hiztun berrien legitimazio prozesua izango dut aztergai, Ipar Euskal Herriko testuinguruan (IEH, hemendik goiti), horretarako hainbat urtez bertso-eskolan aritu diren bi hiztun berriren bertso-ibilbide eta hiztun-ibilbideak arakatzuz eta hiztun berri gisa izandako bizipenetan arreta jarritz. Ondoren, gaur egungo bertsolariaren irudi kanonikoak legitima-zio prozesu horretan bertan jar ditzakeen mugez arituko naiz.

EUSKARA ETA HIZTUN BERRIAK. ESTRATEGIKOTASUN HANDIA, IKERKETA GUTXI


Euskararen berreskurapen mugimenduaren estrategia hamarkada luzetan nagusiki hizkuntzaren ezagutzan ardaztu izanak hiztun berrien emendatze izugarria ekarri du. IEHn 16-24 urte bitarteko %5,3k jaso du euskara bakarrik etxean, eta %5,6k euskara eta erdara. Eta eus-kaldunen artean %52,9 dira hiztun berriak (Eusko Jaurlaritza, 2018).

1. grafikoa: Lehen hizkuntza(k) 16-24 urte bitartekoen artean. IEH, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2018).



Azken urteetako joeraren arabera, gainera, beherantz doa etxean eus-kara jaso dutenen kopurua⁵:

2. grafikoa: Lehen hizkuntza(k) 16-24 urte bitartekoen artean. IEH, 1991-2016 (Eusko Jaurlaritza, 2018).



Ane Ortegak, Estibaliz Amorrortuk, Jone Goirigolzarrik eta Jacqueline Urlak azpimarratu izan duten bezala, hitzun berrien garrantzi estrategikoa ukaezina da (Ortega et al., 2016). Hitzun hauek euskararekiko zein atxikimendu, hizkuntza-irudi eta zein hizkuntza-praktika duten aztertzea berebizikoa da hitzun berri hauen hizkuntza bizipenak sako-nago ulertzeko (eta alderantziz). Euskararen erabilera apalaren auzia mahai gainean dagoen honetan, zentzuzkoa da pentsatzea hitzun berrien hizkuntza ibilbideek zenbait gako eskain diezazkiguketela erabilerarako jauzia eman dadin behar diren baldintzak xeheago ulertzeko.

Zergatik aztertu, ordea, berariaz hitzun berri goiztiarren eta ezagutza maila handikoen ibilbideak? Pentsa liteke ezin duela alde handirik egon euskara etxean ikasi dutenen eta euskara txiki-txikitan eskolan ikasi dutenen artean. Are gehiago batzuen eta besteen hizkuntza gaitasuna altua baldin bada. Ezberdintasun esanguratsuak ikusi dira, alta, esaterako, Lasarte-Oriako kasuan, euskara 0-3 urte bitartean etxetik kanpo ikasi duten eta etxean ikasi duten 13-24 urte arteko gazteen hizkuntza gaitasunean, euskararekiko atxikimenduan eta lagunarteko erabileran (Jauregi, 2013)⁶.

Ikerketek erakutsi dutenez, faktore ugari eta modu konplexuan eragiten dute hitzunaren hizkuntza hautuetan eta, beraz, portaeretan. Baina, bada hitzun berriei bereziki eragin diezaiekeen faktore bat: hitzun gisa legitimatuak izatearen edo eta sentitzearenak, hain zuzen ere.

Ikerketa honek IEHko bertso-munduan dabilzan, eta euskararen erabilera trinkoa duten bi hitzun berri gazteren legitimazio prozesuak

Euskararen erabilera apalaren auzia mahai gainean dagoen honetan, zentzuzkoa da pentsatzea hitzun berrien hizkuntza ibilbideek zenbait gako eskain diezazkiguketela erabilerarako jauzia eman dadin behar diren baldintzak xeheago ulertzeko.

**Hizkuntza
gutxituetako
hiztun berriek
benetako
hiztunak ez
izatearen
sentipena izan
ohi dute. Eta
ikerketek
erakutsi dutenez,
nork bere buruari
egotzitako
legitimitateak
zein kanpotik
aitortutakoak
(hauek ere
elkarreraginean)
berebiziko
garrantzia dute
hiztun berrien
hizkuntza
erabileran.**

ditu aztergai, haien hizkuntza- eta bertso-ibilbideetan hiztun berri gisa izandako bizipen eta diskurtsoak ardatz hartuz. Zehazki, honako galderari erantzutea izango du lan honek helburu: Bertso-munduko praktikak eta diskurtsoak hiztun berrion legitimazio prozesurako bide ote dira? Zeintzuk dira legitimatze prozesua ahalbidetzen duten gakoak eta prozesua baldintzatzen duen hizkuntza-ideologia?

HIZTUN BERRI GAZTEEN HIZKUNTZA PORTAERAK. LEGITIMITATEA GAKO

I Hiztun berrion hizkuntza portaerak hiztun bakoitzaren bizi-ibilbideak moldatuak dira. Baita sozializazio testuinguruak eraginak ere. Ez da dena egitura, ordea. Badira testuinguru erdaldunetan euskaraz bizitzeko hautua egin duten hiztun berriak, testuinguru euskaldunetan erdaraz bizi direnak dauden bezalaxe (Amorrortu et al., 2017).

Hiztunen hizkuntza hautuetan eta, beraz, portaeran eragiten duten faktoreen analisia soziolinguistikan behin eta berriz aztertu den gaia da. Askotarikoak izan daitezke hizkuntza bat ala bestea hautatzeko eragiten duten faktoreak⁷. Baina, badago faktore bat, esan bezala, hiztun berriei bereziki eragiten diena: hiztun legitimotzat hautemana izatea eta hautematea nork bere burua. Hiztun berrien legitimitatearen gatazka nabarmena da bestelako hizkuntzen testuinguruan ere (O'Rourke eta Ramallo, 2011); maiz, hizkuntza gutxituetako hiztun berriek benetako hiztunak ez izatearen sentipena izan ohi dute. Eta ikerketek erakutsi dutenez, nork bere buruari egotzitako legitimitateak zein kanpotik aitortutakoak (hauek ere elkarreraginean) berebiziko garrantzia dute hiztun berrien hizkuntza erabileran.

Hiztun adina hiztun berri -edo hiztun zahar- mota dago, noski. Hala ere, nolabaiteko sailkapena egite aldera, hiztun berriak -ere- continuum batean bana daitezke, izandako bizi-esperientzietatik garatutako euskararekiko hurbiltasunaren, gaitasunaren, erabileraren, edo atxikimenduaren arabera. Euskal gizartean hiztunak kategorizatzeke zabalduen dauden eta erabilienak diren etiketek, ordea, ez dute konplexutasun hori islatzen.

Euskaldun zahar eta *euskaldun berri* etiketak dira etiketa ohikoenak, hain zuzen, eta hizkuntza jabekuntza prozesuaren nolakotasuna baino ez dute islatzen. Hizkuntza etxean edo etxetik kanpo ikasi izanak bereizten ditu hiztunak bi kategoriotan; funtsean, *benetakotasun* balorearen arabera neurtu izan da hizkuntza-autoritatea gurean, eta *benetako* eus-

kalduna euskaldun zaharra izanik, erran gabe doa (Woolard, 2008). Izan ere, *euskaldun zahar* kategoria esentzialista da, kategoria honek “ama hizkuntza”⁸ kontzeptuaren inguruan eraikitako ideologia baitu oinarri: etxean ikasitako hizkuntzak erabat eta bizitza guztirako baldintzatuko du pertsona horren hiztun ibilbidea, eta ez du beste hizkuntzarik bere lehen hizkuntza bezain ongi menperatuko zein eroso erabiliko (Amorrortu et al., 2017). Alta, “lehen hizkuntza edo lehen hizkuntza izateak ez dakar per se mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere” (Kasares, 2014: 22). “Ama hizkuntzaren” ideologia desafiatzen duten hiztun berriak soilik identifika daitezke, beraz, *euskaldun zahar* kategoriarekin.

Alabaina, ikerketek erakutsi dute badela beste etiketa bat hiztun berriek haien burua izendatzeko erabiltzen dutena: *euskaldun* etiketa, huts hutsean. Kategoría hau benetakotasunaren erreferentea den euskaldun zahar eta benetakotasun gutxien duen hiztun berri kontzeptuen artean kokatu ohi da *benetakotasunaren* kontinuumean (Ortega et al., 2014: 92).

Hiztun bakoitzak erabaki dezake kategoría hauetako batetan kokatzea ala ez kokatzea bere burua “bat edo beste bere eginez, denak baztertuz, edo beren identitatea definitzeko modu berriak asmatuz” (Amorrortu et al., 2017: 164). Maizenik, alta, hiztun berriek euskaldun berritzat edo euskalduntzat dute haien burua, azken hauek izanik *euskaldun zahar* kategoriaren erakusgarri liratekeen ezaugarriekiko hurbilen sentitzen direnak, *berez* hiztun berri izan *arren* (Goirigolzarri et al., 2015).

Ikerketek erakutsi dute hiztun kategoriokiko identifikazioak baduela eraginik hizkuntza erabileran. Alderantziz ere uler liteke: erabilerak berak ere eragiten du legitimitatean, “identitatea eguneroko praktike-tan nahiz erritual edo jazoera berezietan, berariaz edo oharkabean, sortu eta negoziatu, landu eta bizitzen den kode berezi bat delako” (Apo-daka, 2015: 31). Legitimitaterik sentitzen ez duten hiztunek konfiantza falta izan dezakete zenbait testuingurutan euskaraz jarduteko garaian eta, beraz, nahiago izango dute beste hizkuntza bat erabili –edo alderantziz (Amorrortu et al., 2017). Euskaldun zahar gisa ez identifikatze-ak ez du, beraz, zertan erabilera jakin batekin korrelaziorik izan, eus-kaldun gisa identifikatzen direnen kasuan. Bai, ordea, haien burua eus-kaldun berritzat dutenengan (Amorrortu et al., 2017).

Nola heltzen da bat, baina, euskaldun kategoriarekin identifikatzera? Amorrortu eta kideen arabera, honakoak dira gakoak: euskarazko gai-tasun altua eta jariotasun handia izan ohi dute⁹, euskarazko sare sozia-

**Legitimitaterik
sentitzen ez
duten hiztunek
konfiantza falta
izan dezakete
zenbait
testuingurutan
euskaraz
jarduteko
garaian eta,
beraz, nahiago
izango dute beste
hizkuntza bat
erabili –edo
alderantziz.**

**Legitimitatea
praktika
sozialaren bidez
negoziatutako
legitimazio
prozesu gisa
ulertu behar
badugu,
interesatzen
zaigu jakitea
zeintzuk diren
legitimazio-bide
gisa
funtzionatzen
duten faktoreak.**

letan integratuta egon ohi dira, bereziki emozionalki esanguratsuak diren sare sozialetan, euskara egunerokotasunean erabiltzen dute esparru ezberdinetan, eta tokian tokiko euskararen aldaera ezagutzen eta erabiltzen dute.

Muturrera eramanez gero, euskaldun gisa identifikatzen direnetako batzuk portaera berdinak lituzketen euskaldun zaharrekiko bereizten dituen elementu bakarra euskara etxean jaso ez izana da. Beste era batera esanda, hiztun berriok euskaldun zaharren *passinga*¹⁰ dute, *passinga* ulertzen badugu norberari ez dagokion kategoria (altuago) bateko kide gisa irakurria izateko gaitasuna (izan arraza, kasta, klase soziala, generoa, aniztasun funtzionala, edo bestelako edozein kategoria) (Guzmán eta Platero, 2012; Renfrow 2004). Alegia, badakite ez balukete hiztun berriak direla *aitortuko*, besteek euskaldun zahartzat kategorizatuko lituzketela, horrek ekar ditzakeen pribilegioekin, legitimitateari dagokionez, esaterako. Pribilegiook, aldiz, beti izango dira mugatuak: hiztun zaharren *benetakotasunaren* balioan oinarritzen den ideologia baten arabera, hiztun berriak legitimitatea lortu bai, baina, ez du legitimitate gorenera heltzerik. Gailur hori euskaldun zaharrena da¹¹.

Ontzat emanik hiztun berrien legitimitatea eta hizkuntza erabilera elkarreraginean daudela, hiztun berrien legitimazio prozesuak aztertzea da nire asmoa. Lan honetan, beraz, bi xede nagusi izango ditut, Ortega eta autore-kideek azaleratutako gogoeta bertso-mundura ekarri: legitimitatea praktika sozialaren bidez negoziatutako legitimazio prozesu gisa ulertu behar badugu, interesatzen zaigu jakitea zeintzuk diren legitimazio-bide gisa funtzionatzen duten faktoreak (Ortega et al., 2014) eta faktore horiek ideologia jakin baten arabera funtzionatzen dutenez, interesatzen zaigu legitimazio prozesuen atzean dagoen edo dauden ideologiak ezagutzea.

METODOLOGIA

I

Hiztun berrien inguruko ikerketetan metodologia kualitatiboaren erabilera hobetsi da, oro har, eztabaida-taldeak, bizitza-historiak edota elkarrizketak erabiliz gehienik (Pujolar, González, Font eta Martínez, 2010; Pujolar eta González 2012; Kasares 2014; O'Rourke eta Walsh 2015; O'Rourke eta Ramallo 2015). Nire kasuan, behaketa eta elkarrizketak izan dira erabilitako teknikak.

Lan honek funtsean ikerketa etnografiko bat du oinarri. Bost urteko ibilbidean, IEHko bertso-munduan dabiltzan gazteen hizkuntza ibilbi-

deak, portaerak eta identitateak izan ditut aztergai, bertso-ibilbidearekiko eta bertso-munduko esperientziekiko elkarreraginean. 15-20 urte bitarteko 15 gazte elkarrizketatu ditut, horien artean bi izanik hztun berriak¹². Azken hauei bina elkarrizketa sakon egin dizkiet¹³. Lehenean, haien bertso- eta hizkuntza-ibilbideak izan ziren elkarrizketaren hari nagusi. Bigarren elkarrizketak, aldiz, hztun berri izatearekiko bizipenak eta diskurtsoak izan zituen ardatz. Bi elkarrizketatu hauen elkarrizketetako pasarteak soilik erabiliko ditut lan honetan: Nahia eta Aitorrenak¹⁴.

Aitor eta Nahia adin goiztiarrean murgiltze sisteman euskara ikasitakoak dira, Seaska ikastolen federazioaren baitan. Etxean frantsesez egin izan dute beti. Testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, biak lapurtarrak izanik, euskaldunak %16,1 diren eremu batean bizi dira (Eusko Jaurlaritza, 2018). Biek ikasi dute Seaska ikastolen sarearen baitan lehen mailatik lizeora arte.

Bertsotan oso txikitik hasi ziren biak ala biak (9 urterekin), eta geroztik bertso-eskolako kide izan dira, unibertsitate garaira arte bederen, Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolan eginik azken hiru urteak. Bertsotan ere arituak dira plazan, bai eskolarteko txapelketetan, bai gazte sariketan (emaitza onak lortuz eta zenbait sariketa irabaziz IEH zein EH mailan) bai ohiko saioetan, eta baita XILABA -Zuberoa, Nafarroa-Behe-rea eta Lapurdiko- txapelketan ere.

Bertso-munduez gain, euskarazko hainbat sare sozial esanguratsutan murgildurik bizi dira eta euskararekiko atxikimendu biziki azkarra dute. Hizkuntza gaitasun oso handikoak dira, eta euskararen erabilera trinkoa eta proaktiboa dute.

HIZTUN KATEGORIEKIKO TALKA

Hizkuntza jabekuntza eta erabilerari buruzko Nahiaren eta Aitorren diskurtsoetan *naturaltasuna* ageri da behin eta berriz.

Bon, euskaraz lehen hitzak, beraz, ikastolan egin nituen, baina, ez dut oroitzen ikastolako hasiera hura talka bat bezala, uste dut prozesua nahiko naturalki egin zela, eta beraz, handitzen joan nintzen ikastolan segituz (Aitor)

Aski naturala da neretzat, aski, ez dut pentsatzen “euskaraz mintzatu behar naiz”. Euskaraz mintzatzen naiz eta punttu. (Nahia)

Hizkuntza-identitate eraikuntzari buruzko diskurtsoan ageriagoa da hautuaren pisua.

Lan honek funtsean ikerketa etnografiko bat du oinarri. Bost urteko ibilbidean, IEHko bertso-munduan dabilzan gazteen hizkuntza ibilbideak, portaerak eta identitateak izan ditut aztergai, bertso-ibilbidearekiko eta bertso-munduko esperientziekiko elkarreraginean. 15-20 urte bitarteko 15 gazte elkarrizketatu ditut, horien artean bi izanik hztun berriak.

**Haien burua
definitzeko
galdegitean,
Nahiak eta
Aitorrek argi
dute: euskaldun
legitimotzat dute
haien burua.
Baina, ez zaie
emana izan.
Gaiari buruz luze
pentsatutakoak
dira bai bata eta
bai bestea.**

Nik aintzetzan pentsatu dut, ez banintz sekulan bertso-eskolara joan ez nintza-tekeela pertsona berdina, ez nintzatekeela orain naizen pertsona ta ez banintz ikastolatik pasa oino guttiago. Izanen nintzen desberdin desberdina zenta ez nuen euskara ikasiko beraz ez nintzen bertsoan hasiko beraz ez nituen... eta beraz azkenean euskara nere identitatearen parte da bainan batzuentzat naturala da, sortzen dira euskal familia batean eta ez dute pentsatzen ; «nere burasoak ez baziren euskaldunak izan ...», naturala da haientzat baina neretzat ez da hain naturala izan. Batzuek ikasten dute euskara, ikastolan mintzatu dira, kurtso orduetan eta puntuu, eta ez dute gehiago galderarik, ez dizkiote galdera gehio pausatzen haien buruari, bainan ni, zinez nere eraikuntzaren parte izan den zerbait da eta euskarari esker egiten ahal ditut orain egiten ahal dudan guzia [...]. Zinez da tresna bat nere eguneroko bizian eta ni eraikitzeke eta beraz ez banu ikasi euskara ez nintzen orain den Nahia izanen. (Nahia)

Haien burua definitzeko galdegitean, Nahiak eta Aitorrek argi dute: euskaldun legitimotzat dute haien burua. Baina, ez zaie emana izan. Gaiari buruz luze pentsatutakoak dira bai bata eta bai bestea.

Nahiaren kasuan, bere burua *euskaldun* gisa definitzen du, huts hutsean. Kontziente da, ordea, hiztun berri izateak bere legitimitatea justifikatu behar izateko posizioan kokatzen duela.

Euskaldun zahar, euskaldun berri, euskaldun nanana, zuk nola definitzen duzu zure burua? [galdera bukatu aurretik erantzuna ematen du] A, euskaldun. Nik euskara ikasi dut hiru urtetan eta nere biziaren hizkuntza nagusia da. Eta amarekin joan naiz Lillera joan den aldian, apartamentu bat xekatzeko eta logela berdinean lo egin dugu, eta erran diot e, biharamunean edo hola, “beldur dut euskara ahanzte, bost urtez joaiten baldin banaiz Euskal Herritik” eta erran dit “Badakizu, amets egiten duzu euskaraz, beraz ez duzu ahantziko euskara”. Entzun nau mintzatzen euskaraz nere ametsetan, beraz ni ez naiz euskaldun berri, ni euskalduna naiz. (Nahia)

Norbere burua euskalduntzat definitzea estrategia bat izan daiteke hiztun berri gazteengan, euskaldun berri etiketari ihes egiteko: “en el caso de los sujetos que han aprendido el euskera a edad temprana, también se aprecia que ser euskaldun es de alguna manera «mejor» que ser euskaldunberri” (Amorrortu et al., 2014: 91). Baina, maiz, kategoria “berri” honekin identifikatzeak ez dakar berekin euskaldun berri eta euskaldun zahar kategoriak auzitan jartzea: “se trata de una categoría que obvia la ideología de la lengua materna sin cuestionarla” (Amorrortu et al., 2014: 91). Nahiak ez du, ordea, euskaldun kategoria euskaldun berri eta euskaldun zahar kategorien arteko erdi-maila gisa

ulertzen, edo ez erabat. Euskaldun kategoria euskaldun zahar kategoriarekin parekatzeko apustua egiten du. Ez du benetakotasunaren balioa zalantzan jartzen. Bai balio hori jatorrizko euskaldunen monopolio izatea, ordea. Euskaldun izateaz ari denean, *benetako* euskaldun izateaz ari da, hain zuzen. Eta *Benetakotasuna* jaiotzazkoak ez diren terminoetan negoziatzeko aukera egiten du, horrek bere burua behin eta berriz kokatu behar izatera eramaten badu ere:

Eta pentsatzen dut euskaraz, kondatzen dut euskaraz... Eta batzutan, aurtan egin ditut, bi urtez egin ditut matematikak frantsesez, eta zerbait kalkulatu behar dudalarik, gertatzen zait frantsesez pentsatzea. Eta hasieran kezkatua nintzen, eta momentu baten buruan... Mais, ez, zenta entzuten da usu “egiazko euskalduna da euskaraz kondatzen duena ere”. [Nik: “A bai?”] Bai. Entzun dut behin baino gehiagotan. Be bi urtez egin ditut matematikak frantsesez. Be, normala da pentsatzea “deux plus deux”, baina, gero nere egunerokoan euskara beti hor dut beraz e, zinez ez naiz kezkatzen. [Eta egiazki beldurra duzu euskara galtzea?] E... ez. Ez dut erabiliko, baina, ezin dut ahantzi euskara... e... ez da posible. (Nahia)

Aitorrek bere aldetik, bere burua euskaldun zahar gisa definitzen du. Ez ordea kategoria bera auzitan jarri gabe. Kontziente da euskaldun zaharraren ohiko definizioarekin bat egiten ez duen ibilbidea duela. Euskararen ikaskuntza prozesua bera problematizatzen du, eta aipatzen du hiztun gisa “zerbait eskas zuela” sentitzen zuela nerabezaro hasieran. Ez zuela euskara berak nahi bezain ongi menperatzen. Haien burua euskaldun berritzat dutenengan ohikoa da euskal hiztun osoaren ez izatearen sentimendu hori (Ortega et al., 2016). Aitorrek, ordea, hutsunea bete izanaren esperientzia ere bizi izan du.

Bertsoen bidez, irakurriz ta idatziz, azkenean gehien landu dudana hizkuntza delako eta azken hiru lau urte hauetan lagun artean euskaraz bakarrik egiten dudalako. - Aitor

Bere ezagutza eta erabilera mailak kontuan izanik, bestalde, Aitor kontziente da maiz euskaldun zahartzat izan ohi duela jendeak, berak kontrakorik adierazi ezean. Eta hiztun berria dela adierazten duenetan miresmena sortu ohi duela maiz. Gutxiespenetik zerbait duen miresmena. Eta hain justu ere horregatik, esplizituki adierazten du hiztun kategoriak eta hauen arteko hierarkiak berrikusi beharra. Ez du *passingak* eman diezazkiokeen pribilegioez jabetu nahi. Pribilegioen banaketa-irizpideen sistema bera jartzen du auzitan.

Aitorrek bere aldetik, bere burua euskaldun zahar gisa definitzen du. Ez ordea kategoria bera auzitan jarri gabe. Kontziente da euskaldun zaharraren ohiko definizioarekin bat egiten ez duen ibilbidea duela.

**Honako galderei
erantzuna
bilatzen saiatuko
naiz datozen
ataletan: bertso-
eskolan aritzeak
eta bertso-
munduko parte
izateak ba ote du
eraginik
hizkuntza
ezagutza eta
erabileran? Ba
ote du bertso-
ibilbideak
ezagutza eta
erabileraz gain
hiztun berrian
legitimazio
prozesuan
bestelako
eraginik?**

Ni ere ez naiz oso kategoria hoiere aldekoa. Iruditzen zait euskaldun berri termino hori erabili izan dela batzutan modu gutieslean... miresmen puntu batekin bai, baina, beti ere kategoria hori mantentzeko eta gutti-gora-beherako botere harreman bat osatuz. Hala ere, termino hoiere inguruan galdetu didatenean eta, gehienek euskaldun zahartzat jo naute eta nik ere euskaldun zahartzat jotzen dut nire burua, apenas dudalako oroitzapenik euskarari lotuta ez doanik, edo euskaraz nire burua adierazteko gai ez nintzen garaietako oroitzapenik edo... - (Aitor)

Hiztun legitimotzat dute haien burua, beraz, bai Nahiak eta bai Aitorrek. Ezagutza maila altua dute, eta erabilera trinkoa. Baieztapen horietatik abiatuz, honako galderei erantzuna bilatzen saiatuko naiz datozen ataletan: bertso-eskolan aritzeak eta bertso-munduko parte izateak ba ote du eraginik hizkuntza ezagutza eta erabileran? Ba ote du bertso-ibilbideak ezagutza eta erabileraz gain hiztun berrian legitimazio prozesuan bestelako eraginik?

BERTSOLARITZA ETA HIZKUNTZA GAITASUNA

I Bertsoan aritzeko hizkuntza gaitasun altua abantaila nabarmena da. Zenbat eta hizkuntza baliabide gehiago, orduan eta errazagoa izango zaio bati bere ideiak eta diskurtsoa emandako egitura metriko batean eta behar den bezala errimatuz antolatzea. Eta alderantziz, noski; bertsoan trebatzeak ezinbestean dakar norbere hizkuntza baliabideak areagotzea, oharkabea, hein batean, eta berariaz, beste batean. Bertsoan ari denak, beraz, badaki hizkuntza lantzen ari dela.

Eta bertsoan ari ez denak ere badaki eguneroko bizian hizkuntza erabiltzeak eskatzen duen hizkuntza ezagutzatik haratagokoa behar duela bertsoan ari denak. Eta beraz, bertsolaria -are gehiago, bertsolari onahizkuntza ongi menperatzen duen hiztun gisa irakurria da.

Adibidez nere lanean edo nere, nere ikastolan deitzen naute batzutan Elhuyar zenta Elhuyar hiztegi bat da, edo Euskaltzaindia, eta bo irriz hartzen dut mais... (...) adibidez EGA azterketa pasatzean, bon biziki urduri naiz, ez dakit zendako pasa zait burutik ez nuela lortuko eta denek erran didate "mais zuk ez baduzu nork badu?" (Nahia)

Bertso-eskolan dabiltzan gazteek argi dute bertsolaritzan trebatzea euskaraz trebatzea ere badela. Horrez gain, bertsolariak euskal gizartearen duen irudiagatik, bertsoan dabilenari, eta bereziki, bertsoan trebea denari, hizkuntza gaitasun altua egotziko zaio. Eta bertso-eskolako

gazteak fenomeno horretaz oso kontziente dira, nahiz korrelazio zuzen hori emantzat jotzea sinplifikazioa iruditu.

Adibidez, pasatzen dugularik EGA azterketa, denek, bertso eskolako guziek lortzen dugu eta abantsu denek badugu hamasei ta hemezortzi artean. Erran nahi dut, beraz hori ez da kasualitatea eta, eta hori ere ikastolan entzuten da, eee... “bai, ni ez naiz euskaraz ari edo nik ez dut EGA zenta nire burasoek ez dakite euskaraz”, ta nik erraiten dut batzutan mais nereek ere ez, “ah mais zu bertso eskolan zira” eta azkenean egia da, lantzen da ere bainan ez da aitzakia bat zenta nik ber.. euskara ez dut bertso eskolan ikasi, beraz eee... (Nahia)


Gaitasun objektiboa areagotzeaz gain gaitasun subjektiboa ere areagotzen du bertso-eskolaren eta bertso-munduaren baitako esperientziak. Gaitasun subjektibo apalak berarekin dakarren bezala nork bere buruari egotzitako legitimitate eskasia, gaitasun subjektibo altuak, eta kanpokoek gaitasun altua egozteak, legitimazio prozesuan eragin positiboa du. Eta horrez gain, zenbat eta gaitasun erreal edota hauteman handiagoa izan, orduan eta euskararen erabilera handiagoa egin ohi da, hiztun berrien kasuan ere (Goirigolzarri et al., 2015).

BERTSO-MUNDUA EUSKARAZKO ETA EUSKARAREN ALDEKO MUNDU

I

Bertso-mundua euskaraz garatzen da, oro har. Ados. Baina, hortik haratago doa datuek erakusten dutena. Badago erlazio bat (ez bortxaz kausa-efektuzkoa, noski) bertso-munduan ibiltzearen eta euskara erabiltzearen artean: bertso-munduan dabiltzanek, oro har, euskararen erabilera oso trinkoa dute bertso-mundutik kanpo ere.

3. grafikoa: Bertsolaritzaren publikoan eta euskal herritarren artean euskararen erabilera. (Zubiri et al., 2018). (EHko datuak VII. Kale erabileraren neurketei dagozkie, eta publikoaren datuetan, gehien erabiltzen duten hizkuntza aitortuari dagozkie.)



Gaitasun objektiboa areagotzeaz gain gaitasun subjektiboa ere areagotzen du bertso-eskolaren eta bertso-munduaren baitako esperientziak. Gaitasun subjektibo apalak berarekin dakarren bezala nork bere buruari egotzitako legitimitate eskasia, gaitasun subjektibo altuak, eta kanpokoek gaitasun altua egozteak, legitimazio prozesuan eragin positiboa du.

***Bertsolariari
eskatu egiten
zaio euskararen
gaineko
diskurtsoen
sortzaile eta
hedatzaile izatea.***

Bertso-munduan sozializatzea euskararen erabilera trinkoa ezaugarri duen mundu batean sozializatzea da, beraz. Baina, ez hori bakarrik: bertso-munduan sozializatzea euskararen aldeko eremu diskurtsiboan sozializatzea ere bada. Entzun besterik ez dago bertsolaritzaren sozializazio gune nagusietako bat den Txapelketa Nagusian euskarak gai gisa duen presentzia (Akizu, 2018). Bertsolariari eskatu egiten zaio euskararen gaineko diskurtsoen sortzaile eta hedatzaile izatea¹⁵. Eta diskurtsoaren sortzaile eta hedatzaile izateko funtzio hori bera bete dezaaten eskatzen zaie bertsolari gazteei eskolarteko txapelketetan ere, esaterako. Hona hemen, adibide gisa, IEHko 2015eko eskolarteko finalean bakarkako lanerako jarritako gaia: “Zuen kolegio edo lizeoko ikaskideak kanpoko aire hartzean frantsesez ari dira, behar baino gehiago.”¹⁶

2015-06-06 Hazparne
IEHko eskolarteko finala
Bakarkako ariketa

Nahia :
Autobusean, aire hartzean,
Gelan, frantsesez gustura
Lizeo euskaldun batean batzuek
Ez dakite nun den muga
Hunat zertara hautuz etorri
Diren ere badut duda
Nahiz ta egoera kezkagarriak
Sortzen didan arrangura
Kasu egiteko erran diet ta
Orain beraien esku da

Aitor
Ikastolatik lizeoraino
Berdin da ororen buru
Gaur euskararen biziraupena
Ez dago oso seguru
Gazte jendeon erabilpenak
Izan behar du helburu
Gure adinean euskara ez bada
Erreferentzizko mundu
Horrela bada ikastoletan
Zerbait gaizki egin dugu

Bertso-mundua berak sortzen eta birsortzen ditu euskararen erabileraren aldeko diskurtsoak, bertsolaritzaren sozializazio esparruetan. Kanpora begira, beraz, neurri batean behintzat, bertsolariak euskararen erabileraren aldeko diskurtsoa bera gorpuzten du.

1. irudia: Maialen Lujanbioren aurpegia eta bere BTN2009ko txapeldunaren agurraren bukaera¹⁷ irudikatzen dituen horma-irudia (Tolosa, Gipuzkoa).



Uste dut jendeak hori goaitatzen duela. Goaitatzen du euskararen inguruko aldarrikapenak guk egitea, eta pixkat misio bat bezala. Nire ustez inportantea da. Eta horrek erakarri zaitu gehio, edo ez edo... Nire ustez egin da nere bidean zehar eta nire bidean zehar ohartu naiz (...). Hain naturala zena, ohartzen zira, natura da, baina, arraroa da, hala ere. (Nahia)

Bertsolaria ez da soilik mezulari gisa irakurria. Euskararen erabileran eredu gisa ere ikusia da. Hala, bertsolari izan nahi duenari eskatzen zaio, bertsotan jakitea ez ezik, bere euskararen gaineko diskurtso eta praktiken gaineko gogoeta bat.

Oroitzen naiz bosgarren urtean, lehen aldiz kantatu nuela Bertsulari-Ttikin, ta ikaskide guztien aitzinean, ta denak ni animatzen, krixton eguna izan zen nerezako... eta sartu ginen ikastolara eta hor hasi ginen futbolearen jokatzeko edo auskalo zertan, eta oroitzen naiz frantsesez, fran, frantsesez hitz egiten genuela, ta irakasleak bota zidala "Goizean Bertsulari-Ttikin kantatu ta atsaldean lagunekin frantsesez?" Oroitzen naiz hortaz. [Ta nola bizi izan zinen, hori?] Oso gaizki. Bai bai, kriston lotsa sentitu nuen... (Aitor)


Bertsolaria ez da soilik mezulari gisa irakurria. Euskararen erabileran eredu gisa ere ikusia da. Hala, bertsolari izan nahi duenari eskatzen zaio, bertsotan jakitea ez ezik, bere euskararen gaineko diskurtso eta praktiken gaineko gogoeta bat.

70eko hamarkadan sortu eta 80ko hamarkadan garatu ziren bertso-eskolek eta hauen inguruko ideologiak ahalbidetu eta legitimatu zuten bezala emakumeak bertsotan trebatzea, bertso-eskola horiek eta ideologia horrek berak ahalbidetu eta legitimatu zuten, lehen aldiz, etxetik bertsozale ez zirenak bertsotan trebatzea; etxean erdaraz ari ziren hiztun berriak tartean.

BERTSO-MUNDUA EUSKALDUN ZAHARREN MUNDU

Gaur egun zenbait erdalgunetan hiztun berriak dira bertsolaritzaren sozializazio-eragile nagusi. EHko bertso-eskolak hiztun berriz osatuak dira, hein handi batean, eta hiztun berriak dira bertsozale berri potentzial gehienak. Esan liteke, ordea, orain arte bertsolaritza nagusiki gizonen gizonentzako garatutako praktika sozial eta kulturala izan den bezala, euskaldun zaharrek euskaldun zaharrentzako garatua ere izan dela, eta dela oraindik, neurri handi batean. Horren adierazle dira, besteak beste, bertsolaritzari buruzko azken ikerketa soziologikoko datuak: EHko euskal hiztunen artean %15,10 baldin badira euskaldun zaharrak, %69 dira ohiko bertso-saioetako entzuleen artean, eta Txapelketa Nagusiko publikoak gustukoak dituen bertsolarien artean %95¹⁸.

4. grafikoa: Bertsolaritzaren publikoan eta euskal herritarren artean lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa. (Zubiri et al., 2018). (EHko datuak VI. Inkesta Soziolinguistikoa dagozkie).



70eko hamarkadan sortu eta 80ko hamarkadan garatu ziren bertso-eskolek eta hauen inguruko ideologiak ahalbidetu eta legitimatu zuten bezala emakumeak bertsotan trebatzea, bertso-eskola horiek eta ideologia horrek berak ahalbidetu eta legitimatu zuten, lehen aldiz, etxetik bertsozale ez zirenak bertsotan trebatzea; etxean erdaraz ari ziren hiztun berriak tartean. Baina, emakumeen kasuan nola, bertso-eskolarako sarbidea demokratizatu izanak soilik ez dakarren bezala gizarteko emakume-gizon proportzioa oholtzara eramana izatea, bertso-eskole-tako atea hiztun berriei zabalik egoteak bere horretan ez du gizartean dagoen hiztun berri proportzioa oholtzara eramanarazi.

Nire ikerketaren testuinguruan aintzat hartuz, IEHn bertsoan aritzen diren gazteetan ere, hiztun berri gisa kategorizatu daitezkeenak gutxiengo nabarmena dira¹⁹.

Zinez ez dakit zendako maitatu nuen, zendako hasi nintzen zenta bertso-eskolan berriz nintzen bakarra, denen burasoek bazekiten euskara, mais biek eh, gainera bi burasoek eta denak bertsozaleak ziren familian. Ta ni hor nintzen, e... buraso euskaldunak ez zituen neska, ez nuen deus ezagutzen bertsoaritzaz... Bainan deus e! (Nahia)

Bertsolari gisa identifikatzeak bertso komunitatearekiko, eta hedaduraz, hiztun zaharren komunitatearekiko harreman zuzena edo eta partaidetza egozteko balorea du. Kanpotik begiratuta, bertso-munduko hiztun berriei legitimitatea egotzi dakieke, beraz, zentzu horretan. Aldiz, hiztun berriok bertso-munduaren baitan ikusten dute, beste eremu batzuetan ez bezala, haien hizkuntza identitatea auzian jarria.

TXALORIK EZ, ARREN

I Nahia eta Aitorren testuinguruan, hiztun berria izatea ez da salbuespena izatea. Lizeoan ohikoa da lagunen artean guraso bat ala gehiago ez euskaldunak izatea. Lizeotik kanpoko ezagunen artean ohikoa da euskaraz ez jakitea ere. Bertso-eskolan guraso erdaldunen seme-alabak gutxiengoa izanik ere, ez dute gaiak hitz egin izan, konstataziotik harago. Ez dute hiztun berri izatea pisuzko ezer denik sentitu, plazan kantuan hasi arte.

Hor, nik dut bizipena ba hamazazpi urterekin, hamasei urterekin, sariketak egiten hasi edo saioaren bat bereziki Gipuzkoan edo Bizkaian eta... ba... hor dituzu bi, ez dakit, zure izaeraren baitan badituzu bi ezaugarri miresmenerako iturri izan daitezkeenak, ez? Iparraldekoa eta bertsolaria, eta gero gurasoak datoz zure bila saio ondotik eta hitz egiten dute antolatzaileekin eta antolatzaileak ohartzen dira gainera gurasoak ez dituzula euskaldunak, ez? Eta hor bi ezaugarri horiek nabarmentzen dizkizute bai ala bai, gehienetan. (Aitor)

Bertsotan ari diren hiztun berri gisa, bai Nahiak eta bai Aitorrek sentitu dutena, merituaren aitortza da. Aitorren hitzetan, “miresmen puntu bat”. Eta ez bata ez besteak ez dituzte bizipen positibotzat, ordea, aitortza une horiek.

Kontua da izatekotan nik izan dudana besteengandik heldu den miresmen puntu hori ez? “Joe...” gurasoak erdaldunak izanez eta bertsotan, eta euskaraz hain ongi egin, hain ongi idatzi... Ez dakit, gehienbat hortik joan da bizipena

**Bertsotan ari
diren hiztun berri
gisa, bai Nahiak
eta bai Aitorrek
sentitu dutena,
merituaren
aitortza da.
Aitorren
hitzetan,
“miresmen puntu
bat”. Eta ez bata
ez besteak ez
dituzte bizipen
positibotzat,
ordea, aitortza
une horiek.**

**Bai Aitor eta bai
Nahia deseroso
sentiarazten ditu,
beraz, hiztun
berri izateagatik
jasotzen duten
miresmenak.
Lehenari,
gehienbat bere
euskararekiko
harremana
artifizialagotzat
jotze hori zaio
deserosoa. Eta
euskararekiko
gaur egun duen
harremana
kontuan hartuta
bere kasua
salbuespen gisa
aurkezte hori.**

eta erantzun naturala holakoetan izaten zen ez nuela besteek baino meritu gehiago. Deseroso sentiarazten zaitu horrelako gauzak entzuteak? Hein batean bai. Hein batean bai, ze emantzat jotzen da guk bestelako prozesu bat izan behar dugula, hizkuntzarekiko lotura gatazkatsuagoa izan behar dugula agian, ez hain naturala, ez dakit, nahiko arrarotzat jotzen da euskara ama hizkuntza ez izanik, adin batera iritsita euskaraz hobeki moldatzea beste edozein hizkuntzatan baino... gehienbat ikuspegi horretatik. (Aitor)

Ainitzetan, badakit erran didatela burasoak euskaraz ez jakiteagatik mereximendu gehiago nuela oraindik bertsoan aritzea eta hori... Eta nire burasoei erran diete, hori, eta ez dute baitezpada ongi hartu! (...) Batek erran zien behin "Elle a du mérite!", fin, besteek baino gehiago. Amarentzat pixkat gogorra izan zen... (Nahia)

Bai Aitor eta bai Nahia deseroso sentiarazten ditu, beraz, hiztun berri izateagatik jasotzen duten miresmenak. Lehenari, gehienbat bere euskararekiko harremana artifisialagotzat jotze hori zaio deserosoa. Eta euskararekiko gaur egun duen harremana kontuan hartuta bere kasua salbuespen gisa aurkezte hori. Nahiak, aldiz, gurasoekiko enpatiaz gatazka gisa bizi du berari egotzitako meritua, gurasoek euskaraz ez jakitea bere garapenerako eragozpen bat dela auresuposatzen baitu. Merituaren aitortza, beraz, bi ahoko ezpata gisa sentitu ohi dute biek ala biek. Ez dute aitortza gurasokeria gisa bizi baitezpada, baina, bada-kite miresmen horren atzean dagoena hiztun kategorien kapital linguistikoa lortzeko aukera ezberdintasuna dela.

Gurasokeria ez nuke erranen. Lehenago aipatzen nuen miresmen eta meritu berezi bat ikuste hori... Baina, da horrek ze izan dezakeen giblean... (Aitor)

Izan ere, hiztun berriari borondatearen balioa erantsi dakioke, eta hortik, ahaleginaren balio horretatik legitimitatea areagotu, edo benetakotasunaren balioa lehenetsiz legitimitaterik aitortu ez. Ala zuzenean ahalegin eta borondaterik ez egotzi edo ez baloratu, eta prozesua baino emaitzari begiratu, hots, gaitasunari, erabilerari, eta bestelakoei, eta hortik soilik baloratu hiztunaren legitimitatea. Aukera hauek eta gehiago egon litezke. Baita aukera batzuen eta besteen arteko hibridoak ere. Norbere balore-eskala aldatu ere egin liteke, kasutik kasura, edo garaitik garaira. Baina beti izango dira hautu hauek, kontzienteki ala inkontzienteki, ideologia baten emaitza.

Eta bertso-munduak, kanpora begira, hiztun berria legitimatzeko gun bat izanagatik, bertso mundua ez da gizartearekiko modu isolatuan garatzen, ezta hizkuntza ideologiei dagokienez ere.

AMA HIZKUNTZAREN ALDE, ETA KONTRA

I Hain justu, modu isolatuan garatzen ez delako, gizarteko diskurtsoek bertso-munduan eragiten duten bezala, neurri txikiagoan bada ere, bertso-munduko diskurtsoek ere eragiten dute gizartean. Eta jakinez bertso-mundua hiztun legitimoz osatua dagoela gizartearen begietara, estrategikoa da hizkuntzaren berreskurapen prozesuari begira, bertso-mundua berak duen zilegitasun aitortutik eta euskararen inguruko diskurtsoak sortzeko eta birsortzeko duen gaitasunetik, *benetakotasunean* oinarrituriko ideologiari alternatibak eskaintzea.

Eta neurri batean, gertatzen da. Bertso-munduaren baitan kapital sinboliko handiena izan dezaketen hainbat eragileren hiztunen legitimitateari buruzko diskurtsoa bada, zuzenean ala zeharka, *benetakotasunaren* balorean oinarritzen den diskurtsoarekiko kontrajarria. Gaur egungo bertsolaritza ez da eremu euskaldunetan soilik garatzen, eta, hain zuzen ere, bertsolaritza biziberritzen emandako pauso nabarmenenak erdalguneeetan eman dira azken hamarkadotan, eta badago, bertso-munduko diskurtso-unibertsoan, gune honetako bertsozale eta euskaldunekiko ezagupen bat, bai ezaguera eta bai aitortza zentzuan.

Lehen adieraren adierazle gisa har liteke Maialen Lujanbiok Uxue Alberdiren galderari erantzunez emaniko adierazpena, zeinetan adierazten duen bertso-munduaren baitako ibilerak ematen duela, hain zuzen ere, euskaldun izateko modu ezberdinen berri izateko aukera:

Bertsolaritza izango da Euskal Herrian euskara hutsean egiten den jardun gutxienetako bat. Nola eragin du eta eragin izan du zure euskalduntasunaren kontzientzian horrek?

Batetik, bertsolaritzak Euskal Herria ezagutzeko aukera eman dit. Nik, nerez, banuen sentiberatasun bat, ideologiara oraindik iritsi ez zen sentimendu bat, eta bertsolaritzak eman dit horretan sakontzeko aukera. Eta eman dit, baita ere, euskaldun izateko eta euskara bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko aukera. Azpimarratu nahiko nuke hori, euskarari buruz hitz egiten dugunean oso zaila izaten delako erretratu orokor bat egitea, egoera soziolinguistikoari dagokionean Euskal Herrian lurralde, zonalde, auzo, eta hiri desberdin asko dauzkagulako. Familia euskaldunekoa naiz ni, herri nahiko euskaldun batekoa, baina ezagutu ditut euskaldun izateko beste modu batzuk, beharbada ez hain tradizioz edo etxetik datozenak. (Lujanbio, 2017-03-01)

Estrategikoa da hizkuntzaren berreskurapen prozesuari begira, bertso-mundua berak duen zilegitasun aitortutik eta euskararen inguruko diskurtsoak sortzeko eta birsortzeko duen gaitasunetik, benetakotasunean oinarrituriko ideologiari alternatibak eskaintzea.

***Euskalduntzeko
moduak aipatu
diskurtsoetan
duen
zentralitatea
aintzat hartuz,
ezin esan liteke
bertso-munduan
gainditutako
dikotomia denik
euskaldun
berrien eta
euskaldun
zaharren artekoa.
Legitimaziorako
bide diren
ezaugarrien
birdefinitze
prozesua
martxan egon
arren.***

Bigarren adieraren adibiderik behinena Amets Arzallusek 18. Korrika-ko lekukorako idatzitako mezuan “ama hizkuntza” kontzeptuaz egiten duen irakurketa da, beharbada:

Euskara da ene ama hizkuntza. Baina ama hizkuntza zer da? Ama hizkuntza ez da lehenik ikasten den hura, ez da amaren magalean jaso genuen hura, ama hizkuntza da, enetzat, pentsatzeko baliatzen dugun hizkuntza. Gure arrazoiak eta irudiak nola fabrikatzen ditugun han dago gure ama hizkuntza. Eta posible da, bizitzan zehar, euskara ama hizkuntza bilakatzea, euskaraz pentsatzen ikastea. Bide horretan zatoztenoi miresmen eta goraintzi, eta norbaitek esaten baldin badizue zuek euskaldun berriak zaretela, edo euskara ez dela zuen ama hizkuntza, esaiozue zaharra izatea ez zaiola inori gustatzen, eta bide batez, esaiozue, ama hizkuntza ez dela lehenik ikasten den hura, pentsamendua sortzen duen bakoitzaren hizkuntza baizik. (Arzallus, 2013-03-24)

Bertso-munduan, beraz bere burua euskararen berreskurapenerako eragileztat eta gizarte mugimendu eraldatzailatzat duen neurrian, eta eremuaren baitan botere-posizioetan dauden eragileek diskurtso eraldatzaile hauei eusten dieten heinean, pentsa liteke halako diskurtsoen hedatzaile izateak kapital sinbolikoa egotziko diela bertso-munduko beste eragileei ere. Prozesu hau, ordea, ez da osoki eman.

Benetakotasunaren balioari zentralitatea kentzen dieten diskurtsoak, oraindik orain, ez daude erabat artikulatuta bertso-munduaren baitan ere, gizartean hegemonikoa den ideologiarekiko alternatiba gisa. Esan liteke, beharbada, “ama hizkuntzaren” ideologia muturreraino eraman izan duten diskurtsoak ez direla hain hegemonikoak gaur egun. Eta bertso-ekitaldi nabarmenetako diskurtsoetan positiboki aipatu ohi direla bai euskaraz etxean jabetu izana²⁰ eta bai euskara etxetik kanpo ikasi izana ere²¹. Azpimarra dezagun, hala ere, diskurtsoetan, euskaldun *legitimoaren* posizio eztabaidaezinean kokatzen dela igorlea, eta hizketa-gai duen *beste*a dela, ia beti, hiztun berria. Bertso-munduko eragileek, modu inplizitu zein esplizituagoan, ezinbestean *euskaldun zaharren* ordezkari gisa irakurriak diren horiek, abegi egiten diete *hiztun berriei*. Ez da, ordea, eremua bera definitzen duen *benetakotasun* elementua desagertu. Eta euskalduntzeko moduak aipatu diskurtsoetan duen zentralitatea aintzat hartuz, ezin esan liteke bertso-munduan gainditutako dikotomia denik *euskaldun berrien* eta *euskaldun zaharren* artekoa. Legitimaziorako bide diren ezaugarrien birdefinitze prozesua martxan egon arren.

Plazaz plazako bertsolarien arteko hiztun berri ratioak erakusten du, ordea, oraindik ere dikotomia horren arabera kapital sinbolikoaren banaketa gertatzen dela bertso-munduan ere. Izan ere, bertsolari legitimoaren ideia *euskaldun zahar* izatearekiko nolabaiteko korrelazioan dagoela adierazten du, ezinbestean.

BENETAKO BERTSOLARIA. MUTANTE BAT PLAZAN

I Eraldaketa ez da, beraz, diskurtso soiletatik etorriko. Bertso-munduak, *hiztun legitimoen mundu* gisa, errepresentazio bidez ere eraldatu lezake hiztun legitimoaren inguruko ideologia. Hiztun berriek bertsolari gisa errepresentazioa lortzea, ordea, loturik dago bertsolari legitimoaren ideiarekin.

Bertsolari gisa legitimitatea lortzea unean uneko kanonarekin eta bertsolariari loturiko iruditeriarekin lotua dago, besteak beste. Eta iruditeria horri dagokionez, bertsolaria hiztun legitimoa da lehenik eta behin, ezer baldin bada. Hala behar du. Baina, ez hiztun legitimoa soilik. Bertsolari legitimoaren ezaugarriak ere negoziatuak izan dira eta negoziatioan daude bertso-munduaren baitan. Gauza bat da *bertsotan egiten jakitea*, eta bestea *bertsolari izatea*.

Bertsolari legitimoaren figurari esleitzen zaizkion ezaugarriak, bertso-munduaren baitan negoziatzen dira, garaiz garai; txapelketen bidez, saioen merkatu irizpideen bidez eta bertsolaritzari buruzko diskurtsoen bidez, besteak beste. Hala, denboran zehar aldaketa nabarmenak jasan ditu –a artikulu mugatzailean *bertsolariaren* figurak. 70ko hamarkadan esaterako, *benetako* bertsolaria ez zen emakumea²². Ez zen hiritarra edo erdal gunekoa²³. Ez zen *kanpotik* etorria²⁴. Ez zen bertso-eskolan ikasia. Eta ez zen hiztun berria. Benetako bertsolari izatetik urruntzen zuen bat halako ezaugarriaren bat gorpuzteak; *benetako* bertsolaria *berez* bertsolaria zena zelako. Sena zuena. Etorria. Eta berezko-tasun hori pertsona profil bati soilik egotz zekiokeen: baserri giroko gizon jatorriz euskaldun eta euskaldun zaharrari, hain zuzen.

Bertso-eskolan ikasi izanak orduko bertsolariaren kanonaren bazterretan kokatu zituen hasera batean, lehen bertso-eskolako bertsolari haiek. Oso ongi egin zezaketen bertsotan, teknikaz zuzen eta diskurtsoz egoki, baina, beti izango ziren *in vitro* sorturiko bertsolariak eta ezinezkoa izango zitzaien *benetakoaren* balioaz jabetzea. Bertsotan ederki egiten duen *berezko* bertsolaria beti izango zen bertsotan ederki egiten zuen bertso-eskolako bertsolaria baino *bertsolariagoa*. Ez zegoen

70ko

**hamarkadan
esaterako,
benetako
bertsolaria ez zen
emakumea. Ez
zen hiritarra edo
erdal gunekoa. Ez
zen kanpotik
etorria. Ez zen
bertso-eskolan
ikasia.**

**Gaur egun
bertsolariaren
irudia ez da
lehen bezain
monolitikoa.
Bertsolaria
emakumea ere
izan liteke.
Bertsolaria
hiritarra ere izan
liteke. Eta hiztun
berria ere bai.**

beste aukerarik, ordea. Bertso-eskolako bertsolariak legitimatu ezean bertsolaritza desagertzea kondenaturik zegoen. Bertso-munduak aski intuizio izan zuen orduan horretaz jabetzeko, eta pixkanaka joan ziren ezaugarri horiek negoziatzen, ideologiak zartatzen eta bifurkatzen. Eta denbora tarte aski laburrean, bertso-eskolan ikasia izatea, onartu beharreko ezaugarri bat izatetik bertsolari legitimoaren ezaugarri izatera heldu da²⁵.

Zartatze ideologiko horrek ateak zabaldu zizkion *benetakotasun* balorerik egotzen ez zuten bestelako ezaugarriak ere bertsolariari atxikigarriak bilaka zitezen, eta, ondorioz, gaur egun *bertsolariaren* irudia ez da lehen bezain monolitikoa. Bertsolaria emakumea ere izan liteke. Bertsolaria hiritarra ere izan liteke. Eta hiztun berria ere bai²⁶. Baina *benetakotasunaren* balioan oinarritzen den ideologia ez da erabat gainditu, eta ezaugarriok erabat baztertzaila izateari utzi badiote ere, legitimotasun handiagoa du oraindik, *a priori*, emakumea ez denak, hiritarra ez denak eta hiztun berria ez denak. Exotikotasunetik (hitzaren adiera etimologikoenetik) edo salbuespentasunetik baloratuak izan litezke ezaugarriok. Gutxitan, ordea, *benetakotasunetik*. Eta *benetakotasunaren* balorean oinarritzen den legitimazioak zailtzen duen bezala hizkuntza gutxituetako hiztun berriak hiztun aktibo bilakatzea, *benetakotasunaren* balorean oinarritutako legitimazioak zaildu dezake *benetako* bertsolariaren ezaugarriak ez dauzkatena bertsoara hurbiltzea.

Hiztun berriak bertsolari legitimoaren iruditeriaren parte izan ahal izatea, bertso-munduan negoziatuko da. Ez gizartearekiko modu isolatuan noski, bai, ordea, autonomia jakin baten baitan. Bertso-munduko sozializazio esparruetan bertsoan gaitutako hiztun berriak kantura plazaratu ahala, bertsolari legitimoaren ideia eraldatzen joango da. Eta aldi berean, hiztun berriak plazaratu daitezen bidea erraztuko luke bertsolari legitimoaren ideia eraldatzen hasteak, bertso-munduaren baitako sozializazio espazioetan intentzionalki eraginez (hezikuntza arautuan, bertso-eskoletan, edo plazetan, esaterako). Eta bertsolari hiztun-berri gehiago sortu ahala, *hiztun legitimoen ordezkari* gisa, errepresentazio bidez ere eraldatu liteke hiztun legitimoaren inguruko ideologia.

ONDORIO GISA

I Bertsoan aritzea euskaraz aritzea da, bertsoan trebatzea euskaraz trebatzea, eta gaitasunak zein erabilerak lotura dute hiztunak bere buruari egotzen dion legitimitatearekin. Bestalde, bertsolaritzaren eremuak berak, eremu linguistiko orokorretik begiratuta duen zuzentasun eta

eredugarritasun balioengatik, alde batetik, euskararen erabilera trinkoko eremu gisa irakurria delako, bestetik, eta, azkenik, euskaldun-zaharren mundu gisa irakurria delako, hiztun berrien kanpo-legitimaziorako ere eremu bikaina da bertso-mundua.

Barrura begira bertso-munduak ere badu bere burua euskaldun zaharren mundutzat, eta hizkuntzaren *gune sinbolikoaren* muin-muinean kokatzen du bere burua. Bertsolari gisa legitimitatea nahi duenari, beraz, euskaldun zahar *passinga* eskatzen dio kanonak. Bertso-munduak berak, ez du praktikan errepresentazio bidez gaur egungo hizkuntza ideologia zalantzan jartzen, ideologia hori bera eraldatzen duen diskurtsorik sortzen eta hedatzen badu ere.

Diskurtso mailan hiztun berriekiko inklusioa izatea politikoki zuzena bilakatu bada ere bertso-munduaren baitan –eta bada zerbait-, oraindik ere indarrean dago *benetako bertsolaria* eta *benetako hiztuna* lotzen dituen ideologia. Eta alde horretatik, nago arnas laburreko *benetakotasunaren* ideologia murriztaile hori eraldatzeko ez ote den *estrategikoa*, bertso-munduari dagokionez, euskalduntasunari buruzko diskurtsoak ez ezik *bertsolaritasunari* buruzko diskurtso berriak pentsatzea, praktika berriei bide emanez –eta alderantziz-, *benetako bertsolariaren* ideia bitartez eragiteko, hain zuzen, *benetako hiztunaren* ideian. ●

OHARRAK

1. Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-881-16). Era berean, eskerrak eman nahi nizkieke Jone Goirigolzarri eta Harkaitz Zubiriri beraiei oharrengatik.

2. Komeni da argitzea *hiztun berri* izendapenak zein hiztun motari egiten dion erreferentzia. *New speaker* terminoarekiko analogiaz, hiztun berri gisa kategorizatzen da hizkuntzaz etxeko transmisioa ez den beste moduren batean jabetu den hiztuna, modu bateko edo besteko hezkuntza formala izan duena hizkuntza jabekuntzarako bitarteko, bakarra izan ez bada ere (O'Rourke, Pujolar eta Ramallo, 2015). *Hiztun berri* izendapenaren sorreran, funtsean, *non-native* bezalako izendapenen gutxiespenezko konnotazioak saihesteko asmoa dago. (O'Rourke et al., 2015). Euskararen kasuan, *new speaker* izendapenak ez bezala, *hiztun berri* terminoak berekin dakar *euskaldun berri* izendapenaren oihartzuna, eta oihartzunak nahigabea konnotazio gutxieslea ere berekin dakarrelakoan nago. Dena den, termino honen aldeko hautua egingo dut, lehenik eta behin, ez nagoelako hoberik proposatzeko moduan, eta bestetik, euskal testuinguruan kontzeptu honen jiran egindako ikerlanek izendapen hori bera erabili dutelako dagoeneko.

3. Hala da gurean ere. Euskararen inguruko ideologien eraikuntzan eragin handia izan zuen José María Sánchez Carrión “Txepetx”-ek hiztunen sailkapen batean oinarrituriko euskararen berreskurapenerako proposatutako teorian, *jatorrizko euskaldun alfabetatuek* eta *hiztun berri jatorruek* osatzen dute hiztun komunitatearen *gune sinbolikoa*, hots, hizkuntzaren biziberritzearen eragile nagusien multzoa (Sánchez Carrión, 1987). Hiztun moten arteko hierarkia argia da, ordea: *gune sinbolikoaren* erdigunean alfabetatutako euskaldun zaharrak daude. Bigarren geruza osatzen dute hiztun berri *jatorruek*. Teoria honen arabera, beraz, hiztun ideala *berezko hiztuna* baino ezin da izan.

4. “Eremu” kontzeptua Pierre Bourdieu-ren zentzuan darabilt (Bourdieu, 1991, 1992, 1994; Bourdieu eta Wacquant, 1992) dagokidan lan-esparrurako duen egokitasunagatik.

***Nago ez ote den
estrategikoa,
bertso-munduari
dagokionez,
euskaldunta-
sunari buruzko
diskurtsoak ez
ezik
bertsolaritasunar
i buruzko
diskurtso berriak
pentsatzea
benetako
bertsolariaren
ideiaren bitartez
eragiteko
benetako
hiztunaren
ideian.***

Alde batetik, hizkuntza-eremu orokorra eta bertso-eremua (artikulu honetan nagusiki bertso-mundu deitu dudana) bereizteko aukera ematen dit, eta bestetik, hiztunen eremuaren baitako legitimitatea edo legitimitate eza eremuaren baitako kapital sinbolikoaren (eta bestelako kapitalen) banaketa eta (bir)definizio dinamikekin zuzenean lotzeko aukera ematen dit.

5. Gazteei buruzko ezagutza eta jarrera datuek erakusten dutenaren arabera, pentsatzeko da joera honetan bihurgune bat gerta daitekeela datozen hamarkadatan. Ikuspegi ezkorrenen arabera, ordea, ezagutzak eta jarrerak ez dute etxeko hizkuntza transmisioaren gorakadarik bermatzen bere horretan.

6. Hiru aldagaien kasuan emaitza onenak guraso euskaldunak zituztenek erakutsi zituzten, eta ahulenak berriz guraso erdaldunak zituztenek.

7. Modu askotara sailkatu eta multzokatu dira faktoreak Modu integratu ala isolatuagotan, hiztunaren inguruneari dagozkion faktoreekin batera, hiztunaren beraren motibazioa, hizkuntza ideologia eta gaitasun objektibo zein subjektiboa dira hiztunaren hizkuntza hautua baldintzatuko duten faktore nagusitako batzuk (Coyos, 2007, 2009; Martínez de Luna, 2004). Faktore horiek elkarerraginean artikulatzen dira, noski, eta erabilerak berak ere berrelikatzen ditu aipatu faktoreak. Hiztun batzuen ibilbidean faktore hauetako bakoitzak pisu gehiago edo gutxiago izan dezake, eta denboran alda daitezke, gainera, pisu erlatiboak.

8. Kakotx artean darabilt kontzeptua, ideologikoki markatua izateaz gain hizkuntza ideologiaren ikuspegitik, genero perspektibatik ere karga sexista handikoa delako. Eta aldi berean, terminoa badarabilt, uste dudalako merezi duela azpimarratzea “ama hizkuntza” izendapenaren karga biologizistak lotura zuzena duela, hain zuzen ere, hizkuntzaren ikuspegi esentzialistarekin, “lehen hizkuntza” izendapenak ez bezala.

9. Hizkuntza nahikoa menperatzen duela sentitzen ez duen hiztunak nekez izango du bere burua hiztun legitimitzat. Eta era berean, parekoak ez badio irizten hizkuntza behar bezain ongi erabiltzen duela, ez du hiztuna legitimitzat izango.

10. “Racial passing” edo “passing” deitzen zaio –nagusiki Amerikako Estatu Batuetan– mestizoak ziren norbanakoek –eskuarki– zuri gisa irakurriak izatearen esperientzia. Terminoa XVIII. mendekoa bada ere, berez, XIX-XX. mendeetan sartu zen lexiko arruntean, gero eta arruntagoa zen fenomeno hura izendatzeko. Alabaina, azken urteotan *passing* terminoaren esanahia zabaldu egin da, arrazari dagozkion esperientziei ez ezik bestelako bazterreko identitateen inguruko esperientziak adierazteko ere erabiliz, ikuspuntu intersektional batetik.

11. Euskal soziolinguistikan ere teorizatua izan da diferentzia hau. Euskal eremu linguistikoko ideologiaren eraikuntzan eragin handia izan zuen José María Sánchez Carrión “Txepetx”-ek hiztunen sailkapen batean oinarrituriko euskararen berrekurapenerako teoria proposamenaren arabera, *jatorrizko euskaldun alfabetatuek* eta hiztun berri *jatortuek* osatzen dute hiztun komunitatearen *gune sinbolikoa*, hots, hizkuntzaren biziberritzearen eragile nagusien multzoa (Sánchez Carrión, 1987). Hiztun moten arteko hierarkia argia da, ordea: gune sinbolikoaren erdigunean alfabetatutako euskaldun zaharrak leudeke, eta bigarren geruza osatuko lukete hiztun berri *jatortuek*. Horretarako egin beharreko prozesua, gainera, *jatortzea* da. Hots, *euskaldun zahar* gisa irakurria izateko adinako *passing*-a erdiestea, beste era batera esanda. Gaur egun operatzen duen hizkuntza ideologia honen arabera, beraz, hiztun berria hel daiteke hiztun legitimo izatera, beti ere kategoria esentzialista baten unean uneko definizioaren baitako ezaugarri batzuk bereganatzen baditu. Eta noski, euskaldun zaharrek izango dute legitimitatea ezaugarri horiek aski ongi gorputzen dituen ala ez erabakitzeko.

12. Adin tarte horretan bi bakarrik ari direlako bertsotan, beraiek izanik IEHko lehen hiztun berri bertsolariak.

13. 2014an egin nion lehen elkarrizketa Aitorri (17 urte zituela), eta 2016an Nahari (18 urte zituela). Bigarren elkarrizketa, aldiz, 2018an egin nien biei (21 eta 20 urterekin, hurrenez hurren).

14. Hemendik eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet Nahia eta Aitorri, elkarrizketetarako izan duten prestutasunagatik, alde batetik, eta lan honen argitalpenerako eman didaten konfiantzagatik, bestetik. Hori gabe ikerketa honek ez luke argitaratzerik izango, ez eta

zentzurik ere argitaratzeak.

15. 2017ko BTN17ko finalean entzun zen lehen gaia honakoa izan zen: "Euskara-elkarte bateko borondatezko bi kide dira Igor eta Aitor. Igorrek uste du taldearen jarduna profesionalizatzen hasi beharra dagoela. Aitor ez dago ados".

16. 2017ko IEHko eskolarteko finaleko bakarkako gaia, berriz, honakoa: "Zergatik nahia-go du gazteak euskara jakinda ere, lagun artean frantsesez aritu?"

17. Gogoratzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz/ gogoratzen naiz lehengo amonaz, gaurko amaz ta alabaz/ Joxei eta zuei mila zorion, miresmenaren zirrarez/ ta amaituko dut txapel zati bat zuek guztiontzat lagaz/ Gure bidea ez da erreza bete legez, juizioz, trabaz/ Euskal Herriko lau ertzetara itzuliko gara gabaz/ eta hemen bildu dan indarraz, grinaz eta poz taupadaz/ herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz. (BEC, Barakaldo. 2017-12-17. Txapeldunaren agurra.)

18. Hogei bertsolarietatik ba da etxean euskara jaso ez duen bakarra eta hogeitik hiru soilik gurasoetako bat euskalduna ez dutenak.

19. Txapelketetako datuei begiratzen badiegu, IEHko lurraldekakoan 2014an hartu zuen parte lehen aldiz euskara etxean jaso ez duen bertsolari batek (hemezortzitik bakarrak), Aitorrek, hain zuzen ere, eta bi izan ziren (2014ko parte-hartzailea horietarik bat) 2016an parte hartu zutenak (hamabostetik bi), Aitor eta Nahia. Eskolarteko txapelketeki begiratzen badiegu, proportzioa altuagoa da, eta baita haurren bertso-eskoletako proportzioa ere. Badirudi zenbat eta plazako ibilbidean aurrerago, orduan eta proportzio apalagoa dela hiztun berriena, oraindik orain.

20. Amets Arzallusen agur honek, esaterako, euskara irakatsi izana eskertzen dio amari: Zerutik begira daude/Joxe eta Manuel Mari/ziega zulotik entzuten/ beste euskaldun ugari./ Musu bat Iparraldeko/ bertso eskolako haurrari/ lagundu nauten guziak/ Olatz eta arreba bi/ baina ni ez bainaiz hemen/ neuk sortu hutsean ari/ aitarena den txapel hau/ eskaintzen diot amari/ haur nintzela euskaraz/ erakutsi zidanari. (2013-12-15, BEC. BTN13 Txapeldunaren agurra.)

21. Hizkuntza etxetik kanpo ikasi izanaren aitortza modu positiboan aipatzen duen bertsorik ezagunena Jon Maiak 1997ko finaleko bukaerako agurrean botatakoa da, ziurrenik: Ama Extremadura, aita Zamoratik/abuela ta abuelo haien aurretik/ herri hontan sustraitzen asmatzeagaitik/ neuk'e maita dekazet guztien gainetik./ Euskeraz badakit, bertsoz darabilkit/ dena zuengatik, halaxe dagokit/ denek kantatu dute nere ahotik. (1997-12-14, Donostia. BTN97 Finaleko bukaerako agurra.)

Hamarkada bat beranduago Xabi Payak ikastolara eraman izana eskertu zion amari: "Bost izen bota nahi dodaz/ merezi daben neurrira:/ maisu handi Amuriza/ eta Lopategi biba/ Trino ta Joseba Santxo/ epaile onenak dira/ Bosgarrena ulertu barik/ hor egongo da begira./ Tú no nos diste el euskera pero nos diste la vida/ Nos llevaste a la ikastola/ Aprendimos enseguida/ Ya es hora de que entiendas/ el canto que nos motiva/ Esta txapela es tuya/ ai nire amatxu querida." (2006-12-16, Bilbo. Bizkaiko txapelketako txapeldunaren agurra.)

22. Funtsean, "gorputz emeak ez baitira bertsoetarako bizitoki" (Hernández 2016: 17). Gai honi buruz sakontzeko, ikus, baita ere Mari Luz Esteban, 2004 eta Alberdi, 2014.

23. Oihana Bartra bilbotar bertsolariak hala erantzun zion bertso-munduko hedabide propio bati eskainitako elkarrizketa batean: "Nik uste dut bertsotan hasi nintzenetik ohartu nintzela desberdina nintzela, ez? Hasteko nire bertso-kide gehienek bizkaieraz hitz egiten zuten beraien artean eta nik batzuk ez nituen ulertu ere egiten... Orduan ni nintzen pixka bat desberdina zena, beste mundu batetik zetorrena, eta gaur egun ere nabaritzen dut hizkuntza aldetik, adibidez, nik diferente hitz egiten dudala. Ez bakarrik euskera, bizkaiera, batua... ez dakit, badagoela kultura urbano baten, ez dakit nola esan, igual asko esatea da e, baina, badagoela kultura urbano baten adierazpidea, bertsotara ekartzea ere iruditzen zait izan ahal dela euskal mundutik ez gatozen bertsolarion ekarpena." (Bartra, 2018).

24. Jon Maiak 1997ko finaleko bukaerako agurra bota zuenean, ez da hutsala, esaterako, bere hizkuntza gaitasuna eta erabilera azpimarratzea ("euskeraz badakit, bertsoz darabilkit"), familiaren jatorri *ez-euskalduna* "aitortu" ondoren. Izan ere, bazekien familia jato-

rriz Extremadura eta Zamorakoa izateak ez zuela bat egiten bertsolariaren irudiarekin: “Erabaki nuen ezin nuela bertso hura hasierako agurrean bota. Besteek nirekiko ordura arte eraikitako begirada erabat baldintza zezakeen eta ez zen hura horretarako eguna. Egun horretan entzuleek, epaileek, ni bertsolari gisa juzgatzea nahi nuen, bestelako distorsiorik gabe, gainerako zazpiak bezalaxe.”

(Maia, 2017: 13)

25 2017ko txapelketan publikoak gustukoek zituela aitortutakoen artean hogeitik hiru baino ez dira bertsoan bertso-eskolatik kanpo ikasitakoak, esaterako.

26 Zerrenda honi gehitu dakizkioke gizartean bereizkeria iturri izan daitezkeen ezaugarriak oro. Hemen aipatu ditudan bertso-munduaren baitan eztabaidagai izan direnak eta horien inguruan diskurtso gutxi-gehiago eraiki bat dutenak dira.

ERREFERENTZIAK

- Alberdi Estibaritz, Uxue (2014). Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzal-diak bertsolaritza. In Gema Lasarte eta Amaia Alvarez (ed.), *Gorputza eta generoa: Teoria didaktika eta esperientziak*. 145-162. Bilbo: UFEU.
- Akizu Bidegain, Maialen (2018). Diskurtso komunitatea. Bertsolaritza-ren kasua. Gradu Amaierako Lana. EHU.
- Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane eta Goirigolzarri, Jone (2017). Euskara-ren hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (104), 1.
- Apodaka, Eduardo (2015). Identitatea eta Anomalia. Iruñea: Pamiela
- Arzallus, Amets (2013-03-24). *Ama Hizkuntza*. Hemendik hartua: http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/dokumentuak/2013/korrikaren_lekukoaren_mezua.pdf [azken kontsulta 2018-08-22].
- Bartra, Oihana (2018, maiatzak 4). *Oihana Bartrari elkarrizketa – Bertso ikuspegia: “Hizkera urbanoan egitea ere bada ekarpen bat”*. Hemendik hartua: <https://bertsoa.eus/albisteak/6870-bertso-ikuspegia-hizkera-urbanoan-egitea-ere-bada-ekarpen-bat> [azken kontsulta 2018-08-22].
- Boix-Fuster, E. eta Paradís, A. (2015). Ideologies and trajectories of ‘new speakers’ in bilingual families in Catalonia. *Revista de Llengua i Dret*, 63, 165-185.
- Bourdieu, P. (1991 [1982]). The Production and Reproduction of Legitimate Language. In J.B. Thompson (arg.), *Language and Symbolic Power* (43-65 or.). Cambridge, MA: Harvard University Press.
- (1992). *Les règles de l’art. Genèse et structure du champ littéraire*, Paris, Seuil, « Libre examen ».
- Bourdieu, P., eta Wacquant, L. (1992). Réponses, Pour une anthropologie réflexive, Paris Seuil, coll. « Libre Examen ».
- Bourdieu, P. (1994). *Raisons pratiques*, Paris, Seuil, « Points essais ».
- Costa, James (2015). New speakers, new language: on being a legitimate speaker of a minority language in Provence. *International Journal for the Sociology of Language*. Issue 231.
- Coyos, J. B. (2007). *Écart entre connaissance et usage d’une langue minori-*

- taire: modèles théoriques et cas de la langue basque. In: A. Viaut (ed.), *Variable territoriale et promotion des langues minoritaires* (411-427). Pessac : Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine.
- Coyos, J. B. (2009). *Écart entre connaissance et usage d'une langue minoritaire: essai de typologie des facteurs. Le cas de la langue basque*. In : *Politique linguistique et enseignement des Langues de France Toulouse 26-27 mai 2005 (Colloque)*.
- Esteban Galarza, Mari Luz (2004), *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Edicions Bellaterra, Bartzelona.
- Eusko Jaurlaritz (2018). VI. Inkesta Soziolinguistikoa. <http://www.euskadi.eus/eusadierazle/listaV1.apl?idioma=e&tema=1>
- Goirigolzarri, J., Manterola, I., & Salces, G. (2015). Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: normalizaziorako gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96, 139-175
- Guzmán, Paco y Platero, Raquel (Lucas) (2012): *Passing, enmascaramiento y estrategias identitarias: diversidades funcionales y sexualidades no-normativas*. En *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Raquel (Lucas) Platero (Ed.). Barcelona: Bellaterra. <https://core.ac.uk/download/pdf/36118599.pdf>
- Hernández García, Jone Miren (2016). "Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoetarako bizitoki". In: *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 27-42.
- Hornsby, Michael (2015). *Revitalizing Minority Languages : New Speakers of Breton, Yiddish and Lemko*. Palgrave Macmillan.
- Jauregi, P. (2003). *Euskara eta gazteak Lasarte-Oria II. Hizkuntzazko jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lujanbio, Maialen. (2017-03-01). "Euskaratik eta gure mundu erreferentzialetik egin behar dugu, besteen ispiuetan gure buruaren bila ibili gabe". *Sustatu*. Hemendik hartua: <https://sustatu.eus/elgoibarkoizarra63@/1489147157> (Azken kontsulta 2018-08-22)
- Maia Soria, Jon (2017). *Berriak jaio ginen*. Lanku argitalpen zerbitzuak.
- Martínez De Luna, Iñaki (2004). Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak. In *zenbaiten artean, Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*. VIII. Jardunaldiak. 11-38. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.

- O'Rourke, Bernadette, Ramallo, Fernando (2011). The Native – Non-native Dichotomy in Minority Language Contexts. Comparisons between Irish and Galician. *Language Problems and Language Planning*, 35 (2): 139-159.
- (2013). Competing Ideologies of Linguistic Authority amongst New Speakers in Contemporary Galicia. *Language in Society*, 42: 287-305.
- (2015). Neofalantes as an Active Minority: Understanding Language Practices and Motivations for Change amongst New Speakers of Galician. *International Journal of the Sociology of Languages*, 231, 147-165.
- O'Rourke, B., Pujolar, J. eta Ramallo, F. (2015). New Speakers of Minority Languages: The Challenging Opportunity. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 1-20.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013). Hiztun berrien hizkuntzaidentitatea: «nolako euskalduna naiz?». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 151-170.
- (2014). Nous parlants de basc: identitat i legitimitat. *Digithum*, (16), 6-17.
- Ortega, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone eta Urla, Jacqueline (2016). Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak. *Administrazioa euskaraz*, (97), 20-21.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Uranga, B. (2015). Linguistic Identity Among New Speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 85-105.
- Ortega, A., Amorrortu, E., & Urla, J. (2017). Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value. In *Standardizing Minority Languages (Open Access)*, 32-54. Routledge.
- Paya Ruiz, Xabier (2003-12-21). Euskaldun berri zaharraren teoria. UKberri. Hemendik hartua: <https://hiruka.eus/komunitatea/Ukberri/1421257517284-euskaldun-berri-zaharraren-teoria-xabier-paya-ruiz-bertsolaria> [azken kontsulta 2018-08-22].
- Pujolar, J., González, I., Font, A. eta Martínez, R. (2010). Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament d'Acció Social i Ciutadania. Secretaría de Joventut.
- Pujolar, J. eta Puidgevall, M. (2015). Linguistic Mudes: How to Become a New Speaker in Catalonia. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 167-187.
- Ramallo, F., & O'Rourke, B. (2014). Perfils de neoparlants de gallec. *Digithum*, (16), 18-24.

- Renfrow, Daniel G. (2004). A cartography of passing in everyday life. *Symbolic Interaction*, 27(4), 485-506.
- Sánchez Carrión, J. M. (1987). Un futuro para nuestro pasado. *Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*.
- Smith-Christmas, C., Murchadha, N. P. Ó., Hornsby, M., & Moriarty, M. (Eds.). (2017). *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices*. Springer.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. eta Uranga, B. (2016). Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque. In *Language Documentation & Conservation*. Special Publication, 9. Vera Ferreira eta Peter Bouda (arg.), 1-12.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. (2018). Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Costa, H. De Kome, *Standardizing minority languages: competing ideologies of authority and authenticity in the Global Periphery* (24-46). Birmingham: Routledge.
- Woolard, Kathryn (1998). Language ideology as a field of inquiry. In B. Schieffelin, K. Woolard eta P. Kroskrity (arg.), *Language Ideologies: Practice and Theory*, 3-47. Oxford: Oxford University Press.
- (2008). Language and identity choice in Catalonia. The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority. In K. Suselbeck, U. Muhlschlegel, P. Masson (arg.), *Lengua, nación e identidad: La regulación del plurilingüismo en España y América Latina* (303-323). Madrid: Iberoamericana.
- Zubiri, H; Aierdi, X.; Retortillo, A. (2018). *Hirugarren Bertsolaritzaren Azterketa Soziologikoa*. (Ikerketa argitaratugabea). Mintzola Fundazioan aurkeztua, Villabona.

3

Lintzirin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan oinarritutako Euskara Sustapen Ekintza Plana (ESEP)

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien XI. Edizioko
HIRUGARREN SARIA (2018)

Irati Lizeaga Elizalde

Badihardugu euskara elkarteko teknikaria da
lizeagairati@gmail.com

Sarrera-data: 2018-10-05 / Onartze-data: 2018-11-05

Laburpena. Lintzirin merkataritza gunea Oiartzun eta Irun tartean dagoen industria gunea batean kokatzen da. Gune honi Lintzirin deritzo, garai batean bertan kokatzen zen Lintzirin izeneko hotela zela eta. Lan honetan, merkataritza gunea honetan kokatzen diren lau saltoki garrantzitsu aztertu dira: Leroy Merlin, Carrefour, Mercadona eta Brico Depot. Zehatzago, gunea osotik jende gehien erakartzen duten gunek dira hauek (Azkue, 2016), eta hauetako bisitariak nongoak diren, hauen hizkuntza hautuak zein diren aztertuz, Lintzirinek Oiartzungo egoera soziolinguistikoan duen eragina neurtu da, eta ondoren, jasotako datuetan oinarriturik, Euskara Sustapen Ekintza Plan bat (ESEP) garatu da. • *Hitz gakoak:* eragin linguistikoa, hizkuntza osasuna, hizkuntza ekologia, garapen jasangarria, arnagunea.

Abstract. The Lintzirin shopping centre is located in an industrial area situated between the towns of Oiartzun and Irun. It is called Lintzirin after the old Lintzirin Hotel that once stood on the site. This paper analyses four major stores located in the shopping centre: Leroy Merlin, Carrefour, Mercadona and Brico Depot, which are the ones which attract the highest number of visitors (Azkue, 2016). By analysing the provenance of visitors to these shops and their language choices, the sociolinguistic situation of the Lintzirin Shopping Centre was measured and, based on the results, an Action Plan for Basque Language Promotion (APBLP) was developed. • *Key words:* linguistic influence, language health, language ecology, sustainable development, breathing space.

SARRERA

I Helburu nagusia eragin linguistikoa neurtu eta gune jakin horri egokitutako ESEP bat egitea da. Baita etorkizunean Lintzирinen kokatuko diren saltokien tramiteetan euskarak duen presentzia indartzea ere. Uste da, behin inguruko egoera soziolinguistikoa aztertuta, errazagoa izango dela bertan neurriak hartu eta aplikatzea, euskarri enpirikoa oinarritzat izanda. Honek, bide batez, Oiartzungo Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta enpresen arteko harremana eta tramitazioa erraztea ere xede du.

Guztira, Oiartzungo Udaleko euskara eta hirigintza teknikariak, Oiartzungo Udaleko euskara zinegotzia eta UEMAko teknikariaz osatutako lan talde bat bildu zen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa garatzeko, eta guztira gunera bertaratutako 400 bisitariri galdetu zitzaaien jatorria, eta euskararen erabilera jasotzeko 400 elkarrizketa bildu. Izan ere, ELE tresna etorkizuneko proiektuetara bideraturik dago, eta aztertu den merkataritza gunea eraikirik dagoenez, datu enpirikoak jasotzea ahalbidetzen zuen, lanari objektibotasuna eta zuzentasuna emateko erabili zirenak, baita ondorengo ekintza plan zehatza garatzeko ere.

Jatorriaren aldetik, bisitari kopuru handiena Donostia, Errearteria eta Irundik datorrela jaso da, bai astean zehar eta baita asteburutan ere. Euskaldun kopurua, berriz, %36aren bueltan dago.

Daturik larrienak euskararen erabilerari dagozkionak izan dira, eta batez ere, alderdi honi begiratu zaio Ekintza Plana garatzean. Asteburutan eta astean zehar euskararen erabilera nahiko pareko dago, gaztelania gailentzen da bietan, eta, kasu batzuetan, euskararen eta beste hizkuntzen erabilera antzekoa da. Bi kasuetan 2-14 urte bitartekoak izan dira euskara gehien egin dutenak. Egoera hau, datui dagokion atalean azaldu bezala, herriko egoerarekin alderatuz, kontrakoa da guztiz, izan ere, Oiartzungo herrian euskararen gaitasuna %71,7 da, eta ondorioz, UEMAko kide dugu.

Orotara, ELE galdetegia betetzean, Lintzирin merkataritza gunean kokatzen diren lau saltoki nagusiek euskararen eragina dutela ziurtatu da, 114ko puntuazioa duena, moderatua. Zifra nagusiak eragin moderatura bagaramatza ere, eraginik larriena euskararen erabileran (48 puntu) eta ezagutzen (32 puntu) eman da.

Hau guzti hau kontuan hartuz, Lintzирingo egoera laburbiltzen duen AMIA matrizea egin da, eta bertako Arrisku eta ahulguneak konpon-

**Daturik
larrienak
euskararen
erabilerari
dagozkionak izan
dira, eta batez
ere, alderdi honi
begiratu zaio
Ekintza Plana
garatzean.
Asteburutan eta
asteazken
euskararen
erabilera nahiko
pareko dago,
gaztelania
gailentzen da
bietan, eta, kasu
batzuetan,
euskararen eta
beste hizkuntzen
erabilera
antzekoa da.**

**Eskuartean
dugun lan
honetako helburu
nagusia, eragin
linguistikoan
oinarriturik,
Euskara
Sustapen Ekintza
Plan bat garatzea
da. Lintzirin
deituriko
merkataritza
guneak
Oiartzungo
euskaran
eraginik bazuen
ala ez jakiteko
ELE bat egin eta
euskararen
egoeran eragiteko
ekintzak,
neurriak eta
jarduerak
proposatzea.**

tzeko helburuz, Euskararen Aholku Batzordeak 2012.urtean diseinatu-
riko Euskara Sustapen Ekintza Planeko helburu, neurri, jarduera eta
ekintzak aukeratu dira: administrazioa, gune geografiko euskaldune-
nak, arlo sozio-ekonomikoa, aisia eta kirola, publizitatea, hedabideak,
sentsibilizazioa eta motibazioa eta barruko proiektzioa.

1. HELBURUAK

I
Eskuartean dugun lan honetako helburu nagusia, eragin linguistikoan
oinarriturik, Euskara Sustapen Ekintza Plan bat garatzea da. Lintzirin
deituriko merkataritza guneak Oiartzungo euskararen eraginik bazuen ala
ez jakiteko ELE bat egin eta euskararen egoeran eragiteko ekintzak, neu-
rriak eta jarduerak proposatzea. Esan bezala, helburu nagusia betetzeko,
ELE galdetegia bete da, neurri zuzentzaileak proposatu dira, eta gainera,
ekintza planarekin biribildu da euskararen normalizaziorako xede hau.

Garai batean Lintzirin deituriko hotela kokatzen zen guneaz ari
gara, Oiartzun eta Irunen artean dagoena. Poliki-poliki handituz joan
da bertako jarduera ekonomikoa, eta haren eskutik, biztanleen joan-
etorria. Geroz eta gehiago dira bertako enpresak, dendak, jatetxeak...
eta hauetako asko jende masa handia mugitzeko gauza dira: Carrefour,
Mercadona, Maxi China, Leroy Merlin, Burger King, WOK...

Lanaren xede nagusia ez bada ere, merkataritza gune honen jasangarri-
tasuna neurtu nahi izan da. Jarduera ekonomikoek karga handia duten
gune hau euskararentzat jasangarria den ala ez jakitea, zein bezero mota
erakartzen duen, bezero hauek zein hizkuntza hautu egiten duten, hiz-
kuntza eskakizunik baden, langileek euskaraz badakiten... aztertzea.

Azkenik, ELE tresna berria dugunez, eta etorkizuneko euskara tekni-
kariak Ekintza Planetan trebatu nahi direnez, etorriko diren ELE eta
ESEPei bidea irekitzea ere izan da asmoa, tresna hauek ahalik eta egon-
korren eta baliagarrien izan daitezen, behar izanez gero, lan honetan
egindakoa hobetuz eta zuzenduz.

2. METODOLOGIA

I
Helburuen atalean azaldutako xedeen parte da ELE bat egitea. Horre-
tarako, UEMako teknikariaz eta Oiartzungo udaletxeko euskara eta hi-
rigintza teknikariez osatutako lantaldea bildu zen. Landu ziren gaien
inguruko ikuspegi anitza jasotzeko helburuz sortu zen disziplina ani-
tzeko lantalde hau, ELE egiteko garaian izan zitezkeen ikuspegi guztiak
barne hartzeko.

Datu bilketari dagokionez, bi inkesta egin dira, batetik, bisitarien jatorria jasotzeko, eta bestetik, hizkuntza erabilera jasotzeko diseinatutakoak. Hauen datuak lau merkataritzagune handitan jaso dira: Carrefour, Leroy Merlin, Mercadona eta Brico Depot.

Honetarako, astean zehar eta asteburuetan Lintzirin merkataritza gunera hurbildu eta datuak jaso dira ondorengo egunetan: Apirilaren 24an eta 29an, Maiatzaren 3an, 8an, 9an, 10ean eta 27an. Jasotako datuen koherentzia lortzeko, beti ordu berean jaso dira hauek: arratsaldeko 18.00-20.00 bitartean.

Guztira 400 bisitarien jatorria eta 400 elkarrizketen hizkuntza erabilera neurtu dira, astean zeharrekoak eta asteburutakoak (eranskinetan datu bilketarako erabilitako taulak). Jatorriaren kasuan, ez da bisitariaren sexua kontuan hartu, eta zuzeneko galdeketa bidez jaso dira.

Hizkuntza erabileraren datuak jasotzeko, ordea, behaketa bidez egin dira, hiztunekin inongo harremanik izan gabe, soilik entzunda (ikus. eranskinetan hizkuntza erabilera jasotzeko taulak). Kasu honetan, urteetako esperientziaren jabe den Soziolinguistika Klusterrerrak Inkesta Soziolinguistikoetan erabilitako materiala izan da oinarri (Soziolinguistika Klusterra, 2012).

Lintzirin dagoeneko eraikita dagoen gun bat denez, eta eragin dezakeen hizkuntza inpaktua neurtu nahi denez, berebiziko arreta eman zaie bisitarien jatorriari eta hizkuntzen erabilerari, Oiartzungo datu soziolinguistikoetan zuzenean eragiten baitute hauek. Erabileraren kasuan, jatorriaren araberrako hizkuntza gaitasuna edukiko duten bisitariak direla ulertu da, eta neurri zuzentzaileak eta bereziki euskararen ezagutzari eta erabilerari begira planteatu dira.

Behin ELE eginda, emaitzak hartu (batez ere erabileraren eta gaitasunaren emaitzak) eta egoeraren diagnostia egin da AMIA matrizea erabiliz. Bertan egoeraren ahulguneak, indarguneak, aukerak eta arriskuak bilduz. Ondoren, ESEPen parte den kudeaketa plan txiki bat egin da, ahulguneak eta arriskuak konpontzeari begira. Bertan, zuzendu nahi diren helburu, neurri, jardura eta ekintzak aukeratu eta landu dira.

**Guztira 400
bisitariaren
jatorria eta 400
elkarrizketen
hizkuntza
erabilera neurtu
dira, astean
zeharrekoak eta
asteburutakoak.
Hizkuntza
erabileraren
datuak jasotzek
behaketa bidez
egin dira,
hiztunekin
inongo
harremanik izan
gabe, soilik
entzunda**

**Historian zehar,
baserri eta
artzain
bizimoduari
atxikitako herria
da hau; azken
aldian berriz,
industria eta
merkataritzak
hartu dute indar
handien.**

3. OIARTZUNGO DATUAK

3.1 Kokapena



Irun, Lesaka, Goizueta, Orereta eta Lezorekin muga egiten duen herria da Oiartzun, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko ingurune malkartsu batean kokaturik dagoena. Historikoki Nafarroako lurraldeari atxikita egon den arren, lehen lurralde historiko honetako herriei zituena sokarriak eten eta Donostialdeko eskualdearen luzapen bilakatuz joan da, Gipuzkoako bailara den Oarsoaldearen barnean kokatzen baita administratiboki gaur

egun. Muga hauek direla eta, Nafarroa eta, neurri txikiagoan bada ere, Iparraldeko eraginak jaso ditu herri honetako hizkerak, honi izaera bereziko aberastasun bat emanez. Honen ondorio da dialektalki, L. L. Bonapartek 1863. urtean iparraldeko goi-nafarreran sailkatu izana Oiartzungo euskara. Koldo Zuazoren euskalkien maparen arabera (2014), ordea, erdialdeko euskalkiaren eta nafarreraren tarteko hizkera da bertakoa.

Historian zehar, baserri eta artzain bizimoduari atxikitako herria da hau; azken aldian berriz, industria eta merkataritzak hartu dute indar handien. 10.211 biztanledun herria Elizalde, Ergoien, Karrika, Arragua, Iturriotz, Altzibar, Gurutze eta Ugaldetxo deituriko zortzi auzotan banatuta dago. Bailarako beste herrietan gertatzen ez den bezala, biztanleriaren %71,7 euskalduna da Oiartzunen. Horregatik, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) barruan dago. Euskararen erabilera ere altuagoa da bailarako gainontzeko beste herriena baino: %58,8 (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Hau guztia dela eta, beraz, arnagunea dugu Oiartzun. Zenbait dira herrian euskara bultzatzeko taldeak, *Ttur ttur euskaltzaleon bilgunea* osatzen dutenak: *Euskeran itotiyak*, *Euskal Herrian Euskaraz* (EHE), *Oiartzun Irratia* eta *Intxixu AEK euskaltegia*, euskararen eta bertako hizkeraren alde lan handia egiten dutenak.

3.2 Datu soziolinguistikoak

Oiartzungo egoera soziolinguistikoa aztertzeko, Soziolinguistika Klusterrak egindako hiru txosten erabili dira: 1986-2011 urte bitartekoa, 2011.

urtekoa eta azkena, 2016koa. Hiru txosten hauek herriko egoera soziolinguistikoaren garapena zein izan den jakiteko erabili dira (Soziolinguistika Klusterra, 2012, 2014, 2017).

A Hezkuntza ereduak

Garrantzitsua da hezkuntzaren inguruko datuen gainean aritzea, harreman zuzena baitute euskara bereganatzearekin. Faktore demografikoen eraginarekin batera, hezkuntzak ere eragina izango zuen ziur aski 1986-2011 bitartean euskarak izandako bi mila hiztuneko gorakadarekin.

Oiartzungo hezkuntza ereduak dagokienez, gaur egun, D ereduak da nagusi. 1986. urtean biztanleria osoaren %70 zen D eredura zihoana, eta 2011. urtean %86. Urtez urte kopurua handituz joan da, beraz, pentsa dezakegu gaur egun kopurua altuxeagoa dela (Soziolinguistika Klusterra, 2012, 2014, 2017).


D ereduaz gaindi, ordea, A eta B ereduak ere izan dira herrian. Lehena 1986. urtetik aurrera desagertu egin zen, biztanleriaren %12 izatetik %0 izatera igaroaz.

B ereduaren kasuan, berriz, 1986-2006 urte bitartean goranzko joera izan zuen (%18-%21), baina beti D ereduaren azpitik. 2011. urterako, %14ra jaitsi zen kopurua.

B Hizkuntza gaitasuna

Guztira, Oiartzunen %76,25 zen euskaldun kopurua 2016. urtean Ia euskaldunak zirenak, ordea, %11,8 zen, eta erdaldun kopurua %11,95. Euskaldun kopurua, beraz, nagusi zen erdararen aurrean, eskualdean ez bezala (Eusko Jaurlaritzak, 2016).

1. grafikoa: euskara gaitasuna.



Iturria: EUSTAT

**Guztira,
Oiartzunen
%76,25 zen
euskaldun
kopurua 2016.
urtean Ia
euskaldunak
zirenak, ordea,
%11,8 zen, eta
erdaldun
kopurua %11,95.
Euskaldun
kopurua, beraz,
nagusi zen
erdararen
aurrean,
eskualdean ez
bezala.**

**64 urtetik
gorakoen artean
emaitzak nahiko
onak badira ere,
beheranzko joera
da nagusi. Ama
hizkuntza
euskara du %72k.
Bestalde, 25
urtetan,
euskaldun
kopurua %86
izatetik %73
izatera pasa
baita.**

a) Adin taldeka

Lau adin talde bereizi dira inkesta soziolinguistikoetan: 2-14, 15-34, 34-64 bitartekoak eta 64 urtetik gorakoak (Soziolinguistika Klusterra, 2012, 2014, 2017).


Lehenengo adin tartearen kasuan (biztanleria osoaren %15), %90 zen euskaldun kopurua 2011. urtean, 1986an baino %11 gehiago, urteen buruan, beraz, goranzko joera nabari da. Hauen artean %59 da euskara lehen hizkuntza duen biztanle kopurua.

Biztanleria osoaren %23 osatzen du bigarren adin tartea. Bertan ez ditugu lehenengoan bezain emaitza onak, baina itxaropentsuak dira, izan ere, euskaldun kopurua %73 izatetik, %83 izatera pasa zen 1986-2011 bitartean (%10 gehiago).

34-64 urte bitarteko helduen kasuan gauzak pixka bat iluntzen dira. Izan ere, beheranzko joera dagoela dirudi 1986-2011 bitartean behintzat, euskaldun kopurua %73 izatetik %65 izatera jaitsi baitzen. Lehenengo hizkuntza euskara, ordea, %57k dauka. Garrantzitsuak dira datu hauek Oiartzungo euskararen etorkizunerako, adin tarte hau baita tamainaz handiena, biztanleria osoaren %47.

Azkenik, 64 urtetik gorakoen artean emaitzak nahiko onak badira ere, beheranzko joera da nagusi. Ama hizkuntza euskara du %72k. Bestalde, 25 urtetan, euskaldun kopurua %86 izatetik %73 izatera pasa baita.

2. grafikoa: hizkuntza gaitasuna adinka.



Iturria: EUSTAT

C Kale-erabilera adin taldeka

Oiartzungo euskararen kale-erabileraren datuak 2001-2016 urte bitartekoak dira. Orotara, urte hauen bitartean, %62 izatetik %58,8 izatera jaitsi da, baina, esan beharra dago, 2011-2016 bitartean %5,9 igo dela. Bestetik, gaztelaniaren erabilera ere igo egin da, %37tik %40,2ra. Ondorengo lerroetan ikusiko dugun bezalaxe, hizkuntza erabilerak solaskidearen arabera aldatu egiten dira, eta komenigarria da hauen izaera zein den jakitea, batez ere Oiartzungo euskararen etorkizuneko erabilerari begira:

a) Haurrak (euren artean): 2-14 urte

Adin tarte guztietan gertatzen den bezalaxe, gaitasuna eta erabilera ez dira berdinak, kasu gehienetan erabilera gaitasunaren azpitik dagoelarik. Haurren kasuan, gaitasuna %90ekoa bada ere, erabilera %75,3 da, beti ere, haurren artean ari direnean (Soziolinguistika Klusterra, 2016).

Kopuru hau berau 2001ean %84,3koa zen, eta 2011. urtean %68,7koa.

b) Gazteak: 15-34 urte

Oiartzunen haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, arnasmunearen izaeraren aldeko datua dugu hau beraz.

Datu zehatzei helduz, gazteen euskara gaitasuna %93,3 bada ere, erabilera %76,4 da, haurrena baina apur bat altuxeagoa.

Urteetan zehar goranzko joera izan duela dirudi, 2001. urtean %61,2 baitzen euskararen erabilera adin tarte honetan. 2011an %75,1 izatera heldu zen, eta, aipatu bezala, 2016. urtera heltzerako %76,4.

c) Helduak: 35-64 urte

Helduen hizkuntza hautua, aurrerago ikusiko dugun bezala, aldatu egiten da hiztun taldearen arabera. Kasu honetan, helduen euskara gaitasuna %67,6 bada ere, euskararen erabilera jaitsi eta gero igo egin da urteetan zehar, hori bai, kopuru txikian. 2001ean %51 zen, 2011n %43,3, eta 2016an %49,2. Azken datu hau helduek zuten euskara gaitasunarekin alderatuz gero, dezente baxuagoa dela ikusiko dugu, gaitasuna %67,6 baita.

Umez eta helduz osaturik dauden taldeetan, ordea, gauzak bestelakoak dira. Izan ere, talde misto hauetan, helduek euren artean hitz egiteko ere euskara gehiago erabiltzen dute haurrak ez daudenean baino: %69,7 (2001. urtean %55,6, eta 2011. Urtean %50,5).

***Oiartzungo
euskararen kale-
erabileraren
datuak 2001-
2016 urte
bitartekoak dira.
Orotara, urte
hauen bitartean,
%62 izatetik
%58,8 izatera
jaitsi da, baina,
esan beharra
dago, 2011-2016
bitartean %5,9
igo dela. Bestetik,
gaztelaniaren
erabilera ere igo
egin da, %37tik
%40,2ra.***


Adinekoen euskara gaitasuna %71,9 bada ere 2016ko erabilera %43,9 zen, orain arteko erabilera tasarik baxuena. 2001ean %64,8 zen, eta 2011n %47,2. Hortaz, beheranzko joera dugula dirudi adinekoen euskararen erabileran.

Talde misto hauetan haurrei zuzentzean, aldiz, euskararen erabilera oraindik altuagoa da: %76 (2001. Urtean %76,8).

d) Adinekoak: 64 urtetik gora

Adinekoen euskara gaitasuna %71,9 bada ere 2016ko erabilera %43,9 zen, orain arteko erabilera tasarik baxuena. 2001ean %64,8 zen, eta 2011n %47,2. Hortaz, beheranzko joera dugula dirudi adinekoen euskararen erabileran.

3. grafikoa: euskararen adinkako erabilera.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Aurretiaz aipatu bezala, ezaugarri ohikoa da gazteak izatea euskara gehien hitz egiten dutenak, Oiartzunen gertatzen den bezalaxe. Eta, beraz, helduak eta adinekoak dira euskara gutxien erabiltzen duten adin tarteak, non euskararen eta gaztelaniaren erabilera nahiko parekoa den.

4. LINTZIRINGO DATUAK

I

4.1 Kokapena¹

Esan bezala, Lintzirin deritzogun merkataritza gunea Oiartzunen kokaturik dago. Oiartzunen parte bada ere, herri erdialdetik (Elizalde auzotik) urrun dauden guneeak osatzen dute eremu hau, Arragatetik Irunera bidean pasatzen den GI-636errepedeak gurutzatzen duena. Lintzirin deitzen zaio hirurogeita hamargarren hamarkadan Lintzirin hotela kokatzen zen inguruari, non, gaur egun, hotelaz gain (B&B izeneko),

besteak beste, WOK, Burger King, Iguazuri, Maxi China, Carrefour, Leroy Merlin, Ford etab. kokatzen diren.

Merkataritza handiez gain, ordea, bertan kokatzen diren beste saltoki eta lantegi gehiago daude, Lintzirin, Lintziringoi, Lanbarren eta inguruetan kokatzen direnak. Industrialde guztihau barne hartzen duen eremuko eragin linguistikoa neurtu eta ekintzak diseinatzea litzateke onena, baina gunearen handitasuna dela eta, jende masa handia erakartzen duten lau saltokitan jarri da arreta lanaren xedeari heltzeko: Carrefour, Leroy Merlin, Mercadona eta Brico Depot.

Lau hauetatik Carrefour eta Leroy Merlin dira Erreterria eta Oiartzu-
netik hurbilen daudenak, B&B hotela, Renault, Cepinsa, WOK, Burguer
King, Maxi China, Iguazuri eta Ford bizilagun dituztelarik.

Errepidean aurrerago joanez, ordea, Mercadona eta Bridodepot kokatzen
dira, Lanbarren poligonoaren parte. Aparkalekua partekatzen dute bi
hauek, baina, Brico Depotek ez bezala, Mercadonak lurpeko aparkalekua
dauka. Atzealdean dituzte Lanbarren poligonoa osatzen duten Macro,
Igartza, Insausti Garraioa, Transnatur Norte etab., gehienak garraioari
bideraturikoak.

4.2 Bisitarien jatorria

4.2.1 Asteaz zehar jasotako datuak

Guztira, asteaz zehar egindako galdetegien arabera, bisitarien 23 jatorri
desberdin jaso dira, 1. taulan jasotzen direnak:

1. taula: Bisitarien jatorria asteaz zehar.


Herria	Bisitariak	Herriko euskaldunak	Bisitari euskaldunak
Andoain	7	%31,11	2
Astigarraga	6	%37,58	2
Azkoitia	1	%61,70	1
Beasain	1	%33,50	0
Bera	4	%68,40	3
Donostia	51	%35,40	18
Erreterria	33	%37,70	12
Espainia	2	%0	0
Hernani	6	%35,51	2
Hendaia ³	6	%8,7	1

Azpimarragarria da, Oiartzunen kokatuta egonda, hirukoitza baino gehiago direla Donostiatik etortzen direnak Oiartzundik baino, eta bikoitza baino gehiago Erreteriatik hurbiltzen direnak.

Irun	21	%13,14	3
Iruñea	1	%10	0
Lasarte	10	%19	2
Lezo	4	%56,80	2
Oiartzun	15	%71,70	11
Pasaia	14	%36,23	5
Tolosa	2	%64,20	1
Urnieta	2	%33,8	1
Usurbil	3	%66,90	2
Zarautz	8	%68,10	5
Zestoa	1	%77,80	1
Zumaia	2	%68,90	1
Guztira	200	%37,50	75

1. taulan ikus daitekeen bezala, jatorrietan nagusi dira Donostia eta Erreteria, bisitari guztietatik (200)51 Donostiakoak baitira (%25,1), eta 33 Erreterikoak (%16,5). Ondoren, Irun (%10,5), Pasaia (%7), eta Oiartzun (%7,5) ditugu.

4. grafikoa: bisitarien jatorri nagusiak astean zehar.



Azpimarragarria da, Oiartzunen kokatuta egonda, hirukoitza baino gehiago direla Donostiatik etortzen direnak Oiartzundik baino, eta bikoitza baino gehiago Erreteriatik hurbiltzen direnak.

Kopurutan txikiagoak badira ere, Lasartetik eta Zarautzetik etortzen direnak aipatutakoen atzetik dabilta bisitari kopuruan. Nahiz eta gutxiago diren, urrunago dauden herriak dira hauek, baina, dirudienez, merkataritza gunen indarra haraino heltzen da, Lezotik zein Hendaiatik baino bisitari gehiago ekartzen baitituzte. Datu harrigarria, Lezo mugan duen herria baita.

Bestetik, jatorrizko herriaren euskaldun kopurua kontuan harturik, bisitari euskaldun kopurua kalkulatu da bisitarien jatorrizko herriaren euskara gaitasunaren arabera. Guztira, 200 bisitaritik, 75 dira euskaldunak. Hau da, bisitarien %37,5.

4.2.2 Asteburuetan jasotako datuak

Ikusten den bezala, berriro ere Donostia eta Erreterria dira bisitari kopuru gehien ematen dituzten herriak, bisitarien %38 eta %14 bertakoak baitira.

2. taula: bisitarien jatorria asteburutan.

Herria	Bisitariak	Herrietako euskaldunak	Bisitari euskaldunak
Aia	2	79,30%	2
Andoain	4	31,11%	1
Astigarraga	4	37,58%	2
Azpeitia	1	80,60%	1
Beasain	4	33,50%	1
Bera	5	68,40%	3
Donostia	76	35,40%	27
Erreterria	28	37,70%	11
Hernani	2	35,51%	1
Hondarrabia	8	60%	5
Hendaia	12	%8,7	1
Irun	15	13,%14	2
Lasarte	9	19%	2
Lezo	4	56,80%	2
Lizartza	1	79,40%	1
Oiartzun	9	71,70%	6
Ordizia	2	%38,4	0
Orio	2	73,70%	1
Pasaia	1	36,23%	0
Tolosa	2	64%	1
Urnieta	5	%33,8	2
Usurbil	2	66,90%	1
Zizurkil	2	%47,36	1
Guztira	200		74


Ondoren, orde, Hendaia eta Irun dira jatorri nagusiak, 12 (%6) eta 15 (%7,5) bisitarirekin.

Oiartzungoak, berriz, konparazioan gutxi dira, berriz ere: 9 (%4,5).

Jatorrizko herriaren euskaldun kopurua kontuan harturik, bisitari euskaldun kopurua kalkulatu da bisitarien jatorrizko herriaren euskara gaitasunaren arabera. Guztira, 200 bisitaritik, 75 dira euskaldunak. Hau da, bisitarien %37,5.

**Hizkuntzen
erabilera
neurtzeko
Soziolinguistika
Klusterren
Kale erabileraren
Neurketetan
erabilitako
metodologia
hartu da
oinarritzat.**

5. grafikoa: Bisitarien jatorri nagusiak asteburutan



Bisitari euskaldunen kopurua kalkulatzeko, berriro ere jatorrizko herriaren euskara gaitasuna hartu da kontuan.⁴ Honela, astean zehar jasotako kopuruaren antzekoa da asteburutan jasotakoa: 74(%37). Beraz, ikusi da astean zehar eta asteburutan bertaratzen den bisitari euskaldun kopurua nahiko antzerakoa dela, astean zehar apur bat altuagoa.

4.3 Hizkuntzen erabileraren neurketa

Esan bezala, hizkuntzen erabilera neurtzeko Soziolinguistika Klusterren Kale erabileraren Neurketetan erabilitako metodologia hartu da oinarritzat. Honela, Carefourren, Leroy Merlinen, Mercadonan eta Brico Depoten bezeroen hizkuntza hautuak jaso dira behaketa bidez, beti ordu berean, astean zehar eta asteburutan. Guztira, 400 elkarrizketa entzun dira (200 astean zehar, 200 asteburutan), eta hiztunak lau adin taldetan banatu dira (ikus. erabilera taula eranskinean): 2-14; 15-24; 25-64; 64+. Bestalde, langileen hizkuntza ohiturak garrantzitsuak direnez, hauen erabilera ere neurtu da.

4.3.1 Hizkuntzen erabileraren neurketa: astean zehar

Behaketak egin diren egunetan, hiru hizkuntza dira entzun direnak: euskara (Eus), gaztelania (Gaz) eta frantsesa (B)⁵. Behaketa guztietan gailendu zaie gaztelania bi hizkuntzei, baina ez modu berean:

Leroy Merlinen, Mercadonan eta Brico Depoten, batz bestea, behatutako elkarrizketen eta hiztunen %10 jaso dira euskaraz, entzundako elkarrizketen eta behatutako hiztunen euskararen erabilera oso parekoa aterata baita. Bestetik, gaztelania jaso diren elkarrizketak %89 dira.


Carrefourren kasuan, ordea, euskararen erabilera %18koa izan da, beste hiruetan baino altuagoa. Elkarrizketen %78 gaztelaniaz, eta %4 frantse-

sez edo beste hizkuntza batean. Beharbada, euskararen erabilera altua-
goa da hemen Oiartzunetik gertuago dagoelako, edota bezero tipologia
euskaldunagoa erakartzen duen saltokibat delako.

Honen ondorioz, lau saltokietan jasotako kale erabilera datuak kontuan
hartuz, euskaraz hitz egiten duen hiztun kopurua %9an geratuko litzate-
ke, gaztelaniaz %84, eta beste hizkuntza batean %7.

Behatutako elkarrizketei dagokienez, proportzioak mantendu egiten
dira gutxi gora behera, gaztelaniaz aritu diren hiztunak gailentzen dira
(%86), euskaraz eta beste hizkuntzetan diren elkarrizketak nahiko pa-
reko geldituz.

6. grafikoa: hiztunak adinaren arabera.



Adinaren arabera hizkuntza erabilerari heltzen badiogu, ordea, eus-
kara gehien hitz egiten den adin taldea 2-14 urte bitarteko hiztun taldea
da, non, hiztun hauen %32ak euskaraz egin duen. Hala ere, adin talde
honetan ere gaztelania da nagusi, %68ak egiten baitu.

Hauen ondoren, euskaraz gehien hitz egiten duen hiztun taldea 25-64
urte bitartekoek osatzen dutena da. Hauek, elkarrizketa guztien %12a
euskaraz egin dituzte, %83a gaztelaniaz, eta %5 beste hizkuntzaren batean.

Bestetik, 15-24 urte bitarteko hiztunen artean, elkarrizketa guztien %6a
euskaraz egin dira. Gainontzeko guztiak, %94, gaztelaniaz egin dira.

Euskaraz gutxien egiten duen adin taldea, hortaz, 64 urtetik gorakoek
osaten dute. Hauen kasuan, gehiago dira beste hizkuntza batean egin-
dako elkarrizketak (%7) euskaraz egindakoak baino (%3). Gaztelania,
berriro ere, nagusi dugu (%90).


Azkenik, langileen hizkuntza ohiturak ditugu. Elkarrizketa guztien %95
gaztelaniaz egin dituzte hauek, eta gainontzekoak euskaraz (%5).

**Honen ondorioz,
lau saltokietan
jasotako kale
erabilera datuak
kontuan hartuz,
euskaraz hitz
egiten duen
hiztun kopurua
%9an geratuko
litzateke,
gaztelaniaz %84,
eta beste
hizkuntza batean
%7.**

Euskararen erabilerari dagokionez, astean zeharrekoaren antzekoa dugu hau. Guztira, euskaraz entzundako elkarrizketak %8 dira, eta euskaraz entzundako hitzunik %10. Hortaz, gaztelania gailentzen da berriro ere bai entzundako elkarrizketetan (%86) eta baita entzundako hitzunen artean ere (%83).

4.3.2 Hizkuntzen erabileraren neurketa: asteburuetan

9. grafikoa: hizkuntzen erabilera.




Euskararen erabilerari dagokionez, astean zeharrekoaren antzekoa dugu hau. Guztira, euskaraz entzundako elkarrizketak %8 dira, eta euskaraz entzundako hitzunik %10. Hortaz, gaztelania gailentzen da berriro ere bai entzundako elkarrizketetan (%86) eta baita entzundako hitzunen artean ere (%83). Honek esan nahi du, euskara eta beste hizkuntzak (orokorrean, frantsesa) pareko dabiltzala asteburu zein astean zehar, beti ere, erabilerari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, asteburutan astean zehar gertatzen ez den zerbait gertatzen da. Izan ere, ikusi dugu astean zehar Carrefour zela euskaldun gehien erakartzen zituen saltokia (euskarazko elkarrizketak %18 ziren). Kasu honetan, ordea, Mercadona ere Carrefourren taldean sartzen da, Leroy Merlin eta Brico Depotekin alderatuz, gehiago baita euskaraz entzundako elkarrizketen kopurua: %14 (astean zehar baino %5 gehiago).

Bestetik, Carrefour eta Mercadona euskaldunagoak badira ere, muturrean dago Brico Depot, hemen entzundako euskarazko elkarrizketa kopurua %0 baita asteburutan, hots, astean zehar baino %8 gutxiago.² Honek, jakina, emaitza nagusian eragiten du, negatiboki.

10. Grafikoa: Hiztunak adinaren arabera.



Langileen kasua dugu, non berriro ere elkarriketen %99 gaztelaniaz egin dituzten eta %1 euskaraz (astean zehar baino %4 gutxiago).

Adinaren arabera erabilerari begiratzen badiogu, baina, egoera ez da asteen zeharrekoaren ezberdina. 2-14 bitarteko hiztunen kasuan, %22 izan dira euskaraz entzundakoak, eta %67 gaztelaniaz. Gainontzekoa (%11) beste hizkuntza batean egin da. Beraz, euskararen erabilera %10 jaitsi da asteburutan. Hala eta guztiz ere, adin talderik euskaldunena izaten jarraitzen du honek.

Ildo beretik jarraituz, 64 urtetik gorakoek osatzen dute ondorengotalde euskaldunena, non euskararen erabilera %11 den, gaztelaniarena %85, eta beste hizkuntzena %4. Asteen zeharreko datuekin alderatuz, %4 igo da euskararen erabilera, eta adin talde erdaldunenetik euskaldunen artean egotera igaro da.

%9 da asteburutan 25-64 urte bitarteko euskararen erabilera, %82 gaztelaniarena. Asteen zehar baino %3 gutxiago hitz egin da euskaraz.

Talde erdaldunena, 15-24 urte bitartekoena da, %5 baita euskararen erabilera, %90 gaztelaniarena, asteen zeharreko datu antzekoekin.

Azkenik, langileen kasua dugu, non berriro ere elkarriketen %99 gaztelaniaz egin dituzten eta %1 euskaraz (astean zehar baino %4 gutxiago).

5. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA: GALDETEGIAREN AZALPENA

Lintzirin merkataritza guneak Oartzunen duen hizkuntza inpaktua neurtzeko erabili den tresna, betetako galdetegiak eta hauekin lortutako emaitza azalduko dira atal honetan.

Honetarako, UEMAk 2017ko Maiatzean ateratako “Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa” deritzon tresna erabili da, baina, metodologia atalean

**UEMAk 2017ko
Maiatzean
ateratako “Eragin
Linguistikoaren
Ebaluazioa”
deritzon tresna
erabili da, baina,
metodologia
atalean azaldu
bezala,
moldaketa batzuk
egin dira
baliagarria izan
dakigun. Guztira,
hiru galdetegi
erantzun dira:
galdetegi laburra,
Eragin
Linguistikoaren
Ebaluazioaren
galdetegia eta
funtsezko
alderdien
galdetegia.**

azaldu bezala, moldaketa batzuk egin dira baliagarria izan dakigun. Guztira, hiru galdetegi erantzun dira: galdetegi laburra, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren galdetegia eta funtsezko alderdien galdetegia. Azken honetan, aztergai dugun gunearen izaera dela eta, jarduera ekonomikoari dagokion atala soilik bete da.

5.1 Galdetegi laburra

3. taula: galdetegi laburra.

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
2. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)	BAI	

Lau galderetatik, “Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko bisitari kopuruan?” galderari bakarrik eman zaio baiezeko erantzuna, bigarrenari. Izan ere, 6.2 atalean azaldu bezala, Oiartzungoak ez diren bisitari ugari erakartzen dituzte lau saltokiek. Bai astean zehar, eta baita asteburuetan ere, Oiartzungoak ez diren bisitariak %80 baino gehiago baitira.

Gainerako galderei dagokienez, Lintzirinek ez du Oiartzungo biztanlerian edo etxebizitza berrien sorreran eraginik izan. Erdigunetik urrun dagoen gunea delako hau, eta 70. hamarkadatik Oiartzungo biztanleen bizitzan dago, baita erosketara ohituretan ere.

Bestetik, ezezeko erantzuna eman bazaie ere, hizkuntza politiketan eta tokiko hiztun komunitatearen harreman sareetan eragin dezake gune honek, baina eragin hau bisita kopuruaren ondorioztat ulertu da, ez baita herriko hizkuntza politika aldatu, baizik eta saltoki jakin batzuetakoa, beti ere, bezero tipologiaren araberakoa dena. Harreman sareen eraginari helduz, Lintzirinek, aldatzekotan, bezero-saltzaile harremana aldatuko lukeela ulertu da, herritarren erosketara edo kontsumo ohituren aldaketaren ondorioz.

5.2 Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren galdetegia.

Sei ataletan banaturik dagoen galdetegia da hau. Kasu honetan, galdetegiaren zati bat bakarrik bete da, proiektua egin ondorengoari dagokiona. Guztira, eraginaren indize osoa, 114 puntukoa atera da, hots, moderatua, beti ere kontuan hartuz galdetegiaren zati bakarra bete dugula. Emaiza, hau, ordea, nahiko altua da konparazioan, izan ere, proiektua egin eta

geroko atalak soilik bete dira, eta hauek betetzen atera zitekeen puntuaziorik altuena 288 da. Beraz, 114/228tik gelditzen da atera zaigun emaitza. Ehunekotan jarrita, %39,58 litzateke emaitza.

4. taula: ELE galdetegia 1. atala

1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan(harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	2	4
1.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	2	4

Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzari dagokionez, atala betetzeko Oiartzungo Udaletxearentzat egindako “Oiartzungo merkataritza suspertzeko plan berezia” (Hiritik & Aztiker, 2016) hartu da oinarritzat. Honen arabera, Oiartzungo merkataritza txikiaren %67,5 euskaraz idazteko gai da, %20,7 bezeroei arreta emateko eta %9 ulertzeko gai. Bezeroak, aldiz, %77,3 euskaldunak dira. Oiartzungo biztanleen %68,2 joaten da as- tean behin Oiartzun kanpoaldean kokaturik dauden merkataritza gune handietara erosketak egitera. Hauen artean, gehienak 35-64 urte bitarte- koak dira, baina gazteen %100 joaten da gutxienez hilean behin haue- tara. Erosketa “garrantzitsuak” egitera Oiartzun kanpoaldeko merkatal gu- neetara joaten da herritarren %84,6.

Ikerketa horrek ateratako ondorioen arabera, beraz, ikusi da merkataritza txikiari dagokionean, euskara faktore erakargarria dela bezeroentzat, eta merkataritza txikia euskaldunagoa dela merkataritza guneekin alderatuta.

Datuok kontuan hartuz, proiektua egin eta gero eragina hedatua dela erabaki da bi arrazoiengatik. Batetik, esandako datuen arabera, herrita- rren kontsumo ohituretan zuzenean eragiten duen gunea dugu aztergai, herritarren (eta herriz kanpoko) bisitari kopuru handia erakarriz. Bes- tetik, saltokien eta udaletxearen arteko tramiteetan ere eragiten du, sal- tokien kontaktu asko atzeritarrak baitira, eta, beraz, ez dute euskararen ezagutzarik. Hortaz, Lintzirinek komunitatearen kultur eta gizarte bi- zitzan intentsitate maila ertainean eta altuan eragiten duela erabaki da, negatiboki bietan, eragin hedatua baitu (bezeroengan eragiten duela eta baita udaletxearen tramiteen hizkuntzan), baina etengabeko eragin ertainarekin, erdigunetik aldentzen den gunea delako hau.

Ikerketa horrek ateratako ondorioen arabera, beraz, ikusi da merkataritza txikiari dagokionean, euskara faktore erakargarria dela bezeroentzat, eta merkataritza txikia euskaldunagoa dela merkataritza guneekin alderatuta.

**Oiartzungo
euskararen
erabilerarekin
konparatuz,
Lintzirinen
bildutako
euskararen
erabilera eta
Oiartzungo
gainontzeko
auzoen euskara
erabilera guztiz
desberdinak
direla.**

5. taula: ELE galdetegia 2. atala.

2. Tokiko euskararen ezagutza (tokiko komunitatearen euskararen ezagutza tasa. Biztanle, erabiltzaile, langile edota bisitari berrien eraginez etor daiteke aldaketa)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
2.2 Eragina proiektua egin eta gero nabarituko da?	BAI			
2.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	4	8
2.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	4	8

6. Taula: ELE galdetegia 3. atala.

3. Tokiko euskararen erabileran (tokiko komunitatearen euskararen erabilera tasa aldatzea. Biztanle, erabiltzaile, langile edota bisitari berrien eraginez etor daiteke aldaketa)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
3.2 Eragina proiektua egin eta gero nabarituko da?	BAI			
3.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	4	8
3.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	4	8

Tokiko euskararen ezagutza eta tokiko euskararen erabileran eragin mailarik altuena atera da. Bietan, proiektua egin eta gero eta ataletan, eragina mugatua da (intentsitate maila altuan), merkataritza gunera bertaratzen direnei eragiten baitie. Bien kasuan, hala ere, etengabeko eragin altua suposatzen du. Atal batek besteak baino garrantzi handiagoa duenez balioari begira, tokiko euskararen erabilera da kezka-garria, baliorik altuena baitu. Honek esan nahi du, Oiartzungo euskararen erabilerarekin konparatuz, Lintzirinen bildutako euskararen erabilera eta Oiartzungo gainontzeko auzoen euskara erabilera guztiz desberdinak direla. Oiartzungo erdialdekoaren beste muturrekoa dela, Ondorioz, pentsa daiteke oso herri euskaldunetatik datozen bisitariek egingo luketena baino gehiago egiten dutela gaztelaniaz gune honetan, oiartzuarrak barne.

7. taula: ELE galdetegia 4. atala.

4. Hizkuntza paisaian (paisaia horretan ikus edo entzun dezakegunak osatzen du hizkuntza paisaia)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
4.2 Eragina proiektua egin eta gero nabarituko da?	BAI			
4.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	2	4
4.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	2	4

8. Taula: ELE galdetegia 5. atala.

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan (deialdiak direla, adierazpenak direla, egindakoaren berri ematea dela...)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
5.2 Eragina proiektua egin eta gero nabarituko da?	BAI			
5.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	2	4
5.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	2	4

9. taula: ELE galdetegia 6. atala.

6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan (jardueren hizkuntza)	Eragina BAI/EZ	+/-	Intentsitatea	Balioa
6.2 Eragina proiektua egin eta gero nabarituko da?	BAI			
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	2	4
6.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	2	4

Hizkuntza paisaian, zerbitzuen/egitasmoen komunikazioan eta euskarazko zerbitzuen eskaintzan, denetan eragin hedatua eta etengabekoa dela erabaki da, maila ertainean, saltokien iragarkiak, katalogoa... merkataritza gunetik kanpo iristen baitira. Gainera, hauetan erabilitako hizkuntza hautua ez da era antolatua eta koherente batean egiten. Erraz aurki daitezke komunikatu elebakarrak gaztelaniaz, beste batzuk elebitan, eta beste batzuk euskara hutsean.⁶ Eskaintzaren aldetik, lehentasuna Oiartzungo biztanleek dute lanpostuak betetzeko garaian, eta ondoren bailarakoek. Jatorriaren arabera euskara gaitasuna da langileengandik espero dena (giza baliabideen arduradunek adierazi dute), eta honek ez du langileek euskara jakitea bermatzen.

5.3 Funtsezko alderdiak: jarduera ekonomikoa

Atal honetan, dena delako proiektuak eragingo duen jarduera ekonomikoaren inguruko hiru ataletan daude banaturik galderak: izaera, dimentsioa eta lekukotzea.

10. taula: Funtsezko alderdiak: jarduera ekonomikoa, IZAERA.

Funtsezko alderdiak	BAI	EZ
23. Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?	X	
24. Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?	X	
25. Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?	X	
26. Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?		X
27. Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?		X
28. Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?	X	

11. Taula: funtsezko alderdiak: jarduera ekonomikoa, DIMENTSIOA.

Funtsezko alderdiak	BAI	EZ
29. Tokiko beharretara neurritutako lanpostuak sustatuko al dira?		X

12. taula: duntsezko alderdiak: jarduera ekonomikoa, LEKUKOTZEA.

Funtsezko alderdiak	BAI	EZ
30. Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi al da?	X	

Izaerari dagozkion galderetan, 23, 24 eta 27. galderei baiezko erantzuna eman zaie. Lintzirinek tokiko lan aukerak sustatzen dituela eta beraz, lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak betetzen direla erabaki da, saltokietako langileak aukeratzeko garaian, oiantzuarrek baitute lehen-tasuna, eta bailarakoek ondoren. Bestetik, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza jasotzen dute hautatutako langileek, oinarritzkoa bada ere (lan egiteko metodologia...).

Bestetik, ekonomia aniztasuna sustatzeari, herritar talde guztientzat lan aukerak bultzatzeari eta askotariko enpleguak lortzeko aukera sustatzeari ezezkoa eman zaio, ekonomia eredu mota jakin bat bultzatzen duen gu-nea baita hau, produktu eta bezero mota jakin batentzat bideratua. Hala

ere, Brico Depot eta Leroy Merlinen kasuan, saltzen duten produktu mota dela eta, gremio gehiago barne hartzen dituzten saltokiak dira.

Dimentsioaren atalari dagokion 29. galderari ezezko erantzuna eman zaio, ez baita uste tokiko beharretara begira dauden lanpostuak sustatzen direnik, baizik eta sektore eta langile zehatz batekin loturikoak soilik.

Azkenik, lekukotzearen barnean dagoen 30.galderari baiezko erantzuna eman zaio, hots, enpresak eraiki diren gunea euskarari dagokionean ez da hain sentikorra, esan bezala, erdigunetik urrun dagoen gunea baita hau, hortaz, herritarren erabileran eta ezagutzan gutxiago eragiten du.

5.4 Ondorioak eta neurriak

Helburuen atalean esan bezala, Lintzirin deritzon merkatalritza guneak Oiartzungo euskaran eraginik bazuen, eta edukitzekotan, zenbaterakoa zen jakiteko helburuetako bat zen lan honena, ondoren emaitzetan oinarritutako ESEP egiteko. Lan honekin, euskararen presentzia bermatu nahi da etorkizun batean Lintzirinera hurbilduko diren enpresa berriekin egingo diren hitzarmen eta tramiteetan. Modu honetan haien jarduera ekonomikoak euskaran eragin dezakeela erakusteko baliatuko da lana, eta hortaz, neurri batzuk ezinbestekoak direla adierazteko. Horrela, Oiartzungo euskara zerbitzuak delako enpresek izan dezaketen hizkuntza politikan parte hartzea errazagoa izango da.

Bestetik, lan hau etorkizunean mota honetako lanei bidea irekitzen dien lan bat bezala planteatu zen hasieratik. Horretarako, Oiartzungo euskara eta hirigintza teknikariak eta UEMAKo teknikariaz osatutako lan talde bat bildu zen, eta guztira gunera bertaratutako 400 bisitariri galdetu zitzairen jatorria, eta beste 400 elkarrizketa bildu ziren (behaketa bidez). Dagoeneko eraikirik dagoen gunea izateak datu enpirikoak jasotzeko baliabidea eman dio lan taldeari, eta honela, ELE galdetegia objektiboki betetzeko oinarri sendo bat, baita ESEP bat garatzeko orduan guneari buruzko datu zehatzak izatea, ekintzak eta jarduerak ahulguneetara bideratzeko.

Jatorriaren aldetik, bisitari kopuru handiena Donostia, Errearteria eta Irun udalerrietatik dator, bai asteen zehar eta baita asteburutan ere. Euskaldun kopurua %36aren bueltan dago.

Orotara, ELE galdetegia betetzean, Lintzirinek eragin linguistikoa dutela ziurtatu da, (288tik) 114ko puntuazioa duena, hots, moderatua. Zifra nagusiak eragin moderatura bagaramatza ere, eraginik larriena euska-

**ELE galdetegia
betetzean,
Lintzirinek
eragin
linguistikoa
dutela ziurtatu
da, (288tik)
114ko
puntuazioa
duena, hots,
moderatua. Zifra
nagusiak eragin
moderatura
bagaramatza ere,
eraginik larriena
euskararen
erabileran (48
puntu) eta
ezagutzan (32
puntu) eman da.**

**Neurri
zuzentzaileekin
hasi aurretik,
ordea,
zailtasunak
ekarri dituen
faktore bat dago:
zigor gabezia.
Izan ere,
hitzartutakoa ez
betetzeak
ondoriorik ez
duenez,
hizkuntzaren
faktorea betetzen
ez denean, zigor
bat jartzeko
ezintasunaren
aurrean ezer
gutxi egin dezake
lan honek, eta
neurriak
proposatu baina
betearaziko ez
dituen inor ez
egoteak egoera
zaildu egiten du.**

raren erabileran (48 puntu) eta ezagutzen (32 puntu) eman da. Hori dela eta, jarraian proposatuko diren neurri zuzentzaileak batez ere hauen egoera hobetzeko proposatu dira.

Euskararen erabileraren aldetik, datu larrienak bertan jaso dira. Asteburutan eta astean zehar euskararen erabilera nahiko pareko dago, gaztelania gailentzen da bietan, eta, kasu batzuetan, euskararen eta beste hizkuntzen erabilera antzekoa da. Bi kasuetan 2-14 urte bitartekoak izan dira euskara gehien egin dutenak. Lintzirinen jasotako euskararen egoera eta Oiartzunen bizi dutena konparatuz gero, kontrakoak dira biak, muturrekoak. Izan ere, arnasmune batean, “itogune” bat kokatzen da, herriko erdigunetik urrun badago ere, herriaren parte dena, eta merkataritzaren ikuspegitik pisuzkoa. Euskara osasuntsu egotetik, muturreko egoera bizitzera darama merkataritza gunek (eta honek dakarren guztiak). Pentsa daiteke, beraz, gunek honetako bizimodua, nahiz eta arnasmune batean kokaturik egin, ez dela jasangarria euskararentzat. Hori dela eta, jarraian proposatuko diren neurri zuzentzaileak batez ere hauen egoera hobetzeko proposatu dira.

Neurri zuzentzaileekin hasi aurretik, ordea, zailtasunak ekarri dituen faktore bat dago: zigor gabezia. Izan ere, hitzartutakoa ez betetzeak ondoriorik ez duenez, hizkuntzaren faktorea betetzen ez denean, zigor bat jartzeko ezintasunaren aurrean ezer gutxi egin dezake lan honek, eta neurriak proposatu baina betearaziko ez dituen inor ez egoteak egoera zaildu egiten du. Horren alternatiba gisa ere erabiliko da ESEP, Euskal Autonomia Erkidegoan batez ere herri kopuru handiak hartu baitu hau egin eta honi jarraipena egiteko konpromisoa.

Merkataritza guneko euskararen egoera hobetzeari begira, anitzak dira egin daitezkeenak. Hasteko, udaletxearen eta enpresaren arteko hitzarmen bat eginez, langileei euskarazko doako formakuntza eskain dakieke. Honek langileen artean behintzat euskara gaitasuna bermatuko luke. Hau lortzeko beste modu bat Oiartzungo euskara zerbitzuak hautespen prozesuetan euskara probak egitea litzateke, edo behintzat hautespen prozesuak egingo direnean enpresa hauei euskara probak egitea eskaintzea.

Hala ere, euskararen ezagutza bermatzea baino, zailagoa da euskararen erabilera bermatzea, enpresen lan egiteko metodologian eskua sartzea eskatzen baitu honek. Konponbidea litzateke langileek bezeroekin harremanetan jartzeko lehenengo hizkuntza euskara izatea, eta langileen esku dagoena euskaraz egitea. Hau, adibidez, mintzapraktika bidez bu-

rutu liteke, langileek hizkuntzarekin konfiantza har dezaten. Guzti hau udaletxearen artean eta enpresaren artean adostu eta hitzarmen batean idatziz jasotzea komenigarria litzateke. Horrela, adostutakoa beteko ez balitz, idatzizko euskarri bat egongo litzateke adostutakoa betearazteko.

Bestetik, hutsune handia dago arlo honetan, neurriak “betearaziko” dituen inor aurkitzea zaila baita, eta neurri guztiak ezerezean geratzeko arriskuan jartzen ditu horrek. Hortaz, ezinbestekoa litzateke hitzartutakoaren jarraipena egingo lukeen arduradun bat izendatzea. Honetarako, komenigarria litzateke lan taldea finkatzean, neurriak aplikatzeaz eta aplikatu ondorengo jarraipenaz arduratuko den norbait izendatzea, behar izanez gero, euskara zerbitzuari baliabide gehiago emanez.

Honekin loturik, enfasia egin nahi da jarduera baimenen tramiteetako espedienteen sorreran, hauek, behin euskara zerbitzura iritsita, enpresaren eta euskara zerbitzuaren arteko harremana edo kontaktua erraztuko luke eta.

Komunikazioari dagokionez, hiru neurri proposatzen dira. Batetik, Udaletxearen eta enpresaren arteko tramiteetan arduradun izango denari euskara jakiteko eskatzea. Enpresek egindako publizitate, idatzi eta komunikatuetan, ordea, inkoherentzia da nagusi, batzuetan besteetan baino saiakera handiagoa egin bada ere, gauza batzuk euskaraz (inprimakien azala, atal nagusiak..), beste batzuk gaztelaniaz, beste batzuk elebitan...baitaude. Inkoherentzia hau saihesteko, gaztelaniazko komunikatu elebakarrak saihesteko eskatzea erabaki da, eta oinarritzko gauzak azaltzen dituzten euskarazko idatzi elebakarrak onartzea. Bezeroei helduko zaizkien dokumentuak direnez, denak elebitan jartzea, edo, elebakarra izatekotan, euskaraz egotea proposatzen da, modu honetan, euskararen presentzia bermatuz. Azkenik, azken neurri honekin loturik, marketinaz edota errotulazioaz arduratuko denari euskara gaitasuna eskatzea proposatzen da, errotulista euskalduna izatea, honela, bai gaztelaniaz eta baita euskaraz idatzitakoa zuzen idatzita egongo da.

Gainera, enpresen komunikatu eta iragarkiak herriko hedabideetan agertzeko eskaintza egitea proposatzen da, honek euskaraz egongo direla bermatzen baitu.

6. EUSKARA SUSTAPEN EKINTZA PLANA (ESEP)

ESEPen inguruko informazioa emateko Euskararen Aholku Batzordeak 2012. Urtean egindako txostenean azaldutakoa hartu da oinarritzat.

**Gaztelaniazko
komunikatu
elebakarrak
saihesteko
eskatzea erabaki
da, eta oinarritzko
gauzak azaltzen
dituzten
euskarazko idatzi
elebakarrak
onartzea.**

**Helburuari
ekiteko, EBPnko
zenbait gauza
mantendu eta
beste hainbat
berrikuntza
txertatu dira plan
berrian, EBPn
diseinatu zeneko
egoera ez baita
gaur egungoaren
berdina, eta
beharrak eta
hutsuneak,
hortaz, ere ez.**

ESEPen helburuak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburua euskaraz bizitzeko aukerak ematea zen bezalaxe, ESEPen helburu nagusia euskararen erabilera da, beti ere, ezagutza bultzatuz, ezagutzaren eta erabileraren arteko ezberdintasuna murriztera begira.

“Euskararen erabilera sendotu eta zabaltzea gizarte egiatan elebidun bateranzko urrats ezinbestekoa da. Euskararen funtzio soziolinguistikoetan eta hedapen sozialean aurrerapauso handiak eman diren arren, hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da euskarak duen presentzia”.

Helburuari ekiteko, EBPnko zenbait gauza mantendu eta beste hainbat berrikuntza txertatu dira plan berrian, EBPn diseinatu zeneko egoera ez baita gaur egungoaren berdina, eta beharrak eta hutsuneak, hortaz, ere ez.

Helburuen artean, ordea lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatu dira. Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatu da: euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura.

1. Euskararen jabekuntza

Hiru esparru bereiz daitezke hemen, euskararen geroratzean oinarritukoak direnak: familia bidezko transmisioa, euskararen irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea.

2. Euskararen erabilera

Etorkizunera begira helduen eremuetan euskararen presentzia bermatzea da helburu estrategiko honen funtsa, eta zenbait esparrutarako neurriak biltzen dira bertan: aisia, kirola, kultura, teknologia berriak, lan mundua...

3. Euskararen elikadura

Hizkuntza normalizazioari begirako euskararen sorkuntza eta ekoizpena bilatzen da helburu honetan, hots, euskal hiztun batek hizkuntza eroso erabil ahal izatea. Nolabait esanda, euskal kulturgintza diru-laguntzen mende ez egotea.

Azkenik, helburu hauek lortzeko zehar-lerroak zehaztu ziren: euskararen aldeko motibazioa (euskararen sentsibilizazioa eta motibazioa) eta euskararen zabalkundea (barruko eta kanpoko proiektzioak).

6.1 Diagnostika: AMIA matrizea.

INDARGUNEAK	AUKERAK
Udalerri euskaldunetan kokaturik dago Lintzirin merkataritza gunea, non euskaldun kopurua %71,7 den. Ezagutza tasa altua izateaz gain, euskararen erabilera ere altua da herrian. Adin tarte euskaldunenak 15-34 urte (%76,4) bitarteko gazteek eta 35-64 bitartekoek (49,2) osatzen dute. Udaleko euskara zerbitzuak interesa du merkataritza guneko enpresekiko, bai errotulazioan euskarazko edukia sartzeko eta baita langileen hautespen prozesuetan parte hartzeko ere. Udaleko euskara zerbitzuak hizkuntza aholkularitza eskaintzen die herrian kokatzen den enpresa eta establezimendu guztiei.	Euskara gaitasun altua dago, eta etorkizunean ere egotea espero da, D ereduari matrikulatzen baita ikaslegoaren %86. Hortaz, etorkizunean herritarrek euskaldunak direla bermatzen da. Enpresek herriko langileak lehenetsiz gero, euskaldunak izateko aukera handia dago. Gaur egungo erosleen zatirik handiena 15-34 eta 35-64 urte bitartekoak direla pentsa daiteke. Bi kopuru hauen euskaldun tasa handia da: %83 eta %65. Bisitarien jatorri nagusiak Donostia, Erretera eta Irun badira ere, ingurukoak baino udalerri euskaldunagoetatik ere bisitariak etortzen dira, hala nola, Zestoatik eta Zarautzetik. Lintziringo euskararen erabilera datuak onak ez badira ere, Carrefourren (eta Mercadonan asteburutan) elkarriketa gehiago hasi dira euskaraz. Badirudi erosle tipologia euskaldunagoa erakartzen dutela. Datu itzaropentsua da hau, izan ere, Carrefourrek erakartzen du Lintzirinen sartzen diren autoen %65. Oiartzunek lehenetsuna dute langileen hautespen prozesuetan. Beharrezko baldintza ez bada ere, langileak edo hautagaiak euskaldunak izatea balio erantsia da saltokientzat. Saltokiek eta merkatariek herriko hedabideetan publizitatea euskaraz egiteko aukera dute.
AHULEZIAK	MEHATXUAK
Oiartzun herri euskalduna izatea onuragarria da gunearentzat, baina Lintzirin Oiartzundik kanpo dago kokatuta, herri girotik kanpo, Oiartzun eta Irunen artean dagoen erdibidean. Honek interbentzio linguistikoa zailtzen du. Udaletxeak saltokiekin eta arduradunekin harremana izan dezake, baina zaila da udala eta saltokiek hitzartutakoa bete den ala ez kontrolatzea, jende masa handia mugitzen duen gunea baita hau, eta saltoki asko kokatzen dira bertan. Harremana egin bai, baina hitzartutakoaren jarraipena egitea ez da erraza. Udaletxeek eta saltokiek hitzartutakoa betetzen ez den kasuetan ez dago "zigorrik". Ezer gutxi egin dezake udaletxeak, ez baitago legez ezer arauturik.	Oiartzun euskalduna da, baina inguruko herriak ez dira Oiartzun bezain euskaldunak. Hortaz, proportzioan erosleak erdaldunak izateko aukera gehiago dago euskaldunak izateko baino. Saltoki handi hauek eskaintza anitza dute, tipologia ezberdinetako produktuak saltzen dituzte. Hortaz, erosketa zabalagoa egiteko aukera ematen die bezeroei. Gainera, saltoki hauek elkarrengandik oso gertu daude. Honek bezero gehiago (proportzioan erdaldun gehiago) erakar ditzake. Bisitari gehiago etortzen dira kanpotik Oiartzundik baino. Gainera, jatorri ezberdin askoko bisitariak biltzen ditu gunek. 200 bisitaritik 75 dira euskaldunak, batzaz beste %37,5.

6.2 ESEP-renhelburuak

1. Lintziringo hizkuntza pasaia hizkuntza ekologiararen ikuspegira ego-
kitzea, euskarak bertako hizkuntza endemiko gisa garapen jasagarria
izatea, belaunaldi guztiei dagozkien beharrak asetzeko ahalmena izan
dezan, gainontzeko hizkuntzak arriskuan jarri gabe.

- Saltokietako langileak euskaldunak izan daitezen baliabideak ematea
- Langileen arteko harreman hizkuntza euskara izatea.
- Erosle tipologia euskalduna erakartzea.
- Euskara erabiltzeko aukerak sortu eta ondorioz euskararen erabilera igotzea 4 establezimenduetan (behintzat).
- Jarduera ekonomikoko hizkuntza euskara izatea enpresa barnera zein kanpora begira.
- Laginleen aukeraketan euskara gaitasuna balio erantsi izatetik betebeharrezko baldintza izatera pasatzea.
- Bezero-langile harremana euskaraz izatea euskaraz izan daitekeen guztietan.
- Dendetako langileek euskaraz lan egiteko konpromisoa hartzea.

2. Saltokien eta udaleko Euskara Zerbitzuaren arteko hartu-emana handitzea eta harremana hobetzea.

- Euskara Zerbitzuak saltokiekin adostutako jardueren baimenen tramitazioa errazagoa izatea.
- Euskara Zerbitzuak saltokietako publizitate kanpainetan parte hartzea.
- Saltokietako publizitate eta errotulazio eremuetan Euskara Zerbitzuaren jarraipena ahalbidetzea.
- Adostutako baldintzak betetzen ez diren kasuetan protokolo bat jarraitu ahal izatea.

3. Euskararen presentzia gutxienez gaztelaniarenaren parekoa izatea.

6.3 Helburuak, neurriak, ekintzak eta jarduerak.

AMIA matrizean ikusitako beharren arabera aukeratutako helburu, neurri, jarduera eta ekintzak:

1. Administrazioa
2. Gune geografiko euskaldunenak
3. Arlo sozioekonomikoa
4. Aisia eta kirola
5. Publizitatea
6. Hedabideak
7. Sentsibilizazioa eta motibazioa
8. Barruko proiektzioak

1. ADMINISTRAZIOA
Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea (Toki erakundeak)
Herri-administrazio bakoitzak bere esparrurako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI) finkatzea. HOEIak ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo ezberdinen eta herri-langileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoa, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, korredakzioa, erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet, argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza profesionala eta euskara-gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontratazioarako hizkuntza-baldintzak
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak betetzen direla bermatzea
Elkarte eta enpresei dirulaguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea
Elkarte eta enpresei dirulaguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea
Hizkuntza irizpideen baitan dagoen itzulpen politika egoki bat zehaztea (bereziki idazketa elebiduna bultzatuz)
Itzulpenen eta euskaraz sortzen diren testuen komunikazio-kalitatea bermatzea
Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea (Toki erakundeak)
Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko
Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea
Argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea
Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe
2. GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK
Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)
Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea
Merkataritza kokaguneetan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izango duela bermatzea
Merkataritza kokaguneetan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izango duela bermatzea: herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko herriko denda eta tabernetan euskarazko zerbitzua jaso dezaten neurriak jarriko dira, tabernari eta dendari erdaldunei zuzendutako ikastaroak eskainiz, euskara ikas dezaten.
Proiektzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, elkarte eta enpresei diru-laguntzak ematerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea
Gune geografiko euskaldunenetako erdaldunak euskarara erakartzeko estrategiak diseinatu eta garatzea
Euskara herritarren lehen hitzkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea (toki erakundeak)
Euskarazko produktuen katalogoa eta euskarazko kultur eskaintza ahalik eta gehien jakinaraztea, web gune bitartez edo beste bide batzuetatik
3. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA
Hizkuntzen industrien arteko elkarlana sustatzea (Toki erakundeak)

Erakunde publikoetan euskara planak diseinatu eta garatzea
Enpresa pribatuetan euskara planak hedatzea, enpresa publikoen kasuan bezala lantokien tipologia bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz
Enpresa pribatuaren lankidetzaren areagotzea komunikazio kanpaina egokien bidez • Fasearen balorazioa eta komunikazioa
Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea
Enpresei zuzendutako arreta-gune bat sortzea, hizkuntza-politika arloko ekimenen informazioa hedatu eta ezagutarazteko, euskararen aldeko planak eta proiektuak enpresetan ezartzeko orduan izan daitezkeen kezkek eta beharrak bideratzeko eta aurrera begira sortu daitezkeen aukera eta behar berriak antzemateko
Euskara Planen inguruko ikastaro bereziak antolatzea, langileei eta enpresen arduradunei begira
Euskara Planen inguruko ikastaro bereziak antolatzea, langileei eta enpresen arduradunei begira
Enpresariaren elkarte eta langileen sindikatuarekin sinatutako akordioak eta akordio horien garapen eta jarraipenerako sortutako elkarguneak sendotzea eta bultzatzea
Enpresen euskara planetara bideratzen diren diru-laguntzen inguruko herriaginteen koordinazioa indartu eta hobetzea
Enpresen euskara planetara bideratzen diren diru-laguntzen inguruko herriaginteen koordinazioa indartu eta hobetzea
Akordio horiek sinatu zituzten erakunde ekonomiko, sozial eta finantzarien artean elkarlanerako Kontseilu Bateratu bat sortzea. Kontseilu horren egitekoa diru-laguntzen kudeaketaren jarraipena, ebaluaketa eta etengabeko berrikuntzarako proposamenak egitea izango litzate
Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea.
Enpresa jarduerak euskalduntzeko egiten diren ahaleginen ebaluazio sistematikoaren logika ezarri eta hedatzea
Orain arte garatu diren euskara planen emaitzen gaineko azterlana egitea, egoera ezagutu eta aurrera begirako proposamenak egiteko
Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek kontsumitzaile
eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan bermatzen dituzten neurriak hartzea, indarrean dagoen araubidea betearaziz eta horretarako enpresen aldetik konpromisoa, partaidetza eta konplizitatea lortuz
Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea
Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea
Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea
Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea
Akordioak bilatzea prozesuan parte hartzen duten eragileekin
Arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza sistema ongi uztartzea
Langileen etengabeko prestakuntzan hainbat modulu euskaraz ere egiteko aukera bermatuko da
Lan zerbitzuetan euskararen normalizazioa bultzatzea
Gaur egun enpresetan indarrean diren kalitate-parametroen arabera euskararen erabilera ere modu sistematizatuan aitortu eta ebaluatzeko sorturiko BIKAIN ziurtagiria garatzen jarraitzea, sektore ezberdinetako enpresen hizkuntza kudeaketa kalitatearen irizpideen arabera hobetuz, kudeaketa horren ebaluaziorako erraztasunak emanez. Gainera, kalitatearen aitormen eta ebaluaziorako merkatuan erroturik dauden ziurtagiri estandarretan (EFQM, ISO eta abar) hizkuntza kudeaketaren irizpidea normaltasunez integartzeko urratsak egitea
Enpresa nahiz establezimenduetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa bultzatu eta egiaztatzea (Bikain edo Bai Euskarari ziurtagiria): gaur egun enpresetan indarrean diren kalitate-parametroen arabera euskararen erabilera ere modu sistematizatuan aitortu eta ebaluatzeko sorturiko Bikain ziurtagiria garatzen jarraitzea.

Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema eraginkor bateranzko pausoak ematea
Euskararen erabileraren ebaluazio eta aitortzaren sistema garatzeko baliabideak jartzea
Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema hedatzea
Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko
Euskara empresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea
Hizkuntzen industria indartzeko Langune klusterraren garapena bermatzea
4. AISIA ETA KIROLA
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko
Komunikazioa bultzatzeko gizarte sare birtual euskaldunak sustatzea
Erabilera gero eta handiagoa duten gailu teknologiko berrietara egokitutako aisialdi aplikazioak sortzen laguntzea
Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea
Merkatuan agertzen diren berrikuntzak berehala lokalizatzea euskarara
5. PUBLIZITATEA
Euskarazko publizitatearen sorkuntza sustatzea, horretarako estrategia original, bereizgarri eta berritzaileak bultzatuz (Toki erakundeak)
Publizitate kanpainak kontratatzerakoan, euskarazko sorkuntza lehenestea edota saritzea
Euskarazko publizitatearen merkatua prestigioatzea iragarleen artean (Toki erakundeak)
Hedabideek iragarleei publizitatea euskaraz egiteko aukera ematea Ekintza: Euskara Zerbitzua hartu-emanetan dabil herriko hedabideekin, euskarari gero eta tarte handiagoa eskaini diezaioten eduki guztietan; baita publizitatean ere.
Hedabide publikoek iragarleei euskaraz publizitatea egin dezaten informazioa, erraztasunak eta pizgarriak ematea
Erakundeek euskarazko publizitatearen sortzaileekin batera elkarlanean jardutea (Toki erakundeak)
Enpresa-estrategia erakargarri eta eraginkorrek indarrean jartzea
Enpresa munduak alor honetan duen erantzukizun sozialaz kontzientziazatzea
6. HEDABIDEAK
Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea (Toki erakundeak)
Herri-administrazioen publizitate instituzionalean hizkuntza irizpideak txertatzea, hizkuntzen berdintasunera bidean.
Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotzea
7. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA
Erakundeen hizkuntza erabilera eredugarri bat bultzatzea, elebitasunaren ikuspegitik eta euskararen aldeko jarreraren aldetik.
Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez
Agerpen publikoetan euskararen erabilerak duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea
Arlo sozioekonomikoa (Toki erakundeak)

Enpresekin eta enpresarien elkarteekin elkarriketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab
Enpresen elkarteekin eta sindikatuekin konpromisoak bilatzea euskararen erabilera plana
Herritarren eta merkataritza enpresen erabilera egitea, herritarren hizkuntza hautuari egokiarazteko, hizkuntza paisaia zaintzeko
Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteekin bitartez
Aisia eta kirola (Toki erakundeak)
Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko
Aisialdirako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten enpresei eta kolektiboek zuzendutako sentiberatze eta informazio kanpainak diseinatzea
Hedabideak eta publizitatea (Toki erakundeak)
Enpresa, merkataritza eta elkarteek zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jartzea publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko
Publizitate enpresetan eragitea, ikusarazteko beren jardueran euskara barneratzeak izan dezakeen eragina
8. BARRUKO PROIEKZIOA
Euskararen irudi positiboa indartzea (Toki erakundeak)
Harreman sareak sendotu eta elikatzea
Euskararen ezagutza eta erabilerari lotutako balio erantsiak hedatzea
Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere (Toki erakundeak)
Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigioztatzea (Toki erakundeak)
Elebidun pasiboen kopurua handitzea eta haien arreta erakartzea, euskarazko kultur ekoizpenaren bidez, komunikagarritasuna bermatuz



OHARRAK

1. Eranskinetan mapak.
2. Kontuan hartu beharra dago behaketak beti momentuari loturik daudela, eta, nahiz eta momentuan euskarazko elkarriketarik ez entzun, beste edozein asteburutan euskara entzuteko aukera dagoela.
3. Hendaia euskararen gaitasunaren datu zehatzik ez da topatu, eta beraz, Lapurdiko kostaldeko euskara gaitasuna erabili da kalkulua egiteko (Euskararen Erakunde Publikoa, 2011).
4. ELE galdetegia betetzeko jarraibideetan honela kalkulatu da euskaldun kopurua, eta kasu honetan ere horrela egitea erabaki da.
5. Gehienetan euskara, gaztelania eta frantsesa entzun dira, baina baita beste hizkuntza batzuk ere. Horregatik, frantsesa beste hizkuntzekin batera kokatu da aparteko talde batean.
6. Eranskinetan errotulu eta iragarkien adibideak.

BIBLIOGRAFIA

- Azkue, G. (2016). "Estudio de tráfico en Lintzirin"- *Oiartzungo Udala*. 1-45.
- Campbell, L. (2011). "La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?". *Koldo Mitxelena Katedraren Biltzarra*. 23-40.
- "Euskara Sustatzeko Ekintza Plana" Euskararen Aholku Batzordea Kultura saila 2012ko iraila.
- Eusko Jaurlaritz. (2002) *V. inkesta soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- Gaindegia, (2015). "Euskal Herriari begira: Oiartzun". *Udalbiltza*. 1-13.
- Hiritik at & Aztiker. (2016) "Oiartzungo merkataritza suspertzeko plan berezia". *Oiartzungo Udala*.
- Hornsby, M. (2015). "The 'new' and 'traditional' speaker dichotomy: bridging the gap". *International Journal of the Sociology of Language*. 213. 107-125.
- Lakawa, R. (2015). "The relationship between Language and Architecture: A Case Study of Betawi Cultural Village at Setu Babakana, South Jakarta, Indonesia". *International Journal of Humanities and Social Science*. 8:5. 84-101.
- Manterola, I. & Berasategi, N. (2011),. *Hizkuntza gutxituen erronkak [Retos de lenguas minorizadas]*. Bilbo: UEU. ISBN: 978-84-8438-376-5.
- Mufwene, S. (2002). "Colonisation, Globalisation, and the Future of Languages in the Twenty-first Century". *International Journal on multi-cultural Societies (IJMS)*. 4:2. 162-193.
- Soziolinguistika Klusterra (2012). "Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale neurketa". 1-43.
- Soziolinguistika Klusterra (2014). "Datu Soziolinguistikoen bilduma: Oiartzun 1986-2011). 1-57.
- Soziolinguistika Klusterra (2017). "Oiartzun, hizkuntza-erabileraren kale neurketa 2016". 1-32.
- Zendoia, J. M. (2000). "Hizkuntza gutxituak eta ekonomia: euskararen kasua". UPV/EHUko doktore tesia. <http://www.ehu.eus/jm.zendoia/Ikerketa/HIZKUNTZA_GUTXITUAK_ETA_EKONOMIA.pdf> (2016-05-05)

ERANSKINAK

1 ERANSKINA. Jatorrien taula

DATA:

ORDUA:

TOKIA:

	Udalerria
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
11.	
12.	
13.	
14.	
15.	
16.	
17.	
18.	
19.	
20.	
21.	
22.	
23.	
24.	
25.	
26.	
27.	
28.	
29.	
30.	
31.	
32.	
33.	
34.	
35.	
36.	
37.	
38.	
39.	
40.	
41.	
42.	
43.	
44.	
45.	
46.	
47.	
48.	
49.	
50.	

2 ERANSKINA. Hizkuntza-erabileraren taula

Data:

Lekua:


Ordua:

	2-14		15-24		25-64		64+		Langileak		Haurra hizketan
1.											
2.											
3.											
4.											
5.											
6.											
7.											
8.											
9.											
10.											
11.											
12.											
13.											
14.											
15.											
16.											
17.											
18.											
19.											
20.											
21.											
22.											
23.											
24.											
25.											
26.											
27.											
28.											
29.											
30.											
31.											
32.											
33.											
34.											
35.											
36.											
37.											
38.											
39.											
40.											
41.											
42.											
43.											
44.											
45.											
46.											
47.											
48.											
49.											
50.											

3. ERANKSINAK. LINTZIRINGO MAPAK



4.ERANSKINAK. ERROTULUAK



BRICO DEPÔT JANTZI ZORRI
LORATE

DESCARGAS CANTIDADES LIMITADAS

CÉSPED

ESKANTZIA BEREZIA MAIATZAREN 12an
KLIMATIZAZIOA

Deskubritu berriak heretan: bricodepot.es

99,95

Leer, tomar el sol, dormir una siesta...
Elige tu momento, elige tu tumbona

69,95

125

65

79

89

40 Jardines y terrazas

JARDINES Y TERRAZAS
que invitan a salir

LEROY MERLIN
de jardín a jardín

ESKANTZARIK ONENAK APROBETXA
itzazu maiatzaren 29ra arte
Aprovecha las MEJORES OFERTAS
hasta el 29 de mayo

100.000 produktua erosi geroago erosi geroago erosi geroago
Puntu gutxiagorik ezin duzu erosi geroago erosi geroago erosi geroago

leroymerlin.es

CONSERVAS, PLATOS PREPARADOS Y BÁSICOS
ACEITES, SALSAS Y BÁSICOS

3,20€

9,45€

3,85€

4,25€

1,49€

1,89€

1,15€

1,20€

2,70€

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

*Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

f t @bizibaratzea

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus



4

Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak

Onintza Legorburu Larrea

Emun.koop/Euskara teknikaria

olegorburularrea@gmail.com

Sarrera-data: 2018-10-05 / Onartze-data: 2018-11-05

Laburpena. Sarri esan ohi da generoak gure bizitzako esparru guztietan daukala eraginen bat. Hau da, emakume edota gizon gisa sozializatu, norberaren bizitza ez dela berdina izango edozein arlotan. Zentzu honetan, esan genezake hizkuntza eta honen erabilera ere, gizarteko beste desoreka batzuen isla litzatekeela. Kasu honetan, emakume eta gizonen arteko erabileran, alde nabarmena dagoen hitanoa izango dugu aztergai. Hau da, zer diosku generoak hitanozko hizkuntza-praktikez? Galdera honen erantzuna helburutzat harturik, ikerketa honetan Antzuolako herritarren diskurtso eta praktika ezberdinak aztertuko dira. Hitanoa eta honen erabilera, genero perspektiba batetik aztertuz. • **Hitz gakoak:** *Genero rolak, noka, toka, hizkuntza praktikak, hizkuntza sozializazioa eta hizkuntza mudantza..*

Abstract. It is often said that gender has an impact on many areas of our lives, i.e. that a person's life will be different in all fields depending on whether they present themselves to and engage in society as a woman or a man. In this sense, language and its use can be seen as reflecting a social imbalance, since there is an important difference between men and women as regards the use of the informal form of address in the Basque language. This paper therefore seeks to analyse how gender affects this particular language practice. To answer this question, the research project analysed the different discourses and practices engaged in by the residents of the town of Antzuola, examining the informal form of address and its use from a gender-based perspective. • **Key words:** *Gender roles, noka (informal form of address when talking to a woman), toka (informal form of address when talking to a man), language practices, language socialisation and language shift.*

SARRERA

I Batzuetan pentsatu ohi dut, badagoela pertzepzio bat, non hizkuntza izate neutro gisara ikusten den. “Hizkuntza, hizkuntza da, ez gehiago, ez gutxiago!”. Baina lan honetan ikusiko dugun bezala, hizkuntza (ere) gizartearen isla da. Hizkuntzek barnebiltzen dituzte ideologiak, botere harremanak eta hierarkiak; hizkuntza komunikazio tresna baino askoz ere gehiago baita.

Lan honetan, generoa eta hitanoa jarri ditut parez pare. Antzuolan, hau da, ikerketaren kokalekuan, hitanoa nahiko bizirik dagoela esan daiteke. Tokak presentzia nabarmena izango duelarik, eta bien bitartean, noka azkenetan aurkituko da. Zentzu honetan lan honen helburua, genero rolek hiketaren erabileran (edo erabilera ezean) izan duten eragina aztertzea izango da, beti ere, Antzuola mailan. Bestetik baita, genero rolek noketaren galeran eta toketaren biziraupenean zehazki zer paper izan duten ezagutzea ere izango du xede lanak.

Honen bestez eta helburu hauek lortzeko, metodologia kualitatiboa erabili dut. Hau da, bi behaketa egin dira herriko taberna ezberdinetan, eta 12 elkarrizketa. Ikerketan hitanoaren inguruko diskurtso eta praktika ezberdinak jaso nahi izan direnez, lau taldetan banatuak izan dira elkarrizketatuak:

1. Toka-Noka mantentzen dutenak
2. Noka galdu, baztertu edota ikasi ez dutenak
3. Toka erabiltzen duten mutil gazteak
4. Noka erabiltzeko trantsizioa egin duten neskak

Aipatu beharra dago, elkarrizketatu guztiak Antzuolan jaio eta bizi diren pertsonak direla, bat izan ezik. Juan Martin Elexpuru Bergararra ere elkarrizketatu baita ikerlan honetarako. Eskualdekoa eta gaian aditua den pertsona bat elkarrizketatzea egokia zela pentsatuz.

1. ANTZUOLAKO HIZKUNTZA ERREALITATEA

I Antzuola Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dago, zehazki Debagoiena eskualdean; Gipuzkoa hego-mendebaldean alegia. Bergara eta Zumarraga herrien artean aurkitzen da, Deskarga mendatearen magalean. Esan liteke Antzuola ez dela herri handia, 2.223 biztanle baititu (Antzuolako Udala, 2018).

Azken hizkuntza-erabileraren kale-neurketen arabera, 2016. urtean Antzuolako kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik ia zazpi, %65,5 ze-

Lan honen helburua, genero rolek hiketaren erabileran (edo erabilera ezean) izan duten eragina aztertzea izango da, beti ere, Antzuola mailan.

***Antzuolan ere
gizonek gehiago
egingo lukete
hitanoz, eta
forma erabiliena
eta osasuntsuen
dagoena toka da.***

hatzago esateko, euskaraz dira (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 9). Aipagarria da, Antzuolako euskararen erabilerak 4 puntuko jaitsiera izan duela azken urtetan, 2011. urteko neurketen datuak eta 2016koak alderatuz gero. 2011. urteko kale neurketen arabera, Antzuolan %69,5ak euskara erabiltzen baitzuen kalean.

Hala eta guztiz ere, esan genezake Antzuola herri euskalduna dela, eta azken hamarkadetan euskaldun kopuruak gora egin duela (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 9).

1.1 Hitanoaren erabilera Antzuolan

Euskal Herriko hitanoaren erabileraren inguruko datu zehatzak oso urriak dira. Hau horrela, Antzuolako hitanoaren ezagutza eta erabileraren inguruko datu kuantitatibo zehatzik ere ez daukagu gaur egun esku artean. Dena den, ikerlanean parte hartu duten elkarrizketatuen pertzepzioak, eta lana aurrera eramateko egin diren behaketen ondorioz, erabileraren erradiografia kualitatibo bat egitea izango da atal honen helburua.

Elexpuru idazlearen arabera esaterako, Antzuola litzateke Deba Goieneko eskualdean hitanoa nahiko osasuntsu mantentzen duen herrietako bat; Oñatirekin batera.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta hitanoaz modu orokorrean hitz egin orain artean, elkarrizketatu gehienen arabera, gizon eta emakumeen arteko erabileraren artean ezberdintasun nabarmena dago, baita toka eta nokaren artean ere. Zumaiako (Azkue, 1998), Usurbilgo (Soziolinguistika Klusterra, 2017b) eta Azpeitiako (Soziolinguistika Klusterra, 2017a) ikerketetan islatzen den errealitatearen antzera, Antzuolan ere gizonek gehiago egingo lukete hitanoz, eta forma erabiliena eta osasuntsuen dagoena toka da. Bestalde, badi-rudi toka-noka bikotea osasuntsuen 55 urtetik gorako pertsonen artean dagoela. Adin horretatik behera, gizonezkoek toka hitz egingo lukete –no- karik ez- eta emakumezko gehienak zuka mintzatuko lirateke.

Hala nola, nolabaiteko Antzuolako hitano erabiltzaileen profil bat marrazte aldera, bi bereizgarri aipa genitzake. Batetik, toka-noka, hitanoaren bi aldaerak indartsuen dauden adin tartea, 55-60 urtetik gorakoa dela. Eta bestetik, jada aipatu den bezala, gizonezkoak gehiago izango lirateke erabiltzen dutenak –eta gehien bat toka-.

Bestalde, eta elkarrizketatutako gazteenen arabera, badago horrelako uste edo pertzepzio bat Antzuolako hika erabiltzailea gizon, baserritar edo euskaldun jatorria duena dela baieztatzeko. Beti ere, hika hizlari

gazteen inguruan ari direla interpretatu daiteke. Gazte hauen esaldien muinean, badago ondoren zehatzago aztertuko dugun nolabaiteko benetakotasun bat bilatzearen nahi bat edo. Hau da, hitanoa autentikotasun eta herri nortasun batekin lotzearen ideia. Baina beste elkarrizketatu batzuen arabera, eta behaketen bidez sumatu ahal izan denez, Antzuolan hika –toka- hitz egiten duten gazteen jatorria ezta soilik euskalduna edo baserri girokoa:

“Zeintzuk erabiltzen dabe hika orokorrian antzuolan?” Maskulinuak, genero maskulinuak erabiltzen dau, familixa euskaldunetik datorren jentia gehixen bat... Nahiz eta egixa dan adibidez, Mox² baten aileatzen dala edade bat esango nuke 22 urte... inbentau itten dot eh! Hasten dittun danak, gizonezko danak hika. Erdeldun, euskaldun... Hobeto, okerrao eh... (Ane, 25. Noka trantsizioa).

Aneren arabera beraz, eta behaketetan aztertu ahal izan denaren harira, esan liteke adin bat dagoela non hitanoa mutilen adierazpide bihurtzen den. Hau da, lagun koadrilatan jatorri ezberdinetako pertsonak ibiltzen dira, eta normalean koadrila hauen komunikazio hizkuntza euskara izaten da; eta adin batetik aurrera hitanoa. Beraz, hitano erabiltzaile gaztea gizona izango da, baina ez nahita ez, euskaldun jatorrikoa edota baserri girokoa.

1.2 Hizkuntza mudantza

Jada ikertu edo ezagutu dugu gutxi gora behera Antzuolako hikatzailearen perfila nolakoa den. Baina noiz – zein momentu eta adinekin hasten da jendea berau erabiltzen?

Ikertzaile ezberdinen arabera, haurtzarotik gaztarorako saltoan, hizkuntza-praktiketan aldaketa nabarmenak ematen dira: hizkera aldaketa, hizkuntz berri bat geureganatzea, erregistro aldaketak... Hizkuntza-praktiken aldaketa honi, Joan Pujolar hizkuntzalari katalanak “hizkuntza-mudantza¹” edo katalanerako “mudes lingüistiques” izena eman zion (Pujolar, Gonzalez, Font, & Martinez, 2014: 40).

Hizkuntza-mudantzaren kontzeptuak barnebiltzen duen beste ezaugarri interesgarri bat, hizkuntz edo erregistro aldaketa, bizitzako beste aldaketa batzuekin batera ematen dela plazaratzea da. Hau da, hizkuntza-mudantza honek, hiztunen bizitzan gertatzen diren aldaketen berri ematen digu (Pujolar, Gonzalez, & Martinez, 2010: 67).

Kataluniako ikerlari talde batek – Pujolar tartean-, bertako gazteekin egindako ikerketa baten harira, bost hizkuntz aldaketa une bereizi zituz-

Esan liteke adin bat dagoela non hitanoa mutilen adierazpide bihurtzen den. Hau da, lagun koadrilatan jatorri ezberdinetako pertsonak ibiltzen dira, eta normalean koadrila hauen komunikazio hizkuntza euskara izaten da; eta adin batetik aurrera hitanoa.

**Gaztaroan mutil
koadrilak askoz
ere zabalagoak
eta handiagoak
izaten dira
neskenak baino,
eta normalean
hiru jaioturte
ezberdinetako
mutilak
elkarrekin
ibiltzen dira.
Behaketen
arabera, eta baita
elkarriketatutak
o pertsonen
esandakoaren
arabera ere, adin
ezberdinetakoen
elkartze horretan
egon ohi da
mudantza
moduko bat.**

ten: eskola, institutua, unibertsitatea, lan mundua eta maila pribatua - bi-
kote, lagun taldean edota familian izan diren aldaketei egiten die errefe-
rentzia. Bizitza pertsonalean, emandako aldaketei alegia- (Pujolar et al.,
2014). Esku artean daukagun ikerlanean, eta Antzuolako hitano hiztunen
kasuan, une ezberdinetan eta modu ezberdinetara ematen dira hizkun-
tza-mudantza hauek; nahiz eta gehienek kasuan haurtzarotik gaztaro-
rako une horrek berebiziko garrantzia izan.

Hau horrela, orokorrean hitanorako mudantza eman dadin, adinak
badu garrantzirik Antzuolako mutil gazteen artean batez ere. Hau da,
gaztaroan mutil koadrilak askoz ere zabalagoak eta handiagoak izaten
dira neskenak baino, eta normalean hiru jaioturte ezberdinetako mutilak
elkarrekin ibiltzen dira. Behaketen arabera, eta baita elkarriketatutako
pertsonen esandakoaren arabera ere, adin ezberdinetakoen elkartze ho-
rretan egon ohi da mudantza moduko bat. Normalean aisialdi ohiturak
ere aldatu egiten dira, eta mutil koadrilak – neskak ez-, *Mox* izeneko ta-
berna batean juntatzen hasten dira. Esan liteke, “gizontze bat” ematen
dela une honetan. Tabernan beste koadrila eta adin batzuetako pertsonen
ere nahasten baitira, eta toka da bertako hizkuntza-tratamendu ohikoena.
Elkarriketatu batek adibidez, Antzuolan hitanoa zerekin lotzen den gal-
detuta, honako erantzuna bota zuen, egin “beharrarekin” lotuta:

Nik koadrilako batzuk entzuten ditudu eh... Eztakitt nola definiu ehh baina... igual...
In bihera bezela... Como demostratzeko ero... eztakitt... (Mikel, 22. Toka).

Pasarte honek, eta haurtzarotik gaztetasunera ematen den hizkuntza-
mudantza honek, argi adierazten digu, gertakari honen atzean hizkun-
tza-ideologia bat dagoela. Hau da, Bergarara institutura joatean, edota
elkarriketa askotan agertu den “koxkortutakuan” honek, adierazten di-
gute gazteak jada heldutasunaren atarian sentitzen dutela beraien burua.
Batez ere mutilen kasuan, eta Antzuolako testuinguruan, gizonen artean
prestigioa duen hizkuntza tratamendua hitanoa da. Beraz, neurri batean
gizontasunerako saltoa tokaz aritzearekin lotua dago. Honen ondorioz,
hizkuntza-mudantza hori garai honetan ematen da. Izan ere, Txerra Ro-
driguez soziolinguistikak Jakin aldizkarian idatzi zuen bezala:

“Nerabeek ez dute gezurrik esaten (gezur sozialak, behinik behin). Nerabeek
beste inork baino hobeto usaintzen dute jendartearen nagusi diren joerak,
jendartearen nagusi diren lurrazpiko bidezidorrak” (Rodríguez, 2016: 141).

Beraz, badirudi toka, nolabaiteko helduarorako eta gizontasunerako
giltza bezalako bat izango litzatekeela, mutil gazteen pertzepziotik.

1.3 Hizkuntz-praktikak: zein egoeretan edo zer praktikekin lotuta erabiltzen da hitanoa?

Antzuolako hizkuntz errealitatea aztertzen ari garen puntu honetan, jada Antzuolako hikatzailearen erradiografia antzeko bat egin dugu. Herritarrak hitanorako saltoa noiz, eta zein modutan egiten duten ere ezagutu dugularik. Baina zein egoeretan egiten dute Antzuolako hikatzaileek hitanoz?

Hau horrela, eta galderari erantzunez, hitanoa gehien bat erabiltzen den gune edo espazio gisara, hiru eszenatoki ageri zaizkigu: Aisia, Lana eta Eskola.

Aisialdiari loturik, gehienbat tabernako giroa ageri zaigu elkarrizketetan. Hau da, Antzuolako hitano hiztunek tabernan hitanoz asko hitz egiten dutela azpimarratzen dute. Behaketa edota ibilbide ezberdinak ere egin dira tabernaz taberna, eta hitanoa entzun izan da; sarritan gainera. Gizonek beraien artean, gehienetan hitanoari heltzen diote hitz egiterako unean, emakumeren bat hurbiltzean, sarri zukara pasa arren. Hala eta guztiz ere, noka entzun ahal izan da Antzuolako tabernetan. Emakume nagusien —60 urtetik gora— ahotan entzun izan da gehienbat, baina baita gizonezkoenetan ere.

Baina tabernetako elkarrizketa hauek badute bereizgarri bat. Sarritan, solasaldi hauek motzak edota azkarrak izan ohi dira. Honela dio Mikelek (22. Toka) berak hitanoa Antzuolan non entzuten duen galdeginda:

“Eta gero, indako esaldixak eta Moxea ta juten naizenian... Gehixao daola holako... O sea, erantzun azkarrak mouan... Bo hi, ze eztaize.. Ta hor emuten dala”.

Maripik (54. Hitanorik ez) ere euskararen azkartasunarekin lotzen du hitanoa, bizitasunarekin:

“Baina gehixen bat mutilen artian entzun izen dot, eta hola euskera bizixa pentsatzen jat!”

Beraz, hitanoa nolabaiteko azkartasun, bizitasun edota mugimendu batekin lotzen da Antzuolan. Hala nola, tabernetan egindako behaketa edota ibilbide ezberdinetan, konturatu naiz gizon eta emakumeen, edota zehazkiago esanda neska gazte eta mutil gazteen gorputz dinamika edo mugimenduak ez direla berdinak. Mutil/Gizonak askoz ere gehiago mugitzen baitira, emakume/neskak baino.

Hitanoa gehien bat erabiltzen den gune edo espazio gisara, hiru eszenatoki ageri zaizkigu: Aisia, Lana eta Eskola.

**Hitanoak berak,
azkartasuna
edota bizitasuna
transmititzen du,
hortaz badirudi
mugimenduan
dauden gorputz
maskulinoei
hobeki joaten
zaiela hitanoa,
geldiago dauden
gorputz
femeninoei
baino.**

Hori horrela, Pierre Bourdieuren (Bourdieu, 1985: 59-60) ideia bat ekarri genezake mahai gainera. Honek, gorputzaren erabilerak eta hizkuntza-renak harreman estua daukatela azpimarratzen baitu. Hala nola, esan daiteke gorputz espresio ezberdindu honek, eragina izan lezakeela hitanoaren erabileran, edota honen erabilera ezean. Hitanoak berak, azkartasuna edota bizitasuna transmititzen du, hortaz badirudi mugimenduan dauden gorputz maskulinoei hobeki joaten zaiela hitanoa, geldiago dauden gorputz femeninoei baino.

Bestalde, hitanoak presentzia handia daukan beste eremu bat lantokia da. Bi taldetan bereiz litezke hitanoa gehien entzuten den lan eremuak: Baserriari lotutako lanak eta lantegi industrialak.

Baserriari lotutako lanak, behin baino gehiagotan ageri izan dira elkarriketetan, hitano asko egin eta entzuten den gune gisara. Gainera hiru belaunaldi ezberdinetako pertsonen ahotan entzun izan dira, baserriko lanak eta hitanoa uztartu izan dituzten erantzunak:

“Ze egoeretan entzuten dozu zuk zure inguruan hika gehixen? Gehixen lanea suktratauta han goixan... Jajajajaja (Idalatorre baserriari buruz ari da, gaur egun barazki ekologikoak saltzetik bizi baitira). Gehixen eta errezen orduan” (Mikel, 22. Toka).

Baina nahiz eta badirudien baserri bueltako lan denetan hitanoak presentzia handia zuela, hau ez da horrela. Honela dio Liernik (59. Toka-Noka) merkatura etxeko barazkiak saltzera joatean, zituen hizkuntza ohituren inguruan:

“Baina gero, lanea juten nintzanian, hola ba merkaura ero, hola ba juten nintzanian ba euskeraz. Baina hika ez, jendiakin enajonan hi ingo... Erostea etortzen zienekin.”

Esaldi honi erreparatuz, konturatu gintezke baserriko lanen inguruan beti ez duela presentzia berbera hitanoak. Hau da, etxeko produktuak merkatuan saltzea, baserrian egin behar den beste lanetako bat da. Gainera lan hau, historikoki nahiko lan feminizatua izan da, baserrietako emakumeek joan behar izaten baitzuten merkatuetara produktu ezberdinak saltzera. Gai honi loturik, Robin Lakoff hizkuntzalari Estatu Batuarrak kortesiazko aldagaiaren inguruan azterketa sakon bat egin zuen. Autore honen arabera, emakumeek kortesiazko jarrera bat mantendu behar dute (Lakoff, 1981: 84).

Lierniren esaldian ere, nabari genezake nolabaiteko kortesiazko jarrera bat; eroatera datozenekin hitanoz ez hitz egitearena. Ez dago daturik esa-

teko ekintza honetan generoak zer nolako pisua daukan; baina nago gizonetzko batek ez lukeela horren beste zainduko hizkuntza egoera berean. Adibidez, Maria Luisak (90. Toka-Noka) elkarrizketan kontatzen zuen beraien aita ganaduekin eta ibiltzen zela, “tratante” gisara. Honen arabera, aitak denei ematen zien hi: “Besteik etxekin da!”. Hau horrela, eta baserriari lotutako ekintza beraren baitan, hau da, baserriko produkturen bat etxetik kanpoko norbaiti saltzea, gizon eta emakumeen arteko hizkuntza-praktika ezberdina suma genezake. Hitanoak berarekin dakartzan kortesiazko arauak, ez baitute pisu berbera emakumezko edota gizonezkoentzako.

Eta enpleguarekin bukatzeko, hitanoa sarri erabili eta entzuten den beste gune bat, enpresa industrialena litzateke. Antzuolako enpresa industrialetan lan egin duten edota lan egiten duten pertsonen arabera, herriko fabrikak oso hikatzaileak tokatzaileak dira.

Zentzu honetan gogora ekar genezake Joan Pujoalarrek (2014: 58) dioena:

“La gran mayoría dels individus accedeixen a les feines amb la disposició d’adaptar-se a la manera que tingui cada entorn d’utilitzar les llengües”.

Honen arabera, esan genezake, Antzuolako industrian —sektore guztiz maskulinizatua— arruntena edota ohikoena gizonen beraien artean toka hitz egitea litzatekeela.

Era berean, eta esan liteke Pujolarrek komentatzen duen egokitzapen disposizio honen ondorioz, lanean sarri adinaren aldagaiarekin lotutako hainbat arau apurtu egiten direla. Hau da, elkarrizketa ezberdinetan konprobatu ahal izan da, lan industrialen baitan bederen, gazteek zaharragoi tokaz egiten dietela. Gazteek beraien estatus berdinean ikusten dituzten zaharragoi, izan erreleboko kideak, edota tailerreko kidea... toka hitz egiten diete. Esan izan den bezala, gazte asko eta askok Antzuolan —eta ezta inguruko herrietan ere— hitanoa ez dute etxean jaso. Hau da, Pujolarrek dioen bezala gazteak lan mundura bertako hizkuntza-praktiketan atxikitze asmoz sartzen dira. Hori horrela, baliteke gazte hauek hitanoaren arau edota aldagai “tradizionalak” ez edukitzea barneratuta. Horregatik, nahiz eta beraien makina kidea 20 edo 30 urte zaharragoa izan toka ematen diete; normalizatuen dagoen hizkuntza-tratamendua berau delako.

Eta azkenik, hitano gehien entzuten edota erabiltzen den eremua eskola litzateke. Eskola eremuan, ikaskideekin hitz egiteko erabili ohi da hitanoa orokorrean.

**Elkarrizketa
ezberdinetan
konprobatu ahal
izan da, lan
industrialen
baitan bederen,
gazteek
zaharragoi
tokaz egiten
dietela. Gazteek
beraien estatus
berdinean
ikusten dituzten
zaharragoi, izan
erreleboko
kideak, edota
tailerreko
kidea... toka hitz
egiten diete.**

**Elkarrizketatutak
o emakume
guztiek adierazi
dute eskolan
hitanorik ez
dutela sekula hitz
egin.
Gizonen kasua
ordea, guztiz
bestelakoa da.
Gizon guztiek
adierazi izan
dute
elkarrizketetan,
eskolan hitanoz
hitz egin izan
dutela.**

Harrigarria da esparru honetan zein nolako aldea dagoen gizon eta emakumeen hitanoaren erabileran. Elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi dute eskolan hitanorik ez dutela sekula hitz egin. Eskolak gaztelaraz jasotako emakumeek adierazi dute, gehienetan beraiek lagunen artean, edo atsedendietan ere gaztelaraz aritzen zirela. Eskolak euskaraz jasotako gazteek aldiz, zuka hitz egin izan dute beti eskolan. Hau horrela, emakume zaharrenek zigorrak dituzte gogoan, euskaraz aritzeagatik eskolako andereinoek jartzen zizkieten zigorrak:

“Eta komentau dozu, lagunen artian eskolan juten zinaten neskatalen artian, batzutan euskeraz berba itte zinuela? Bai, baina harrapau ezkerio... medallia ipintzen zozkuen. Medallia ze zan? Ba medalla haundi bat, lazo haundi batekin lepotik behera ipini txintxiliz. Burla itteko ero? Jakina! Ta gero zuk pasau bizontzan beste bati? Baina harrapau in biher. Nik ez neban sekula euki ehh... Jajajajajaja! Ni ixilik eoten nitzan! Jajajaja! Ta zeintzuk eukitzen zezen sarri? Bueno bazien hor beste saliente batzuk eta deskuidau itten zien da... Ta gero harei ipintzen jotxanen. Baina nik ez neban euki sekula” (Maria Luisa, 90. Toka-Noka).

Bitxia da zer-nolako adjektiboarekin deskribatzen dituen Maria Luisak euskaraz hitz egin eta zigortzen zituzten neskatalak: *“Beste saliente batzuk”*. Hau da, normaren aurka egin eta zigortzen zituztenak, *“saliente”* xamarrek ziren; isilik egoten ez zekitenak edo.

Gizonen kasua ordea, guztiz bestelakoa da. Gizon guztiek adierazi izan dute elkarrizketetan, eskolan hitanoz hitz egin izan dutela. Gaztelaniaz ikasitako gizonak, atsedendietan beraiek hitanoz aritzen zirela jolasean aitortu izan dute. Zentzu honetan, Mikel (22. Toka) haratago doa:

“Eskolan beti emun izen du ba batua, batua, batua... Ta neretzako hika berba ittia da, ba en plan... kontra ittia bezela ez?”

Honekin lotuta, Jone Miren Hernández eta Jaime Altuna (2017: 139) ikerlariak, azken aldian generoa eta euskara uztartuz hausnarketa interesgarriak egin izan dituzte. Hau horrela, hezkuntza sistemaren baitako arauak errespetatzean adibidez, kokatzen dute euskararen erabileraren feminizazioaren kausetako bat. Jakinekhoa da, gaur egun hezkuntza sistemaren baitan —EAE— euskaraz hitz egitea dela araua. Generoari erreparatuz gero, arau horren defentsan edota horren arbuioan izango genuke euskararen erabileraren feminizazioaren zergatietako bat. Horrela, neskek arau hori defendatu eta betetzen duten bitartean, mutilek eta mutil gisa jokatzuz —maskulinitatea sendotuz—, araua apurtuko dute. Beraien genero identitatea arau apurketa horretan indartuz.

Idea hau biziki interesgarria suertatu zait. Lan honetarako egin diren elkarrizketetan argi eta garbi ikusi da, zein alde nabarmena dagoen emakume eta gizonezkoen hitanoaren erabileran, hezkuntza sistemaren baitan. Hau da, esan liteke emakumeek hezkuntza sisteman indarrean dagoen araua bete izan dutela, hizkuntzaren erabilerari dagokionean bederen.

Baina hitanoa ez da sekula araua izan eskolan, hala ere, elkarrizketatutako gizon guztiek adierazi dute, eskolan hitanoa erabili izan dutela. Are gehiago, kasu batean eta aztertu dugun gisara, “aurka” egiteko tresna gisa erabiliz.

Beraz, eta euskararen erabilerarekin gertatzen den bezala, genero rolek eragin nabarmena izango dute arauak errespetatu edota hauek errefusatzeko unean. Honela neskek garai ezberdinetako hizkuntza arauak betetzen dituzten bitartean —izan gaztelania, edota zuka—; mutilek, eta mutil gisa jokatzuz, arau hori puskatu egingo dute.

Laburbilduz, eta atal honetan ikusi eta aztertu dugun bezala, generoak hitanoarekin lotutako hizkuntza-praktika ezberdinak gurutatzu edota zeharkatzen ditu.

2. NOKAREN GALERAREN INGURUKO DISKURTSOAK

I

Hitanoaren eta zehazki noketaren galeraren inguruan, hainbat diskurtso edota arrazonamendu ezberdin bildu ahal izan dira elkarrizketetan zehar. Elkarrizketa guztiak behin aztertu eta analizatuta, elkarrizketatuen diskurtso hauek, hiru arrazoi nagusiren baitan bildu ahal izan dira: transmisioaren etena; euskararen galera bera; eta eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa.

2.1 Transmisioaren etena

Urte luzez, eta neurri batean euskal nazionalismo goiztiarrak emakumeari emandako zereginagatik, transmisioa izan da honek euskararen munduan, eta oro har euskal politikagintzan izan duen gotorlekua.

Aipatu beharrean gaude, hizkuntza transmisioaren gaineko azterketetan kontzeptuaren bi maila edo bide bereizi izan direla: transmisio informala, familia bidezkoa, eta transmisio formala, irakaskuntza bidezkoa (Zinkunegi, 1995: 76). Lan honetan askoz ere presentzia nabarmenagoa izan du transmisio informalaren kontuak. Beraz, ideia hau aztertzea erabaki da.

Euskararen erabilerarekin gertatzen den bezala, genero rolek eragin nabarmena izango dute arauak errespetatu edota hauek errefusatzeko unean. Honela neskek garai ezberdinetako hizkuntza arauak betetzen dituzten bitartean; mutilek, eta mutil gisa jokatzuz, arau hori puskatu egingo dute.

**Adinez alde
nabarmena duten
bi
elkarrizketatuk
—batek 33 eta
besteak 67—
adierazten dute
etxeetan
emakumeei noka
hitz egiterakoan
eten bat egon
zela. Beraien
hitzetan, eurei
aitak tokaz hitz
egin izan die beti,
baina ez aita eta
ezta amak ere,
beraien arrebei
ez diote inoiz
noka eman.**

2.1.1 Transmisio informala

Esan bezala, transmisio informalari eta honen etenari lotutako diskurtsoak elkarrizketa askotan jo izan dira noketaren galeraren erantzuletzat. Juan Martin Elexpuruk esaterako, 60. hamarkadako euskararen galera orokortu batekin lotuz, noketaren galera transmisio informal honen baitan kokatzen du. Nahiz eta fenomeno hau azaltzeko arrazoi garbirik ez aurkitu:

“Etorri zanian ya euskararen galerako prozesu hori eta abar. Ba lehenengo bueno ba familixa barruan ez? Orduan ehh bueno aittak igual itten jotsanan semiai hika baina alabiai zuka, eta amape bai. Eta hori izan da, ba bueno... Zergatik dan hori? Hala izen dan... Ba ezta errez-erreza be esplikatzen. Hori igual ezakitt faktore psikologiko, soziologiko, matxismua be sartuta dao duda barik... Holako koktel bat dago ez? Neri pixkat zaila itte jatena berbalizatzen”.

Transmisio informalean emandako eten hori, noketaren galeraren zio gisara ikusten dute elkarrizketatu ezberdinek; belaunaldi ezberdinetako pertsonak gainera. Esaterako, adinez alde nabarmena duten bi elkarrizketatuk —batek 33 eta besteak 67— adierazten dute etxeetan emakumeei noka hitz egiterakoan eten bat egon zela. Beraien hitzetan, eurei aita tokaz hitz egin izan die beti, baina ez aita eta ezta amak ere, beraien arrebei ez diote inoiz noka eman. Etxean hitanoa jaso duten emakumeak elkarrizketatu diren arren, esan liteke etxe batzuetan bederen eten hori egitate erreal bat izan zela/dela. Garrantzitsua da bestalde, eten honen nolabaiteko “erruduntasuna” ez dela diskurtsoetan behinik behin emakumeen —amen— gain erortzen.

Elkarrizketatu gehienen arabera beraz, etxeak noketaren galeran presentzia handia izango du. Hau da, noketa etxean ez den beste egoera batean ezin izango da ikasi elkarrizketatu gehienen arabera:

“Ez ba gero karo, ba hori emakumiak gutxiao itten dabenez, ba transmitiu be gutxiao itten don, orduan... Ta emakumiena etxakine —mutilek—, ez bon etxian entzuten” (Maialen, 30. Noka trantsizioa).

Hala ere, puntu honetan komenigarria da Paula Kasares hizkuntzalariak transmisio kontzeptuaren inguruan egiten duen gogoeta bat berreskuratzea: “kontzeptuak bere baitan duen ideia goitik behetikoa eta noranzko bakarrekkoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko gai” (Kasares, 2014: 27). Tokaren kasuan adibidez, aurreko puntuetan ikusi dugu pertsona batzuek hizkuntza-mudantza hori lantokie-

tan egiten dutela. Hau da, tokaren kasuan badirudi, ez dela derrigorra toka hiztun izateko transmisio informal baten bidez jasotzea berau. Esan liteke, pertsonaren gogo-nahiak hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko, eta familiatik kanpoko harremanek ere zerikusia izango dutela hizkuntza hautuetan. Kasaresen (2012: 42) arabera beraz, transmisioak ez du zertan era bertikalean izan beharrik. Modu horizontalean, hau da, berdinen artean ere izango da transmisio une edota ekintzarik; transmisioa belaunaldien artean eta adinkideen artean emango den fenomeno izango da. Autore honek oro har, orain dela gutxi arte transmisioaren inguruan garatutako nozioak ezbaian jarri ditu. Hala nola, eta bertikal-tasun eta horizontaltasunaz gain, transmisio formal eta informal kontzeptuen gaineko kritika bat ere burutzen du.

Gaur egun, eta behatutakoaren arabera noka ez dago kasik kalean presente. Baina elkarrizketatu batek honako adibidea jartzen du, noka ikasi ez zuen beraien adineko gizon baten inguruan:

“Ze adibidez Xabier gurekin ibili izen don kuadrilan bizi guztian, baina etxon itten noka. Neri be toka itten joztan. Ze karo, harek etxian etxonan entzungo, bi anae dittun da!” (Lierni, 59. Toka-Noka).

Beraz, adibide honekin ikus genezake, noka eremu publikoan presente zegoen garaietan ere, etxean jasotzen edo entzuten ez zuten gizonak ez zutela berau egiten. Nahiz eta, gaur egun eta fabriketako adibidearekin argi eta garbi ikusten dugun, tokarekin berdinen arteko transmisio horizontal baten bidez ikasten dutela berau gizon edo mutil asko eta askok. Honen harira, Jone Miren Hernándezek, gazteen euskararen erabilerari buruz planteatzen duena etorri zait gogora: “Gazteek zergatik ez duten euskaraz egiten” galdetzea baino, galdera hau egin beharko genukeela: “Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei?” (Hernández, 2011: 603). Galdera hauek, subjektu eta objektuak aldatuta egin genitzake gizonak eta noketaren erabileraren inguruan. Hau da, “zer eskaintzen die nokak Antzuolako gizonak?”.

Hizkuntza mudantzaren atalean, aipatu da haurtzarotik gaztarorako saltoan, mutil batzuek hitanoa “egin behar” batekin lotzen dutela. Beraien identitate maskulinoa garatzen laguntzen diela esan liteke hipotesi gisara. Hori horrela, eta oraindik ere kontu hau ikertzeko dagoela azpimarratuz, badirudi nokak ez diela gizonak tokak bezain beste beraien identitate maskulinoa garatzen laguntzen. Esan nahi dut, balitekeela gizonak noketa ez ikasi eta erabiltzearen zergatietako bat, identitatearen eratzearekin lotuta egotea.

***Aipatu da
haurtzarotik
gaztarorako
saltoan, mutil
batzuek hitanoa
“egin behar”
batekin lotzen
dutela. Beraien
identitate
maskulinoa
garatzen
laguntzen diela
esan liteke
hipotesi gisara.***

Transmisioaren kontua eta euskararen galera baten erruduntasunarena, emakumeak eta euskara lotzeko bi bide bakarrak izan dira urte luzeetan.

Laburbilduz, eta puntu honetan ikusi dugun gisara, transmisio informalarik garrantzi handia jartzen diete elkarriketatek, batez ere, noketaren galeraren inguruko argudioak bilatzerakoan. Baina jada ikusi dugu, toketaren biziraupenerako transmisio informalak garrantzia eduki duen arren, transmisio horizontal baten bidez ere gaur egun Antzuolako mutilek ikasten dutela berau.

2.2 Euskararen galera: emakumeak “errudun”

Transmisioaren kontua eta euskararen galera baten erruduntasunarena, emakumeak eta euskara lotzeko bi bide bakarrak izan dira urte luzeetan. Hau da, urte luzez eta hizkuntza eta emakumeak lotuz, bi kontzeptu hauen inguruan aritu izan dira ikerketa eta ikertzaile gehientsuenak.

Jakina da, 60. hamarkadan emakumeek eta batez ere nekazal eremu eta herri txikietakoek, neurri batean edo bestean euskarari uko egin ziotela (Amonarriz, 1995: 89). Edota hau erabiltzeari neurri batean behintzat, utzi ziotela. Beti ere, orokortu gabe; nekazal eremuetako edota herri txikietako emakume guztiek ez baitzieten utzi euskara erabiltzeari.

Ikerketa honen baitan ere, arrazoi honek pisu nabarmena izan du noketaren galerari buruzko erantzunetan. Adibidez, Elexpuruk hitanoaren beraren galera, euskararen galerarik gabe ezin dela ulertu azpimarratzen du bere elkarriketan; nahiz eta ondoren aztertuko ditugun beste aldagai batzuk ere zerikusi nabarmena izan zezaketela aitortu.

Antzuola ere, herri txikia izaki eta “nahiko” nekazal eremukoa, elkarriketatutako emakume batzuk aitortzen dute beraien gaztaroan gazte-lerak presentzia nabarmena zeukala euren bizitzako egunerokotasunean.

Errealitate honekin lotuz, noketaren galerari buruz galdetuta honako erantzuna eman zuen Liernik (59, Toka-Noka):

“Ba igual hori? Ba igual izen leiken hori gutxiao berba itten zala nesken artian euskera? Eta orduan... horrekin lotuta? Ze karo hitanua be azkenian, zenbat eta gutxiao in ba gutxiao erabiltzen don”.

Honen harira, aipatutako fenomeno hau azaltzeko, Joxe Azurmendik 1964. urtean idatzi zuen artikuluan adibidez, emakumearen izaera naturala omen den “ispilu-zaletasunarekin” lotzen zuen euskaraz ez hitz egitea. Idazlearen arabera, emakumearen pertsonalitate ahulagoak, hauek kanpoko moda eta hizkuntza ohiturei atxikitzea baitakar (Azurmendi, 1964: 66).

Era honetara, urteetan Azurmendik aipatzen duen “ispilu zaletasunaren” eta emakumeek hizkuntza aldatzeko duten joeraren azalpen gisara, “prestigioaren” teoria ageri zaigu. Hau da, gurean zein atzerrian sarri esan izan da, emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituztela gizartean indarrean eta prestigioa duten baloreak. Baina Hernández eta Altunak (2017: 135) prestigioaren teoria horri, sustraiak harrotu eta praktika ezberdinen muinean dagoen arrazoiak ohartarazten gaituzte. Ikerlari hauen arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza erabileran edota hitanoaren erabileran kasu honetan, dagoen aldea azaltzeko unean, prestigioaren teoria baino haratago begiratu beharko dugu. Hau da, emakumezkoen kasuan hizkuntza erabilerak prestigioarekin nolabaiteko lotura bat izango du, baina jarrera horren arrazoia, muina, hauen botere eza izango litzateke.

Bestalde, harrigarria da nola noketaren galera soilik emakumeen hizkuntza portaeren gain erortzen den. Elkarrizketatu guztiek noketaren galeraren zergatitzat, emakumeen hizkuntza ohiturak nabarmentzen baitituzte. Hau da, noketa ez da soilik emakumezkoek hitz egiten duten hitanoaren tratamendua. Honen bestez, momenturen batean gizonezkoek ere berau hitz egiteari utzi ziotela iradoki genezake. Nahiz eta honetarako arrazoiak ezberdinak izan litezkeen; edota arrazoi hauek, emakumeen hizkuntza portaeren aldaketari loturik egon litezkeen. Baina errealitate bat da, eta nahiko ezkutuan dagoena gainera —ez baita elkarrizketa batean ere azaldu— gizonezkoek noka hitz egiteari ere utzi ziotela.

2.3 Eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa

Orain artean, transmisioaren eta euskararen galeraren argumentuak jorratu dira. Atal honetan ordea, espazio publiko eta pribatuaren arteko banaketak, zer nolako eragin izan zezakeen noketaren galeran aztertuko dugu.

Hasteko garrantzitsua litzateke zehaztea, eremu edo espazio publikotzat zer jotzen dugun, eta pribatuan zer gelditzen den.

Esan genezake, bizitza soziala bi esfera hauen artean bana genezakeela, hau da, alde batetik bizitza publikoa legoke eta bestetik, pribatua. Bi esfera hauek antagoniko gisa irudikatuak eta ulertuak izan diren arren, elkar elikatzen diren bi espazio gisa hautematea komeni da. Hala nola, mundu publikoa, gizonek gizonentzat sortutako espazioa izango da. Non arriskua, independentzia, lehiakortasuna eta oldarkortasuna ezin bestekoak izango diren, mundu horretan harremantzen jakiteko. Mundu pribatua bestalde, mundu publiko horretatik kanpo gelditu direnek osatuko dute, alegia, emakumeek. Hau horrela, espazio publikoa

**Elkarrizketatu
guztiek
noketaren
galeraren
zergatitzat,
emakumeen
hizkuntza
ohiturak
nabarmentzen
baitituzte. Hau
da, noketa ez da
soilik
emakumezkoek
hitz egiten duten
hitanoaren
tratamendua.
Honen bestez,
momenturen
batean
gizonezkoek ere
berau hitz
egiteari utzi
ziotela iradoki
genezake.**

Nahiz eta emakume askok noketa eta baita toketa egiteko soltura eduki, behin ezkondu eta seme-alabak hasitakoan zukarako trantsizio moduko bat hasi zitekeen. Behin hizkuntz ohitura hori hartuta, nahiko logikoa dirudi hitanoa praktikatzeko ohitura hori galtzea.

gehiago baloratuko da, bertan hartu behar diren arrisku eta bizi irauteko estrategiak direla eta (Lorente, 2006).

Elkarrizketatu batzuen arabera, emakumeen eta gizonen sozializazio eremu ezberdinetan egon liteke gakoa noketaren galeraren zio bat aurkitzeko:

“Ta zeatik uste don alde hori daola hain haundixa (Gizon eta emakumeen hitano erabileraren inguruan)? Etxakinat. Ze gaur egun ya igual etxaukan zentzuik. Ze lehen igual tabernan da gizonak gehixao ibiltzen zittunan, ta horreatik hori mantendu zonan... Etxakinat hola dan ehheh... Holako zeeze izen leike? Etxakinat” (Maialen, 30. Noka trantsizioa).

Maialenen arabera, toketa eremu publikoan mantentzea, garrantzizkoa izan da gizonak hitanoari eusteko. Goiko ataletan ikusi dugu, toketak Antzuolako kaleetan presentzia nabaria izateak, mutil gazteen hizkuntza mudantza ahalbidetzen duela; nahiz eta, mutil gazte hauek hitanoaren transmisioa era informal batean ez jaso. Hau da, toketa kalean egoteak, hitanoaren transmisioa horizontala ahalbidetzen du.

Bestalde, oso adierazgarriak dira, Maria Luisak (90, toka-noka) behin elkarrizketa bukatuta, baina oraindik grabagailua martxan zegoela adierazitako hitzak:

“Eske baakin zer? Gero juteittun seme alabak eta etxetik, eta gizonakin ez haiz hasiko hika berriketan... Orduan ba ohitu itte haiz zura. Erak igual ba ertetze zittunan gehitxuao ero, baina gu...”.

Esaldi honen baitan hainbat datu aurki genitzake. Batetik, eta nahiz eta hitanoaren arau esplizitu bat ez izan, bi pertsonen soilik adierazi dute beraien gurasoek, edota beraiek bikotearekin, hitanoz hitz egiten dutela. Hau da, badirudi nahiz eta hitanoak konfiantza eta gertutasun bat adierazi, intimitaterako ez dela hizkuntz tratamendu egokia. Bestetik, esaldi honek argi eta garbi erakusten digu, bizitza sozialaren banaketa dikotomiko honen, hau da, espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa honen, noketaren galeran izan zuela eraginik. Nahiz eta emakume askok noketa eta baita toketa egiteko soltura eduki, behin ezkondu eta seme-alabak hasitakoan zukarako trantsizio moduko bat hasi zitekeen. Behin hizkuntz ohitura hori hartuta, nahiko logikoa dirudi hitanoa praktikatzeko ohitura hori galtzea. Gizonak ordea, eremu publikoan egin izan dute bizimodua, izan lantokia, izan taberna... Beraz, garai bateko gizonak aldatu zuten hizkuntz ohitura bakarra emaztearekin izan zen. Honi zu ematea izaten baitzen ohikoena, baina tokak oso presente jarraitzen zuen egunerokoan.

3. HIZKUNTZ SOZIALIZAZIOA

II

Noketaren galera bat egon dela ezin ukatuzkoa da; baita bien bitartean toketak bizirik iraun duela esatea ere, errealitatearen isla litzateke. Hau horrela, aurreko puntuan ikusi ahal izan dugu, zer nolako argumentuak edota zioak ematen dituzten elkarrizketatuek noketaren galeraren inguruan. Baina “hizkuntza sozializazioaren” ideia ekartzea gustatuko litzaidake honako atal honetan. Hau da, noketaren galera honetan eta toketaren biziraupenean zer nolako eragina izan du hizkuntzaren —kasu honetan hitanoaren— inguruan eman den sozializazioak?

Hizkuntza sozializazioaren paradigma honetatik, ikertzaileek haurrek beraien eguneroko bizitzan egoki parte hartzeko, zer nolako hizkuntza portaerak dituzten ikertu izan dituzte. Hizkuntza sozializazio honen ikuspegitik, eta Kasaresen hitzetan (2012: 21):

“Haurrak hizkuntzaren erabilerarako arauak jabetzen dira hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta. Beraz, haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko arau sozialak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte. Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute”.

Beraz, esan liteke hizkuntza bat, edota gure kasuan, hizkuntz tratamendu bat ikasterakoan, haurrak honen inguruko arauak gain, hizkuntza edota hizkuntz tratamendu horren inguruko uste, balore edota pertzepzio batzuk ere hautematen eta nolabait esateko “ikasten” dituela.

Hala nola, urteetan zehar hitanoaren inguruan nolabaiteko “ideologia” edota uste negatibo batzuk ere sortu dira. Ondorengo atalean, sozializazio honen eraginez barneratutako uste edota balio negatibo hauek zeintzuk diren analizatuko da. Eta uste eta balio hauen inguruko irakurketa bat egiten saiatuko da; generoaren aldagaia erdigunean jarritz.

3.1 Hitanoaren inguruko uste eta balioak

Hitanoaren inguruko uste eta baloreen inguruan sakon sartu aurretik, komenigarria litzateke aipatzea oraindik ere euskararen inguruan egon litezkeen uste batzuk. Euskara urte luzez zilegitasun ezaren baitan murgilduta egon izan da. Hizkuntzak jasan izan dituen erabilera eta ezagutza debekuak medio; euskararen inguruan sortu den “erabilgarritasun ezaren” ideiatatik, edota euskara prestigiorik gabeko hizkuntza gisa aur-

**Esan liteke
hizkuntza bat,
edota gure
kasuan, hizkuntz
tratamendu bat
ikasterakoan,
haurrak honen
inguruko arauak
gain, hizkuntza
edota hizkuntz
tratamendu
horren inguruko
uste, balore edota
pertzepzio batzuk
ere hautematen
eta nolabait
esateko “ikasten”
dituela.**

**Argi ikusten da
hitanoaren-
ganako uste eta
balore hauek ez
direla neutroak.
Hau da,
hitanoari
atxikitzen
zaizkion
baserritartasun
edota zakartasun
hau, gizonezko
bati hobeto
joaten zaiola,
emakumezko bati
baino.**

keztu izanagatik... Euskararen zilegitasun ez honen zergatiak andanak izan baldin badaitezke ere, egitate erreal bat da, euskarak poliki-poliki berreskuratu duela legitimitatea azken hamarkadetan.

Garrantzitsua iruditzen zait honako ideia hau presente izatea, ondoren hitanoaren inguruko uste eta balioek, euskararen beraren zilegitasun edota erabilgarritasun ez honekin zerikusia izango baitute.

Hala nola, hitanoari lotutako uste eta pertzepzioen inguruan hitz egin denean, hizkuntza-tratamenduari lotu izan zaion kategoría “Baserritartasunarena” izan da. Antzuolan ere, eta elkarrizketa ezberdinetan gainera, baserriarekin lotu izan da hitanoa. Gainera, harrigarria da, baina adin ezberdinetako pertsonak lotu izan dute baserriarekin, edota nolabaiteko nekazal ingurune —herri txikietako errealitate— batekin hitanoa.

Maialeni (30. Nokara trantsizioa) adibidez, hitanoa jendeak zerekin lotzen duen galdetuta, ondorengo erantzun zuen: “*Pueblerino total, bai. Ba herri txiki bateko gauza bat mouan! Baserritarrena*”.

Hitanoa baserriarekin eta herri txikiekin lotzeak, printzipioz ez luke ezer “txarrik” ekarri beharko hitanoaren legitimazioan edota honen erabileran. Baina, baserriaren eta baserritarren inguruan hainbat gutxiespeneko estereotipo izan dira, oraindik ere bizirik jarraitzen dutenak³. Baserritarrak ez du izan Euskal Herrian aparteko estatus sozialik. Hala nola, hitanoa baserritartasunarekin erlazionatzean, hizkera “baxu” edo “triste” gisara ikusten dute beste elkarrizketatu batzuek. Hau da, kategoría edo estatus gutxiko pertsonen hizkeratzat.

Bestetik, “baserritartasunaz” gain, sarri elkarrizketetan azaldu den beste hitz bat “zakartasuna” izan da:

“Zeekin lotzen dozu hika? Ba igual pixkat hizketa zakarra da, ez?”

(Mikel, 22. Toka).

Baina zakartasun kontzeptu edota pertzepzio honen inguruan, badira emakumeen eta gizonen erabileraren arteko pertzepzio ezberdinak. Honela jaso ahal izan nuen nire koadernoan, taberna batean hitanoz hitz egiten ez duen 54 urteko emakume baten pertzepzioa:

“Ze neska batekin hika da, ba hola takarra bezela ero. Mutil bat ba bueno... baina neskia ba takarra bezela... Eztakitt...”

Esaldi honetan beraz, argi ikusten da hitanoarenganako uste eta balore hauek ez direla neutroak. Hau da, hitanoari atxikitzen zaizkion baserri-

tartasun edota zakartasun hau, gizonezko bati hobeto joaten zaiola, emakumezko bati baino.

Bestetik, eta toka-noka binomioa gaitzat hartuz, badirudi toka eta no-karen artean ere ezberdintasun nabarmena dagoela. Honela dio Maialenek (30. Nokarako trantsizioa) ea toka hitz egiten duen galdetuta:

“De hecho gainea toka ittiana planteau in bijonat, ze oso “basta” ikusten non”.

Pertsona bakar batek esandako aipua da, baina aurretik dauzkagun datuak kontutan hartuz, eta Antzuolako mutil gazteek toka soilik hitz egiten duten garai honetan, badirudi tokak maskulinitatea errepresentatuko lukeela herrian. Hau da, Maialenek adibidez, nokarako saltoa eman du; bera eta beste bi lagun direlarik neska gazte bakarrenetarikoak noka mintzo direnak. Hau horrela, tokarako saltorako badirudi beste era bateko barrera bat ere badaukala. Noketan ez bezala, toketan oso “basta” edo zakar ikusten baitu bere burua. Hau da, lehen ikusi dugu haurtzarotik gaztetasunerako saltoan ematen dela mutilen hizkuntza-mudantza hori; toka nolabaiteko gizontasunerako ate moduko bat bihurtzen delarik. Hori horrela hipotesi gisara esan genezake, guztiz maskulinizatuta dagoen hizkuntz eremu batera sartzean, Maialenek bere burua “basta” gisara ikusten duela; tokarako saltoa nahiko zail egiten zaiolarik.

Honekin lotuta, Anek (25. Nokarako trantsizioa) hitanoa eta maskulinitatearen arteko harreman zuzen bat aipatzen du, Antzuolan hitanoa zerekin lotzen den galdetuta:

“**Zeekin lotzen don antzuolan hika?** Nik nere hika? **Ez, hik hire hika ez.**

Bestela herrixan, generalian... Hombre ba maskulinua Antzuolan. Baina hori adibidez Bergan be, Antzuolako hikan bisinua maskulinua jaukane, hor ehhe: Guaztan moxea! Ta moxian najaok eta... Holako kontuak imitatzen ibiltzen dienian mokoluak, beti maskulinitatik da. Orduan esango nuke, proiektatzen dana hika maskulinua dala, por lo cual maskulinidadia”.

Berak oso argi ikusten du bien arteko lotura hori. Eta egia esan, baliteke Maialenek tokaren inguruan egin duen baieztapen horren atzean ere maskulinitateari lotutako nolabaiteko ideia bat egotea. Baita, emakumeak hika entzutean, takar sententzioa ematen diola aitortzen duen tabernako emakumeak ere; posible litzateke gizontasunaren ideiarekin lotzea hitanoa. Hizkuntza erabat maskulinizatu batekin alegia. Hori horrela, emakumei “okerrago” joango zaie hitanoz aritzea; feminitatearekin talka egingo lukeelako tratamenduak.

**Possible litzateke
gizontasunaren
ideiarekin lotzea
hitanoa.**

**Hizkuntza erabat
maskulinizatu
batekin alegia.**

**Hori horrela,
emakumei
“okerrago”
joango zaie
hitanoz aritzea;
feminitatearekin
talka egingo
lukeelako
tratamenduak.**

Konfiantza eta gertutasun hori, hitanoak eskaintzen duen faktore guztiz positibo gisara ikusten dute beraz hitanoz aritzen diren pertsonak. Hau da, zukari formaltasuna atxikiko liokete elkarrizketatu gehienek eta hitanoari berriz, informaltasuna, konfiantza edota gertutasuna.

Bestalde, hitanoarekin sarri lotu izan den beste balio bat “errespetuarena” izan da. Hitanoa pertsona batzuentzat errespetu ezaren, sinonimo izango litzateke. Honela dio Maripik (54. Hitanorik ez), bere etxean hitanoaren inguruan zegoen pertzepzioaz galdetuta:

“**Eta zerekin lotzen dabe zure etxian hitanua?** Amak beti esaten zeban, beari etxakola gustatzen, errespeto faltia eta... Eliziai ero abadiak ero esandakua izengo zan? Eztakitt zer... Baina... Ez, ez... Gu eh. Gero beape ez ahiztekin eta anaiekin eta be ez, keba... **Eta zuen artan erabiltzia ero be gaizki ikusten zeban? Baiii, baaaaii...**”.

Hau horrela, guraso kontserbadore eta eliz giroko pertsonen hitanoarenenganako uste eta pertzepzioak azter genitzake esaldi honen bidez. Errespetu falta gisara ikusten zuten hauek hitanoka mintzatzea. Honen harira, etxeetan eta eremu pribatuan, aurretik aipatu dugun transmisio informalaren eten bat etorriko litzatekeelarik.

Esan liteke errespetuaren kontua, konfiantza eta gertutasunarekin disputan eta tentsioan egongo litzatekeela, eta honen ondorioz gizarteko sektore kontserbadoreenak ez zutela begi onez ikusten hitanoa. Konfiantza eta gertutasuna baitira, hitanoz mintza ohi direnek, berau deskribatzeko erabiltzen dituzten hitz ohikoenak.

Konfiantza eta gertutasun hori, hitanoak eskaintzen duen faktore guztiz positibo gisara ikusten dute beraz hitanoz aritzen diren pertsonak. Hau da, zukari formaltasuna atxikiko liokete elkarrizketatu gehienek eta hitanoari berriz, informaltasuna, konfiantza edota gertutasuna.

Baina puntu honetantxe aurki genezake emakume eta gizonen arteko hitano erabileraren aldearen zergatietako bat. Hitanoak eskaintzen duen gertutasuna edota konfiantza, askoren ustez gehiegizkoa litzateke. Hau da, errespetuaren marra gorria pasako luke:

“Nik Errezilgo lagun (emakume) batzui in izen jet hika. Ta esan izen dozte ez itteko erei hi. **Ta zeatik usteozu etxakuela gustatzen?** Ba igual gertukuegixa pentsauko jakue? Ero, errespetu faltia ero?” (Jesus, 67. Toka-Noka).

Ezinbestean fenomeno hau ulertzeko berriz ere, Lakoff hizkuntzalari Estatu Batuarren lana ekarri beharko dugu gogora. Autore honen arabera, emakumeak lirateke moralitatearen gordetzaileak, eta hori hizkuntzan islatuko litzateke (Lakoff, 1981:84).

Honek, eta guraso moralista eta elizgizonen diskurtsoek lagunduta, hau da, gehiegizko konfiantza eta gertutasunak errespetu falta eta bekaturako bideak zabaltzen dituenaren ideiak, emakumeek poliki-poliki hitanoz mintzatzeari uztea ekarriko luke. Berriz ere, Lakoffen hitzak erabiliz, ondorengoa dio bi hizkuntza tratamendu bereizten dituzten hizkuntzen inguruan:

“La regla de cortesía la encontramos por ejemplo en las lenguas que distinguen entre tú y usted; cuando se emplea el usted, el efecto es crear distancia entre el hablante y el oyente” (Lakoff, 1981: 102).

Distantzia markatzearen arau hau, emakumeek gehiago erabiliko dute gizonezkoek baino; nahiz eta, gizonezkoek emakumezkoekin eta estatus sozial ezberdin bat duten beste gizon batzuekin ere, erabiliko duten.

Baina bada Lakoffek bere lanean jasotzen duen kortesiazko beste arau bat ere; adiskidetasunarena, arau hau sinpatiarene adierazle litzateke. Honen arabera, gizonen hizketaldietan adiskidetasunezko arau honek pisu nabarmena dauka. Hau da, gizonek “anaitasunezko” harremanak eraikiko dituzte beraien artean (*Ibid.*: 123). Hau horrela, esan genezake tokaren biziraupenak Lakoffek aipatzen duen arau honekin ere zerikusia izatea. Gizonezkoek “anaitasunezko” harremanak eraikitzeke, hitanoak eskaintzen duen konfiantza eta gertutasuna aparteko osagaiak bailirateke.

Beraz, hitanoak berez eskaintzen duen konfiantza eta gertutasun honek, gizon eta emakumeen erabileran aldea markatuko luke. Baita honen inguruan, eta hizkuntza sozializazio baten bidez, gehienbat emakumeek barneratu dituzten errespetu marken uste eta pertzepzioek ere.

Esan genezake beraz, hizkuntz sozializazio baten bidez barneratzen ditugun hizkuntza baten gaineko uste eta balioek emakume zein gizonen hitanoaren erabileran eragin nabarmena dutela. Are gehiago, esan liteke, emakume zein gizonen ezarritako genero rolek badutela eraginik hizkuntza baten erabileran; gure kasuan hitanoaren erabileran, edota honen erabilera ezean. Baserritartasuna edota zakartasuna egoki ezkontzen baitira maskulinitate hegemonikoarekin; baina ez dira feminitate hegemoniko batentzat adjektibo egokienak.

4. HITANOAREN INGURUKO PARADIGMA BERRIA

Uste eta balio negatiboez gain, badirudi gaur egungo Antzuolako gazteriak hitanoari beste balio batzuk atxikitzen dizkiola. Hori dela eta, analisiko azken atal honetan, hitanoaren inguruko paradigma edota

Beraz, hitanoak berez eskaintzen duen konfiantza eta gertutasun honek, gizon eta emakumeen erabileran aldea markatuko luke. Baita honen inguruan, eta hizkuntza sozializazio baten bidez, gehienbat emakumeek barneratu dituzten errespetu marken uste eta pertzepzioek ere.

diskurtso berriez hitz egingo da. Hauek sakon aztertu eta analizatzeko asmoz, atala bi puntu ezberdinetan banatua izan da. Batetik, hitanoa “label” edota “pedigri” adierazle izan litekeela Antzuolako gazte batzuentzat, suma genezake lehen puntuaren bidez. Eta bestetik, hitanoa emakumeentzat, ahalduntzeko tresna baliagarri bat izan litekeen edo ez aztertuko da bigarren puntuan.

4.1 Hitanoa “pedigri” adierazle

Nahiz eta arestian aipatutako uste eta balio negatibo horiek oraindik ere bizirik jarraitzen duten, gaur egungo Antzuolako gazteek beste baturaurreko batzuekin begiratzen diote hitanoari.

Zentzu honetan, elkarriketatutako bi mutil tokatzaileek eta nokarako trantsizioa egin duten bi emakumezkoek⁴, nortasunarekin eta nolabaiteko euskal “pedigri” batekin lotu izan dute hitanoa beraien elkarriketetan. Hitanoak “benetakotasun” zigilu gisako bat, eskaintzen duelarik neska zein mutil gazte hauentzat.

“Ze emuten dotzu zuri hikak?” Nei hikak emuten dostan gehixena da nere nortasuna ero, identifikatzen naben gauza bat dala. Eske azkenian eh, guk eukitzeitu gure burua bilatzia ta eztakitt ze... Ta hori da gauza bat txiki txikittatik jaso dotena, nahi dotena nere semiak jasotzia, nahi dotena Antzuolan eh erabilera haundixaua eotia... eta, eta nere nortasunan parte dala pentsatze jat hika” (Erik, 33. Toka).

Goiko lerroetan aipatu bezala, badirudi hitanoaren inguruko diskurtso edota ideologia berri hau, mutil zein neska gazteek konpartitzen dutela:

“Eta hik zeekin lotzen don hitanua?” Nik jatortasunakin. Euskal jatortasuna. Hau da, euseria... O sea, euseria ez hurrengua. Tipo ba “matricula de honor” euseraz bezela. **O sea lotzen don hizkuntza erabilera maila altu batekin?** Bai, hori don. Igual eh, berorika baten batek dominatzen bajon ba friki bat don, oso ondo... ba iguala, o sea, ez friki estiloa baina bai. Asko dominatzen don hizkuntzia, asko” (Maialen, 30. Nokara trantsizioa).

Ane (25, nokara trantsizioa) aldiz haratago doa hitanoaren galeraren inguruan galdetuta. Aspaldidanik Euskal Herrian aski ezaguna den hizkeren arteko antagonismo bat ere plazaratzen du bere hitzetan:

“Ze suposauko luke hika galtziak?” Nik uste dot gure nortasunan parte haundi bat galdu ingo litzakiela. Gure... eztot esan nahi danok kaletarrak... baina bai, homogeneizau ingo ginake eta nortasunan zati bat galduko ginuke

eta... Ta bebai uste dot, hika galtzia izengo litzakiela ba hor... euskera formalak, ero batuak, oh neetako nortasun baekua dan herri horrek, ba konkistauko lukien beste eremu bat”.

60. hamarkada inguruan euskara batua sortu zenetik, Anek aipatzen duen antagonismo horrek presentzia nabarmena izan du Euskal Herrian. Hau da, euskara batua “liburuko hizkeratzat”, “plastikozko hizkeratzat” edota “benetakoa” ez den mintzairatzat hartua izan da. Euskalkiak aldiz, edota herri hizkerak, nolabaiteko “benetakotasun” batekin lotu izan dira (Ortega et al., 2016: 154). Badirudi gaur egun Antzuolako gazteek, hitanoa ere bigarren multzo honetan sartuko luketela, “benetakotasun” izaera bat, edota herri identitate bat eraikitzen lagunduko lukeelarik.

Gai honi buruz asko teorizatu duen ikerlari bat Kathryn Woolard antropologo Estatu Batuarra litzateke. Autore honen arabera, Mendebaldeko mundu modernoan hizkuntzen boterea sostengatzen duten bi hizkuntza ideologia nagusi aurki genitzake: Anonimotasuna oinarri duen sistema ideologikoa, eta “benetakotasunarena” (Woolard, 2008: 180).

Ikerlariaren hitzei jarraiki, honela deskribatzen du Woolardek “anoni-matuaren” ideologia:

“Dins una ideologia de l’anonimat, l’autoritat lingüística d’una llengua estàndard comuna no és localitzada, sinó desarrelada i universalista. D’acord amb aquest raonament, les llengües públiques poden representar tothom i ser usades igualment per tothom, precisament perquè no pertanyen a ningú en particular” (idem,.).

Honen bestez esan liteke Batuaren kasuan, sorreratik dela “anonomotasun” balioz jantzitako aldaera. Denen hizkuntza izateko eta ez inorena bereziki, denon euskararen eta hizkuntza ofizialaren funtzioak hartzeko diseinatu izan baitzen (Ortega et al., 2016: 152).

Anonimotasunaren ideia honi kontrajarririk, eta Aneren (25. Nokarako trantsizioa) hitzetan argi eta garbi islatzen zen gisara, “benetakotasunaren” —*Autenticitat*— hizkuntz ideologia legoke. Ideologia hau, hizkuntza gutxituekin lotzen da, eta tokiko balio handia izango du (Woolard, 2008: 183).

Beraz, Woolardek egiten duen banaketa honen arabera, ikus genezake, Antzuolako gazte hikatzaileen diskurtsoak “benetakotasunaren” ideologia honetatik eratorriak liratekeela. Hau da, elkarrizketatutako gazte hauen aipuetan, nahiz eta, goiko atalean aipatu ditugun uste eta balio

***Euskalkiak aldiz,
edota herri
hizkerak,
nolabaiteko
“benetakotasun”
batekin lotu izan
dira (Ortega
et al., 2016: 154).
Badirudi gaur
egun Antzuolako
gazteek, hitanoa
ere bigarren
multzo honetan
sartuko luketela,
“benetakotasun”
izaera bat, edota
herri identitate
bat eraikitzen
lagunduko
lukeelarik.***

**Emakumeei
hitanoz aritzeak
sentipen
kontrajarriak
eragiten dizkiete.
Hau da, esan
genezake ekintza
berberaren
aurrean —
hitanoz hitz
egitea—,
emakume zein
gizonek ez
dituztela
sentsazio edota
bizipen berberak.**

negatibo batzuk presente egon, orokorrean hitanoa, nolabaiteko nortasun edota euskalduntasun “benetako” batekin lotzen da. Badirudi, identitatea eraikitzen laguntzen dien pieza garrantzitsuetako bat dela hitanoa Antzuolako gazteentzat.

Baina, generoaren aldagaiari erreparatuz, esan genezake egitate, ideologia edota sentipen honen aurrean, emakume eta gizonezkoek bizi dituzten sentipenek ez dutela batere antzekotasunik. Emakumeen kasuan, “benetakotasun” sentipen honek, azaltzen nahiko zaila den ondoez antzerako bat eragiten du; noketaren erabileran eragin zuzena izango duena. Nokarako trantsizioa egin duten bi emakumeen hitzetan aurki genitzake sentipen honen inguruko hitzak:

“Ze emuten don noka hitz ittiak? Aber askotan be bai produzitzen joztan sentimentu bat negatibua dana, ta don superioridadia. Ta hori etxaten gustatzen. Ta hori don pixkat ainhon kontua eta... Osea ni jutia Amaia jauregina, eta nik AmaiaJauregiri, justo ingo notzake...Bere perfilaatik. Baina pentzatzen jaten, jutia superioridadetik, eta orduan ba hori be etxaten gustatzen. Eta hori be produzitzen joztan... usten dot neurtu in bidala... Etxakinat ehh... igual norbean konplejuak dittun ehhe... Zaindu in bidala inor gaizki ez sentitzeko bez... Por que horrek azkenian kontraproduzentzia... **Baina zeatik uste don baten bat gaizki sentiu leikiela hikan berba ittearren?** Ba eztaukalako dominixioik, eta... igual bere kontzientziak esaten jaolako hika in biko nuke baina ezta... Eta ba zuka in biot, eta zu zabitz hika eta ni zuka, eta...Tonto bezela. Como que zu eskaloe bat gorao zare...” (Ane, 25. Nokarako trantsizioa).

Beraz, goiko aipuan islatzen den gisara, emakumeei hitanoz aritzeak sentipen kontrajarriak eragiten dizkiete. Hau da, esan genezake ekintza berberaren aurrean —hitanoz hitz egitea—, emakume zein gizonek ez dituztela sentsazio edota bizipen berberak. Zentzu honetan, azpimarra genezake generoak izan litekeela nolabaiteko zerikusirik egitate honetan.

Nahiz eta bi elkarrizketetatik soilik eskuratutako datuak izan, uste dut nahiko adierazgarria dela bi elkarrizketetan ondoez berdinari, bi emakume ezberdinek aipamena egitea. Hau horrela, eta hitanoaren “benetakotasun” honen eraginaren aurrean, bi emakume gazte hauek asko zaintzen dute beste solaskidearen “gainetik” egotearen kontua. Edota hitanoz aritzeagatik bestea nolabait mintzea ere; garrantzitsutzat jotzen baitute, hizketa-lagunaren aurrean nagusitasunik ez erakustea. Hala nola, eta Sandra Bem-ek (1974: 158-159) egindako rol femeninoen zerrendaren arabera, emakumeak beste hainbat gauzaren artean, gupidatsuak, ulerkorrak, adeitsuak eta besteen nahietara egokitzen direnak

izan beharko dute. Horren bestez, eta aipatutako emakumezkoen ezau-
garri horiek kontuan hartuz, esan genezake emakumeek hitanoz aritzean
sentitzen den “harrotasun” horren baitan sentipen deserosoak ere aur-
kitzen dituztela. Beraiek asko zaintzen dutelarik, bestearen aurrean na-
gusitasunez ez aritzearen kontua.

Honen harira aipatu beharra dago, gizonezkoentzat arruntena/ohikoena
dela tokaz aritzea. Hau da, beraiek, eta beraien artean modu “natural”
batean egiten baitute hitanoz. Emakumeen kasuan aldiz, kontzientzia
batetik abiatutako kontua da, eta hiru lau lagunen artekoa. Hau da,
hizkuntz araua zuka da emakumeen artean. Baliteke beraz, genero rolez
gain, nokak antzuolako gazteen artean duen presentzia urriak, eta tokak
duen bizimailak ere eragina izatea.

4.2 Hitanoa emakumeak ahalduentzeko tresna?

Azken atal honetan, hitanoak emakumeentzat eta Antzuolako testui-
guruan, ahalduentzeko mekanismo edo tresna gisa baliotsua litekeen
edo ez aztertuko dut. Goian aipatu dugu, gaur egungo noketaren egoera
dela eta, emakumeek tentu handiz eta kontzienteki erabakitzen dutela
berau; norekin eta noiz erabili ondo pentsatuta. Horrela, pertsona ba-
tzuekin nolan aritzeak nolabaiteko nagusitasun sentsazio negatibo bat
eragiten dielarik.

Baina, hiketaren eremua guztiz maskulinoa den honetan, eta toketak
nagusitasun (ia) osoa hartzen duelarik espazio publikoan, nokarako
saltoa egin duten emakumeei, hitanoa tresna baliagarria izan zaie hain-
bat alorretan.

Lehenik eta behin, nokarako saltoa egin dutenak, hiztun aktibo bihurtzen
direla azpimarratu nahiko nuke. Hau da, emakume hauek beraien hiz-
kuntza ohiturak aldatuz, zenbaitetan emakumeei galarazi zaien agentzia
bat badutela erakusten dute.

Beraz, badirudi egoerari nolabaiteko buelta bat emango lioketela ema-
kume hauek beraien hizkuntza ohiturak aldatuta. Jada emakumeena
—gazteena behintzat— ez den hitanoan muturra sartzen dutenean, no-
labaiteko boteretze bat emango bailitzateke. Hau da, Antzuolaren ka-
suan, gizonen artean eta aipatu dugun gisara, badirudi hitanoa —toka—
prestigio hizkuntza dela; eta hitanorako saltoa eman duten neska gazte
hauek prestigio hizkuntza hori berreskuratzeko jauzia eman dute. Esan
liteke beraz, ekintza subalterno baten bidez, boteretu direla.

**Aipatu beharra
dago,
gizonezkoentzat
arruntena/ohikoe
na dela tokaz
aritzea. Hau da,
beraiek, eta
beraien artean
modu “natural”
batean egiten
baitute hitanoz.
Emakumeen
kasuan aldiz,
kontzientzia
batetik
abiatutako
kontua da, eta
hiru lau lagunen
artekoa. Hau da,
hizkuntz araua
zuka da
emakumeen
artean.**

**Esan genezake
beraz,
emakumeentzako
ahalduntze
prozesu baten
baitan kokatu
litekeela
noketarako
mudantza. Azken
finean, hasiera
bateko lotsa
horiek
gainditzeak, eta
galdutako
esparru
linguistiko baten
errekuperazio-
aren alde modu
kontziente eta
aktibo batean
aritzeak, hein
batean pertsona
boteretzen baitu.**

“Ta hiri ze emuten don noka ibiltziak konfiantziaz gain? Ba pentzatzen jaten euskeria reforzatzen naola bezela. Bueno euskeria ez, noka klaro. **Ta beste emakume batzuekin ibiltzian ze sensazino o zer?** Ba sensazino ona, etxakinat. Zeoze ba... Hik euskeraz berba itten baldin bon Bilbon be, ba ondo sentitzen haiz. Ba hika berba itten baldin bon noka ondio hobeto” (Maialen, 30. Nokarako trantsizioa).

Ez dago bibliografiarik gai honen inguruan, nik behintzat ez dut aurkitu, baina Maialenen esaldia “euskaldun berriei” buruz egin diren ikerketa ezberdinetan ageri den kontu batekin lotu genezake. Maialenek komentatzen du, Bilbon —hau da, hiri ez euskaldun batean— euskaraz hitz eginda ondo sentitzen dela bera, eta Antzuolan noketan jardunda sensazio antzerakoa bizi duela. Honen harira, Ane Ortegak, Estibaliz Amorrortuk, Jone Goirigolzarrik eta Jacqueline Urlak egindako ikerketa batean, euskal hiztun berriek eta batez ere, erdalguneeetan euskara ikasi dutenek, ahalduntze baten inguruan hitz egiten dute. Lortu izanaren sentsazioa edota asebetetzea, direlarik elkarrizketatu askok aipatzen dituzten sentimenetako batzuk (Ortega et al., 2016: 61).

Elkarrizketatutako bi emakumeek aipatzen dute harrotasuna; zerbait aldatzeko lanean ari zarean sentitzen den harrotasun hori. Zentzu honetan, ondorengoa aitortzen du Anek (25, Nokara trantsizioa) publikoki noka erabiltzeak sortzen dion sentsazioei buruz galdetuta:

“Nik bai lotzen dotela ahalduntze prozesu batekin ez? Azkenian ehh... ba esparru... kasu hontan, kasu hontan esparru linguistiko bat ero, rekupe-
ratzia-
kin... bai (...) Etxakinat, ba botere sensazinua bezela ez? Zeoze oso positi-
bua”.

Anek esparru linguistiko baten errekuperazioaz hitz egiten du, eta baita errekuperazio honetarako bidean, berak sentitzen duen ahalduntze prozesu batekin ere. Azken finean, guztiz maskulinizatutako esparru linguistiko batera sartzean, norberak badaki “berea” ez den eremu batean sartu dela; gainera berau konkistatzeko asmoz. Hasierako sentsazioei buruz galdetuta, biek ala biek hasiera batean lotsa sentsazioa aipatzen dute. Batez ere, tabernan edota eremu publiko batean nokaz aritzeak, “apuro” pixka bat ematen ziela aitortu baitute biek.

“En plan ba lotzia ero... Tipo jentia pentsauko jonan ze jabitzen honek?” (Maialen, 30. Nokarako trantsizioa).

Esan genezake beraz, emakumeentzako ahalduntze prozesu baten baitan kokatu litekeela noketarako mudantza. Azken finean, hasiera bateko

lotsa horiek gainditzeak, eta galdutako esparru linguistiko baten erre-
kuperazioaren alde modu kontziente eta aktibo batean aritzeak, hein
batean pertsona boteretzen baitu.

AZKEN OHARRAK

I
Generoak badu beraz zerikusirik hizkuntza baten edota bestearen era-
bileran. Baita kasu honetan, genero rolek hitanoaren erabileran ere. An-
tzuolan behintzat, eta lan honetan ikusi dugunaren arabera, noketaren
galeran eta toketaren biziraupenak izango lukete zerikusirik generoa-
rekin, eta honek esleitzen dituen rolekin.

Ikerketa honek utzitako emaitzetatik haratago eta proposamen bat egi-
tera ausartuz, hiketaren suspertzerako uste dut feminismoak emango
lukeela biderik. Hitanoa hizkera binarioa da guztiz, eta bi kategorien
baitan —neska/mutil— kokatu nahi ez duten pertsonentzat ez da izango
baliagarria. Baliteke, norbait hiketaren aurka ere egotea; binarismoaren
aldarrikapen linguistiko gisara interpretatu daitekeelako. Baina erreali-
tate bat da, gaur egun eta Euskal Herriko feminismoaren baitan, “ema-
kume” kontzeptua, kategoria politiko gisara erabili, eta honekin identi-
fikatzen den pertsona asko dagoela. Hau horrela, eta genero rolek
noketaren galeran —eta emakumeek hitanoz ez hitz egitean— izan
duten eragina kontuan izanda, feminismoa tresna polita litzateke no-
ketaren berreskurapenerako. Toketak Antzuolan behintzat, larri baina
biziraungo du; bien bitartean emakumeak hizkuntza tratamendu baka-
rra izango dute soilik solasteko.

Bestetik, komenigarria da aipatzea, noketa ez dela soilik emakumeen-
tzako erabilgarria. Hau da, noketa emakumeei zuzentzeko tratamendua
da, baina pertsona oro mintza daiteke nokaz. Hau horrela, emakume
zein gizonezkoak gerturatu beharko lirateke noketara; baita, emaku-
mezkoak toketara ere. Hizkuntzak daukan sinbolismoarekin bederen,
badirudi harreman berdinzaleagoak eraikitzeko bidea ere izan litekeela
hitanoa; konfiantza eta gertutasuna adierazten duen hizkuntza trata-
mendua izaki.

Kontuak kontu eta laburbilduz, hizkuntza norberaren generoa perfor-
matzeko tresna bikaina izan liteke. Hori horrela, genero rolek noketaren
galeran eta toketaren biziraupenean eragin nabarmena izan dutela az-
pimarratu liteke. Are gehiago, genero rolek emakumeek hitano gutxiago
egitean ere eragina izango lukete; baita gizonek gehiago mintzatzean
ere. ●

**Generoa
performatzeko
tresna bikaina
izan liteke. Hori
horrela, genero
rolek noketaren
galeran eta
toketaren
biziraupenean
eragin
nabarmena izan
dutela
azpimarratu
liteke. Are
gehiago, genero
rolek emakumeek
hitano gutxiago
egitean ere
eragina izango
lukete; baita
gizonek gehiago
mintzatzean ere.**

OHARRAK

1. Nahiz eta atal honetan "hizkuntza mudantza" kontzeptu teorikoa erabili, tratamendu edota hizkera aldaketaz hitz egingo dugu zehazki. Hau da, zukatik hitanorako saltoaz; ez hizkuntza espezifikoko batetik besterakoaz.
2. Antzuolako gazteak egoten diren taberna.
3. Estereotipo hauen arabera, baserritarra beti izan da arlotea, zakarra, indartsua edota inozo zamarra.
4. Lau pertsona hauek izan dira elkarriketatutako gazteak.

BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. (1995). Euskararen erabilpenaren feminizazioa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, (15), 89-96.
- Antzuolako Udala. (2018). Antzuola.com. 2018ko Maiatzaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: http://www.antzuola.com/index.php?option=com_content&view=article&id=2&Itemid=2&lang=eu
- Azkue, X. (1998). *Hitanoa Zumaian*. Zarautz: Zumaiaiko Udala.
- Azurmendi, J. (1964). Neskatzak ez dute euskeraz itzezin nai. *JAKIN aldizkaria*, (16), 62-68.
- Bem, S. (1974). The measurement of psychological androgyny. *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, (42), 155-162.
- Bourdieu, P. (1985). *¿Que significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.
- Hernández, J. M. (2011). Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur. *Euskera*, 2(55), 579-607.
- Hernández, J., & Altuna, J. (2017). %2,7- Euskara, geneoaz mintzo? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 121-150.
- Kasares, P. (2012). Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(82), 15-52.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Lakoff, R. (1981). *El lenguaje y el lugar de la mujer*. Barcelona: Hacer.
- Lorente, M. (2006). Masculinidad y violencia: implicaciones y explicaciones. Presentado en Gizonezkoak genero indarkeriaren aurrean, Donostia.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: Esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- Rodriguez, T. (2016). Pasilloetan galduta. *JAKIN aldizkaria*, (214), 141-143.
- Pujolar, J., Gonzalez, I., Font, A., & Martinez, R. (2014). *Llengua i joves Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

- Pujolar, J., Gonzalez, I., & Martinez, R. (2010). Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i ús. Revista Técnica de Política Lingüística*, (48), 65-75.
- Soziolinguistika Klusterra. (2016). Antzuolako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017a). Azpeitiko hitanoaren kale-erabileraren azterketa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017b). Usurbilgo hitanoaren kale-erabileraren azterketa.
- Woolard, K. (2008). Les ideologies lingüístiques: una visió general d'un camp des de l'antropologia lingüística. *Revista de Llengua i Dret*, (49), 179-199.
- Zinkunegi, J. F. (1995). Euskararen transmisioa euskal Autonomi Elkar-tean. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, (15), 75-88.

5

EAEko Administrazioa euskalduntzeko sistema. Balantze bat eta aurrera begirako proposamen batzuk

Zigor Etxeburua Urbizu

Hizkuntza normalizazioan aritua

zetxeburua@gmail.com

Sarrera-data: 2018-10-05 / Onartze-data: 2018-11-05

Laburpena. Artikulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa euskalduntzeko sistema aztertu da. Horretarako, EAEko administrazioa euskalduntzeko 86/1997 dekretuak zer dioten eta nola erabili den behatu da, IV. eta V. Plangintzaldien ebaluazioak lagunduta. Azkenik, aurrera begirako proposamen batzuk egin dira, administrazioaren euskalduntzea arautuko duen dekretu berriari ekarpena egiteko. • **Hitz gakoak:** *Administrazioa, Euskalduntzea, Araudia, Normalizazioa, Plangintzaldia.*

Abstract. This paper analyses the system put in place to promote Basque language knowledge and use in the administration of the Autonomous Community of the Basque Country. To this end, using the assessments of the 4th and 5th Basque language plans as a basis, it examines the content and application of Decree 86/1997 on the promotion of the Basque language in the ACBC administration. Finally, it also outlines some proposals for the future, seeking to contribute to the shaping of a new decree governing efforts to ensure a more Basque-speaking administration. • **Key words:** *Administration, Process of Language Recovering on Basque Language, Normative, Linguistic Normalization, Period of planning.*

1. KOKAPENA

I 2016-2020 legealdian, Administrazioko lanpostuen zerrendaren balio-espen berri bat egiteari ekin dio Jaurlaritzak, hizkuntza eskakizunak egokitu eta eguneratuz. Horretarako, 38.000 langile publikoren hizkuntza eskakizunak berrikusi dira. Azterketa horren beharra azaltzeko, Gobernuak adierazi du disfuntzioak gertatzen ari direla, euskara gaitasun maila jasoak eskatzen omen direlako, lanposturako hizkuntza formala behar ez denetan. Azterketarekin batera, hizkuntza-eskakizunen asignaziorako irizpideak aldatzea aurreikusi du Gobernuak. Ildo horretan, trebetasunkako egiaztapena ezartzeko asmoa aurreratu du, eta hori egiteko, 86/1997 dekretua aldatu beharko du, prozesuaren amaieran.

Aurreikusten denez orain arteko ereduan aldaketa esanguratsuak eragin ditzakeela Jaurlaritzak egin asmo duen balioespen berriak, komeni da Administrazioa euskalduntzeko sistemak urteotan egindako ibilbidea berrikustea, eta egiteko dagoena kontuan izanik, baita etorkizunerako irizpide batzuk proposatzea ere, herritarrok administrazioaren eskutik jasotzen ditugun zerbitzuak normaltasunez euskaraz izatea bermatzea ez ezik, administrazio euskaldun bat lortzeko, epe labur-ertain batean.

2.2 ADMINISTRAZIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUEN 86/1997 DEKRETUA

Euskara hizkuntza ofiziala izanik, EAEn diharduten herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrek. 86/1997 Dekretua onartu zen garaian administrazioa erdalduna izanik, araudiak jaso zituen euskara zerbitzu eta lan hizkuntza modura erabiltzeko erakundeek¹ bete beharko zituzten erabakiak, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Azter dezagun araua, atalez atal:

2.1 Hizkuntza-eskakizunen sistema

Zerbitzu publikoak erabiltzailearen inguruan ardazten dira, pertsonekin lan egiten da, pertsonentzako, eta horren arabera moldatu behar du zerbitzuak. Publikoak izanik, herritarroi eskubide zehatzak aitortzen zaizkigu, eta eskubide horiek betebeharrak eragiten dizkiete erakundeei. Jakina, bi parteen arteko harreman horretan, langile publikoa da administrazioaren eta erabiltzailearen arteko zubia, bere bidez eskaintzen baitira zerbitzu horiek. Beraz, herritarrek administrazioarekin duten harremana euskaraz izateko, nahitaezkoa da langile publikoak euskarazko gaitasuna izatea. Horretarako antolatu zen hizkuntza-eskakizunen sistema.

**Gobernuak
adierazi du
disfuntzioak
gertatzen ari
direla, euskara
gaitasun maila
jasoak eskatzen
omen direlako,
lanposturako
hizkuntza
formala behar ez
denetan.
Azterketarekin
batera, hizkuntza
eskakizunen
asignaziorako
irizpideak
aldatzea
aurreikusi du
Gobernuak.**

**IV. plangintzaldiaren
ondorioetan jaso
zenez, euskara
lanean ez
erabiltzeak
eragin du
euskararen
ezagutza
murriztea.
Kontuan izan
behar da,
hizkuntza
eskakizuna behin
egiaztatuta,
behin-betiko
balioa duela
(lehen hizkuntza
eskakizunaren
kasuan izan
ezik), zalantzan
utziz noizbait
egiaztatu baina
erabili ez duen
hizkuntza
horretan
langileak gerora
izan dezakeen
gaitasuna.**

Araudia

Estatuko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren² aginduz, langile publikoak herritarrari harrera egingo dio herritarrek hautatutako hizkuntza ofizialean. Horretarako, aski gaituak egongo diren langileak hautatu behar ditu administrazioak. Gainera, diziiplina falta oso astuntzat hartzen da hizkuntzagatik diskriminazioa dakarten jarduerak egitea.

10/1982 Euskararen Legean herritarrei aitortzen zaie, funtsezko hizkuntza eskubide gisa, “*Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatearekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz*”, baita zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoak direnekin ere. Baina arauan bertan sartu zen eskubide horren erabilera bermatzeko epemugarik gabeko progresibotasunaren kontzeptua (“*eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko neurri egokiak hartu eta baliabideak bideratuko dira*”), eta horrek ekarri du, eskubide efektiboa geroratzea, nolabait, legezko bermea deuseztatzea³.

Hizkuntza eskakizuna

Zehaztuta daude lanpostu bakoitzari dagozkion zereginetan erabiltzen den hizkuntzaren nolakotasuna, eta horren arabera erabakitzen da lanpostuari badagokion euskara eskakizuna, eta nolakoa behar duen. Aintzat hartu beharreko jarraibideak ezartzen ditu dekretuak. Gainera, hizkuntza eskakizuna aginduzkoa ez denean, euskaraz jakiteari merezimendu gisa balioa ematea xedatzen du.

Jaurlaritzaren arabera, “*hizkuntza eskakizunen sistemari esker bermatu da, neurri handi batean, euskararen ezaguera Administrazioko langileen artean*”. Edonola, Jaurlaritzak berak aitortzen duenez, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeak ez du ekarri Administrazioak euskara erabiltzea. Aitzitik, IV. plangintzaldiaren ondorioetan jaso zenez, euskara lanean ez erabiltzeak eragin du euskararen ezagutza murriztea. Kontuan izan behar da, hizkuntza eskakizuna behin egiaztatuta, behin-betiko balioa duela (lehen hizkuntza eskakizunaren kasuan izan ezik), zalantzan utziz noizbait egiaztatu baina erabili ez duen hizkuntza horretan langileak gerora izan dezakeen gaitasuna.

Hizkuntza eskakizuna sailen jarduerari jarri beharrean, lanpostuari jartzen dio arauak. Oro har, Administrazioak ez du euskara erabiltzeko beharra ezarri, eta talka gertatu izan da zerbitzu publikoetan harremanetarako hizkuntza hautatzeko herritarren eskubidearen eta langilearen

borondatearen artean. Ildo beretik ere, euskara laneko hizkuntza gisa erabiltzea langilearen borondatearen baitan laga da.

Hezkuntza ez unibertsitarioan hizkuntzen erabilera araupetzen duen 138/1983 Dekretuak, ostera, ezarri zuen irakasleen jarduera izatea euskara edo euskaraz irakastea, eta horretarako, nahitaezkoa izatea eskatzen den gaitasunez euskaldunduta edota alfabetatuta egotea irakasleak. Hautaketa prozesu guztietan euskara gaitasuna erakustea nahitaezko baldintza da.

Derrigortasun data

Erakunde bakoitzean derrigortasun data izango duten lanpostuen gutxieneko ehunekoa zehazten du Derrigortasun Indizeak. Tresna honen bidez, euskararen erabilera normalizatzeko planaren erritmoa eta eskualdekatzea ezarri zituen Jaurlaritzak, Indizea kalkulatzeko baita batuz erakundearen jarduera esparruan dauden euskaldunen ehunekoa eta ia euskaldunen ehunekoaren erdia. Hau da, planaren progresibotasunaren filosofia tresna honetan oinarritu da, nagusiki. Erakunde bakoitzak ehuneko horretatik gora jo dezakeen arren, erakunde askok gehienezko mugatzat izan dute, eta V. Plangintzaldian HPSk espresuki adierazi behar izan zuen gutxieneko ehunekoa zehazten duela.

Derrigortasun data behar duten lanpostuak zehazteko, lanpostuak jendearekin duen harreman mailaz eta administrazio barruan duen harreman sareaz gain, lanpostua kokatuta dagoen zerbitzu edo atalaren izaera ere kontuan hartzen da.

Lanpostuak derrigortasun data izatea gakoa da, langileak bere hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke. Areago, V. Plangintzaldiaren irizpideetan aipatzen da beharrezkoa dela derrigortasun datak ezartzea *“euskara ezagutzen duen langileen masa kritikoa sortzeko, euskararen ezagutza erabilerarako oinarria den aldetik”*. Edonola, lanpostuak derrigortasun data izateak ez du nahitaez bermatzen lanpostua betetzen ari den langileak dagokion eskakizuna beteta izango duenik. Dekretuak xedatzen duenez, *“hautaketa-prozesuetan hizkuntz-eskakizuna betetzea derrigorrezkoa denean, eskakizun hori egiaztatzea eska liteke (...) hautaketa-probetan bertan edo langile finko izan aurretik egin beharreko formakuntza ikastaroan nahiz praktikaldian”*.

Bestalde, dekretuak ezartzen die erakundeei dagokien txostena eskatu beharra Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, lanpostuetan hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak izendatzeko edo aldatzeko edozein erabaki hartu aurretik. Edonola, Jaurlaritzaren iritzi hori ez da

***Edonola,
lanpostuak
derrigortasun
data izateak ez
du nahitaez
bermatzen
lanpostua
betetzen ari den
langileak
dagokion
eskakizuna
beteta izango
duenik.***

***Hizkuntza
eskakizuna
egiaztatzeko
salbuespena
eskatu dezakete
langileek,
jabetzan badu
lanpostua, eta
bere
derrigortasun
datari dagokion
plangintzal-
diaren lehenengo
egunerako
langileak 45 urte
beteta baditu.***

erabakigarria. Horren eraginez, hainbat aldiz gertatu izan dira atzera urratsak, derrigortasun data jadanik iraungita izanik, data berria ezarri zaielako hainbat lanposturi, sistemak duen filosofia hazkorra urratuz. Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera, ordea, ezinbestekoa da derrigortasun datatik aurrera hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, lanpostua betetzeko. Horren haritik, 86/1997 Dekretuak xedatzen du, lanpostutik kentzeko espedientea has daitekeela (“erremozioa”) langileak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badu, baina ez dago inoiz erabili izanaren berririk.

Aipagarria da, azkenik, hizkuntza politika aurreragarriena egin duten erakundeetan joera izan dela erretiroagatik hutsik geratu edo geratze-koak diren lanpostuei iraungitako derrigortasun datak jartzea. Horren bidez, bermatu izan dute postu horiek bete dituzten langileek lanerako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Edonola, aipatu behar da irizpide hori baliatzeagatik Osakidetzaaren aurkako epai⁴ bat izan dela, eta zalantzan dago euskalduntze prozesu orokorrean eraginik izan ote dezakeen.

Salbuesteak

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko salbuespena eskatu dezakete langileek, jabetzan badu lanpostua, eta bere derrigortasun datari dagokion plangintzaldiaren lehenengo egunerako langileak 45 urte beteta baditu.

Badirudi neurri hori ezarri zela, Administrazioa euskalduntzeko lehen une haietan (1995-96), HPS eta IVAP ohartu zirelako adinaren araberrako salbuespen bat ezarri ezean langile erdaldun guztiak batera euskalduntzeko ezintasun objektiboa zutela. Edonola, urteotan ez da berrikusi erabaki hori. Aukera horren eraginez, hainbat lanpostu kronifikatuta ageri dira, erdaldunduta. Hala ere, ez dute langileek aukera hau sistematikoki baliatzen.

Horrez gainera, gaur egun kontuan izan behar da Euskara Maila Egiaztatzetik Salbuesteko 47/2012 Dekretua.

Administrazioako atal elebidun eta euskarazkoak

Atal elebidunak dira beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan bete ditzaketen administrazio-atalak. Euskarazko atalak dira beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituztenak. Edonola, administrazio-atalak modu bitxian bereizi ziren, ziurrenik, administrazioaren garaiko hizkuntza egoerak baldintzatuta. Horrela, jendaurreko atalak,

zeregin nagusia administratuarekiko harremana dutenak, eta gizarte mailako atalak bereizita daude, azken horiek ere, gizarte-harremaneko sare oso nabarmenak izan arren.

Dekretuak zehazten du erakundeen gutxieneko helburuak nola mailakatuko diren, gizartearen euskalduntzearekin batera normalizatzeko euskararen erabilera erakundeetan ere. Horrela, plangintzaldi bakoitzeko derrigortasun indizea hazi ahala, atal elebidun eta euskarazko atal gehiago izendatzeko aukera du erakundeak: %25-45 bitartean, atal elebidunak izendatu gizarte izaerako ataletan; %45-70 bitartean, atal elebidunak izendatu izaera orokorrekoetan; %70etik aurrera, euskarazko atalak abiatu.

Atal elebidunaren izendapenak bazuen logikarik Administrazioaren euskalduntzeko prozesua abiatu zen garaian, Administrazioa erdalduna baitzen. Baina dekretuak zehazten du atal horiek direla “*euskal herri-administrazioekin euskaraz harremanak izateko eskubidea bermatuta egon dadin, herritarrek dituzten gutxieneko antolamendu atalak*”. 21 urte geroago, eta gizartean eta administrazioan egin den euskalduntzeko ahalegina kontuan izanik, dagoeneko Administrazio osoak izan beharko luke du elebidun izendapena. Alde horretatik, euskarazko atalaren izendapena tresna interesgarria da, erakundeak modu proaktiboan jardutera eragin baititzaie.

Euskararen erabilera normalizatzeko planak

Dekretuak ezartzen du erakunde bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela, eta planak zer jaso behar duen zehazten du: normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere jarraibide nagusiak, erakundearen hizkuntza egoera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun (eta, hala badagokio, derrigortasun data) ezarriko zaion, administrazio-atalak eta horiek aurrera egiteko neurriak, ohiko jardueran euskara erabiltzeko irizpideak eta kontratazio publikoetarako hizkuntza baldintzak. Era berean, ezarritako helburuak zein mailatan bete diren ebaluatu beharko du erakunde bakoitzak, plangintzaldiaren 3. urtean eta amaieran. “*Dekretuan ezarritakoak betetzeko eragozpenak edo atzerapenak daudela ikusiz gero, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak akatsak zuzentzeko hartu beharreko neurriak aztertuko ditu, dagokion administrazioarekin lankidetzan*”.

Plangintzaldietan zehazten dituen gida-lerroen bidez, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak irizpideak ematen dizkie erakundeei, Administrazioaren euskalduntzea antolatze baina ez dio ezartzen, ordea, betekizunik. Beraz, erakunde bakoitzaren borondatearen baitan geratzen

21 urte geroago, eta gizartean eta administrazioan egin den euskalduntzeko ahalegina kontuan izanik, dagoeneko Administrazio osoak izan beharko luke du elebidun izendapena. Alde horretatik, euskarazko atalaren izendapena tresna interesgarria da, erakundeak modu proaktiboan jardutera eragin baititzaie.

**Ez da inoiz
zehaztu
erakundeetan
euskararen
erabilera
orokortzeko
azken epemuga
bat, ezta eskatu
erakunde
bakoitzari berea
zehaztea ere.**

da euskarazko harremana izateko eta informazioa euskaraz eskuratzeko eskubideak zenbaitetaraino bermatuko diren.

Lehenengo Plangintzaldiaren (1990-1995) helburua izan zen Administrazioako langileak euskaraz gaitzea arian-arian, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak esleitzuz. II. Plangintzaldian (1997-2002), 86/1997 Dekretuak ekarri zien erakundeei euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra. III. Plangintzaldian (2003-2007), oinarri teorikoak jarri ziren: administrazio-atalak eta lehentasunak definitu ziren, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak... *“langileak gero eta euskaldunagoak ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten”*. IV. Plangintzaldian (2008-2012), planifikazio bat abiatu zen, euskara ere ohiko lan hizkuntza bihurtzeko. V. Plangintzaldian (2013-2017), euskara ere administrazioetako jarduneko ohiko lan hizkuntza izatea zen helmuga.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ebaluazioek ez dute erakutsi zenbateraino betetzen ari diren, erakundez erakunde, plangintzaldiz plangintzaldi eman izan dituen irizpideak. Iku-sirik hainbat balorazio ezkor errepikatzen direla, prentsatzekoa da sistema eragingarriagoren bat behar dela irizpideak bete daitezen.

Era berean, dekretuak zehazten du, euskara normalizatzeko egitarauak burutzeko, bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko direla. Edonola, ez da inoiz zehaztu erakundeetan euskararen erabilera orokortzeko azken epemuga bat, ezta eskatu erakunde bakoitzari berea zehaztea ere.

Bestalde, nabarmentzekoa da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Kultura Sailaren artean adosten dituztela euskara planetarako erakundeek jasoko dituzten dirulaguntzen nolakoak. Erakunde bakoitzaren esku geratzen da, ordea, esleitzea bere normalizazio planak beharko dituen baliabideak. Alde horretatik, ezagunak dira erakundeen artean izan diren aldeak, bideratutako baliabideei eta egindako ahaleginei dagokienez. Badira erakundeak ahalegin ekonomiko ohargarria egiten ari direnak euskara normalizatzeko langintzan, gaudituz sarri, hizkuntza egoera makurragoan dauden erakunde aberatsagoak.

	2002		2004		2006		2008		2010		2012		2014	
	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %	euro	aurrekontu osoaren %
Eusko jaurlaritza	94.018.669	1,57	105.171.877	1,70	106.074.632	1,37	109.671.797	1,20	100.548.845	0,97	93.070.112	0,91	95.805.937	0,95
Arabako Foru Aldundia	1.018.359	0,33	1.324.224	0,40	1.219.385	0,32	2.039.854	0,43	2.333.221	0,52	1.670.917	0,42	1.910.409	0,48
Bizkaiko Foru Aldundia	6.925.997	0,76	9.026.691	0,79	9.374.277	0,68	10.785.052	0,62	9.641.826	0,55	10.408.787	0,65	8.259.514	0,57
Gipuzkoako Foru Aldundia	3.891.753	0,73	5.294.419	0,90	5.367.513	0,71	7.101.559	0,89	6.156.422	0,68	5.428.110	0,73	5.422.395	0,71
Udalak > 5.000 biztanle	19.816.294	1,92	24.763.995	2,07	27.712.886	1,89	33.644.477	2,06	31.725.090	1,90	31.464.309	2,27	32.663.087	2,37
Bilbao	1.184.198	0,39	1.440.765	0,37	2.228.239	0,47	2.852.119	0,52	2.779.990	0,47	1.928.969	0,40	1.733.113	0,33
Donostia-San Sebastián	2.287.399	1,09	2.502.768	1,04	2.229.156	0,97	2.694.640	0,98	2.796.828	0,84	2.626.189	0,98	2.934.603	1,04
Vitoria-Gasteiz	1.109.306	0,45	1.882.753	0,75	2.602.848	0,81	2.946.925	0,73	3.454.521	0,79	3.075.233	0,99	3.971.244	1,15

Iturria: EUSTAT, 2016ko martxoa.

Diru baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzeko ahaleginen bat abiatu den arren (Hakoba, GFA...), ez dago aurrekontu politika bateraturik. Agerikoa da planen eraginkortasuna alderdikarien eta boluntarismoaren baitan erortzeko arriskua.

Alde horretatik, euskaraz gaituta ez dauden langileak euskaraz gaitzeko trebakuntza diruztatzeko, erakunde bakoitzak hitzarmena izenpetu behar du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin, plangintzaldi bakoitzean. Horren bidez, prestakuntzarako ordu kredituak banan banako prestakuntza planei egokitzen zaizkie. Horretan ere badira aldeak erakundetik erakundera, ohiko prestakuntzaz gain, badirelako erakundeak berariaz antolatutako prestakuntza eskaintza ere badutenak (GFA-ren ALET programa, gaitasun zehatzak lantzekoak...). Prestakuntza jarraitua, ordea, ez da aipatzen dekretuan, euskara gaitasunari eutsi eta eguneratzeko aukera bikaina den arren.

2.2 Administrazio kontratueta hizauntza baldintzei buruzko erabakiak

Aipatu bezala, Administrazioaren jarduera euskalduntzeko plangintzen artean jaso behar dira kontratazio publikoetarako hizauntza baldintzak. Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki zituen, 2006ko otsailaren 28an, Administrazio Orokorak eta bere mendeko erakunde autonomo eta ente publikoek kontratueta nahitaez sartu beharreko hizauntza baldintzak. Plangintzaldiz plangintzaldi irizpideetan jaso badira ere, Jaurlaritzaren ebaluazioek ez dute erakutsi zenbateraino ezarri diren, erakundez erakunde, kontratazioetarako hizauntza irizpideak.

**2/2016 legea,
apirilaren 7koa,
euskadiko toki
erakundeei
buruzkoa.
Euskara
lehenestea
aldarrikatzen du:
“Izan ere,
euskara
faboratzeak
bilatzen duena
da, hain zuzen,
herritarren
artean benetako
berdintasuna
sustatzea,
Hizkuntza
Erregionalen edo
Gutxituen
Europako
Kartaren 7.2
artikuluari
jasotakoaren
zentzuan”.**

2011-2015 legealdian, ordea, Gipuzkoako erakundeek ekimena abiatu zuten, kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak ezartzeko, elkarrekin. Jaurlaritzaren 2006ko erabakia osatzeaz batera, klausulak ezartzeko protokoloa adostu eta “Kontratuzain” tresna sortu zuten, klausulen ezarpenari jarraipena egiteko. Estatuaren partetik jasotzen hasi ziren presio judizialen aurrean, erakundeek babes eskatu zioten Jaurlaritzari⁵ eta 2016ko apirilaren 26an, Erabaki-proposamen berri eta osatuago bat onartu zuen.

2.3 Eskara maila egiaztatetik salbuesteko 47/2012 dekretua

Dekretu honen arabera, hizkuntza egiaztatetik salbuesteko aukera ezartzen da, ikasketak euskaraz eginda lortutako hainbat tituluren arabera. Salbuespenek eragina dute administrazio publikoen enplegu publikoko deialdietako hautaketa eta hornikuntza prozeduretan, eta horregatik, kezka handia eragin du hezkuntzako eta euskalgintzako eragileen artean. Koherentea litzateke, hizkuntza normalizatuta duen herrialdea balitz gurea; baina etxekalte izan daiteke, ikasketak euskaraz egiteak ez baitakar, berez eta kasu guztietan, kalitate bikaineko euskara gaitasuna, ikerketek berretsi dutenez.

2.4 2/2016 legea, apirilaren 7koa, euskadiko toki erakundeei buruzkoa

86/1997 Dekretua egin zen garaian ez zegoen Udal Legerik. Orain badago, eta jaso ditu euskararen garapena eta erabilera arautzeko neurriak: “lege honek (...) aldeztu du, kasuan kasuko toki erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan hizkuntza izatea”.

Era berean, euskara lehenestea aldarrikatzen du: “Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan”. Gainera, udalei izendatzen dizkie eskumen propio gisa, besteren artean, beren zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzea eta euskararen normalizazioa planifikatzea, izen ofizialak finkatzea, ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartzea, egitasmo eta planen inpaktu linguistikoa ebaluatzea eta kontratazio publikoetan hizkuntza baldintzak ezartzea. Beraz, dekretu berriak konfiantza izan beharko ditu Udal Legeak ematen dituen aukerak ere.

3. ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEKO PROZESUAREN EGOERA

II


3.1 V. plangintzaldiaren ebaluazioa

Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak

Jaurilaritzaren arabera, “Administrazioko langile gehienak prestatuta daude, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko”, 1990. urtean, %23,5 baitziren euskara era batera edo bestera ezagutzen zuten langileak, eta 2017an, berriz, %71.

38.039 lanpostu daude 86/1997 Dekretuaren eraginpean⁶. Langileen %63k dauka egiaztatua dagokion hizkuntza eskakizuna, eta beste %8k, dagokiona baino apalagoa. Lau langiletik batek ez du batere gaitasunik egiaztatu, eta langileen %4 salbuetsita dago.

V. plangintzaldian ezarri beharreko gutxieneko derrigortasun indizea %48,46koa zen. Oro har, gutxieneko horretatik gora dago ezarrita indizea. Lanpostuak derrigortasun data izatea gakoa da, langileak bere hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko. Datuek argi erakusten dute: lanpostuan derrigortasuna ezarria daukanean, %82an egiaztatua dago dagokion gaitasuna; aitzitik, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko datarik zehaztuta ez duten lanpostuen %59an ez da batere eskakizunik egiaztatu.



Iturria: BERRIA, 2018ko otsaila.

Derrigortasun data duten lanpostuen kasuan, batez besteko egiaztatze mailatik behera daude udalak, aldundiak eta Jauralaritza. Ezer egiaztatu gabe dauden portzentajea batez bestekoa baino handiagoa da udaletan eta aldundietan.

Derrigortasun data duten lanpostuen kasuan, batez besteko egiaztatze mailatik behera daude udalak, aldundiak eta Jauralaritza; EHU eta Haurreskolak Partzuergoa (%99,6), berriz, goitik daude. Ezer egiaztatu gabe dauden portzentajea batez bestekoa baino handiagoa da udaletan eta aldundietan.

Gune soziolinguistiko euskaldunagoetako erakundeetan aurreratuagoa da euskararen kudeaketa. Era berean, langileek azaldu dute zenbat eta euskara gaitasun handiagoa izan, orduan eta irizpideen betetze maila handiagoa dela langileen artean.

Administrazioko atal elebidun eta euskarazkoak

V. plangintzaldiko derrigortasun indizea %48,46koa zenez, Jauralaritzak honakoa zehaztu zuen, irizpideetan: “izaera orokorreko administrazio-ataletan ere administrazio-atal elebidunak izendatu behar dira, bigarren helburu mailaketatik hirugarrenera igaro baita”. Baina ebaluazioaren dokumentuan ez da argitu arlo horretan garapenik izan ote den. Ez dirudi aski baliatzen denik tresna hau, erakundeei proaktiboagoak izateko aukera eskaintzeko.

Zerbitzu hizkuntza

Irizpide orokor hau eman zen V. plangintzaldian: “Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza aukera beti eta ororen gainetik errespetatu beharko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere”. Bada, V. Plangintzaldiaren ebaluazioak egoera hau erakusten du:

Erakundearen irudian (errotulazioa, argitalpenak, publizitatea,...) euskararen presentzia %90etik gorakoa da, baina jendaurreko ekitaldietan %34 besterik ez.

Herritarrekiko idatzizko harremanetarako irizpide hauek eman ziren: “komunikazioa ele bietan egingo da, baldin eta hartzaileak berariaz hizkuntza bat aukeratzen ez badu” eta “euskaraz jasotako idazkiari euskaraz erantzungo dio Jauralaritzak edo erakunde autonomiadunak”. Bada, herritarrei bidalitako idatzizko komunikazioetan, oraindik ere ia %30 gaztelania hutsez egiten da. Areago, herritarrak erakundeei euskaraz idatzita ere gaztelaniaz erantzuten dute %13an (bostetik bati, sozietate publikoek).

Gainera, plangintzaldian eman ziren irizpideen artean honako hau ere ageri zen: “Administrazioak proaktiboa izan behar du, herritarren eskaerari itxaron barik, euskaraz dakien herritarrak, hala nahi badu, euskaraz normalta-

sunez egiteko aukera izan dezan”. Zehatzago ere badio: “Jendaurreko zuze-neko zerbitzua ematen duen langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari. Ondoren, administratuak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du”; “Sailek eta erakunde autonomiadunek aurreikusita izan behar dute protokolo bat herritarrari euskarazko harrera bermatu ezin zaion kasuetarako”. Bada, jendaurreko harrerak oraindik ere ez dira euskaraz bermatzen, kasu guztietan: Telefono bidezko harreraren %43,4 gaztelaniaz izaten da; eta, leihatiletan, %54. Areago, euskarazko eskaerei emandako erantzunen %30 gaztelaniaz da. Herritarrekiko ahozko harremanei buruz, Jaurilaritzak aitortzen du VI. Plangintzaldiaren dokumentuan: “Huts egiten dugu”. “Herritarrei telefonoz eta aurrez aurre harrera egiten diegunean, lehen hitza gaztelaniaz egiten dute langileen erdiek. Horretaz gain, eta hau larriagoa da, euskaraz hasitako hamar elkarriketatik hirutan herritarra gaztelaniaz hitz egitera behartzen dugu”.

Lan hizkuntza

Arlo honetarako V. Plangintzaldiak proposatutako irizpideak nahiko zehaztugabeak ziren: “Euskarak ere lan hizkuntza behar du izan benetan. Horretarako, sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak ispiluaren aurrean jarri behar du bere burua, eta erabaki zeri heldu, modu errealdan baina baita nork eman ahal duen guztia bere buruari eskatuz ere. Argi dago honelako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar zaiela aurre; argi dago, era berean, sailek eta erakunde autonomiadunek erabakiko dutela zein izango den euren planen helmuga eta abiadura”. Horiek horrela, ebaluazioak egoera hau erakusten du:

Idatzizko barne komunikazioaren %18 euskaraz egiten da, %34 elebitan eta %48 gaztelaniaz. Beste erakundeetara bidalitako idazkien %13,9 euskaraz da eta elebitan %58.

Idazkien %20,3 euskaraz sortzen da. 35 urtez beherako langileen %49k gaztelaniaz sortzen du nagusiki, eta sozietate publikoetan ere, gaztelaniaz sortzen dute hirutik bik. Elebitako dokumentuak gaztelaniaz sortzen dira, maizenik, eta gerora bidaltzen dira itzultzerak, plangintzaldiaren irizpideetan askotan azpimarratu bazen ere itzulpen kopurua murriztu beharra. Ebaluazioan aipatzen denez, “oraindik ere gaztelania da lan hizkuntza nagusia, eta handia da itzulpenekiko mendekotasuna”; “behin eta berriro jotzen dugu itzulpenetara, gure gabeziak estaltzeko”.

Euskara, lan bileretan %26,5 da, eta langileen arteko solasaldietan %35. Sozietate publikoetako langileen %18 mintzatzen da euskaraz lankideekin. Euskaraz gehien beste erakundeekiko ahozko harremanetan egiten da: %42,6.

Idatzizko barne komunikazioaren %18 euskaraz egiten da, %34 elebitan eta %48 gaztelaniaz. Beste erakundeetara bidalitako idazkien %13,9 euskaraz da eta elebitan %58.

IV. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioak ondorioztatu zuen langile publikoen euskara gaitasuna apaltzen ari zela, lanerako ez erabiltzearen poderioz. Baina lanean euskaraz aritzeko bideak zehaztu ordez, hizkuntza eskakizunak esleitzeko moduari buruzko gogoeta egitea proposatu zuen Gobernuak.

Gutxi dira oraindik euskarazko programa eta aplikazio informatikoak instalatuta dauzkaten lanpostuak (%14,1), eta “*nahi baino eskasagoa, programa horien erabilera*”.

Eskaini diren ikastaroen %41,5 euskaraz izan da, euskaraz eman direnak, ordea, %18.

Kontratazio publikoetarako hizkuntza baldintzak

V. Plangintzaldiaren ebaluazio kualitatiboan, Administrazioaren normalizazio prozesuaren hutsuneen artean azpimarratzen dira kontratazio administratiboetako hizkuntza klausulak, ezarri ez izanagatik, eta ezarpenaren jarraipena ez egiteagatik. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Gipuzkoako udalek eta Aldundiak “Kontratuzain” tresna sortu izana, asmo horrekin, baina ez da horren aipamenik egiten ebaluazioaren dokumentuan.

3.2 Hizkuntza eskakizunak esleitzeko proposamena

Administrazioa euskalduntzeko IV. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioak ondorioztatu zuen langile publikoen euskara gaitasuna apaltzen ari zela, lanerako ez erabiltzearen poderioz. Baina lanean euskaraz aritzeko bideak zehaztu ordez, hizkuntza eskakizunak esleitzeko moduari buruzko gogoeta egitea proposatu zuen Gobernuak. Horrela, 2012-2016 legealdian, hizkuntza eskakizunei buruzko Azterketa Kualitatiboa⁷ egin zuen Gobernuak, eta zenbait goi mailako lanposturi hizkuntza-eskakizun apalagoa eskatzeko⁸ aukera aurreratu zuen.

Indarrean den legealdian, administrazioako lanpostuen zerrendaren balioespen berri bat egin du Jaurlaritzak, Gobernuaren arabera, disfuntzioak⁹ gertatzen ari direlako, euskara gaitasun maila jasoak eskatzen omen direlako, lanposturako hizkuntza formala behar ez denetan.



Iturria: Zaldieroa, Berria, 2017/03/01.

2017ko abenduan onetsi zuen Hakobak “Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena” dokumentua. Dokumentu horren arabera, administrazioa lanpostuetatik 2240etan igo behar da euskara eskakizuna, eta 72tan jaitsi. Beraz, justu zabaltzen ari ziren ustearen aurkako norabidean. Hain zuzen ere, sarritan ez da bermatzen lanpostuko eginkizunak garatzeko adinako euskara gaitasun hori. Areago, sarritan langilearen euskarazko gaitasun aski ezak ezartzen du zerbitzua zein hizkuntzatan izango den, eta erabiltzaileari euskaraz egiteko eskubidea ukatzen zaio.

Ebaluazioek argi erakutsi dutenez, derrigortasun datarik ezartzen ez bada, erakundeek eta langileek lasaiago jokatzen dute, eta hizkuntza eskakizunen egiaztapenak gutxitu egiten dira. Honela aipatzen du Siadecoren azterketak: “*derrigortasun data igarota izan arren egiaztatu ez dutenei aplikatu beharreko neurririk ez da aplikatu administrazioan*”, eta langile horiek “*egoera nahiko eroso bizi dute*”.

Jaurlaritzaren irizpide berria da administrazioa lanpostu bat betetzeko edo lanpostu horretan jarduteko eskatzen den gutxieneko euskara gaitasuna izatea lanpostu horretarako eskatzen den formazio akademikoa euskaraz osorik edo zati handiengan egiteagatik aitortzen den euskara gaitasun bera. Ildo horretan, trebetasunak egiaztapena ezartzeko asmoa adierazi du. Horren arabera, orain 4. HE duten hainbat lanpostu kualifikatutarako aski izango da 3. HE. Horrek kezka eragin du hizkuntza normalizatzaileen artean eta baita hiritarrekin harremana duten lanpostuei ezarritako 2. HEren mailak ere, haien ustez maila horrek ez baitu zerbitzu on bat euskaraz emateko gaitasun mailarik bermatzen.

4. ONDORIOAK

Hogeita hamasei urte joan dira Euskararen Legea onartu zenetik. Lehen urteak ilusionagarriak izan ziren, dena egiteko baitzegoen. Edonola, 1989ko Funtzio Publikoaren Legea aitortzen denez, Administrazioa antolatzeak eragozpen ugari eragingo zuela aurreikusi zen; tartean, Administrazio berri horren hazte-erritmo bizkorak eta ordura arte Estatuko Administrazioaren mendeko langile ugari barneratzeak eragindakoak. Horregatik, argi adierazten zen EAEko Funtzio Publikoaren etorkizuneko izaera zehaztuko zutela erakundeen jarduerak, eta baita legeen garapenak eta horien ezarpenak ere.

Alde horretatik, esanguratsua da Euskararen Legea garatzeko behar izan den epe luzea. Legea onartu eta 15 urtera onartu zen administra-

1989ko Funtzio Publikoaren Legea aitortzen denez, Administrazioa antolatzeak eragozpen ugari eragingo zuela aurreikusi zen; tartean, Administrazio berri horren hazte-erritmo bizkorak eta ordura arte Estatuko Administrazioaren mendeko langile ugari barneratzeak eragindakoak.

Ez da orokortu euskara erabiltzeko beharra herritarrekin harreman zuzena duten eginkizun ugarian, eta talka gertatu izan da zerbitzu publikoetan harremanetarako hizkuntza hautatzeko herritarren eskubidearen eta langilearen borondatearen artean. Ildo beretik ere, euskara laneko hizkuntza gisa erabiltzea langilearen borondatearen baitan laga da.

zioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua. Kontratazio publikoetarako hizkuntza irizpideak 2006an onartu ziren, eta 2008an, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua (82ko legetik 24 eta 26 urtera, eta 97ko dekretutik 9 eta 11 urtera, hurrenez hurren).

Denboraren kudeaketa laxoegi horrek guztiz eragin du erakundeen euskalduntzea antolatu duen plangintzan. Administrazioa euskalduntzeko lehen une haietan, ziurrenik administrazioaren garaiko hizkuntza egoera erdaldunduak baldintzatuta, epemugarik gabeko progresibotasunaren kontzeptua txertatu zen. Derrigortasun Indizearen bidez, euskararen erabilera normalizatzeko planaren erritmoa eta eskualdekatzea ezarri zituen Jaurlaritzak. Tresna proaktiboa izan zitekeen, baina ez dira garatu euskalduntzearen eboluzio hazkor bat eragiteko dituen aukerak, areago, hainbat erakundek euskalduntze erritmoa moteltzeko baliatu izan dute. Horrez gain, adinagatik euskara ikastetik salbuesteko neurria ere ezarri zen.

Administrazioak ez du erakutsi erabakiak eta neurriak ezartzeko jarrera aski irmorik. Horrela, ez da orokortu euskara erabiltzeko beharra herritarrekin harreman zuzena duten eginkizun ugarian, eta talka gertatu izan da zerbitzu publikoetan harremanetarako hizkuntza hautatzeko herritarren eskubidearen eta langilearen borondatearen artean. Ildo beretik ere, euskara laneko hizkuntza gisa erabiltzea langilearen borondatearen baitan laga da. Gainera, V. Plangintzaldiaren ebaluazioak berresten duenez, gabezi nabarmena erakusten du Jaurlaritzak “*irizpideak ez baitira ezarri, edo, are, ezarritakoak betetzeko ezintasunagatik*”.

Normalizazio prozesua ebaluatzen da, baina ebaluazio horien ondorioa ez da izan, sarri, erabaki politiko-tekniko aurreragarriak hartzea, baizik eta egindako bidean jarraitzea. Hogeita bat urteko normalizazio prozesu baten ostean, helburuaren betetze-maila hala moduzkoa da. Jaurlaritzak berak dio langile publikoen euskara gaitasuna handia dela baina, era berean, aitortzen du hizkuntza eskakizuna egiaztatzeak ez duela ekarri Administrazioak euskara erabiltzea. Ez dirudi aski denik sailen eta erakundeen borondatearen baitan uztea planen helmuga eta abiadura, euskaraz ariko den administrazio bat lortu nahi bada, epe onargarri batean.

Alde horretatik, Indarrean den plangintzaldiarako Jaurlaritzak zehaztu dituen irizpideek erakusten dute jarrera propaktiboagoak bultzatzeko asmo bat. Nabarmentzekoak dira honako hauek: lanpostu estrategiko¹⁰ guztietara zabaltzea da derrigortasun datak ezartzeko irizpidea, eta zabaltzea egin da jendaurreko lanpostuen izaera, lehenengo lerroan ez

diren baina herritarrekin harremana duten hainbat lanpostura (ikuskarriak, kontsultak,...). Gainera, lanpostuak derrigortasuna badu, lanpostu horri dagozkion ohiko komunikazioak langileak berak sortu beharko ditu euskaraz, itzultza bidali gabe. Era berean, aipagarria da adierazle bidezko ebaluazioa erabiltzea eta eboluzio hazkorreko helburuak ezartzea, bere buruari epeak eta helburu neurgarriak ezarriz: Era berean ebaluazioz ebaluazio metodologia, galdetegi, adierazle eta irizpideak mantendu egingo dira, helburuen eboluzio fidagarria ziurtatzeko. Neurketaren diakronia ahalbidetuko du horrek.

5. ZENBAIT PROPOSAMEN ADMINISTRAZIO EUSKALDUNA LORTZEN LAGUNTZEKO

Ia lau hamarkada joan dira euskara hizkuntza ofizial izendatu zenetik EAEn, eta aurrepausoak izan dira Administrazioa euskalduntzeko bidean. Edonola, aurrerabide horrek ez ditu ekarri, hein berean, herritarren hizkuntza eskubideen bermea, ezta euskaraz jarduten duen administrazio bat ere.

Zilegi da pentsatzea ere aukera batzuk galdu ditugula bidean eta Administrazioaren euskalduntzea tresna eragingarriagoa izan zitekeela, gizartea euskalduntzeko trakzio lanean. Jadantik herritarrok ezin gara konformatu euskararen normalizazioan dihardugula jakitearekin, harago joateko garaia heldu da, beste estadio batera igarotzeko garaia da: Administrazio euskalduna lortzeko garaia da, eta helburu horri epea jarri behar zaio.

Horiek horrela, Administrazioaren euskalduntzea eta bere jarduera linguistikoa arautuko dituen dekretu berriak honako ezaugarriak eta neurriak izan behar ditu:

Ezaugarriak

Hizkuntza eskubideen bermeak gidatu behar du erakundeen jarduera, ziurtatuz herritarren hizkuntza hautua errespetatzea, administrazioarekin dituzten harremanetan.

Hizkuntza politika aurreragarri bat garatu behar da, euskararen garapen soziolinguistikoak bizi duen aurrerabidearen logika berean doana, erabilera sozialean mugakizun handienak dituen hizkuntzaren alde jokatibide positiboko¹¹ neurriak garatuz (euskara lehenetsiz), erraztuz erabiltzaileei eta langile euskaldunei euskararen erabilera, eragozpenik eragin gabe, eta gizartea euskaraz bizitzera eragiteko trakzio lana eginez.

**Aurrepausoak
izan dira
Administrazioa
euskalduntzeko
bidean. Edonola,
aurrerabide
horrek ez ditu
ekarri, hein
berean,
herritarren
hizkuntza
eskubideen
bermea, ezta
euskaraz
jarduten duen
administrazio bat
ere.**

***Euskararen
normalizazioak
politika guztietan
ezarri behar da.***

***Era berean,
Administrazioa
osatzen duten
erakunde
guztietan eragin
behar du.***

Prebentzioaren ikuspegia barneratu behar da erakundeen lan moldeetan, politikak eta jarduerak diseinatzaren diren unean hizkuntzaren kudeaketaren aurreikuspena eta eragin linguistikoaren ebaluazioa eginez, euskarazko jarduera osasuntsu dagoen egoeretan atzerapausoak saihesteko, eta ziurtatzeko herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.

Eraginkortasunaren irizpidea barneratuko du, lehenbailehen eta modurik egokienean ziurtatzeko herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta Administrazio euskalduna.

Eragin esparrua

Euskararen normalizazioak politika guztietan (ogasunean, hirigintzan, industrian, garraioan, merkataritzan, aisian,...) ezarri behar da. Era berean, Administrazioaosatzen duten erakunde guztietan eragin behar du dekretuak, bereziki orain arte dekretuaren eraginpetik at zeuden beste erakunde publikoetan.

Dekretuak jasotzen dituen irizpideak lotesleak izango dira, bete beharrekoak.

Epeak

Administrazioek euskaraz lan egiteko eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko betebeharra noiz beteko duten zehaztuko da. Alde horretatik, gaur egungo langile guztiak euskalduntzeko epea zehaztuko du erakunde bakoitzak.

Administrazioko atal elebidun eta euskarazkoak

Gizartean eta administrazioan egin den euskalduntzeko ahalegina kon-tuan izanik, dagoeneko Administrazio osoak izan behar du, gutxienez, elebidun izendapena.

Alde horretatik, hizkuntza eskakizuna lanpostuari bakarrik jartzen dion eredutik sailen jarduerari ezarriko dion eredura igaro behar du administrazioak.

Euskarazko atalaren izendapena automatikoa izan behar da, langileen %75ek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua badu eta arduradun teknikoak 3. HE egiaztatua badu.

Era berean, jendaurreko eta gizarte mailako atalen arteko banaketa eguneratu behar da, biek dute eta zeregin nagusi administratuarekiko ha-

rremana. Horrela, zerbitzu eginkizuneko kategoria bakarra izendatu behar da. Gainera, beren jarduera bi hizkuntzetan izango denez, lanpostu guztiek izango dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko data. Horrela, erakunde publiko guztietako zerbitzu eginkizuneko atalak atal elebidun edo euskarazko atal gisa izendatuko dira.

Hizkuntza eskakizuna

Langile berri guztiek lanpostuari dagokion sarrera-froga euskaraz egingo dute. Gainera, herritarrekin harreman zuzena duten langileek gutxienez 2. HE izango dute; idatzizko ekoizpena ezinbestekoa den lanpostuetan 3. HE ezarriko da, gutxienez. Langile kualifikatuei 4. HE eskatuko zaie.

Hizkuntza-gaitasun agiriaren iraungitzea ezarriko zaio, bere jarduera euskaraz garatzen ez duen langileari.

Hizkuntza eskakizun jasoa langileen promoziorako betekizun bat izango da. Barne-promozioko lehiaketetan, euskaraz egingo dira azterketak. Euskara merezimendu gisa kontuan hartu ahaliko da, eskatutako gaitasuna baino handiagoa dutenen kasuan.

Derrigortasun data

Erretiroagatik hutsik geratu edo geratzekoak diren lanpostuei iraungitako derrigortasun datak jarriko zaie. Ezinezkoa izango du langileak lanpostua eskuratzea, hizkuntza eskakizuna betetzea derrigorrezkoa izanik, dagokion gaitasuna hasiera-hasieratik egiaztatzen ez badu.

Behin hizkuntza eskakizunaren derrigortasunaren data ezarrita, ezin izango da atzeratu. Langileak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badu, lanpostutik kentzeko espedientea hasiko du erakundeak.

Derrigortasun data jadanik iraungita izanik, lanean diharduten langileen kasuan, dekretu berria onartu osteko plangintzaldia izango dute beren gaitasuna egiaztatzeko azken data.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasuna duten lanpostuetan euskarazko jarduera (idatzizko ekoizpena eta ahozko erabilera) ezarriko da.

Salbuesteak

Adinagatik hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko salbuespenak bertan behera utzi behar dira, eta Euskara Maila Egiaztatzetik Salbuesteko

Erretiroagatik hutsik geratu edo geratzekoak diren lanpostuei iraungitako derrigortasun datak jarriko zaie. Langileak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badu, lanpostutik kentzeko espedientea hasiko du erakundeak.

**Dekretu berriak
jaso behar du
langile
euskaldunek
euskaraz lan
egiteko duten
eskubidea.
Hirugarren edo
laugarren
hizkuntza
eskakizuna
egiaztatua duten
langileek
euskaraz
garatuko dute
beren jarduera,
besterik adierazi
ezean.**

47/2012 Dekretuaren baldintzak betetzen dituzten hautagaiek ere Administrazioan sartzeko azterketa euskaraz egingo dute.

Langileen euskalduntzea eta trebakuntza jarraitua

Langile guztien euskalduntzea helburu duen eta epe zehatzak dituen programa zehaztu behar du erakunde bakoitzak, eta behar adina diru baliabide esleitu.

Ezarritako maila baino gaitasun altuagoa lortu nahi duten langileek euskara ikastaroak egiteko eskubidea izango dute. Gainera, eskola orduz gain bestelako interbentzio batzuk ere kontenplatuko dira, hala nola lan jakinen zuzenketak, motibazio saioak, ko-idazketa saioak, zailak argitzeko bitartekoak,...

Euskaraz gaituta ez dauden arduradun politikoek euskalduntze ikastaroak jaso beharko dituzte¹², B2 maila eskuratzeko, gutxienez.

Hirugarren edota laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek, euskaraz egingo dute edozein gairen inguruko trebakuntza jarraitua.

Plangintzaldirako gida-lerroak

Plangintzaldirako ematen diren irizpideen ezarpena behartu behar da. Horretarako, zer erantzukizun mota ezarriko den zehaztuko da, bai lan arloan, baita politikoa ere.

Zerbitzu eta lan hizkuntza

Herritarren hizkuntza eskubideen urraketa arean erantzuleak izendatuko dira, eta ondorio zigortzaileak zehaztuko dira.

Euskaraz lan egingo duten eta zerbitzua eskainiko duten euskarazko zirkuituak zehaztuko dira, eta horien antolakuntza nola egingo den zehaztuko da.

Dekretu berriak jaso behar du langile euskaldunek euskaraz lan egiteko duten eskubidea.

Hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz garatuko dute beren jarduera, besterik adierazi ezean.

Barne bileretan, hizkuntza nola kudeatuko den alde zehatzetik zehaztuko da, hobetsiz euskaraz mintzatzea eta dokumentazioa euskaraz izatea.

Barruko komunikazioetan euskaraz aritzea errazteko, langileak zein hizkuntzatan gaituta dauden adierazi behar da telefonoen zerrenda, langileen direktorio eta abarretan.

Erakundeak antolatzen dituen ekitaldi publiko edo hedabideen aurrekoak euskaraz izango dira, gutxienez. Bitarteko teknikoak jarriko dira herritarrek eta hedabideek informazioa nahi duten hizkuntza ofizialean jaso dezaten.

Administrazioen arteko harremana euskaraz izatea adostuko du erakundeak, bere eragin esparruko erakunde ahalik eta gehienekin, eta berariaz, udalerri euskaldunekin.

Euskararen erabilera normalizatzeko planak

Eboluzio hazkorreko helburuak ezartzeko, erakundeek erakutsi beharko dute, plangintzaldiaren hasieran, zein den adierazle horien arabera momentuko egoera, nondik abiatzen den erakunde bakoitza.

Administrazio kontratuetako hizkuntza baldintzak

Dekretuak jaso behar du Administrazio kontratuetan hizkuntza irizpideak ezarriko direla, herritarren hizkuntza aukera beti eta ororen gaitetik errespetatzeko. Era berean, kontratuetan hizkuntza irizpideak ez jartzeagatik gerta daitezkeen hizkuntza eskubideen urraketen aurrean erantzuleak izendatuko dira, eta ondorio zigortzaileak zehaztuko dira.

Prebentzio linguistikoaren ikuspegia

Politika publikoen eragin linguistikoa alde aurretik ebaluatzeko bitartekoak zehaztuko dituzte erakundeek, euskararen erabileraren aurkako eraginak malgutzeko zuzenketa neurriak barne.

Alde horretatik, udalerri euskaldunak bereziki babesteko bideak ezarriko dira, duten egoera soziolinguistikoari eusteko. ●

OHARRAK

1. "Hizkuntza normalizatzeko prozesua bideratu eta taxutzeko araudia honako esparru hauetan ezarriko da: a) Euskal Autonomia Elkarte Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak. b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia. c) Lan Harremanen Kontseilua. d) Foru- eta toki-administrazioak eta beren erakunde autonomoak. e) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak. f) Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileak".
2. 2015eko urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuaren testu bategina: https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2015/10/31/pdfs/BOE-A-2015-11719-E.pdf
3. KUARTANGO Atxa, Jon Ander, Bat aldizkaria, 2017.

**Kontratuetan
hizkuntza
irizpideak ez
jartzeagatik gerta
daitezkeen
hizkuntza
eskubideen
urraketen
aurrean
erantzuleak
izendatuko dira,
eta ondorio
zigortzaileak
zehaztuko dira.**

4. Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietako sailak 2016ko irailean emandako 389/2016 epaia.
5. Eusko Legebiltzarraren 56/2014 legez besteko proposamena.
6. Lanpostu hauen artean daude EAEko administrazio orokorraz gain, udal mankomunitate, koadrila, foru aldundi edota batzar nagusietako lanpostuak. Ez dira sartzen euskal sektore publikoko hainbat lanpostu (irakasleak, ertzainak, Osakidetzako medikuak, erizainak...).
7. "Hizkuntza eskakizunei buruzko azterketa kualitatiboa", Siadeco, 2012.
- 8 "udal idazkari batek, oro har, C1 beharko luke bere lana gauzatu ahal izateko; nolanahi ere, udalerrri handiko edo hiriburu bateko udal idazkarien kasuan, lanaren zereginak direla-eta, agian egokiagoa litzateke C2 eskatzea"
9. "Probablemente, en algunos puestos de trabajo se estén planteando exigencias más altas de lo necesario, p.e., pedir el EGA a un barrendero" DV, 2017/02/24
10. Erakundearen baitako hainbat ataletako langileekin lan harremanak dituzten lanpostuak (pertsonal-arduraduna, kudeaketa ekonomikoa, zerbitzu juridikoak edo informatikariak,...) eta beste administrazioekin harremanak dituztenak.
11. 2/2016 Udal legea: "toki-agintarien jardunak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan".
12. 2/2016 Udal Legea (25. artikulua. Printzipio orokorrak): "Lege honen 6.2 artikuluan jasotako aurreikuspenez gain, toki-erakundeek beren jarduerak euskaraz egitea ahalbidetze aldera, hautetsiek hizkuntza ofizialetan behar besteko gaitasuna (mintzatuaren eta idatziaren ulermena) izatea sustatuko da. Lege honen 17.26 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, sustapen hori, autoantolakuntza-printzipioari jarraiki, toki-erakunde bakoitzak ezartzen dituen neurriekin gauzatuko da".

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUOPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/XEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLOGIAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERRONKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGICA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLOGIAZKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRISKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLOGIAZKOAK IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGI BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKOAK (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKOAK (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIAK

106/EUSKAL SOZIOLOGIAZKOAK 2016KO DATU ESTATISTIKOAK

107/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)

108/OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

Komunikazio-kompetentziaren ebaluazioa eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan. EGAREN proba idatzia*

Paula Elosua

UPV/EHUko Psikologia Fakultatea
paula.elosua@ehu.eus

Antton Peñalba

EGAKo zuzendari akademiko ohia
anttp@gmail.com

Laburpena. Eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan, hizpide da hizkuntza gutxituan komunikatzeko kompetentzia nola aitortzen den gizarte- zein politika-mailan. Izan ere, herritarren lehen hizkuntza edozein dela ere, komunikazio-kompetentzia egiaztatzearen ondorioak larriak izan daitezke hainbat egoeratan. Ikuspuntu psikometrikotik komunikazio-kompetentzia ebaluatzeko tresnek xede duten populazioa askotarikoa denez, lehen hizkuntza askotarikoa, ezinbestekoa da lortzen diren emaitzen baliagarritasuna talde horietan guztietan bermatzea. Lan honetan, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko proba aztertu dugu, eta bereziki, proba idatziaren inbariantza ebaluatu dugu. Emaitzek erakutsi dute EGAREN proba idatzian inbariantza dagoela, nahiz eta, oro har, emaitzak altuagoak izan diren lehen hizkuntza euskara dutenen artean gainerakoen artean baino. Lan honek, halaber, azpimarratu du zein garrantzitsua den komunikazio-kompetentzia ebaluatzeko proben bidez lortutako emaitzen baliagarritasun-analisiak egitea, probatan oinarrituta hartzen diren erabakiak zuzenak eta bidezkoak izan daitezen. • *Hitz gakoak:* eremu urriko hizkuntzak biziberritzea, hizkuntzazko komunikazio-kompetentzia, EGA, baliagarritasuna.

Abstract. In regions seeking to strengthen and revitalise their lesser-used languages, the question of how to measure and verify communication competence is the subject of much debate at both a social and political level. The act of verifying speakers' communication competence in a specific language, regardless of their mother tongue, may have serious consequences in certain situations. From a psychometric perspective, since the target population of communication competence assessment instruments is very diverse, with a range of different mother tongues, it is vital to guarantee the usefulness of the results obtained for the entire group. This paper analyses the exam which must be passed in order to obtain the Basque Language Proficiency Certificate (*Euskararen Gaitasun Agiria* - EGA), with particular attention being paid to the invariance of the written test. The results reveal a good level of invariance in the EGA test, although in general, the results obtained by native Basque speakers are higher than those obtained by other groups. The paper also highlights the importance of conducting usefulness analyses on the results obtained using communication competence assessment tests, in order to ensure that the decisions made on the basis of these tests are correct and fair. • *Key words:* lesser-used language revitalisation, language communication competence, EGA, usefulness.

* Eskerrak: Lan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz egin da (GIU15/24, GIU18/88).

SARRERA

I Europako 31 erakunde publikok zein pribatuk bere egin duten Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak (EEMB) bigarren hizkuntzak (H2) irakasteko, ikasteko eta ebaluatzeko taxutze-marko orokorra eskaintzen du. EEMBk, ordea, ez du lehenengo hizkuntzaz (H1) hitz egiten; markoak ez du lehenengo hizkuntzetako irakaste- ikaste-prozesuak eta ebaluazioa aztertzen. Hala ere, eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan, Europako Markoaren eredua H1ekin ere erabiltzen da. Hau da, H1eko eta H2ko hiztunak paradigma berarekin edo aterki bakar baten azpian ebaluatzen dira. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia -erkidegoetan: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Nafarroan, Katalunian, Valentzian eta Galizian. Autonomia erkidego horiek euskararen, katalaneraren, valentzieraren eta galizieraren gaitasun-agiriak ematen dituzte. Nazioarteko ikuspuntutik, non ingeles-kompetentzia egiaztatzea ohikoa den, ulergaitza izan daiteke norberaren lehen hizkuntzaren gaitasun-agiria behar izatea. Eremu urriko hizkuntzen egoera diglosikoak eta horiek biziberritzeko planek argitu dezakete, ordea, gaitasun-agiri horiek zergatik behar diren.

Eremu urriko hizkuntzak biziberritzeak, oro har, bi helburu nagusi ditu: hiztunen kopurua zabaltzea eta hizkuntzaren egoera sendotzea. Bata zein bestea lortze-bidean, hizkera estandarra bultzatu, sendotu eta hedatu da. Hizkuntzaren estandarizazioak hizkuntza bera garatu eta komunikazioa erraztu ez ezik, gizarte-kohesioa bultzatu eta hezkuntza-ikasmaterialetan hizkuntza komuna edota estandarra erabiltzea ere ahalbidetzen du (Garvin, 1993; Lane, 2014). Dena dela, aitortu beharra dago hizkuntza estandarizatzeko prozesu horrek badituela albo-kalteak ere, hizkuntza ez-estandarren (euskalkien eta hainbat herri-hizkeren) zenbait forma eta hizkera-molde galtzea, alegia (Milroy, 2001).

Eremu soziolinguistiko batean bi hizkuntza edo gehiago harremanetan egoteaz gain, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean eta gainera hizkuntza horietakoren bat estandarizatzeko eta biziberritze-prozesuan dagoenean, eremu horretako herritarrek, askotan, erakutsi behar izaten dute eremu urriko hizkuntzan jarduteko komunikazio-kompetentzia dutela, bai esparru publikoan bai pribatuan lana eskuratu edo lanean irauteko. Komunikazio-kompetentzia egiaztatzearen oinarrian ideia nagusi bat dago: herritar ororen hizkuntza-eskubideak onartzea eta babestea, alegia. Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3.

Eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko lurraldeetan, Europako Markoaren eredua H1ekin ere erabiltzen da. Hau da, H1eko eta H2ko hiztunak paradigma berarekin edo aterki bakar baten azpian ebaluatzen dira.

Proben helburua izangaien kompetentzia neurtzea da, eta komunikazio-kompetenziaren kasuan, maiz, erreferentetzat EEMB hartzen da. Baina edozein neurketa-tresna baliagarria izango bada, eskakizun tekniko ugari bete behar ditu, eta psikometria da neurketa-tresna horien kalitateaz arduratzen den jakintza-arloa (ikus Elosua, 2005, 2010).


artikuluak (UNESCO, 1996) herritar orori bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen dio, bai eremu publikoan bai pribatuan, eta printzipio orokor hori jasoa dago lurralde bakoitzaren legerian, hain zuzen ere, hizkuntzei lege-estatusa emateko.

KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIA TALDE HETEROGENEOETAN. EMAITZAK BALIAGARRIAK DIRA?

I Edozein hizkuntzatan komunikazio-kompetentzia egiaztatzeko, estandarizaturiko probak (azterketak) erabiltzen dira. Proben helburua izangaien kompetentzia neurtzea da, eta komunikazio-kompetenziaren kasuan, maiz, erreferentetzat EEMB hartzen da. Baina edozein neurketa-tresna baliagarria izango bada, eskakizun tekniko ugari bete behar ditu, eta psikometria da neurketa-tresna horien kalitateaz arduratzen den jakintza-arloa (ikus Elosua, 2005, 2010).

Komunikazio-kompetentzia neurtzeko erabiltzen diren proben emaitzen aplikagarritasuna hertsiki lotua dago proba horiek ematen dituzten puntuazioen esangura substantiboarekin. Hizkuntza-proba bat ez da inolaz ere galdera edo ataza multzo bat soilik. Komunikazio-kompetentzia neurtzeko eredu teoriko batez gidatuta sortzen diren atazak ebaztetik lortutako kalifikazioak ereduaren beraren zenbakizko adierazpena dira; haren operazionalizazioa alegia. Horregatik, edozein probaren sortze-prozesuan ezinbesteko urratsa da zenbakizko emaitzaren (adierazpen formala) eta horren azpiko esanguraren (komunikazio-kompetentzia) arteko lotura aztertzea (ikus 1. irudia). Bi elementu horien uztardurak bakarrik bermatu ahal izango ditu emaitzetan oinarrituriko inferentziak eta interpretazioak. Psikometriaren esparruan, puntuazioen baliagarritasunak aztertzen du uztardura hori. Xedea litzateke egiaztatzea jatorrizko helburuak betetzen diren ala ez, hau da, egiaztatzea komunikazio-kompetentzia neurtzeko tresnak hori neurtzen duela eta ez beste ezer (ikus Elosua, 2003).

1. Irudia. Komunikazio-kompetentzia neurtzeko egiaztatze-proben egitura. Hau irudiaren azpian, oin-ohar moduan jartzea komeni da



Froga horiek berretsi egin behar dute proben emaitzetan oinarritutako erabakien eta inferentzien baliagarritasuna eta bidezkotasuna, bai azterketaren xede-hizkuntza H1dutenentzat bai H2 dutenentzat.

Baliagarritasuna da psikometriako kontzepturik garrantzitsuenak. Testen erabilera erreferentea den *Standards for Educational and Psychological Testing*-eko azkeneko bertsioan (*American Educational Research Association, American Psychological Association eta National Council on Measurement in Education, 2014*), hau aitortzen da: “Testen sorreraren eta balioespenaren alderdirik oinarritzakoa da baliagarritasuna”.

Gure esparruan, euskararen kasuan, H1eko eta H2ko izangaien komunikazio-kompetentzia ebaluatzen da. Ondorioz, beste hainbat analisirekin batera neurketa-eredu formalak —hau da, atazak eta galderak sortzeko erabiltzen den markoak— baliokidea izan behar du izangai guztientzat. Are gehiago, baliokidetasun hori egiaztatu egin behar da ebidentzia enpirikoen bidez. Froga horiek berretsi egin behar dute proben emaitzetan oinarritutako erabakien eta inferentzien baliagarritasuna eta bidezkotasuna, bai azterketaren xede-hizkuntza H1dutenentzat bai H2 dutenentzat (Messick, 1989). Ebidentziek bermatu behar dute, azken batean, ebaluazio-prozesua bidezkoa dela.

Argudioetan oinarritutako baliagarritasunaren ikuspuntutik (Kane, 2013), talde heterogeneoetan edo jatorri askotariko izangaien artean egiten diren probek berme hau behar dute: emaitzen orokortze-inferentziak bultzatzeko ebaluazio-prozesuak egiaztatu egin behar du neur-

Itxura guztien arabera, lagunarteko ahozko hizkeran bada alderik definitutako hiru taldeen artean (lehen hizkuntza euskara; lehen hizkuntza euskara/gaztelania, eta lehen hizkuntza gaztelania), baina hizkuntza idatzian taldeen arteko aldea askoz txikiagoa dela uste da.

tzen den konstruktua ez duela alboratzerik eragiten izangaien taldeen artean. Bestela esanda, emaitzen baliagarritasunaren frogen berri eman behar da (AERA, APA eta NCMEA, 2014).

Hizkuntzen ebaluazioaren esparruan, ez da gaur arte gai horri buruzko ikertze-lanik argitara eman. Hizkuntzen aldetik eleanitzak diren eremu urriko hizkuntzen lurraldeetan, helburua ez da hainbat hizkuntza-jatorri duten izangaiak egiten duten probaren baliokidetasuna bermatzea; kontua da hizkuntza ofizial batean egiaztatu behar dela gaitasuna, hizkuntza hori lehen hizkuntza, eskola-hizkuntza edo H2 izan badaiteke ere. Eremu urriko hizkuntzen lurraldeetan, H2 ez da atzerriko hizkuntza: H2 da hizkuntzaz jabetzeko prozesuan erabilera-esparru naturalak eta formalak uztartzen dituen hizkuntza.

AZTERKETAREN HELBURUA

Testuinguru horretan, euskararen komunikazio-kompetentzia aitortzeak duen eragina kontuan izanik, erabaki dugu EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) azterketaren emaitzen konparagarritasuna analizatzea, EGAREN izangaien lehen hizkuntzaren arabera.

Azterketa egiteko bi galdera hauei erantzun nahi diegu:

1. Zein da EGAKo proba idatziaren barne-egitura?
2. Lehen hizkuntzak eraginik badu EGAKo proba idatziaren egituran?

Itxura guztien arabera, lagunarteko ahozko hizkeran bada alderik definitutako hiru taldeen artean (lehen hizkuntza euskara; lehen hizkuntza euskara/gaztelania, eta lehen hizkuntza gaztelania), baina hizkuntza idatzian taldeen arteko aldea askoz txikiagoa dela uste da; izan ere, eskolaren testuinguruan erabiltzen da batez ere hizkuntza idatzia, eta ikasle gehienek euskarazko ereduetan ikasten dute. Hauek dira 2016-2017 ikasturteko matrikulazio-datuak, Haur Hezkuntzan (3-5 urte): D ereduan % 78,96, B ereduan % 17,94 eta A ereduan % 3,08.

Egindako zehaztapenak buruan, lehendabizi, labur bada ere, neurketaren inbariantzaren kontzeptua deskribatuko dugu, eta ondoren, analisisien eta emaitzen berri emango dugu.

NEURKETAREN INBARIANTZA HIZKUNTZA-PROBETAN

Zuzena eta bidezkoa den ebaluazio batean, neurketa-tresna baten ezaugarriak ezin dira aldatu taldearen ezaugarrien arabera. Natura-zien-

tzietan oinarrizkoa den printzipio hori gizarte-zientzietan frogatu beharreko hipotesia da. Tresna bat inbariantea da probak neurtzen duen ezkutuko aldagaian —komunikazio-kompetentzia, gure kasuan— maila berdina dutenei puntuazio berdina ematen badie (Elosua eta Hambleton, 2018; Meredith, 1993). Adibidez, eman dezagun balizko item hau. Item hipotetiko honen helburua gaitasun lexikoa neurtzea da:

2. irudia. Balizko itema.


Autoa egin zaio, ez duelako behar bezala lehortu.

- a. Pozoitu
- b. Ugertu
- c. Gaiztotu
- d. Zuhurtu

**** Erantzun zuzena b**

Itema bizkaitarrek eta gipuzkoarrek erantzun dute. Hirugarren irudiko grafikoak erakusten duenaren arabera, gaitasun lexikoaren maila berdina dutenen artean (irudian ikus daitekeen bezala, 6 gaitasun-maila daude adibide honetan) bizkaitarrek hobeto erantzuten dute gipuzkoarrek baino. Hau da, itema errazagoa da bizkaitarrentzat; gipuzkoarrak gaitasunaren neurketan kaltetuak atera dira. Itemaren helburua, ordea, ez da bizkaiera-maila neurtzea, eta, ondorioz, itema alboratua dela esango genuke. Neurketa-tresna hori, item hori, ez da inbariantea, bere ezaugarri metrikoak ez baitira berdinak hiztun talde horietan. Itemak funtzionamendu diferentziala du eta gipuzkoarrak alboratu egiten ditu, kaltetu.

3. irudia. Inbariantzarik gabeko itema. Funtzionamendu diferentziala.



**Euskararen
Gaitasun Agiria
(EGA)
eskuratzeko
azterketa Eusko
Jaurlaritzaren
Euskara
Zerbitzuak
kudeatzen du.
EGA 1982an
sortu zen eta,
harrezkero, 70
deialdi izan dira.
Urte horietan,
150.000 lagun
inguruk eskuratu
du EGA agiria.
EGArekin
konstruktua
teorikoa ikuspegi
komunikatiboan
oinarritzen da
eta Europako
hizkuntza-
ebaluatzaileen
elkartearen eta
Europako
Erreferentzia
Marko
Bateratuaren
(EEMB, 2001)
irizpideak
errespetatzen
ditu.**

Neurketa-tresna inbariantea denean, taldeen artean puntuazioan egon litezkeen aldeak ez dira taldeen artean dauden hainbat faktorek eragin-dakoak, lehen hizkuntzak edo jatorriak, esaterako. Inbariantza izatea, beraz, ezinbestekoa da alborapenik ez izateko. Kasu horretan, erantzun zuzena ez du neurketaren xede den gaitasun lexikoak bakarrik mugatzen. Badago erantzunean eragina duen beste faktoreren bat, neurketa baldintzatzen duena, eta faktore hori lotua egon ohi da talde sozial batekin, linguistiko batekin edo kultural batekin. Gure adibidean bizkaieraren (euskalkiaren) ezagutzarekin lotua.

EUSKARAREN GAITASUNA NEURTZEKO PROBA. EGA

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketa Eusko Jaur-laritzaren Euskara Zerbitzuak kudeatzen du. EGA 1982an sortu zen eta, harrezkero, 70 deialdi izan dira. Urte horietan, 150.000 lagun inguruk eskuratu du EGA agiria. EGArekin konstruktua teorikoa ikuspegi komu-nikatiboan oinarritzen da (Bachman and Palmer, 1996; Canale eta Swain, 1980) eta Europako hizkuntza-ebaluatzaileen elkartearen (ALTE, 2001) eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB, 2001) irizpideak errespetatzen ditu. EGAK 2010 ezker du ALTEren (*Association of Lan-guage Testers in Europe*) Q kalitate-agiria (ALTE QSM Quality Manage-ment System. Q202), eta 2017an berretsi berri dio ALTEk agiri hori. C1 mailako azterketa goi-mailako azterketa da, EEMBren arabera. EGA lortzen duena erabiltzaile gaitua eta eraginkorra da. Hona hemen zer dioen EEMBk C1 mailako gaitasunari buruz:

“C1 maila duen hizkuntza-erabiltzailea gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jariatasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz” (HABE, 2005,: 44. or.)

EGArekin helburua, beraz, goi-mailako hizkuntza-gaitasuna eta giza ko-munikaziorako erabilera egiaztatzea da. Ez du erabilera berezietarako gaitasuna eskatzen (hezikuntza, itzulpena edo kazetaritza), baina ko-munikazio-kompetentziaren erreferentzia gisara hartzen da irakaskun-tzan eta beste hainbat esparrutan.

EGAREN izangaiek hainbat arrazoi dituzte EGA azterketa egiteko. Bartzuek arrazoi profesionalak dituzte; izan ere, EGA agiria erreferentzia da beste gaitasun profesionalak ere eskatzen dituzten hainbat lanpostutan. Beste bartzuek, berriz, arrazoi pertsonalak dituzte, esate baterako, duten euskara-gaitasuna egiaztatzea. Probara aurkezteko gutxieneko adina 17 urte da. Atazen egituraren aldetik, EGAK bi proba ditu: proba idatzia eta ahozko proba. Atariko proba EGA azterketa egin ahal izateko sarbidea da.

Proba idatziak sei ataza ditu:

1. *Elkarrizketa-testua*. Izangaiek elkarrizketa-testu batean hamar hutsune bete behar dituzte. Hutsune bakoitza betetzeko hiru aukera eskaintzen zaizkie. Guztira 5 puntu balio ditu, zuzen betetako hutsune bakoitzak puntu erdia.
2. *Lexikoa*. Ataza honetan testu literario labur bateko 10 hitzen baliokideak eman behar dituzte izangaiek. Hitz bakoitzeko lau aukera dituzte eta bakarra da zuzena. Atazak 5 puntu balio ditu, erantzun zuzen bakoitzeko puntu erdia.
3. *Irakurmena*. Izangaiei hiru testu ematen zaizkie, bi labur eta luze bat. Guztira aukera anitzeko 10 itemi erantzun behar diete izangaiek, 5 item testu laburrei dagozkienak eta gainerako 5ak testu luzeari dagozkionak. Irakurmenak 10 puntu balio ditu, zuzen erantzundako itemeko puntu 1.
4. *Esaldiak berridatzi*. Izangaiek hamar esaldi berridatzi behar dituzte. Ataza horrek 10 puntu balio ditu, zuzen berridatzitako esaldiko 1 puntu.
5. *Idazlan laburra*. Izangaiek gutxienez 150 hitz dituen testu bat idatzi behar dute ataza horretan. Bi gai ematen zaizkie aukeran: bata gutun bat idazteko eta bestea gogoeta bat egiteko. Idazlan laburrak 0-10 puntu balio ditu.
6. *Idazlan luzea*. Izangaiek gutxienez 250 hitz dituen testu bat idatzi behar dute, alegia, aldizkari baterako testua. Azalpen-testu bat edo argudio-testu bat idatzi behar dute. Informazio zabala duten bi dossier eskaintzen zaizkie, bat aukera dezaten. Idazlan luzeak, laburrak bezala, 0-10 puntu balio ditu. Idazlanak (luzeak zein laburrak) kalifikatzeko hiru azpi-gaitasun hartzen dira kontuan: edukia (0-3), testuaren moldea (kohesioa eta koherentzia) (0-3) eta zuzentasun gramatikala (0-4).

Ahozko probak bi trebetasun ebaluatzen ditu: mintzamena eta entzumenena.

**Ikerketa
honetan, 2.554
lagunen emaitzak
aztertu dira:
1.471
emakumezko eta
1.080 gizonezko.**
**Izangaien lehen
hizkuntzari (H1)
dagokionez,
laginaren
banaketa hau da:**
**(a) euskara %
46,6 (N = 1.267),
(b) gaztelania %
26,56 (N = 679)
eta (c) euskara
eta gaztelania %
23,80 (N = 608).**

1. *Mintzamena.* Bi ataza ditu: bakarrizketa eta bi lagunen arteko elkarrizketa. Proba binaka egiten dute izangaiek. Bakarrizketarako, bakoitzari testu bat ematen zaio eta, 20 minutuko prestatze-lanak egin ondoren, bere bikoteari 5 minutuko azalpena egitea eskatzen zaio. Elkarrizketarako, gai beraren ikuspegi bana ematen zaie bi izangaiei. Biek bakoitzari egokitu zaion iritzia defendatu eta eztabaidan jardun behar dute 5 minutuz. Ataza bakoitzak 0-20 puntu balio ditu.

2. *Entzumena.* Izangaiek grabazio bat entzuten dute eta aukera anitzeko 20 itemi erantzun behar diete. Atazak 10 puntu balio ditu, zuzen erantzundako itemeko puntu erdia.

Azterketa osoa bi egunetan egiten da: lehenengo egunean proba idatzia eta bigarrenetan ahozkoa. Proba idatzia gainditzen duten izangaiek bakarrik egin dezakete ahozko proba.

METODOA

I

Lagina

Ikerketa honetan, 2.554 lagunen emaitzak aztertu dira: 1.471 emakumezko eta 1.080 gizonezko. Izangaien batez besteko adina 20,96 da eta horren desbideratze tipikoa (DT) 7,48. Izangaien lehen hizkuntzari (H1) dagokionez, laginaren banaketa hau da: (a) euskara % 46,6 (N = 1.267), (b) gaztelania % 26,56 (N = 679) eta (c) euskara eta gaztelania % 23,80 (N = 608). Lehen hizkuntza EGAren matrikula-erregistroa egiterakoan izangai bakoitzak bere buruari aitortzen dion aldagaia da. Matrikula-erregistroan aldagai horrek sei maila ditu (euskara baino ez, euskara batez ere, gaztelania baino ez, gaztelania batez ere, euskara/gaztelania, besterik), baina azterketa egiteko sei maila horiek hirura ekarri dira (euskara, euskara eta gaztelania, eta gaztelania).

Datuen analisisa eta emaitzak

Analisiak egiteko, EGA azterketaren proba idatzia osatzen duten atazetan lortutako kalifikazioak aztertu dira. Datu-analisisa ekuazio estrukturalak izeneko metodologian oinarritu da (Structural Equation Modeling; SEM; ikus. Elosua eta Muñiz, 2010).

Taldeen arteko diferentziak

Espero zen bezala, emaitza orokorrak ezberdinak izan dira hiru taldeetan. Lehen hizkuntza euskara duen taldeak atera du batez besteko balio

altuena eta lehen hizkuntza gaztelania duenak baxuena (1. taula). Bina-
kako alderaketek erakutsi dute lehen hizkuntza euskara ($BB_{\text{euskara}} = 28,32$; $DT = 5,14$) duten eta lehen hizkuntza gaztelania ($BB_{\text{gaztelania}} = 27,24$; $DT = 4,60$) duten taldeen arteko aldea esanguratsua dela benetan ($p < 0,01$). Aldiz, aldeak ez dira esanguratsuak izan ($p = 0,09$ eta $p = 0,08$), ez lehen hizkuntza euskara duten eta euskara/gaztelania ($BB_{\text{euskara/gaztelania}} = 27,82$, $DT = 4,64$) duten taldeen artean, ez lehen hizkuntza gaztelania duten eta euskara/gaztelania duten taldeen artean.

1. taula. Lehen hizkuntzaren arabera deskribatzaile estatistikoak.


Lehen hizkuntza	Batez bestekoa	DT
Euskara	28,32	5,14
Euskara/Gaztelania	27,82	4,64
Gaztelania	27,24	4,60
Oharra. DT = Desbideratze Tipikoa		

EGAre barne-egitura

EGAre bidez lortzen diren kalifikazioak komunikazio-konpetentziaren adierazle badira, EGA osatzen duten ataza guztiek konstruktua horrekin lotuta egon beharko dute. Ideia hori adierazten du 3. irudiak. Egitura hori enpirikoki egiaztatzeko, faktore-analisi baieztatzaileak zenbatetsi dira, eta emaitzek erakutsi dutenez, esaterik badago ataza guztiek zerbait komunean badutela. Komunean duten horri komunikazio-konpetentzia deritzogu. Emaitzak laburki azaltzeko adierazle bakarra erakusten dugu, CFI izenekoa (*Comparative Fit Index*; doiketa-adierazle konparatiboa). Adierazle hori 0 eta 1 artekoa da eta, ontzat hartzeko, 0,9 tik gorakoa izan behar du. CFI balioak kasu guztietan ebakidura-puntuaren azpitik daude ($CFI_{\text{euskara}} = 0,90$; $CFI_{\text{euskara/gaztelania}} = 0,90$; $CFI_{\text{gaztelania}} = 0,86$) (ikus 2. taula). Atazen ezaugarriei erreparatuz gero, nabaria da idazlan luzea eta idazlan laburra atazen arteko antzekotasuna. Bi ataza horien arteko lotura eta ataza horiek beste atazekin duten lotura kontuan hartuta, ikus daiteke lotura handiagoa dela idazlan luzearen eta idazlan laburraren artekoa. Hori kontuan izanik, formalki lotura hori gehitu diogu ereduari (atazen arteko korrelazioa; ikus 3. irudia). Lagin bakoitzerako eredu berrespezifikatuak zenbatetsi dira, eta emaitzek erakusten dutenez, eredu horien doitze-maila hobea da (ikus 2. taula).

EGAre bidez lortzen diren kalifikazioak alborapenik ez badute, EGA sortzeko erabili den komunikazio-konpetentziaren eredua ez da izangaien lehen hizkuntzaren arabera aldatuko.

4. irudia. EGAren barne-egitura. Jatorrizko eredua eta eredu eraldatua.



2. taula. EGAren barne-egiturari dagozkion adierazleak.

Lehen hizkuntza	Ereduak	CFI
Oinarritzko ereduak		
Euskara	Jatorrizkoa	0,90
	Eraldatua	0,96
Euskara/Gaztelania	Jatorrizkoa	0,90
	Eraldatua	0,99
Gaztelania	Jatorrizkoa	0,86
	Eraldatua	0,99
Inbariantza-ereduak		
	Oinarritzkoa	0,96
	Metrikoa	0,96

Datuek erakusten dute eredu eraldatuan lortzen diren doitzeko-adierazle konparatiboaren (CFI) emaitzak onargarriak direla; izan ere, 0,90etik gorakoak dira eta, gainera, asko gerturatzen dira 1 baliora.

Neurketa-tresnaren inbariantza

EGAren bidez lortzen diren kalifikazioak alborapenik ez badute, EGA sortzeko erabili den komunikazio-kompetenziaren eredua ez da izangaien lehen hizkuntzaren arabera aldatuko. Hori hala den ala ez baieztatzeko, eredua lehen hizkuntzaren arabera sortutako laginetan zenbatetsi da. Emaitzek erakusten dutenez (ikus 2. taula), ereduaren konfigurazioa berdina da aztertutako hiru taldeentzat (CFI = 0,96). Hori inbariantzaren

lehen baldintza izanik, atazen eta komunikazio-konpetentziaren arteko loturen indarrak berdinak diren ala ez ere aztertu behar da (inbariantza metrikoa). Gure kasuan eta lortutako balioei so eginez gero, atazen eta komunikazio-konpetentziaren arteko loturak taldez talde berdinak direla ondorioztatzen da. EGA azterketa osatzen duten proben barne-egitura, beraz, berdina da lehen hizkuntzaren arabera definitutako taldeetan.

Eztabaida

Eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko planetan, hizkuntza-gaitasunaren agiria eskatzen da hizkuntza-eskubideak defendatzeko, lanpostu publikoak eskuratzeko eta, sarri askotan, baita lanpostu pribatua eskuratzeko ere. Eremu urriko hizkuntza-hiztunek hizkuntza-gaitasuna dutela frogatzeko, ezinbestekoa dute gaitasun-agiria, bai hizkuntza hori H1 dutenek, bai H2 dutenek. Oro har, lehen hizkuntza eremu urriko hizkuntza duten familietakoek harreman estuagoa eta ugariagoa dute eremu urriko hizkuntzarekin, eremu urriko hizkuntza hitz egiten ez duten familietakoek baino. Hala ere, bidezko ebaluazioan, hizkuntzarekin izandako harremanak ez luke eraginik izan behar egiaztatze-proben emaitzen baliagarritasunean. Ebaluazio-tresna bera erabiltzen bada lehen hizkuntza ezberdina duten izangaien gaitasuna ebaluatzeko, ebaluazio-tresna horrek ezaugarri bertsuak izan behar ditu talde guztien gaitasuna neurtzeko. Bestela esanda, proba baten barneko egitura lehen hizkuntzaren arabera aldatuko balitz, probaren emaitzetan hainbat izangai alboratu egingo lituzke eta emaitza horietan oinarrituta ateratako ondorio guztiak bidegabeak izango lirateke, bai psikometriaren ikuspegitik bai gizarte-egokitasunaren aldetik (AERA. APA eta NCMEA, 2014).

EGA azterketa aztergai duen ikerketa-lan honetan, lehen hizkuntzaren arabera egindako taldeetako izangaien errendimenduan izan daitezkeen aldeak aztertu ditugu lehenbizi, eta, ondoren, azterketaren barne-egitura eta azterketaren inbariantza ebaluatu ditugu. Espero bezala, emaitzek erakutsi dute badirela aldeak. Kalifikazioei begiratuz gero, ikusten da lehen hizkuntza euskara dutenek lortzen dituztela oro har kalifikazio altuenak, horien atzetik ditugu lehen hizkuntza euskara/gaztelania dutenak eta, azkenik, lehen hizkuntza gaztelania dutenak. Diferentzien tamainaren analisiak erakutsi dute lehenengo bi taldeen artean aldeak hutsalak direla, eta lehen hizkuntza euskara dutenen eta lehen hizkuntza gaztelania dutenen artean ere aldea txikia dela.

SEM markoan, neurketaren inbariantza analizatu da. Komunikazio-konpetentziaren eredu dimentsiobakar bera egokitu zaio EGARI, eta,

Gure kasuan eta lortutako balioei so eginez gero, atazen eta komunikazio-konpetentziaren arteko loturak taldez talde berdinak direla ondorioztatzen da. EGA azterketa osatzen duten proben barne-egitura, beraz, berdina da lehen hizkuntzaren arabera definitutako taldeetan.

**Esan liteke
analisien
emaitzek
erakusten dutela
euskararen
gaitasuna
ebaluatzen duen
EGAren proba
idatziaren
eredua, lehen
hizkuntzaren
arabera bereizi
diren hiru
taldeetan
(euskara,
euskara/gaztela-
nia eta
gastelania) erabil
daitekeela, nahiz
eta, espero
bezala, lehen
hizkuntza
euskara duten
taldeko izangaiek
batez besteko
kalifikazio
altuagoa lortu
gainerakoek
baino.**

idazmeneko bi atazak lotura dutela ikusi ondoren, inbariantzaren azterketak erakutsi du eredua berdina dela hiru taldeetan.

Laburbilduz, esan liteke analisien emaitzek erakusten dutela euskararen gaitasuna ebaluatzen duen EGAren proba idatziaren eredua, lehen hizkuntzaren arabera bereizi diren hiru taldeetan (euskara, euskara/gaztelania eta gastelania) erabil daitekeela, nahiz eta, espero bezala, lehen hizkuntza euskara duten taldeko izangaiek batez besteko kalifikazio altuagoa lortu gainerakoek baino.

Komunitate elebidunetako hizkuntza-politikak eta hizkuntza biziberritzeko hartzen diren neurriak betiere eztabaidagarriak diren arren, komunikazio-kompetentzia egiaztatze erabiltzen diren tresnek analisi psikometrikoen babesa izan behar dute, ebaluazioak zuzenak eta bidezkoak izango badira. Ebaluazio-tresnetan alborapena egoteak hainbat herritarri kalte egin diezaioke (Elosua eta Hambleton, 2018); izan ere, horrek egokiak ez diren hainbat erabaki hartzea eta besteak beste hainbat izangairi lanpostua ez eskuratzea ekar diezaioke, ondorioz. Hizkuntzaren egoera normaltzeko planak martxan jartzen direnean, normalizatze horren parte izaten dira komunikazio-kompetentzia egiaztatze probak; horiek hizkuntza-eskubideen defentsarekin bat datozen jardunbidea izaten dira. Psikometriaren ikuspuntutik, egiaztatze-proben bidez lortzen diren emaitzen baliagarritasunaren analisiak oso lagungarriak izango lirateke, bai ebaluazio-tresnak hobetzeko, bai tresna horiek gizartean duten onarpena eta sinesgarritasuna handitzeko eta sendotzeko. ●

ERREFERENTZIAK

- American Educational Research Association, American Psychological Association, eta National Council on Measurement in Education. (2014). *Standards for Educational and Psychological Testing*. Washington DC: American Educational Research Association.
- ALTE. (2001). *Principles of good practice for ALTE examinations*. ALTE working group.
- Bachman, L. F., eta Palmer, A. S. (1996). *Language Testing in Practice*. Oxford: Oxford University Press.
- Browne, M. W., eta Cudeck, R. (1992). "Alternative ways of assessing model fit." *Sociological Methods eta Research*, 21: 230-258. doi: 10.1177/0049124192021002005
- Canale, M., eta Swain, M. (1980). "Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching eta testing." *Applied Linguistics*, 1: 1-47. doi: 10.1093/applin/I.1.1

- Council of Europe. (2001). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching eta Assessment*. Strasbourg.
- Elosua, P. (2003). "Sobre la validez de los tests" *Psicothema* 15(2), 315-321.
- Elosua, P. (2005). *Psikometria. Testen eraketa eta erabilpena*. Bilbo, U.P.V./E.H.U.
- Elosua, P. (2010). *R gizarte-zientzietarako. Datuen eta Eskalen analisisa Rcom-metaer-ekin*, EHU
- Elosua, P., eta Hambleton, R. K. (2018). "Psychological eta Educational Test Score Comparability Across Language eta Cultural Groups in the Presence of Item Bias." *Journal of Psychology eta Education* 13(1), 23-32. doi: <http://dx.doi.org/10.23923/rpye2018.01.155>
- Elosua, P., eta Muñiz, J. (2010). "Exploring the factorial structure of the Self-Concept: A sequential approach using CFA, MIMIC eta MACS models, across gender eta two languages." *European Psychologist* 15, 58-67. doi:10.1027/1016-9040/a000006
- Garvin, P. (1993). "A conceptual framework for the study of language standardization." *International Journal of the Sociology of Language* 100: 37-54. doi: 10.1515/ijsl.1993.100-101.37
- Kane, M. T. (2013). "Validating the interpretations eta uses of test scores." *Journal of Educational Measurement*, 50: 1-73. doi: 10.1111/jedm.12000
- Lane, P. (2015). "Minority language standardisation eta the role of users." *Language Policy*, 14, 263-283. doi: 10.1007/s10993-014-9342-y
- Messick, S. (1989). "Validity." In *Educational Measurement*. 3rd ed , edited by Robert L Linn, 13-103. New York, NY Engleeta: Macmillan Publishing Co, Inc;.
- Milroy, J. (2001). "Language ideologies eta the consequences of standardization." *Journal of Sociolinguistics*, 5: 530-555. doi: 10.1111/1467-9481.00163
- Meredith, W. (1993). "Measurement invariance, factor analysis, eta factorial invariance." *Psychometrika*, 58: 525-543. doi: 10.1007/BF02294825
- UNESCO. (1996). *Universal declaration of linguistic rights*. Barcelona: UNESCO

bat aldizkariaren 2019ko **dossierak**

110. ZENBAKIA

ARNASGUNEAK ARNAS BILA

~

111. ZENBAKIA

BIZINDAR DIGITALA

~

112. ZENBAKIA

EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA BERRITUZ

~

113. ZENBAKIA

XII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

